



EJERZIZIOAK-I

Agustin Kardaberaz

Iturria: *Euskal lan guztiak*, Agustin Kardaberaz (faksimilea).
La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazEjertzioakI.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**AITA S. IGNAZIO LOIOLAKOAREN
EJERZIZIOAK
BEREN KONSIDERAZIO,
TA AFEKTOAKIN**

Jaungoikoaren Ministro, ta Konfesore Jaun zelosoi, Animen probetxurako, Jesus-en Konpaniako Aita Agustin Kardaberaz-ek eskentzen, ta dedikatzen dieztenak.

BEHAR DAN BEZALA.

Iruñeko Librugille Antonio Castilla-ren etxean.



IRAKURLE EUSKALDUNARI

Jesu Kristoren pakea

Zeruko Liburu miragarri, mundu guztiaren onerako, Euskaldun bati zeruak emana, ta gure Euskerak noizbat ikusi bear zuena, Jainkoaren graziaz zure eskuetan artzen dezu. Au da zeruko bidea Aita San Ignaziok ikasi, ta munduari erakusteko eskribitu zuena.

Jesu Kristoren, Ama Birjiñaren, ta Santu guzien Bizitzetako Loreen artean, ta Ispillu eder orien aurrean, Loiolako Etxe zorionekoan Ignazio beregantzen Jaungoikoa asi zan: bere amoriozko begiaz Ignaziori begiratu zion: eta Ignaziok Ispillu argi artan bere burua ikusi zuen: eta Jesus onak, ta bere Ama maiteak esku emanik, lurreko gauza, ta banidadeetatik jaiki, ta guztia zeruko gauzetara biurtu zan.

Ama Birjiñaren, ta San Pedroren faborez sendatu, ta bere Loiolako Etxe onetatik Monserrateko Birjiña guziz Santaren Etxera joan, ta Soldadu berriaren gisa, an beillaturik, bere Armak, ta are geiago bere biotz prestua Zeruetako Erregiñari agindu, edo betiko eman, ta Manresako leku jakinera igaro zan.

Emen Lurruspe, edo Kueba famatu artan, arrigarizko penitenzien artean, zeruko Eskolan bezala, Espiritu Santuaren argi andiak, ta Ama Birjiñak laguntzen ziola Ejerzizioen Liburu au eskribitu zuen. Ta ez Paris-ko Unibersidadean Dotore, edo Maisuaren Gradua artu ezker; ezpada estudiantik batere etzuela, eta Soldadu baliente, guapoaren armak, bere edadearen lorean eskutik utzi, ta bereala.

Mirarizko Liburu onetan, ta Ignazioren eskuetatik au agertzeko moduan, munduari Jainkoak aditzera eman zion, nola erremienta, edo instrumenturik argalenak bere gloriaren egitekorik andienetarako artzen zituen; eta beraren eskuetan anbat dala alambre, edo ari me bat, nola burni balenkarik sendoena: gloria guzia Jaungoikoari, berea bezala, biurtu dakion. Obrak dira seña, ta Ejerzizioetako Santuak muestrarik onenak.

Liburu onetatik zeruko lezioak Indietako Apostolo San Franzisko Xabier batek artu zituen. Ejerzizio oietatik suak, eta garrak atera zituen; ta aiek alakoak, bere amar urteko Misioan Jentilen artean, mundu berrian erazaki, ta zabaldu zituenak. Fedearen argia ainbeste milla animan emateko, eta Jesu Kristoren grazia ekartzeko. Nork kontu ditzake Xabier batek egin zituen azañak, eta milagroak. Milloi bat, eta eun milla anima,

ta geiago bateatu zituela, esan oi da. Ta guzia Ejerzizio oien frutua izan zan.

Aita Pedro Fabro miragarri, ta beste Ignazioren Lagun Santuak ori bera gertatu zitzaizen. Ejerzizioetatik atera zuten alako animen egarri, edo zela, Jentilen, ta Herejeen artean ainbeste pekatati erabazteko. Aita San Ignaziok bere lenengo Lagun maite, Aingeru, edo zeruko Mandatari, Aita Fabro au izan zuen, Xabier, ta beste asko irabazteko, ta guzien artean oni Ejerzizioak ondo emateko aurreneko lekua ematen zion.

Ejerzizioen zeruko Eskola au San Franzisko Borjaren ejemplo, ta zelaok txit asko aurretatu zuen. Duke andi orañdik zala Ejerzizio oiek egin, ta egiaren etsai itsuai argi egiteko, eta beren ao loiak itxi, edo sekulako tapatzeko, Aita Santu Errenakoaren Ondodagoa, edo Espiritu Santuaren argia, ta Ejerzizioen Konfirmazioa, berariatzko Buldan. Ignazioren Liburu onenat, ditxa andiaz, mundu guziari agertu zion. Zeruko fabore asko estimatzekoa, ta Liburu gutxik duen pribilejioa.

Ejerzizioetatik San Juan Francisco Regis batek bere Misioetako ezin esan alako nekeak eramateko karidade, ta pazientzia miragarria atera zuen, eta ala Jainkoaren amoriora ainbeste anima ekarri zituen.

Zeruko Sutegi Ejerzizioen onetan, irazaki, urtu, ta añ laster munduaren zat desegin ziran, lurrean zeruko Aingeru Santutxo gozo biak Luis Gonzaga, ta Estanislao Coca: au amazapi ur tekoa, Luis ogei eta iru urteoa. Liburu onetako lezioekin, egaka bezala zeruetara igo, edo bolatu ziran. Ta orrela beste Santu asko, ta justu, ezin kontatu ala, Jesus-en bide erreal segutu onetatik Zerura joan dira, ta dijoaz beti.

Beste Liburu Santuen artean, Jaungoikoak Ignazioren au berea bezala, seña, ta mundu guziari agertu dio. Lekurik esta añ urruti, edo eskuaturik, añ atze, edo azturik, non Liburu onek, Eguzki baten gisan bete zeruko argi eder, ta beroak, guzien onerako banatu ez dituen.

Indietako Misioneroak eskribitzen dute, itxaso zabal oriek igaro, eta aronzago, an Jentilen erri, edo zokoetaraño Ejerzizio santuen, edo Ignazioren argi, edo sugarrak allegatu, ta barrendu dirala: ta abereen gisa, Fede gabe, Lege gabe, ta Errege gabe len bizi ziranak, orañ Aita S. Ignazioren Ejerzizioak Indietako urrutietan, fede miragarri, orazio luze, ta penitentzia arrigarritzkoaz egiten dituztela: eta Neofito, edo Kristau berri oiek Ejerzizioen bide, ta zeruko bizimodu au beren borondate osoaz, ta naiera txit biotzekoaz artu dutela.

Gure errietara gatozen. Egia da, Eskola duten Euskaldun askok Ejerzizioak Gaztelan egiten dituztela; baña ezin ukatuko da, askok orien artean geiena ondo aditzen, barrentzen, edo bear bezala penetra-



tzen ez dutela. Beste alderik orañdañoko Euskaldunak bazekusten, ta orañoak ere badakuste ta egia aitortu bear da: Euskerak usoaren faltaz, zeren Libru gutxi diran, ta orien usorik, eta gogorik ez, Euskeraz eskribitzeko gogoa kentzen duela. Eskribitzea, guziak, eta bakoitzak nai duten erara, erraz ezta: edo gure Euskeran ezin datekean gauza da.

Euskaldunak, ta are geiago Animen Artzaiak, Guraso, eta Eskola Maisuak gogotik ekin, ta eragiñaz, irakurtzea, artzen badute, arazo, edo enbarazo guziak desegingo dira. Ekiñaz, egun gutxian, Euskeraz añ erraz, nola Gaztelaniaz, edo Latiñez irakurriko dute. Animen onaren zale diranak aitzakiarik eztute izango: ta Indietan neke andiaz egin dana, Euskaldunetan aisa, ta txit erraz egingo da. Gogotik asitzean dago, ta bereala frutu, ta probetxua ikusiko da.

Eskolako aurrak badira, ta sei urte etzituen neskatxatxo bat ikusi det, Gaztelania, Latiña, ta Euskera berdin, trebe, ta ederki irakurten zituena. Baña alako Maestra zuten: errespeto andikoa, ta grazia onekoa. A. Manuel Larramendik guzien Maisuak bezala bere artean ondo diona, irakurten gaitzena diran itzak, *tz, ts*, dakartenak dira: *otza, gauza, itza, otsa, lotsa, utsa*. Baña txit gozo, ta suabe egiten dirala, dio oriek biok urrengo silabaren parteak bezala, eritzen badira.

Nik nai nukeana da, Eskola usia duten, ta erdaraz ondo ez dakiten Euskaldun garbiak beren animen probetxuren bat ateratzea: eta orretako Ejetzizio oiek emengo gure itzkerarik usatuenean ezarri: ta ez itzez itz erdarazkoai lotuta; ezpada zerbaitean A. S. Ignazioren espiritu, fiñ, edo deseoi albaitere jarrairuaz, eta lenago orien berri, ikusiko dezun bezala nolabait emanaz.

Ezagutzen eztan joia, estimatzen ezta. Ejerzizioen zeruko joia bere ondotik ezagutu, ta estimatzeko, lau gauza jakin bear dira. 1. Ejerzizioak zer diran. 2. Nork egin, edo eman zituen. 3. Ejerzizioen frutua, ta orregatik Gizonik andienen artean izan duten estimazioa... 4. Nork, eta nola ondo egin ditzakean.

I. §. EJERZIZIOAK ZER DIRAN, EDO ZERI DERIZTEN

Ejerzizio espiritualak eztira besterik, ezpada Kristau batek bere memoria, adimentu, ta borondateaz bere Salbazioaren gañean, ta gauzetan Jaungoikoarekin jardutea, edo tratatzea: bere espiritu, edo barrenean lan, edo egiteko bear, ta bakar betiko oni gogotik ekitea, onetan ari, ta aritzea. Ta nola ibiltzea, jokatzeta, edo saltatzea, gorputzaren ejerzio, edo korporalak diran, ta derizten: ala Espiritu, edo animaren Ekiera oiek Ejerzizio espiritualak dira, ta derizte, zeren espiritua orietan aritzen, edo ejerzikatzen dan, ta animak jarduten duen.

Arma espiritualak, zeruko Soldaduaren itzkuntzan Ignaziok deitzen die Ejerzizioai, ta arrazoi andiarekin; zeren gizonaren bizitza lurraren gañean, gerra bizia dan. Eskritura Santak dionez: ta ala Ignaziok beti armaturik, edo arma oriek beti eskuan zituela, beti peleatzeko, prest Kristoren Soldadua ikusi nai zuen.

Armeria onetan zure anima Ignaziok sartu nai du, emen, zeruko Maisua danez, ango lezio berriakin, Ejerzizioetan zure etsaien malizia, ta tranparik eskutatuenak zuri erakusteko: espiritu illun gaizto guzien kontra, nai, ta bear bezala peleatzeko, Jainkoaren argi, ta graziaz zure espiritua armatzen du. Etsai guzien artean, andiena dezu zere burua. Ez dezu gaitzik, zugandik ez datorrenik. Zure etsai kalterik andienekoak dira zure betiko deseoa.

Zurekin, ta zure kontra, zure arteko, ta zure barrengo, beti zelatan, ta gordetik dauden etsai etxeko oriek dira gaiztoenak: era gabeko gogo, griña, edo inklinazio, Pasioak deriztenak: ta orien artean bat nabarbenago, Bizio agintari, ta nagusiago, beste gaitz, ta kalte guztien buru, sustrai, edo ondoa, besteak errebelatzen, ta armatzen dituena. Ekiera oietan, bada, etsai oriek Santuak agertzen, edo argitara kanpora ateratzen ditu, zuk obeto ikusi, ta ezagutzeko, orien eriozko gorroto bizi bat zure biozeta betiko sortzeko, ta orien kontra, ill artean, peleatzeko.

Ejerzizio oiek Molde berri bat bezala dira, zeñean zeruko Libruan eskribiturik dauden animak, edo ango gloriara bear dutenak, emen sartu bear duten. Molde au da Jesu Kristo: Zerurako predestinatu, ta doatsu izango diranak, San Pablok dionez, onen antzera moldatu bear dute, ta ori da Ejerzizio oietan egiten dana.



Jainkoaren Sutegi bat dira Ejerzizioak, Ignazioaren izenari dagokion bezala. Zeruko Sutegi, edo Su gar bizi Jesu Kristok berekin lurrera ekarri zuena, ta munduan erazaki nai zuena. Amoriozko Labe onetan Ignaziok adiskide, ta etsai guziak ere, mundu zabal orretan diranak, sartu, erre, ta urtu, edo amorioz konsumitu nai zituen. Ejerzizioen Karobi onetan desegiten dira gizon zarra bere kulpa, edo bizio, ta orien loi, mantxa arrasto, ta kutsu guziak, Jainkoaren gizon berri garbia bere birtuteakin Jesu Kristoren antzera egin, ta moldatzeko.

Ta nola beste Errelijio guziz santak, animak salbatzeko, bakoitzak bere bide, arte, ta moduak dituzten: Ala Jesus-en Konpañiak, mundu guzian animak salbatzeko (inñoren inbidia gabe) berariazko Ejerzizioen bide, arte, ta medio guziz probatu, ta kanonizatu au du, Jainkoak emanik.

Ejerzizio oiek Ebanjelioko egiak, edo maximak diranez, Santu, ta Maisu andi askoren Libruetan len, ta gero arkitzen dira; baña ez Ejerzizio oien erreglak, era, edo metodoa, oriez bear bezala baliatu, ta bizimodu santu bat zuzentzeko. Pare gabeko doai au, A. Franzisko Suarez Dotore Eximioak, beste askorekin, dion bezala, Arte berri, ta berariazko Zeruko bide bat da, A. S. Ignaziori, ta ez besteri, guzien onerako Espiritu Santuak erakatsi ziona: eta abiso, ta erregla eder oietan dago Ejerzizioen gisa, forma, ta Zeruko grazia.

Ala zeruko Maisuak bezala, Santuak Ejerzizio oietan, txit eraz, nola nai, edo nai bezala, egia, edo pauso batetik bestera anima darama, indar suabe batekin, ta eskutik bezala. Bizitzaren Libru onetako, edo Ebanjelioko egirik argienak, ta sustrairik sendoenak ikusi, irakurri, ausnartu, edo berriz, ta berriro rumiatu, ta zure biotzean ondo txikitu, ta zeruko janari ori lezioan, orazioan, examen bietan animari ematen, txit erraz Santuak erakusten du.

Pekatuken kartzela illun nazkagarritik atera, orien katea pisuak urratu: Bizioen itsustasuna, ta birtuteen edertasuna ondo ikusi, eta aietatik iges egiten, ta oiei jarraitzen ikastea: ori da Ejerzizioetan jardutea: lan oni gogotik biziro ekitea, ori da Exerzizioak egitea. Kristoren Soldadu egin, onen bandera pean ibilli, bere borondare, ta biotzeko soñeko zarra eranzi, ta Jesus-en librea, edo Kristo guztia barrendik, ta kanpotik jantzi, ta arma oriekin peleatzea, ta Ejerzizioak egitea: eta oni deritza, ta oiek dira A. S. Ignazio-zen Ejerzizioak.

II. S. EJERZIZIOEN LIBRUA NORK EGIN, EDO EMAN ZUEN

San Ignazioaren Librua esan oi da, ta ondo: Zerutik oni emana da. Baña Libru oni, Ignazioaren obran bezala eztiuzu begiratu biar. Orren Egille, edo Autore berezkoa Espiritu Santua izan zan: eta onen argi, ta graziaz Ignaziok Libru au bere erregla Jainkoak emanakin artu, ta eskribitu zuen. Ala Ignaziok berak Aita Diego Lainez, Maisu andi, ta bere Lagun estimatuari argiro esan zion: ala Aita Joan Polanco bere Sekretarioari garbi aitortu zion.

Rota Sagraduko Juez adituak, Jainkoaren argiak obligaturik, esan, ta azaldu zuten, Libru miragarri au eskribitzeko izan zituen argiak etzirala gizonenak, edo lurrekoak, ezpada Jainkoaren, edo Zerukoak. Erroman Aita Santuak, ta gizonik andienak, Ignaziok txit asko deseatzen zuen bezala, Libru au ondo ikusi, ta examinatu zuten: ta Espiritu Santuaren Egia ezin utsegingo duenak bezala, guzia aprobatu, ta kanonizatu zuen: eta Aita Santa Paulo Irugarrenak, Zerutik argiturik bere Buldan dio: «Ignaziok bere Ejerzizioetan dion guzia, ta gauza bakoitza aprobatzen dituela: eta Ejerzizio oiek piedadez, ta santidadez beteak daudela». Alabanza andiagorik ezin eman diteke, au baño.

Ejerzizioen estimazio, ta debozio andiagoa artzeko, Irakurlea jakizu, Ama Birjiña bere Semearekin Libru onen, edo Ejerzizioen Egillea izan zala. Ignazioaren aotik A. Lainez-ek ala esan zuen: eta Arkanjel S. Gabriel-ek Ama Birjiñaren izenean ori bera onen adiskide maite bati errebelatu zion. Beñ batean anima debota au Ejerzizioak aritzeko zegoela, mandatu gozo bat Ama Birjiñak gaztigatu zion: Aren Partez Aingeruak esan ziozala: atsegin txit andi bat artzen zuela, zeren Ejerzizioetan sartzen zan, ta jakin zezala, Jainkoaren Ama bera Ejerzizioen fundadora, ta Patrona zala, ta Ama Birjiñak berak Ignaziori lagundu, ta oriek egiten erakatsi ziola. Ala Aita Baltasar Alvarez-en bizitzan Aita Luis de la Puentek egia au aseguratzen du.

O zer zeruko konsuelo gozoa, Ejerzizioak urteoro, edo askotan egiten dituztenzat! Nai duenak bada jakin ondo, Ejerzizioak zer diran, ta orien Autore, edo Emallea nor dan, jakin beza, Jesus, ta Mariak beren obratzat, ta beren eskuetako Librutzat Ejerzizioena daukatela. Ta baldin Libru, ta obra andiak munduan estimatzeko, orien Autoreak aditzera ema-



ten badira: nolakoa, ta zeñ andia izango da Ejerzizioen obra au zeñaren Autore Jesus-ek, eta Mariak beren buruak agertzen, eta ematen dituzte?

Orregatik Ignaziok, bera zerura baño len, iru gauza, bear bezala ontzat emanak ikusi nai zituen. Lenena, Ejerzizio oiek Jaunaren Autoridade Apostolikoaz aprobatuak ikustea: Bigarrena, Jesus-en Konpañia konfirmaturik: Irugarrena, konstituzioak akabaturik. Irurak Santuak ikusi zituen, ta Jainkoak gloria andi on bizi zala, edo lurrean eman zion.

Begira ondo. Iru gauzak andiak ziran: baño lenena, geiena nai zuena bezala, Ejerzizioena izan zan. Ta zergatik ori? A! Ignaziok Jainkoaren argiaz Zerutik zekien Ejerzizioen balioa, ta Jainkoaren, ta Ama Birjiñaren beraren eskuetako obra, ta joia preziosoa bezala, gauza guzien gañean estimatzen zituen!

Espiritu Santuak gobernatu, ta argiturik Ignaziok, berak bezala, zekien, Ejerzizioak zer ziran, norenak, ta nola ziran: ta Konpañia guztia- ren Ama bezala zirala, Jesus onaren begietako Niniak, Konpañiaren Biotza, bizitza, anima, espiritu, ta izate egiazko guztia. Ta emendik irugarren gauza.

III. §. EJERZIZIOEN PROBETXUA, TA ESTIMAZIOA

Au itz batean erraz esan liteke. Jesus-en Konpañiak munduaren lau parte, edo leku guzietan bere Seme guztiakin egin duen probetxu, ta ona, dana dala, Ejerzizioen frutua dala. Ta Arbola, Salbadoreak dionez, bere frutuetatik ezagutzen bada: esanal, ta pensa al ditekean on guzia Ejerzizioen Arbola onen frutua da. Aita San Ignaziok, Zerura joan zanean, amasei urteko Landare, edo Arbola gaztea bezala, bere Ejerzizioakin azi, ta utzi zuen Konpañia; baño Jesus onak landatu, ta bere eskutik paratua bezala, Ignazio bere bederatz Lagun santuakin ikusi zan mundu berri- raño bereala lorez, ta frutuz beterik.

Baldiñ Jainkoak Ejerzizioakin Ignazioren biotza Zeruko Sutegi egin bazuen, ortik suak, eta garrak bere Lagun, ta Semeai erantsi zitzen. Ta Sutegi onetako txingar bat, ta Arbola onen adar, edo tantai bakar bat San Franzisko Xabier izanik, berau bakarrik asko izan zan mundu berri bati bizia, osasuna, ta Zeruko argiak emateko; eta Jainkoak ara bialdu, ango Apostolo egiñik, ta ainbeste anima Jesu Kristori irabazi ziozkan. Jentil itsuen mundu berria Jainkoak gorderik, edo Xabier-en begira bezala zeukan, Ejerzizioen, frutu, ta argia guziaz eman, ta banatzeko.

Konpañiako ainbeste Santu miragarri, ta beste asko Konpañiaren Eskolakoak, Ejerzizioak zeruerara, ta Aldare-eta aldatu, edo igo izan dituzte. Ejerzizioak ainbeste Martiri gai, Jesu Kristo-gatik beren bizia pozik emateko ala animatu, ta armatu dituzte: Ejerzizioak ainbeste Maisu andi Elizaren fabore, ta animen salbaziorako bear bezalako Libru ezin kontatu ala eskribitzeko: Ejerzizioak ainbeste Obrero animen zale, Konfesionario, Karzela, Hospitale, ta leku guzietan, oriek pekatutik atera, ta zeruko bide seguruan sartzera animatu dituzte.

Emendik pekatari galdu asko, begitan errietan artuak, ta anima askoren kaltean, bizio lotsagarrietan begi bietaraño sarturik zebiltzanak, Ejerzizioetan alako golpe andiko irabia, edo jira eman, ta Jainkoagana biurtu ziran. Emendik Unibersidade, edo Eskola andi jakin orietan ainbeste Gizon, ta Maisu zeruko Eskola onetan, edo Ejerzizioetan sartu, ta bizi- modu berria artu zuten. Emen letraz beterik sartzan ziran, ta birturez beteago irteten ziran. Emen Eleizako Preladu santu asko beren buruak



santuago egin, ta beren ardiak, edo animak zuzentzeko, ta salbatzeko arte, ta bideak artu zituzten.

Ejerzizioai, Ignazioren gozo, ta gure Konpañiaren gloria andiarekin, Erliño Sagradu guziak beren Seme prestu, ta Santu asko zor diezte. Zenbat munduko esperanza andietako gizon gazte Ejerzizioetatik Reliñoeta- ra, edo salbazioko sagradura erretiratu izan dira?

Orregatik, ta orrelako Ejerzizioen Paraisuko Arbola onek eman dituen frutuakgatik, ainbeste, ta esan al baño geiago, ta andiago diran alabanzak Aita Santu guziak, Obispo, ta Gizon andi, ta Erliñoetako Maisu, jakintsu, ta Santuenak Ejerzizioai eman izan diezte. Erraz ezta, egia esateko, zer estimazioa onelako gizon señalatuak egin duten, kontatzea. Reliñoetako persona aundiak Ejerzizioen Libruaz egin zuten estimazioa, esango dizut, eta dira San Agustin, San Benito, San Bernardo, Santo Domingo, ta San Franziskoren Semeak.

Ludovico Blossio bere Libru ederraz ondo jakiña, bere asieran Ejerzizio oiek egin, ta añ deboto, ta pagatua geratu zan, non da Flandesko bere Monje guziari San Ignazioren Orazio, ta Ejerzizioen modu au agindu zien.

Luis Estrada Maisu andiak Libru onegatik zio: «San Ignaziok bere Ejerzizioekin, salbazio edo perfekziorako Nobiziadu berri bat mundu guziari eman, edo idiki ziola».

Agustin de Carbajal Maisu guziz andi, ta santuak ogei, ta amar egunean Ejerzizioak egin zituen, ta San Agustinen Konbentu askotan eragin zituen.

Luis de Granada bere birtute ta zeruko Libruaz ondo ezagutu benegarriak zion: Ejerzizio oietan Jainkoak bere animan eman ziozkan argi zerukoak azaltzeko bizi guzia asko etzala. Santo Domingoren Seme andi onek, San Ignazioren Ejerzizioak, Santuaren Libru onetatik, ta onek eman zituen erreglakin egin zituen: ta orrez gañera berak zion: Ejerzizioen Kontsiderazio, ta Espiritu Santuaren graziaz S. Ignazioren Libru onetako argi, bera geiena mobitu zutenetatik, mundu guziaren onerako, *Pekariaren Gia* deritzan Libru estimatua berak atera zuela. Ta au da egiaz Ejerzizio oien testimonio, gloria, ta alabanza parerik eztena.

Alcalako Katedratiko famatu fr. Mancio Dominikoak, Ejerzizioak defenditu, alabatu, ta honra, ta gloriaraz bete, ta koroatu zituen.

San Franziskoren Seme urte askoan Jainkoa serbitu zuen batek, Simancas-en Nobiziadua zegoela, berariaraz ara joan, ta Ejerzizioak egin zituen: ta Nobizio gazte aien debozio, ta obediencia ikusi, ta arriturik bezala, alabanza andiak gero predikatu zituen.

Ori bera San Karlos batek: ta San Franzisko Sales-ek beti Ejerzizioak egiñaz erakutsi zuten. Orobat Ama Santa Teresak, ta Santa Madalena Pazis, Birjiña, ta Karmeloko Lore eder biak: oiek, eta beste askok atera zuten argi, ta frutua beren obra, ta Libruetan munduari gero erakutsi zioten.

Argatik S. Karlos Kardenalak Mantuako Dukeari esan zion: «Probetxu geiago Ejerzizioen Librutik ateratzen zuela, munduko beste Librutatik baño». Argatik Beronako Kardenalak zion: «Eskritura Sagraduaz kanpora Libru oberik etzala, Ejerzizioak baño». Argatik Erromako Kristoren Bikarioak eztira kontentatu Libru au alabatzearekin, ezpada Induljenziakin Ejerzizioak onratu dituzte: ta gure egunetan Benedikto azkeneko A. Santuak, Ejerzizio oietan zortzi egun baño gutxiago egin ta ere, pekatuen Barkazio osoa, edo Induljenzia plenaria ematen du.



IV. §.

NORK, TA NOLA

EJERZIZIOAK EGIN DITZAKEAN

Edozeñ Kristau egiaz borondate ona duenak bere salbaziorako, ta animaren probetxu andirako egin dizake. Aita San Ignaziok Ejerzizioak Jainkoaren eskutik artu, ta Jesu Kristoren Bikarioak aprobatu, ta mundu guziari enkargatuak ikusi zituenean, Jaunari bere anima pakean emateko, testamentuan bezala bere Semeai agindu zien lenengo Asteko Ejerzizioak Gizon, ta Andre edozeñi estadutakoai ematea.

Alere Kristau batzuek bearrago dituzte besteak baño: eta Ejerzizioak, bear bezala, egiteko, Kristau batzuek egokiago dira besteak baño. Ejerzizioak dira anima galdu, ta lasaiegiak estutzeko ta Jainkoaren bildurrean sartzeko: baita estuegi, ta eskrupuloakin bildurtiegi diranak lasaitu, ta gozatzeko ere.

Ignaziok bere adiskide andi, ta errespetoko Sazerdote bati eskribituzion modu onetan. «Ejerzizio oiek dira, nik mundu onetan pensatu, sentitu, ta aditu al dezakedan gauzatik onena, ala gizon, edo Kristau batek bere buruaren probetxuari, „ nola besteen onari, ta probetxuari begiratzeko. Ta Aita San Ignaziok, añ begiratu zala, au esatea, testimonio txitezko andia da, Ejerzizio oiek anima guzientzat Jainkoaren beraren gauza guziz berezko señalatua dirala.

Lau Astetarako, edo ogei, ta amar egunerako gaia bezala Libru edo Lan santu onetako Ekierak San Ignaziok eman zituen, ta guztiak beren eran, ta berariatzko Zeruko erreglak. Lenengo Asteko Kontsiderazioak, itz batean erraz, ta egiaz esan diteke Misio andi baten gaia dirala: ta argatik frutu añ andia: ta Misioetan bezala, edo geiago, ta seguruago Ejerzizioetan, bear bezala artzen, edo egiten badira, egin, edo atera oi dala.

Ondo oiek egiteko, txit kontuz artu, ta begien aurrean iduki bear dezu, Kristau guziak bearren dituzten iru gauza Ejerzizioak dakartzitela, edo berenez eskatzen dituztela: ta dira Ejerzizioen iru fiñak. Lendabizikoa, Anima pekatu, ta bizioetatik atera, ta garbitzea. Bigarrena, Zeruko bide seguru batean sartzea. Irugarrena, bide orretan Jainkoaren borondate gauza guzietan egitea. 1. da kulpa guzien Konfesio andi, bear bezalako bat. 2. Animaren salbaziorako bizimoduaren aukera, edo Estaduaren Elekzioa. 3. Fede bizi, esperanza firme, ta Jainkoaren, ta zure Lagun urkoaren amorio irazaki batez, egunoro bizitza ohea egitea.

Ejerzizioen zimendu seguru, ta birtuteen sustrai animan sendoro ezarri bearrak oiek dira. Lenengoa da gauza bearra, bigarrena ez gutxiago; baño irrugarrena da bearrena. Urtean beñ, urte artako kulpen errebista, edo konzienziaren begirada bat, gauza guziz ona, ta probetxuzkoa da. Baña on asko ezta. Bakoitzak bere estaduko obligazioak ikasi, pensatu, ta ondo Jainkoaren aurrean pisatu, ta erremedioak artzea, ta orretan aprobetxatzea bearrago baizik ezta: ta iru gauza oiek beren frutua bezala Ejerzizioak eskatzen, ta ematen dituzte.

Nola gizona arrazoiaz zuzentzen, edo gobernatzen dan; ta nola animaren iru estadu, edo bide diran: «Asi berriena, aurrera dabilzanena, ta beren borondate Jainkoarenaz bat amorioz egiten dutenena»: ala Aita San Ignaziok argi txit suabe eragilleaz, estadu, edo bizimodu orietan animari laguntzen dio, Zeruko erreglak guzirako emanaz. Era berri oien arkitzalle paregabe bakarra, alde guzietatik zorionekoa Ignazio izan zan.

Ejerzizio oiek Jainkoak Ignaziori armonia añ ederraz eman ziozkan, non da batak bestea dakarren, ta gauza batetik bestera biotz, edo gogoa txit erara daramaten. Ikusiaz ikasten da, ta egiñaz gusto artzen da. Gauza zierro ta klaroa da, gure Jesus-en Konpañia Ejerzizioakin jaino zala, Ejerzizioakin azi, ta bizi dala: ta Ejerzizioakin Etxean, ta Kanpoan Santu asko eman dituela.

Espiritu Santuak, eta Ama Birjiñak Ignaziori erakutsi zioten, zer dan, ta Jainkoaren Erreinoa gurekiko zertan dagoen, ta ara nola deitzen gaituen: nola gure zorionen, ta betiko bizitza Jesu Kristo ezagutzea, ta berari jarraitzea dan: guri ori eragozteko zer etsai portitzak gure kontra ditugun: nola gu zeruko Erreino onetan sartzeko, Jesus gure Erreguka bera zeruko Ate, ta Bidea dan: ta berak dionez, Ate onetatik sartzetan danak, bere salbaziorako bear duen guzia arkitzen duela: ta Ate onetatik sartzetan ezitranak, ainbeste hereje, ta orien lagunitsuak bezala, bidea utsegin, ta galtzen dirala.

Maisu oiekin, ta Ejerzizio oietan Ignaziok ikasi zuen Jesu Kristoren esana: «Ni naiz munduaren argia. Ni naiz bidea, egia, ta bizitza. Nere ondoren dabillena, illunbean eztabil, ta bizitzara daraman argia izango du. Nere ondoren ibilli nai duenak, bere burua uka beza, bere gurutzea ar beza, ta Niri jarraitu bizat». Ta orra itz oietan, S. Ignazioren Ejerzizioak zer diran, edo orien izate, ta substantzia guztia: orra Ejerzizio guztiak zertarako diran, ta orien fin, edo kabua.

Orra Jesu Kristoren aotik Lekzio labur, argi, ta guziz bear, ta bakar batean Ejerzizioen gaia, espiritu, anima, ta bizitza egiazkoa. Onetan Ignaziok ikusi zuen klaro, Orazio gabe salbaziorik eztagoela: Mortifikazio



gabe, edo bere burua, ta borondate gaiztoa ukatu, ta autsi gabe, Orazio-rik, ta bizi onik eztala. Biotzeko konsiderazio beñ, ta berrizko onen, Ejerzizio, edo animako ekiera onen faltak mundu guztia galdurik daukala. Eta gaitz guzien erremediorako Jainkoak Ignaziori Ejerzizio oiek, ta oriek ondo egiteko modua, eta erreglak eman ziozkan.

Orregatik Jesus-en Konpañia, ta Ignaziok Zerutik arturikako Orazio modua, ta bizi berria egiteko bide seguru au ainbesteraño estimatu zuen Santa Teresa batek, eta eskribitu zuen: «Konpañiarekin, edo Jesuitakin tratatzen ez det, ezpada aien gauzak animan dauzkanak bezala, ta bizitza aiekgatik emango nuke». Limako Lore eder Jesus-en Biotzeko Santa Rosa batek, lau Konfessore Jesuita zituela, ta Santa Madalena Pazis batek: Españaren onragarri, Juan de Avila, ta Luis de Granada Maisu beneragarriak, ta beste Santu askok, Konpañiako Ejerzizio, Orazio, ta biotzeko mortifikazio onen bidea zerurako artu zuten, eta anima asko beren ejemplu Sermoi, ta Libruakin eraman zituzten, ta egunoro ara daramazkite.

Onetarako Vanes deritzan Franziaiko erri batean dira Etxe andi bi, asteoro irureun Ejerzitate kabitzen diranak, ta Ejerzizioak egitera, nai dutenak sartzeko Aita Vincencio Hubij Apostolikoak an beste erri askotan bezala, egin, edo fundatuak.

Au da, nere Irakurlea, zure animaren Zeruko bidea: ez bildur: seguru sar zaite, ta fede onez bide onetan ibilli zaite: ez alde batera, ta ez bestera jiratu. Zeruko Ate onetatik sar zaite, ta salbatu nai badezu, argi oni, Jesu Kristori beraren Orazio, mortifikazio, ta bizimodu santuan biotz osoaz, zure estaduan jarrai zaiozu: ta orra zure salbazioa.

Ejerzizioak A. S. Ignaziok Gaztelaniaz eskribitu zituen. Baña orietan nik dakusdana da, animen probetxurako danean, Latinezko itzak, edo bozak, alerik erreparo gabe Santuak artzen dituela. Ori bera, bada, bear danean, ta arrazoi andiarekin Euskaldunok egin bear degu: ta are geiago, ta premia andiagoaz, Eleizako gauza, ta Misterio, edo Sakramentuen gañean itz egitean: eta Orazio, edo mortifikazio, ta espirituko Dotrinaren puntu, edo gauzaren bat ondo adierazo nai degunean.

Itzkeraren batzuek orrela artzeak, esan nai eztu, Euskerak berariazko itz garbi, ta berezkoak gauzenzat ez dituela. Ondo dakienarenzat badi-tu. Esan nai dedana da, orañ iñori Euskeraz erakustera ez noala, ezpada animai nolerebait laguntzera, eta oriek salbatzeko bearren diran gauzak ondo adierazotzera.

Beste abiso bat: Nola Latin, edo Gaztelaniak, bere itz asi, edo Abrebiatura deritzenak, nai dana laburrago esateko, usatzen dituen; ala gure Euskeran ori bera asitzea, orretara oitu, ta egitea, arrazoi da.

Ejenplotzat: G.J. esan nai du Gure Jauna; A.B. esan nai du Ama Birjiña; S. San, Santua, edo Santa; A.S. Aita San. Eliza; A.S. Ama Santa. Onela beste itz asiren batzuek erraz aditu, ta aterako diranak.

Arreta, edo aplikazioa, ekiera, ta usoa Euskeraz, Latinez, edo Gaztelaniaz bezala, irakurtzeko, ta eskribitzeko bear da. Ekin bada gogotik lan oni. Eskolako aurrak ejerzizio puska batekin añ erraz ikasten dutena, oierio zuk egingo al dezu.



V. S.
EJERZIZIOAK
ONDO EGITEKO ERREGLAK

Oien artean Santuak batzuei deitzen die ANOTAZIOAK, ta Bestea ADIZIOAK. Aurrenekoak dira Ejerzizioak ondo egiteko: atzenekoak Orazio, edo Meditazioa ondo egiteko. Bearrenak dira.

Ejerzizioetan sartzean bereala batek Jainkoari bere biotz guzia, borondate ugari osoaz ematea, Jaunaren borondatea bakarrik billatu, eza-gutu, ta egiteko. Santuak txit nai zuen, ta enkargatzen du asko, Jainkoari berak eman digun libertade, ta borondatea biurtzea.

Jainkoarekin tratatzeko erreberentzia, Aita Espiritualari obediencia, ta oni barren guziaren, edo bere biotzaren kontu ematea: ondo konsideratu gabe, ez Botorik egitea Ejerzizioak era onean batetik bestera jgaro gabe egitea. Ta onelako beste erreglak ematen ditu.

Orazia, edo Jaungoikoarekin itz egitera baño len, Kristau batek bere anima ondo prestatu bear du, Jainkoa tentatzea ez dijoan: ta prestatze oni ORAZIO PREPARATORIA Santuak deitzen dio, Oraziorako maneateze, edo preparazio au obra on guzietan, ta berariaz Orazioan egin bear da: esan nai du, Jaunari Orazioa bere onra, ta alabanzarako Eleiza A.S.ak erakasten digun bezala eskeñtea, zure biotzetik modu onetan esanaz.

ORAZIOA ASITZEKO PREPARAZIOA

«Jauna: zure Aitari lurrean Zuk ematen ziñiozkan alabanza, ta Orazioa egiten zinion Jainkozko intenzioarekin batean eskeñtzen dizut, ta izan bedi Orazio au, zure onra, ta alabanza, ta nik zure borondatea egiteko. Amen.

Orazio au egunoroko Ejerzizioan beti bat da. Gero Orazioan sartzeko, Jainkoaren aurrean begira ondo, ta Oraziotik atera naizun frutua, gogoan artu bear dezu.

Onela bat beregan sartu, ta fedez bere erara debozioz egoteko, pauso, edo Meditazioak eskatzen duen leku modua egin bear du: ta Santuak oni KONPOSIZIOA deitzen dio.

Onen ondoren dator Eskaria, Ejerzizioaren gaiak berez nai duen grazia Jaunari eskatzea, edo PETIZIOA.

Orrela prestatu, ta dio Santuak, Jaunaren prezencian fede biziari, debozioz ziñatu, ta animak orazioan sartu bear duela. Onek asi bear du,

memoriaz baliatuaz, gero adimentuaz bere arrazoi, ta konsiderazioakin borondatea afekto bizi, ta beroetara mobitzeko.

Orazioaren azkenean berariazko itzketa bat Ejerzizioari dagokiona egin oi da, Santuak KOLOKIOA esaten duena.

Orazioa bukatu, ta esaminatu bear da, edo begiratu, nola egin dan: ta zer proposituak, gero kunplizeko, atera, edo artu dituen: Orazioa ondo egin bada, Jaunari eskerrak emateko, ta faltarik izan badu erremediatzeko.

Beste erreglak Santuak beren leketan ematen ditu: bakartasun, edo biotzeko soledadea, ta erretiro agintzen du, anima beregandu, ta Jaunaren tratu, argi, ta deboziorako pretago arki dedin. Abiso ematen du, kontuz begiak gordetzeko, argi gutxirekin egoteko, farrarik ez egin, ta ez eragiteko, ta era gabeko alegriarik ez artzeko, pakean, soseguz, ta humillago biotza idukitzeko.

Penitentzia modu bi santuak dakarzi. Bata biotzekoa, bestea gorputzekoa. Biotzeko, edo barrengo ori da, anima damuaz, ta konfesioaz garbitu, ta bizio, inklinazio, edo era gabeko pasioetatik, oiek benziatuaz libratzea.

Gorputzaren kontrako penitentiak Santuak enkargatzen ditu, ta ondo begiraturik, janari, ta, edariaren gañean: azote, zillizio, oieko gogortasun, ta lo egitearen gañean: ta guzietan Santuak billatzen du, batek bere burua ukatu, bere borondatea autsi, ta Jainkoaren naia, ta, borondatea billatzea. Penitentzia oietan Aita espiritualaren esana egin bear da: ez uts egiteko onen Erreglak artu, ta kunplitu bear dira.

Estaduaren elektzioa egiteko, bere persona, ta etxea, ta bere bizimodu guztia bear bezala zuzentzeko bear diran limosnak egiteko, ta beste onelako Erreglak Santuak ematen ditu, animaren pasio, ta geiegiak ebaki, ta kendu, ta Jainkoaren borondatearen neurri justuan gure borondatea ipintzeko.

Oien artean Santuak abiso bat ematen du: Lenengo Asteko Ejerzizioetan, obe dala, Erioazaren, Juizioaren ta orrelako egien gañean, beste gauza on askotan baño geiago pensatzea. Ta nola A. S. Ignazio bera Pektuaren, Infernuaren, ta onelako Ejerzizioetan luzeago dagoen: ala orregatik beragatik onelako Konsiderazioak guk ere luzaroago ematen ditugu: orrekin askotan, ta geiago irakurtzeko gaia izango da.

Orañ Santua asitzen da, begien aurrean ipiñiaz, Jaungoikoak zertako gu egin ginduen: ta au berau da Ejerzizio guzien Asiera, edo Zimendua: zure azkeneko fiñ, edo kabua.



EJERZIZIOEN ASIERA, EDO FUNDAMENTUA

Zertako Jainkoak Gizona egin zuen, edo gure azkeneko Fiñaren gañean Ejerzizioa.

Ejerzizio au, beste guziak bezala, ipiñi zuen Aita San Ignaziok, orazioko denboran animari meditatzeke, edo gogoan artu ta pensatzeko, gaia, edo materia emateko.

Badakizu, Orazio au egitea dala Jainkoagana biotza altxatzea, ta zure salbaziorako bear dezuna berari eskatzea. Orazioa bear bezala egiteko, gure Jaunarekin jarduteko, ta zure biotzaz itz egiteko, gorde bear dira kontuz, zeruko abiso, ta erregla onetarako Santuak ematen dituenak, zeñai deitzen die ADIZIOAK.

Oraziorako bakoitzak bere memoria, adimentu, ta borondateaz baliatu bear du: ta au da, eta onetan dago biotza jasotzea, eskatzea, ta Jaunari orazio mentala egitea, Ekiera, edo Ejerzizio oietan erakusten, ta egi-tan dana, edo egin nai dana.

Lenengo, memoriara ekarri, oroitu, ta ondo ikusi, edo igaro pauso, edo puntua, zeñaren gañean gogartu, edo mediatu nai dezun: ori zure buruan artu.

Bigarrena, adimentuaz billatu, ta ondo begiratu, zer gauzak, nolako egiak, zeñi arrazoi andiak orretan diran, zure biotzean ondo ausmartu, edo rumiatu.

Irugarrena, egia, ta arrazoi oriekin zure borondatea mugitu, ta onek bere lanari ekin bear dio biotzeko gogo, afekto, edo deseo, al dituen beroen, ta bizienak, pauso, edo puntuak berez eskatzen dituenak, edo ari dagozkionak atera, ta egiñaz, ta lan oni gogotik ekiñaz.

Ejenplotzat, edo ara nola: Jainkoak egin zaitu, bera ezagutu, ta serbitzeko, bera amatzeko, ta gozatzeko. Aurrera zoaz, ta zurekiko esazu: Zenbat nere Jaungoikoari zor diot miserikordia, ta mesede onegatik? Ta zer kastigoa mereziko det, zeren amatu bearrean ainbeste bider ofenditu dedan? Orrela nere biotzeko damuaz konfesatu, ta erremediatu bear det. Aurrerago zoaz, ta esazu: Aingeruak pekatu batekin galdu ziran betiko: beraz ainbesterekin merezi nuen nik infernua, ta aurrera pekatu egiten badet urrenko pekatuarekin galdu naiteke betiko.

Emendik, fedearen argi bizi onekin borondatea berotzen da, ta biotzeko gogo sendoak ateratzera animatzen da, Jaunari esker andiak emate-

ko, zeren beretzat egintzuen, ta sufritu, ta denbora, ta grazia eman dion beragana biurtzeko, bere kulpak ezagutu, egiatzko penitentzia, bizitza berria, propositu eragille indarsuaz egiteko, pekatuen kateak urratzeko, ta are geiago animaren etsairik andiena, zeña dan biziorik agintariena, ta kalte guztiak dakarzieta, sustraietik ateratzeko, ta orren kontra beti, ta bere alegin guziaz peleatzeko.

Ta au da, ta ez besterik, Orazioa egitea, edo orazio mental, edo biotzekoaren Ekiera, edo praktika bera.

Ejerzizio bakoitzak, esan dan bezala, bere fin, edo frutu oraziotik azera bear dana du berez: au egunoroko meditazioan begien aurrean iduki bear dezu, zure anima pekatu, ta bizioetatik libratu, ta garbitzeko, ta orien kontrako birtuteai jarraitu, ta bizimodu santu pakezko bat Ejerzizio oietatik ateratzeko.

Oien Zimendua bezala da, ta A. S. Ignaziok ezartzen duen fundamentua, edo Asiera, zure azkeneko, ta gauza guzien gañeko fin zerukoa, edo zertako Jainkoak egin zinduen.

Habetis fructum vestrum in sanctificationem, finem vero vitam aeternam... Gratia Dei vita aeterna in Christo Iesu Domino nostro. Rom. 6.

Jainkoa serbitzean, zuen animak egunoro santuago egitean, daukazu frutua, ta fin, edo saria gero betiko bizitza, Jesu Kristo Gure Jaunaren grazian.

Orazioan sartzeko prestaera, edo preparazioa da beti bat, ta Erregletan esan dana bera.

Emen lenengo gogoan artu bear da, ta lekua, edo KONPOSIZIOA egin. Ta au izango da fede bizi batekin Jainkoari begiratzea, ta zure aurrean ikusten bazendu bezala, Eguzki eder argi, gauza guziak baño argiago, ta ederrago dan, guztien Egillea, ta Asiera, gure Jaungoikoa, bere gloria kabu gabeaz janzi, ta beterik beregan, bere edertasun guziaren jarlekuan, bere Aingeru, ta Kriatura guzien erdian, edo gañean, itxaso ondorik gabe, ta ondasunez bete baten gisa. Andik gauza guziak iturriak bezala, lortzen dirala. Bera guzien Asiera, ta guzien kabu dala. Argandik asi, ta irten, ta argana biurtzen dirala: ta Jaun andi onek animak ezerezetik bere itzaz egin, ta beregana, beren azkeneko fiñera, ta beren egiatzko atsedean leku, edo zentro bakarrera dakartziela.



ONEN ONDOREN SANTUAK ERAKUSTEN DU BIGARREN ORAZIORAKO BEAR DAN ESKARI EDO PETIZIOA

Au izango da, Jainkoari biotz guztitik argi andi bat eskatzea zure azkeneko ditxa, ta zorion au ezagutzeko: Ori irabaztean, edo gaitzean zenbat dijoakizun: ta emen lurreko gauza guziak galduko badituzu ere, zeruko ditxa ori billatzeko, ta arkitzeko grazia dizula, Dabid Santuarekin esanaz: «Zure egiazko argi andi bat bial zadazu, Jauna, munduko bide onetan zugaron zuzen narabilen, ta goiko mendi santura, ta zure bizi lekura betiko naraman».

Zure azkeneko fiñaren gañean iru gauza dituzu txit ondo konsideratu bearrak,

1. da, zertako Jainkoe egin zinduen.
2. fin orretarako Jainkoak eman dizkitzun arte, edo medioak.
3. zure atzeneko fiñ onen inportanzia.

LENENGO PUNTUA

Zertako Jainkoak egin zinduen. Pensa ezazu, nola gauza guzien egille, zure Jaungoikoa, ezerean, ta iñoren bearrik ezertako eztenak, bere onez, bere borondatez, ezerezetik zu egin, ta mundura atera zinduen. Baña zure Egille jakinsu, ta Jaun andi onek, nola fin gabe ezer egiten ezten, ta gauza guztiai, ta bakoitzari bere bide, ta fin, edo kabua ematen dien, ala bere jakintasun amoriozkoaz zuri ere emantzizun. Ezerezetik etzinduen alperrik atera: etzinduen alperrik bialdu mundura. Zerbaitetako zauzka Jainkoak emen.

Zertako, bada? Galde zaiozu zure Egilleari: galde zere buruari. Jainkoak zertako egin ninduen? Zertako nago munduan? Ta zure Jaunak, zure fedeak, zure konziencia, ta biotzak berak eranzungo dizute: Etzaudela banoan, edo alperrik: etzaudela bestetako, ezpada zure Jaunaren gloriarako, ta zure onerako. Nola gauza guziak Jainkoak bere onra, ta gloriarako egin zituen, ala zu berari gloria emateko, beraren borondatea beti egiñaz.

Au da zure fiña: onetako, ta ez bestetako egin zinduen, ta zauzka Jainkoak. Onerako bizi izan zera? Eman diozu zor diozun onra, ta gloria? Zauze zure Jainkoaren borondatea ezagutu, aren Legea gorde, ta zure biotz guztiaz bera amatu, ta serbitzeko. Onetan dago, dio Jesu Kristok, zure zoriona: JAINKO bakar egiazkoa, ta ark bialdu zuen Semea ezagutzean: ta salbatu nai badezu, aren Aginteak gordetzean. *Haec est vita aeter-*

na, ut cognoscans Te solum Deum verum, & quem misisti Jesum Christum. Si vis ad vitans ingredi, serva Mandata. Ioan. 17. Au da, ta onetan dago Kristau, edo gizon prestuaren izan, ta izate egiazko guzia: Jaungoikoaren bildur santuaz, aren Agindeak ondo gordetzean: *Deum time: Mandata eius observa: hoc est enim omnis homo.* Eccles. 14.

Jainkoak egin zinduen, dio San Agustin-ek: bera ezagutu, amatu, ta gozatzeko. Au da zuri zure biotzak, Santuari bereak bezala, esaten diona. Jainkoak beretzat egin gaituela: gure biotzak atsegin, edo zoriona nai, ta billatuagatik Jainkoaz kanpora gogorik arkitzen ezteula. Alperrik zabiltza batetik bestera: alperrik lurreko onra, ondasun, ta atsegiñen ondoren, edo billa: or eztago zure zoriona: On, ta ondasun guziak dituen zure Jaungoikoa billa ezazu: ta ori bakarrik dezu asko, ori da zure guztia. Ori billatzeko, amatzeko, ta serbitzeko zaude munduan.

Konsidera ezazu ondo, zu, ta munduko gauzak egin baño len, Jaungoikoa orain bezala, beregan zegoela, ta zala beti guziz aberatsa, guziz ugaria berez, ta beregan on guzia zeukana: iñoren, ta ezerean bearrik etzue-na. Ala zure bearrik ezertako etzuen. Ta orregatik ere, ta jakiñik ondo, nor, ta nolakoa zu izango ziñan, bere borondatez egin zinduen beretzat, ta bera, zure Egille, Ongille, ta doai guztien Emalle bakarra serbitzeko.

Eztago geiago Eguzkia argi emateko, ta sua berotzeko, zu Jainkoa serbitzeko baño. Eguzkia, ta sua beren jarduera, edo Ejerzizio orretan daude, ta beti ari dira. A! ala Jainkoa serbitzen, zure fin, edo jarduera ditxoso orretan zaude zu, edo beti ari zera? Nola erantzun diozu zure Jaunaren borondateari?

Munduan jaiotzen dira gizonak, batzuek andi, besteak txiki izateko: batzuek aberats, besteak pobre: batzuek jakintsu, besteak jakiñezak: batzuek errege, edo agintari, besteak aien serbitzari izateko. Baña suerte banakako orien artean ere, ala agintariak, nola serbitzariak, ala aberatsak, nola pobreak; ala jakintsuak, nola jakiñezak, ala andiak, nola txikiak, guztiak, edo diranak, bakarrik Jainkoa serbitzeko: ta fin onetan guziak dira berdin. Ai suerte doatsu au ezagutzen bazendu: ta nola besteen artean, bera serbitzeko diña bere borondatez egin zinduen!

Konsiera ezazu, bere amorioz Jaunak ezerezetik egin zinduen puntu artan bertan, zenbat Aingeru, ta Gizon, zu ez bezalako izango ziranak, ta ain erraz nola zu egin zitzaitean, bere itz, bere borondate bakarraz. Aiek utzi, ta zu egin zinduen bere ontasunez, zuk eskatu, edo merezi gabe, ta onetako Jaun, ta Jabe Onguillea serbitzeko.

Nola serbituko zuten Aingeru, ta Gizon aiek, zu bezala egin balitu? Nola zuk serbitu dezu? Nola fabore andi au pagatu diozu? Miserikordia



oni nola eranzun diozu? Ai nere Jabe bakarra! Bazenekien lenagotik, ta beti, ni nor, ta nolakoa orain izango nintzan: zein doakabea: zein esker gaiztokoa: ta orregatik ere, aiek utzi, ta ni artu ta ni egin ninduzun, ta zu serbitzeko, ta amatzeko! A, Jauna! Zerekin, edo nola zor andi, ta zorioneko au pagatuko dizut?

Konsidera ezazu, nola zu ezerezetik ateratzean, etzegoen zure eskuan, edo aukeran, ezpada zure Egillearen eskuetan zure fiñ, edo suertea: eta suerte guzien goiena, ta onena: au da, Jainkoa ezagutu, ta serbitzea. Bestetarako egin zintzakela, onetako egin zinduen, ta au da, ta ez besterik, bizi zeran artean, zure lan, ta egiteko guztia: an da lurrean zure fin, edo suerte ezin mudatu, edo aldatuko dezuna. Baña demagun zure eskuan legokeala, nai dezun suerte, edo fiña artzea. Jainkoak eman dizuna, bera bakarrik serbitzea baño obeagorik izan, edo artu zenezakean?

A! Jainkoa serbitzea zer da? Pisatu, edo barrerik begiratu zeu ondo, guzien Jauna serbitze au zer dan? Ezta alako zure etsairik andien bide gabe, edo tiranoren bat, zure odola txupatu, ta bizia kendu nai dizuna serbitzea. Ezta zure gorputz lur puska usteltzen, desegiten, auts biuritzen dijoan ori serbitzea. Ez, ez: gauza andiagotarako jaiio ziñan, edo zauzka Jainkoak, ez orren esklabo izateko.

Deadar egin bezate zure bizio, griña, edo gaitzerako inklinazio guziak, gorabite, ta nai duten iskanbilla guztia zure artean, zure kontra jaso bezate: orregatik ere beti egia izango da, etzaudela emen gorputzaren bizioen, ezpada birtuteen ondoren ibiltzeko, ta zure Jainkoa bakarrik serbitzeko.

Ta jainkoa serbitzea, zer da? Ai! Itzik, modurik ezta, au bear bezala zuri esateko, ta zuk ondo aditzeko! Gure Jaungoikoa serbitzea, egiaz erreinatzea da: *Servire Deo regnare est. Pecisti nos Deo Regnum, & regnabimus.* O ditxa pare gabea! O suerte ditxosoa! O zorioneko fiña, ta egiteko bakarra!

Zure mundu txiki, zugan, zure gorputz, ta animan dezun erreino orretan Errege, ta Agintari izateko, ta orrela Jainkoa serbitzeko, ta ez bes-tetako zaude mundu onetan. Orain, bada, zuganonz biur zaite, zuregan sar zaite: zure barnean kontuak ateraitzatu, ta zere buruari galde zaiozu.

Nere anima, zer da au? Fedeko egia da, lurrean Jainkoa serbitzeko zaudela? Bai. Ta munduan zaudela, zenbat urte da? Ogei, berrogei, edo onenbeste. Ta orietatik, zenbat urtetan zure Jaungoikoa bear bezala, serbitu, ta amatu dezu, ori bakarrik zure fin, zure jarduera, ta egiteko guzia izanik? O kontu estua, baña egiazkoa! O lotsa guztien izugarriena!

Ta bear bada, ainbeste urtetatik urte bakar bat, ez ill bat, ez aste, edo egun oso bat, Jainkoari zuzen bakarrik eztiizu eman, ta ez bera billatu.

Baña ai! Zer diot, Jainkoa billatu? Baldin beraren iges, beraren kontra, pekatu, ta bizioetan begi bietaraño sartu, ta beste lan, edo egitekorik, Jainkoa ofenditzea baizik ezpazendu bezala, bizi izan bazera. Ai zure galdua! Ai, ta zer egia ezin ukatuko dezuna! Ai kalte parerik eztena!

Munduko beste gauza, joan etorri, artu eman, ta egitekoenat denbora izan dezu: jan, edan, lo, ta alferkeriak, ta are gaiztoago dana, kulpa, ta bizioak denbora eraman dizute: orretan egunak, asteak, illak, urteak joan zaizkitzu: ta egia esateko, guztirako ezpada Jainkoa serbitzeko, denbora arkitu dezu: guztirako, ezpada zure fin ta egiteko bakarrik: guztirako, ezpada bearren erako, zeña dan zure Jainkoa bakarrik billatu, ta serbitzea: *Unum est necessarium.* Au da zure gauza bakarra: au zure egiteko guztia, ta txit bearra.

Beste gauza, ta egitekoak munduan zureak eztena, ezpada besterenak. Au da zurea, zeren bestek ezin egingo dizun. Au da bearra, zeren beste guziak utsegiñ agatik, au azertatzen badezu, zorionekoa zeran; baña beste guzietan ondo irtenagatik, bakar, ta bear onetan uts egiten badezu, betiko galdua zeran. Ta zure anima bakarrak bere Jaungoiko bakarra galtzen badu, beste Jaungoiko bat non arkituko dezu?

Ai nere Jaun, ta Jabe bakarra! Ta egia au jakiñik, zu bakarrik serbitzeko emen nagoela, orregatik ere zuk orretako bakarrik eman didazun denbora, zure argi ta grazia guziakin, zure esker gaiztoan, ta nere animaren kaltean biurtu, ta gastatu det? Ai ta nola Jauna? Nere biziaren parte andi bat zuzat azturik, edo zure Kontra biurturik pekatuetan joan zat; beste parte andi bat zorakeria, ezerezkeria, edo alperkeria utsean: ta bizi guztia, ez bear nuena, ezpada bear ez nuena egiten.

Etzaitut zu nere Jaun bakar, ta bearra serbitu; ezpada zure, ta nere etsairik andien deabrua, mundua, ta aragia. Nere fedea non zan, nere jui-zio, ta burua? Ai Jauna! Zein gaizki zure amorioa pagatu dizudan! Ai zein damu andia daukadan, ta bizi naizan artean, zu serbitu bearrean, ofendituaz, idukiko dedan!

BIGARREN KONSIDERAZIOA

Gogora ekartzu, ta konsidera ezazu ondo, munduan egin, ta norako Jainkoak zauzkan. Jaun andi zeruan, ta lurrean gauza guziak bere eskuan dauzkan onek, ta bere jakintasunaz gobernatzen dituenak, bere borondate, ta naiera amoriozkoaz, zurekin, ta besteekin mirari andi bat egin zuen: ta au da, emen lurrean Jainkoa serbitzen duenak, gero betiko zeruan ikusi, ta goza dezala: emen denbora puska batean Jainkoa amatu, ta aren Lege santua gorde, ta zeruan betiko amatu, ta bera saritzat gozatzea, ta alabatzea.



Orrela zeruko gloriarako egiña zera, ta arako zaude? Bai. O Jaunaren amorio neurri, ta kabu gabea! O miserikordia, ta fabore esan al guziak baño andiagoa! Nondik, edo nola zorion guzien andien au zuk merezi zenezakean? Ez, ez: Gure Jaun, ta Jabe guziz aberats, ta ugari onen doarikako mesede, ta grazia da guzia. Etzera lurrerako, ezpada zerurako egiña, etzera lurreko neke, ta negarrezko kezka oietarako, ezpada zeruko atsedeen bete, ta atsegin gozoetarako egiña.

Au da zure azkeneko ditxa, ta goieneko kabua: *Finem vero vitam aeternam*. Ea, nere anima, jaso gora alegin guziaz zure pensamentu, ta gogoak. Gora, gora, nere biotza: gora, gora, nere begiak, nere intenzio, nere nai, edo afektoak: gora gora, Zerura begira, nere borondate, ta animako indar guziak. A lurrezko biotz pobre itsua! Lurrean arrastaka ibiltzeko egiña etzera. Emengo anditasun, ondasun, ta atsegin aizezko utsakin, oraindano bezala, eroturik, ta emengo bagarela, aurren jostailu, ta ninikeriakin txoratu, ta engañaturik bizitzeko etzera.

Kontu, ta begira ondo, galdu nai ezpadezu betiko. Munduan zaude Jainkoa ezagutu, adoratu, ta serbitzeko, ta gero Zeruko glorian bera ikusi, gozatu, ta alabatzeko. Zure fin miragarria au da. Orretako, lurrezko gorputz, atskeria loi guzien onzi orretan dezu, ta or, kartzelan bezala, daukazu Anima bat, zuk gutxi ezagutzen, ta argatik gutxi estimatzen dezuna, baña Jainkoak beretzat egin, ta beretzat nai duena.

Zure abere gisako bizitzari begiratu, ta nork esan lezake, Zerurako Jainkoak egin, ta emanikako Espiritu asko balio duen bat zuk dezula? Zure obrak, ta fedea, zure dakartzun bizimodua, ta egia au nola konpon al ditezke? Ala ere, fede kasik ill obra gabeko berez bada ere, badakizu, ta illunean bada ere ezagutzen dezu, zer ondasun, zer joia estimagarria, zer margarita preziosoa, zure Animan Jainkoak emantzizun. Noiz, edo berriz bada ere, munduko pozaldi ero guzien artean ete, Anima ongaltzeko bildurrak artzen zaituzte, ta zure konzienzian nai ta nai ez, sentitzen dituzu.

Zaude bada, zaude orain puska bat: biurtu, ta sartzaite, pekataria, zure biotzean: fedeko begiak argitu, ta zure Anima ederrari, bear bezala estimatzeko begira zaozu ondo. Jaungoiko guziz Santu, ta jakintsuak, bera Espiritu, pensa al baño, ederragoa izanik, zu ezerezetik atera zinduenean, bere antzera Espiritu, edo izate bat egin zuen: ta ori da zure Anima, berez Aingeruen urrengoa, ta laguna, gauza askotako, ta andietarako señalatua. O zer Jaunaren obra!

Anima on ain prestua, ain lurreko gauza guzien gañekoa Jainkoak egin zuen, non lurrean gauzarik ezta, ez eta diran guziak ere, zure Animaren diña, edo ori beretzeko diña: ori munduan ezin dateke, Espiritu,

edo Anima bat Jaunak eman dizu, bere gai, bere diña dana: Jaungoiko guztiak baizik ezin betiko duena. Ta Anima ori, aurtxo bateatu batean bezala, grazian dagoela, Jainkoak argitu, ta ikusiko bazendu, aren edertasunaz pozez zoraturko ziñake, ta munduko gauza ederrak, itsusi puskak bezala artuko zinduzke.

Beraz gorputz orretan Espiritu, edo Anima bat dezu, Jainko guztia zeruan ikusi, ta gozatzeko diña dala? O! Zer diot, Jauna? Zu ikusteko diña dala? Zu nor zera, ta ni nor, edo zer naiz, Zu nizaz oroitzeko? O Jaun andi, ta nere Jabe bakarra! O zure doai guzien, ta Zu zeran guztiaren Emallea! Nola, ta non, Jauna, zure naiera gozo, edo amorio eztizkoen pare gabeak orren ugari isuriezazo dizkitzu zure ondasunak, zeran guztia niri onela emateko?

Bai, nere anima. Jainkoa serbitzen badezu, ta gorputzeko bizi labur onetan, aren borondatea egiten badezu emen lurrean dan doakabeena, pobreen, ta aztuena izanagatik, geroenean zerura igo bear dezu, ta an gorputz, ta anima, Doatsu, Aingeru, ta Santuen artean, orien lagun betiko izan bear dezu. Zure fin, eta egiazko zoriona zerurano igorzen da, ta an dago. An arpegiz arpeki zure Animak Jainkoaren edertasuna ikusiko du, Espiritu edere berez-dan, izan edo izate guzien iturri gozo ura, beti ematen, ta beñiere aortu gabe isurtzen dagoena.

Jaso itzatzu, bada, Kristaba, zure begiak, zure biotza, ta gogo guziak lurreko aurkerietatik, zure Aita amoroso, Errege andi onen zeruko Jauregi, edo Palazio eder artara. An zorioneko auzo, ta Santuen lagun izan bear dezu. An ez izentatu bakarrik, ezpada egiaz Jainkoaren Seme, ta alaba, edo ume izan bear degu.

An zuk, eta nik ez emen bezala iakiñezak, edoitsuak izan bear degu, ezpada orain egiazko fedearen illuntasunean siñisten deguna, an jakintsu argiak bezala, Jaunaren arpegia klaro ikusten degula, ta beraren argitasunean argiro, nai edo bear degun guztia, ispillu bizi eder argi artan. *Nunc per speculum in anigmate, tunc autem facie ad faciem. In lumine tuo videbimus lumem.* I. Corin. 13. Ps. 35.

Emen, zure jakinezagatik ondo barrendik aditzen, edo konprenditzen ez dituzun Sankramentu, edo Misterio eskutatu guziak, an klaro, ta berenez diran bezala ikusi, ta adituko dituzu gozotoro. An amorioz urtu, ta desegingo zera, ta zure Jainkoaren antzeko, edo guztia-Jainkozko egin, ta bera dan bezala ikusi, ta gauza guziak beragan jakingo dituzu: *Similes es erimus, quoniam videbimus eum sicuti est.* I. Ioan. 3.

An emengo neke, izerdi, gaitz, ta penak irago, ta gose, egarri, ta beste lurreko kezka azturik, zure Jaunak diranak kenduko dizkitzu, ta



zure anima bere gloria bizi guztiaz ase, ta beteko du, gaiñez egiteraño: *Satiabor cum apparuerit gloria tua*. Ps. 16. Emen Anima, ta gorputza, Jainkoaren Tenploa bezala, garbiri gordetzen badezu: an izango dira Jainkoaren Jarleku, edo Trono, ta gloriazko Zeru bizi, ta or bere atsegin, ta gozaldi guziak Jaunak izango ditu betiko. An Anima, ta gorputza bere pakezko ibar gozo, ta bere Biotzeko atsegin guzien ujola betiko artan Jainkoak sartu, ta bere glorian ondatuko ditu *inebriabuntur ab ubertare domus tuae, & torrente voluptatis tua potabis eos*. Ps. 35. Eta au da, ta onelako esan al guziak baño geiago, andiago, ta obeago da zure zeruko fiña.

Baña zer? Fede onekin zu bizi izan zera? Espiritu onekin? Zure obrak, itz, pensamentu, ta deseok, zerurako bizi danarenak bezala izan dira? Jesu Kristo zure Errege, ta Maisuaren humiltasun, pobreza, pazientzia, pake, karidade, orazio, ta mortifikazioan? Edo Kristau antzarekin, jentil baten obra, ta bizimoduan, lurreko gauzetan sartu, lotu, ta josirik, Jainkorik, zerurik, ta animarik ezipazendu bezala? A zer fedea! Zer bizitza!

Lurreko animalia, edo lau oñekoen gisa sabela, lana, ta edana, ta orien ondorengo gorputzaren atsegin loiak baitzen, beste Jainkorik ezipalitz bezala bizi izan zera. Ai nere Jaun andi, ta Jainko maitea!

Zer da au? Era gabe, fede, ta lege gabe, esker gaiztoan onela zuzaz aztutik bizi izan naiz! Baña zuri eskerrak: Orain guzia ezagaturik, erremediatu nai det: zure miseriak baliatu nai det, guzia utzi, ta galdu eztezadan. Zure grazia bear det. Indazu zure argia, ta zure eskua, nere pekatuen penitentzia egiteko, zu bakarrik billatzeko, zu serbitzeko, zuri jarraitzeko, ta bizi berri santu batean, zu beti amatzeko. Amen.

BIGARREN PUNTUA. ZU SALBATZEKO JAINKOAK EMAN DIZKITZUN ARTEAK

Au gogora ekartzea, zure Animari kanpo zabal, ta guziz eder bat idiki ta agertzea da. Au zure bizi guztiko Konsiderazioen diñako gaia, edo materiari al datekean ugarien, ta gozoena da, lurreko gauza oietarik zerukoetara zu erraz, ta pozik beti igotzeko. Eskola andi, letra, edo jakintasunik ezipadezu ere, fede bizi, ta biotz ona badezu, atoz ona, ta munduko askojakin arrotu aizezko askok baño askok obeto. Zeruko Libru eder onetan, zure salbaziorako, bear dezun guzia irakurri, ta ikasiko dezu: ta San Pablok dionez, gorputzeko gauza begiaz ikusten diran oietatik, ikus-

ten ez dan, ta gorputzik eztuen Jainkoaren Espiritu garbia, aren birtute, ta Jainkotasuna bera ikusi, ta ezagutuko dezu.

Sartu, ta jarri zaite, bada, munduko gauzak, edo kriatutak ikusten: eta Erregiña Saba Salomonen Jauregi, edo Palazioan baño ere obeto miretsi, ta arritu zaite, zugatit, zuretzat, ta zu salbatzeko Jainkoak egin duena ikusiaz.

Lenengo konsidera ezazu munduaren etxe andi au zuretzat, ain ederki egiña, ta alde guzietatik apaindua. Begira, altxa begi oriek gora kristalezko bobeda zeruko miragarri orretara: ta Indietako arri prezioso guziak baño eder, ta argiago diran, tistetzen beti dauden orietara: ta izar argiz josiak bezala, beñere erori gabe, nola beti dabilzan. Orien artean, gure Jaunaren begi eder bi bezala, Eguzkia egunaren gaia, ta Illargia zuri gabaz argi egiteko.

Zenbat urte, ta denbora da, beñere atsedean, ta utsegin gabe, gau, ta egun, zuk Jainkoa billatzeko, ta arkitzeko, bakoitza bere birtuteekin zuri laguntzen, beren ekiera, edo ejerzizio orretan dabilzala? Ta oiek zeruko Jaunaren arteak, edo medioak, zuk bera billatzeko eztira? Bizitzaren Libru argi bat eztira, Zeruko bidea zuk ikasteko, ta oietatik guzien Egillea gana errazago igotzeko?

Bigarrena, konsidera itzazu Jainkoaren lau elementuak, sua, ura, aizea, ta lurra, eta orien artean diran mirariak: nola zure gorputza oriez egiña dan, oriek zure bizitzari, zeruko Aitaren izenean, diran, ta orieran bizi zeran. Begira ainbeste txoritxo nabar mota, kantari ederrak airean: ainbeste arrai itxasoan, ainbeste egasti, ta abete lurrean, zure janari, erre-galo, ta jantzirako, zu serbitzeko, zuri zeruko bidean laguntzeko, ta diranak zure mendean: *Omnia subiecisti sub pedibus eius, &c.* Ps. 8.

Galde zaiezu: Nork orrela egin zaituzte? Ta eranzuten dizute: Ez guk geren buruak, ezipada zu egin zinduen Kriadoreak berak egin gaitu: *Ipsa fecit nos, & non ipsi nos*. Ps. 99. Zu, ta gu aren eskuak, beraren itz, edo borondateak egin ginduen: *Ipsa dixit, & facta sunt: ipse mandavit, & creata sunt*. Pl. 148. Guztiok berak egin gaitu: zuk gurekin bera serbitzeko; baño gu zuretzat, ta zu beretzat, bera alabatzeko.

Pensa ezazu ondo, zeruko, ta lurreko ondasun oiekgatik zure Jaungoikoari zenbat zor diozun, emendik aurrera esker obeak emateko.

Pensa ezazu ondo, nola zeruko eskala bat bezala kriatura guztiak begien aurrean jartzen zaizkitzun, orietatik, nai badezu, zu zerura igotzeko: nola bakoitzak bere aldetik egoak ematen dizkitzun, aietatik guzien Jabeagana, ta zure fin, ta tokira erazago egatzeko.

Pensa ezazu ondo, nola guztiak, eta bakoitza Jaunaren borondatea egiten beti ari diran, ta ejerzizio ori zuri beti erakusten: Zeruak beren argi



ederrarekin: lurra bere frutakin: soroak beren loreakin: txoriak beren kantakin, abereak beren nekekin. Losa zaite, ta lurperano humillatu, ikusirik, kriatura guziak Jainkoaren edana egiten, fin orretara ain zuzen beti dijoazela: ta zu bakarrik, ainbeste amoriozko lokarriz Jainkoak bereganon z tiratzen zaituela, orregatik ere beti ain oker, aren iges, ta aren borondatearen kontra.

Ikara zaitez, zeren zure Jauna ofenditzeko, gauza oriez beraz ainbeste bider baliatu zeran, era gabe janaz, edanaz, jantziak, osasun, ondasun, edertasunaz, ta beste Jainkoaren doiaz, gaizki, edo pekatuak usatuaz, ta zure biotzeko atsegin usia batean zure azken fin, edo ditxa ifiniak. O arrigarrizko gauza! O esker gaiztoko pagu itsusia!

Oiek guztiok emen ikusten diran asteak, edo medioak dira: igo zaite orain gorago, sartzaite barrenago.

Irugarrena, zu salbatzeko Jaunaren beste arte, ongite, ta bideak kontsidera itzazu. Oietatik batzuek guzientzat, edo komunak dita, besteak zuri berezkiro egiñak, edo partikularak, batzuek jakiñak, besteak ezagutu gabe beti artzen zaudenak, ta guziak miragarriak.

Orien artean zeruko Aingeru bat eman dizu zure lagun, zure zai, zurekin gau, ta egun dabillen. Mesede onegatik zer zor diozu? Begira ondo, edozein leku, ta bazterretan Aingeru Santu ori begira dagokizula. Begira ondo, zeruko lagun, ta Mandatari orren aurrean nola zabiliztan, zer egiten, zer esaten dezun.

Baña, oiek ezer ezpalira bezala, badezu oraindik zer kontsideratu, Jainkoak, zu salbatzeko, lurtean egin duen miraririk andiena, ta zeruak, eta lurra sekulako arritu zituena. Bada zu zerura eramateko, Jainkoa bera jatxi zan lurrera: Aita Jainkoak bere Seme bakar maitea bialdu zuen mundura. O mirari guzien miragarriena! Nori sekulan gogorako zitzaion onelako gauzarik? Nongo munduko buru aizez andituk bere bizian onelako gauzatan pensatuko zuen? Nor orien artean atrebituko zan Aita Eternoari eskatzera, zu, ta guziok salbatzeko, bere Seme bakarra bialtzeazala, aragiz jantzi, aur txiki, ta gizon egin, ta gero gurutze batean gugatik illtzedilla?

A! Zuk, eta bestek inork eskatu gabe, Jainkoak bere onez, ta zure onegatik obrarik andien au egin zuen: ta jaun andi au onela jatxi, humillatu, ta ezerez bezala, zuzatik egin ezker, beste aren biziko mirari, ejemplo, ta Sakramentuak, pasio, ta eriotza, orren ondore berez bezala datozkion gauzak dira. Ill nai zuen, ta illtzen, pekatua illtzeko, ta zuri bere erioztarekin bizi berria emateko.

Ill baño len zure amorioak bere katekin lotu zuen, ta zu umezurtza bakarra, ta bearra, munduko bide onetan ez utzitzeagatik, zure janari egin

zan, ta Aldareko Sakramentuan eskutaturik geratu zan. Ta au fineza guzien koroa, ta sillua bezala da. Baña, zure Jainkoaren arte oiez, onelako miserikordiaz, fabore, ta amorio, gozoaz zu nola baliatu zera? O Jaunaren amorioa! Ta, o zure esker gaiztoa! Ai! ta zenbat dezun, zer pisatu, zergatik lotsatu, ta zer erremediatu! Alaere, nai badezu, zure Erredentore amorezkoa bera da zure erremedio guztia. Penitenziaz, bizitza berriaz bera billa ezazu, ta zure bidea, ta betiko bizitza beragan arkituko dezun.

Emendik zure animaren estimazio, al dezun andiena atera bear dezu, ikusirik zure Jainko, inoren bearrik etzuenak, nola estimatzen duen, bada zu salbatzeagatik ainbeste egin zuen, ta onenbeste desegintzan. Pensa ezazu ondo, ta Jaunaren balantzan, al dezun moduan pesa ezazu, zenbat Jainkoaren begietan balio dezun.

Onetarako jakizu, Kristau, gizon, edo andrea, mundu onen azkene fin, edo kabua, burua, kunpligarria, perfekzio, edo konplementua dala Gizona: mundu guzia, ta zuzaz kanpora, emen Jainkoak egin duena, zuretzat da. Zu egin zinduen beretzat, ta Jainkoa bera da zure fiña. Jainkoa da zure Guztia, ta Jainkoaren gauza guzien gañeko amorioa da zure betegarri, perfezio, ta kunpligarri guztia.

Aita San Ignazioaren Ejerzizioen obra andi guztia au da, ta ez besterik: Lan andi onetarako traza, ta ejemplar bizia da Jesu Kristo Jaungoiko, ta Gizon egiazkoa. Orregatik zimendu seguru onetatik Santua asizen da: Ate onetatik, zeña dan Kristo bera, sartzen zaitu, zeruko bidean: Jesus maitearen Bizitzan, ejemplo, doktrina, Pasio Eriotza, ta Erresurrekzioan, gero beraren amorioa igotzeko: Amorio santu au da zure betiko bizitza: ta onetan San Ignaziok bere Ejerzizio guztiak akabatzen ditu.

Azkenik pensa ezazu, zuzan, ta zuzaz konpara diran gauzak diranak, beste ainbeste bide, ta lagun Jainkoak eman dizkitzula: Oriez ondo usatu nai badezu Jainkoaren izenean, edo aren borondarea egiñaz, zerurako eskala bat dira. Ta ara nola: Osasuna, ta eritasuna; ondasunak, ta pobrezia: anditasuna, ta txikitasuna: jakiña, ta jakiñeza. Zer geiago? Lurreko neke, ta lazzeria guziak, munduko etsai guzien persekuzioak, infernuko deabruen tentazio, ta lazo guziak. Ta are geiago. Zer? Zure pekatuak berak, zure kulpak, ta Jainkoaren kontrako ofensak, eragabeko traizio, ta gaitzik lotsagarrienak, zuk nai badezu, orien egiazko damu, ta proposituaz, Penitenziako Sakramentu, edo kontrizio Konfesio on batean, erraz zure salbazioko arte, ta bide diranak, egingo dituzu, ta zeruko eskala izango dira.

Ala Dabid batek, ala San Pedrok, San Pablok, ta beste Penitente askok egin zuten. Oriek beñ betiko konbertitu ziran. Eta ejemplo eder



oiek, ta Jainkoaren zurekiko ontasuna, zu billatzen, zuri etxedeten, ta onelako era ematen ikusirik: zer aitzakia izan dezakezu, beraren aurrean, zuk, oriek egin zutena, ez egiteko, ta ain aisa bertatik egin dezakezula?

O nere Jaun maite mirari guztien Egille, ta miserikordia guztien Emalle ugaria! O zure piedadezko naiera, edo kariño gozoa, onela gure anima galduaz kabu gabe zaletu, edo enamoratu zaituena! Zer zure amorio fin gabeak, ta guztien fiñenak, zer gu salbatzeagatik egin eztu? Ta orain ondo. Jainkoak, zu salbatzeagatik orrenbeste egin ezker: orrenbeste arte, edo medio eman ezker: nola zu baliatu zera? nola bide orietan ibilli zera? O esker gaisto beltzen, ta itsusiena! Zure Jainkoa ofenditzeko, ta zure anima kondenzatuko, diranaz etzera baliatu? Ai zer pagua!

IRUGARREN PUNTUA. ZURE AZKENEKO FIÑ ONEN INPORTANZIA

Nola konsiderazio onen faltak zure animari kalte andiak ekarri dizkan: ala ondo oraiñ arten badezu, probetxu andiak ekarriko dizka. Biurtzaita, bada, nere anima, zure barrenera, ta zure bakarrean gogora ekarzu, zenbat, edo zer egiteko bakar onetan dijoazkizun. Ai! Erremediorik eztago, ta bitarterik ezta. Bienen bat izan bear dezu. Edo zorionekoa, edo zorigaiztokoa, ta ori betiko: edo ditxosoa zeruan, edo desdixadua infernuan, ta ori beriko. Jainkoak beraren gai, ta zure jabe egin zaitu: zure libertadean, zure naiean, zure eskuan dago guzia. Zer naizu? Begira ondo, ta ondo pisatu, zer irabaztera, edo zer galtzera zoazen, ta ori betiko.

Demagun, bada, Kristau bi dirala: bata txit ona, ta Jaunaren bildur, ta omorioan, bera fede on, ta borondare guziaz billatzen, ta serbitzen duen justua. Bestea berriz txit gaiztoa, fede gabe, lege gabe, Jainkoaren kontra pekatuetan begi bietaraño sarturik bizi dana. Orregatik ere, askotan ikusten dana, demagun, ona txit persegitua dala, ta neke, lazeria, ta gaitz guziak alde guzietatik darraizkala, eta kriatura, edo gizon, ta deabru guztiak aren kontra dirala; baña guztien artean ere bera firme beti, beti leial, Jainkoa serbitzen, ta amaten.

Gaiztoa berriz, nai duen guzia, egiten: eta konta egizu, munduko anditasun, onra, ta estimazioak darraizkala: munduko ditu, ta ondasun guztien jabe dala, ta gusto, edo atsegin loi guziak dituela; baña beti Jainkoaren kontra, ta lege gabeko etsai. Orain demagun, eun, edo milla urte biak

orrela bizi dirala. Ekuskizun dago ori: milla urte iñor bizi ezta, ta egun, edo ordu seguru bat ezta. Beñ, edo beñ bataren zorionak, ta bestearen gaiztoak bukatu bear dute. Iltzeko zorian biak ikusten dituzu.

Ordu artan, Kristau on justu orri bere igaroko neke, ta penakgatik zer zaio; baldin zeruko atea zabal zabal idiki, ta Aingeruak bere anima ara eramateko datorkiola ikusten baditu? O Kristau zorionekoa! Orain persegidore, ta etsaien alegiñak non dira? Diranak desegin, ta artu ziran, ta anima ori Aingeruakin zeruko ondasun, atsegin, ta gloria bizira, Jainkoaren edertasuna ikustera dijoa. O anima fiel doatsua! Zure azken fiñ gloriatzeko sar zaite ordu onean: *Intra in gaudium Domini tui*.

Beste gaistoak berriz, erioa begien aurrean dakusela, arekin burruka asitzen da. Ai zer larria! Algaraz, ta isekaz deabruak datozkio infernura eramareko. Ea, lengo atsegiñak, ondasun, andinai, adiskideak oraiñ non dira? Demonioen atzaparretatik, ta infernuaren eztarri zabal artatik libra dezazela. Zer? Etzan besterik, lege gabe, Jainkorik ez baliz bezala, bildur gabe bizitzea? Ara anima doatsu Jainkoa billatu zuenari bere etsai guziak instante bateko gloria ezin kendu, ta ez eragotziko diote: ta orra ire anima sekulako galdua emengo gezurrezko adiskide, ondasun, ta atsegiñak infernutik aterako ezta.

Orain begira ondo, triste onek mundu guzitik zer probetxu atera zuen, ta ortik ezagutuko dezu zuk zer aterako dezun: *Quid prodest homini si mundum universum lucretur; anima vero sua derrementum patiatur*. Matth. 16. Au da Jesu Kristoren sententzia, ainbeste anima mundutik atera, ta zeruan sartu dituen: ainbeste Santu egin dituen.

Sententzia onen konsiderazioak Ejerzizio oietan San Franzisku Xabier Santu añ andi atera zuen, ta aren ondoren beste asko. Argatik Santuak nai zuen, sententzia au, zeruko erremediorik eragilleena bezala, guziak begien aurrean beti artu, iduki, ta biotzetan jositzea. Sententzia onen indar, edo birtutez Santuak ainbeste anima galdu Jainkoarenzat irabazi zituen. Santu onez, ta Santuaren ejemploaz balia zaite, ta Santu au bezala zure salbaziorako aprobetxatuko zera.

Pensa ezazu, bada, ondo Santuaren gisa: zer baliatuko dit niri, irabaztea mundu au, galtzen banaiz ni nerau? Emen lurreko ondasunetatik zer aterako det, zerukoak galtzen baditu? Eta nere anima galtzen badet, orren ordaña non arkituko det? *Quam dabit homo commutationem pro anima sua?* Matth. 16. Eztezu ondo ezagutzen, zeren ondo pensatzen eztezun zer dan, nolakoa, ta zenbat zure fin bakar, ta bear onek balio duen: ta gauza bakarren, ta bearren onetan zer irabaztera, edo galtzera zoazen. Arri zaitzte zeruak, eta lurra, Kristau asko puntu onez ain aztuak ikusirik.



A nere Jaun guzien goiena, edo soberanoa! A egiazko onra, ondasun, ta atsegin guzien kausa, ta jatorrizko iturri ugari, beti isurtzen, beti ematen, ta beñere aortzen etzerana! Ai! Ta zeñ laburra, zeñ illuna, ta esan ditake, zeñ illa dan zurekiko gure fedea, emen lurrean! Orregatik, Jauna, asko, edo geienak zuzaz azturik, euren begiz dakusten gauzetan nastu, ta txoratu, ta arrastaka, nekez, aranzaz beterik orien ondoren dabilta beti!

Noiz artean, nere Jaungoikoa, noiz artean orrela itsutu, ta gezurren, utsaren, ta banidadeen billa ibilli bear dute? Noiz artean zuzanonzko bidea utsegin, ta beren zoriona guziak nai dutela, ezin arkituko dan leku, ta gauzetan, añ utsuan beatz topaka, orren billa ari bear dute? Ta zu bakarrik bakoitzaren, ta guzien zorioneko fin gozoa, osoro, neurri betean, ta gañez egiteraño izanik, zure argi eder, ta bide zuzenetik iges beti dabilta. Ai zer kaltea!

Begiaz, ta egiaz, Jauna, zure azkeneko zorionen berri mundukoak jakin bear lukee. Zu ondo ezagutu, ta ezin dateke ez billatzea. Zeruko Doatsuak bezala, al baliz, oiek zure Izan, edo Espiritu ederra, bera dan bezala, bear lukee arpegiz arpegi ikusi, ta orain bertan gozatu, azkeneko ditxa onen inportantzia, bear bezala, jakiteko: orrela munduko erokeria, ta era gabeko joko, ta gauzetan esku aldi batean, zer galtzera, edo irabazterra dijoatzen ezagutuko lukee. A Jauna! Zu pekatuaz galtzean, esku batean, pieza batean guzia galtzen da!

O mundu galduaren Argi, ta erremedio bakarra! Zure argi golpe bizi bat bial zaguzu, Jauna, gure anima itsuak argitu ditzan, ta lurreko gora bera guzien artean, Zu, gure zorion guzia, ta zure azkeneko ditxa, ta gloria onen balioa biziro ezagutu, ta obeto estimatzeko. Au galtzen badegu, Zu galdu, ta sekulako galduak gera. Au irabazten badegu, beste guztiak galduagatik, zu bakarrik irabazi, ta sekulako aberatsak, beti zorionekoak izango gera zurekin.

Oriez gañera konsidera ezazu, zure salbazioaren guztizko inportantzia au, nola, ta zertaraño Jainkoak alde batetik, ta deabruak berak besterik erakusten dizuten.

1. Begira ondo, zure Jaungoiko maitea, beste egitekorik munduan ezpalu bezala, gau, ta egun nola beti zuri begira dagokizun, zu zaitzen bezala, zu gordetzen, ta anparatzen. Baña nola? Munduko amarik onenak beren sabeleko umetxo laztanak ez bezala. Milla bider obeto. Onetan Jaunak berak dionez, parerik ez, ta bere begietako niniak bezala zauzka gorderik. O gure Aita gozoaren amorio, besterik ez, ta bera bezalakoa!

2. Begira ondo, zeruko Aita, ta Errege andi onek bere egiazko erre-galo, ta afari gozoz, ta atsegiñez bete, ta betiko artara nola, ta zenbat amo-

riorekin konbidatzen zaituen, ango bere glorian zure neke, gose, egarri, ta emengo negarrak kendu, ta betiko aztu erazotzeko: bere Izan, edo Izate, bere Espiritu, bere arpegia, bera dan guzia, dan bezein ederra, ta gozoa, zuri eman, ta zuk ikusi, ta gozatzeko: ta emengo illdura, edo mortifikazio txiki, ta penitentzia laburren pagu, ta Sari-Jainkoa bera zuzetat izateko: sari guztizko andia: *Ego ero merces tua magna nimis*. Ai Jauna: ta zure ona, ta zure geiegia! Ai Kristau on garbia: ta zorionekoa!

3. Beste aldetik gogora ekartzu, Aita maite onek zenbat egiten duen zu irabazteko, zeruko bidean zu enpeñatzeko. Bidezko argala bezala desmaia etzaitzen, zer arte, ta trazak artzen ez ditu. Orrerako Jesus bere Semearen, ta Ama Birjiñaren dolore, ta penak begien aurrean ipintzen dizkitzu, ta orien ondorengo gloria, zureak zuk arinago eramateko. Seme, ta Amaren, ta Santuen zer ejemplo ederrak, berariaz bezala, zu alaitu, ta animatzeko? Zenbat zeruko mandatu, dei, ta inspirazio zure biotzean?

A! Ate ori zuk idikiko baziño, añ gor egiten ezpaziña, nola Jaberik maitean au zure biotzean sartuko litzakean! Otsez dagokizu: idiki zaiozula: *Ecce fio ad ostium, & pulsa. Aperi mihi soror mea, dilecta mea*. Apoc. 3. Cant. 5. Bigunduko etzera? Onenbeste goraintzi erregalatu, onenbeste mandatu gozo, onenbeste amoriozko deirekin mobituko etzera? Arriak baño ere gogorrango bear dezu izan.

Ai anima sortua! Zer da au? Zure zorionaren iges orrela zabilta? Zer? Bildur ote zera, zure Jaunari eranzun, atea bereala idiki, ta bera artuaz, geiegi serbituko dezula? A zure itsua! Ta zer ditxa geiogo: Zertako egin zinduen, zertako zauzka munduan? Beste egitekorik badezu? A bildur, ta atzerapen lotsagarria! Begira ondo: orren kalte andia zure animaren zat deritzatzu, bertatik, ta beti zure Jainkoa billatzea, ta amatzea? A! Zure bearrik eztuela, Jaungoikoa beti zure begira, zure zai eztago? Zure billa eztabill? Ta badakizu noiz artean? Bear bada, eztizu geiogo deituko.

Pensa ezazu, zure lotsagarrian, zuri burla egiteko, nola deabruak arrazoi andia daukan. Onek zuk baño obeto daki zure animaren balioa: Badaki, zeñ gutxi zuk estimatzen dezun, ta Jainkoak zure, edo bere joia bakar ori zenbat estimatzen duen. Badakus, zu salbatzeagatik, zenbat alegiñ, Jainkoa bera lurrera jatxi, gizon egin, ta gurutzetan ill arteraño egin zuen, ta zure, amorioz katibu Sakramentuan geratu, ta beti egiten dagoen, ta zenbat nai dizun.

Badakus deabruak, orregatik ere, zure salbazioagatik pauso bat zuk eman nai eztuzula: ta orretako, ta Jainkoaren esan, edo borondatea egiteko, oiñ bat mugitzea, karga andi pisutzat daukazula: Jainkoa geiegi serbitze, ta amatzearen bildur baziña bezala. Badakus ark, zure salbazioa gero-



ko beti utzitzen dezula: beñere egiaz, ta gogotik asi etzerala: zure propositu, ta naiak eragilleak eztirala, ezpada engañagarri: nai erdi, edo nai usiak.

Oiek guziak, ta onelako nai bezalako era zure animan deabruak ikusi, ta zer alegiñak zu galtzeko, ta kondenatzeko egiten eztitu? Zer asmo, zer traza, edo moldeak, zer intenzio biurrak, zer gezurrak, zu txoratzeko, ta engañatzeko? Ta aiñ goi zalea, edo soberbioa deabrua izanik zer gauza billan, itsusi, nazgagarrietaraño jatxitzen ezta, zure anima azpiratu, ta galtzeagatik?

Badaki deabruak, zeñ amore onez Jainkoa begiratzen dizun: ta batzuetan Aita guziz beraak, ta maiteak bezala, besteetan juez Justu ase-reak bezala eriotzaren, ta infernuaren bildurraz abisatzen, ta ikaritzen zaituela. Ta orduan, ta beti zure gorrotoz deabruak zer arteak, zer engañuak asmatzen, ta irabiatzen eztitu? Alde guzietarik zure ondoren dabill: bein, ta berriz aren tentazio, ta tranpai zuk arpegi eman, kendu, ta ordu gaiztoan arentzat bota agatik; orregatik ere aren arrabia ezta asper-zen: berriz, ta berriro batetik, ta bestetik zure kontra, beñere nekatu gabe, zu tentatzera biurtzen da, ta beti peleatzen dago.

Konsideratu azkenik, lurtean bizi zeran artean nola auzi, edo leia onetan beti zauden, Alde batetik zure Jainkoa, bestetik deabru gaiztoa dauzkatzula. Bien artean zaude beti. Zure Jainkoak zerura, deabruak infernura eraman nai zaitu. Jainkoak adiskide maitearen gisa, egia beti, deabruak, eriozko etsaiaren gisa, gezurra beti esaten dizu, Jesus zure Salbado-reak bere gisa gurutzeak, tormentuak emen, ta atsegin, ta kontentuak zeruan; deabru zure galgarriak emen gezurrezko atsegin usiak, ta kontentuak, ta betiko pena, ta tormentuak infernuan eskeñi, ta eman nai dizkitzu.

Ta zer? Zure fedean, ta biotzean kabi diteke au? Zere burua bien artean onela beti ikusi; ta zure anima, zeren gogoak ematen dizun, Jainkoari ukatu, ta kendu, ta deabruari eskeñi, ta ematea? Zure Jabe maitearen besoetan, ta biotzeko laztan gozoetan sartu bearrean, zure etsairik gogorrenaren atzaparretan zere burua aiñ ariñ, gogotik, orren merke, edo doarik betiko infernuan ezartzea? Au izan liteke? A! Ta zenbat bider izanda! Zenbat bider ori bera egin dezu? Pekatuan sartu zeran guzian. O tragedia triste! O trukada itsusia!

AZKENEKO ITZKETA, EDO KOLOKIOA

Ai nere Jaungoikoa! Ai nere Jabe bakarra! Zer da au, Jauna? Zer da au? Egia da, pekatu bakoitzetan zure amorio guziaren trazak desegiñ, ta anima deabruari betiko ematen zaiola? Bai. Egia au sinisten det? Ta ala ere, nere lotsagarri andian, bere gezurrakin egia au deabruak berak onela erakutsi bear dit? Nere anima ezagutzen, ta estimatzen nere etsairik andien demonioagandik ikasi bear det? Ai era gabeko fedearen falta lotsagarria! Zer egin det? Nola biurtuko naiz nere anima galdu, ta kalte gutzizko au erremediatzeko?

Nora, Jauna, biurtuko naiz, ezpada niganonz, ta altxatu, ta Seme prodigo galduaren gisa, zuzanonz: *ad fe reversus dixit: surgam, & ibo ad Patrem meum*. Ai Aitarik onena! Ai zeruko Aita maiteena! Zu beti izan zera Aita ona; baña itsu esker gaiztoko onek, ni jakin eztet, ta izan ez naiz zure Seme, edo umea; ezpada nere bizio agintarien, nere oitura galduen, ta nere etsai deabruen menpeko esklabo billan izan naiz.

Ai Jauna! Nere desdixaz onelako izan banaiz ere, orain nator, ta biurtzen naiz, nere gaitz guzien lotsa, ta damuz beterik, nere kulpak zure oñetan aitortzera: *Pater, peccavi in coelum, & coram te*. Zure umearen izenik eztet merezi: orren diña ez naiz ni: *non sum dignus vocari filius tuus*. Ai Jauna! Artuko nazu zure oñetan? Baña zer diot, nere Jesus ona? Baldin ainbeste denbora, laztanga ni arteko besoak zabaldurik nere begira bazaude?

Zer artu, zer eman, zer egin, ta zer eraman eztezu ni salbatzeagatik? Nere pekatuak artu zinduen zure gañean. Nigatik Zure gorputza, pena, izerdi, negar, odol, ta biziarekin eman zenduen. Mirari, ta bizitzako alegin guziak egin zinduen. Nigatik pobreza, gose, egarri, kartzelak, sokak, azoteak, arantzak, burlak, isekak, gurutzea, ta eriotza eraman zinduen, ta guztiak pozik, ta amarez: ta ala ere gutxi zeneritzan, ta merke guztiakin nere anima erosi, ta salbatzeagatik.

Ta zer? Nere eskuan dagoela, onelako anima pekatuaz deabruari saldu, onelako joia estimatua doarik galdu, ta etsaiari bereaz irteten utzi bear diot? Ez, ez, nere Jaungoiko maitea. Zuk egin ninduzun zuretzat: zu emen serbitzeko, ta zeruan gozatzeko. Ona, bada, Jauna, nere anima zure eskuetan, ta betiko. Zer naizu, nik egitea? *Domine, quid me vis facere?* Zure borondate santu gozoa egiten erakutsi zadazu. *Doce me facere voluntatem tuam*. Ps. 142. Zu serbitzea, ta amatzea, naizu. Nerea da ditxa, ta zoriona. Ori nai det, Jauna: ordu onean, ta amore onez izan bidi orrela: *Paratum cor meum, Deus: paratum cor meum*: Ona nere biotza prest: ona nere borondate zure eskuetan, beti zurea egiteko: nere pekatuen penitentzia, konfesio on bat, bizitza bernia, zu beti amatzeko emen, ta gero betiko glorian. Amen.



PEKATUEN GAÑEKO EJERZIZIOA

*Malum, & amarum est, reliquisse te
Dominum Deum tuum. Jerem. 2.*

Gauza gaiztoa, ta miña da zure Jaun,
eta Jaungoikoa zuk utzitea.

Pecarum meum contra me est semper. Ps. 50.
Nere pekatua beti nere kontra dago.

Zeruko gure fiñ ditzosoak lurrean nola etsai andiagorik eztuen pekatua baño: ala Aita San Ignaziok, pekatutik anima libratzeko, edo infernuko biderik atera ta zerukoan sartzeko, lenbizikotik Kontsiderazio guziz indartsuak, ikusiko dan bezala, pekatuen gañean ematen diozka.

Meditazio onen fiña, ta frutua da, pekatua alde guzietatik ain gauza itsusi, ikaragarria ikusi, ta orren kontra gorrotorik al dan andiena biotzean sortu, ta betiko artzea: eta eriotza, ta infernua bera baño geiago, edozein pekatu aborrezitzea: egiazko damu, ta propositu eragille batekin kulpa guzien konfesio oso bat egiteko, pekatuen bide guzietatik, infernutik bezala iges egiteko, ta biziera berri bat Jainkoak nai duen bezala arteko.

PRESTAERA, EDO ORAZIORAKO PREPARAZIOA

Eregletan esan zan Orazioaz Jaunari erregutu, argia, ta grazia eskatu, Orazio au ondo egiteko, ta zure pensamentu, itz, eta obra guziak, Jesu Kristorenakin batean, beraren borondatea, orain, ta beti egiteko, izan ditean.

KONPOSIZIO, EDO LEKU EGITEA

Kontu egizu, zure begien aurrean daukazula Jesu Kristo, Aingeruen erdian bere Tribunalean jarririk bere mende, ta majestade guztian, ta arpegi txit aserrearekin: aren jarlekutik suz, ta garrezko ibai bat pekatarien kontra datorrela: Juez onen aurrean zure anima, kulpa dun galdu baten gisa ikara dakutsula, ta beste ainbeste katea, ta grilluz beterik, nola diran zure pekatuak. Egoera ikaragarri onetan Eskaria izango da.

ESKARIA

Argi andi bat indazu, Jauna, nere pekatuak ezagutu, ta damu biotze-koaz penitentzia egiteko: besteen buruan kaltartu, edo eskarmentatu, ta nere libratzeko.

LENBIZIKO PUNTUA. IRU PEKATU JAKIÑAK TA ORIEN KASTIGUAK

1. Aingeruen pekatua Zeruan.
2. Gure Gurasoena Paraisuan.
3. Judasena Apostoladuan.

I. KONSIDERAZIOA

Gogora ekartzu Aingeruen pekatua; ta nola orrek betiko galdu zituen. Jakizu, fedeak erakusten diguna, ta nola Jainkoak bere ontasunez Aingeruak ezerezetik egin, edo kriatu zituen, bere aurreneko obra nagusienak bezala. Espiritu puru, edo garbiak egin zituen, txit jakintsu, ta guziz ederrak, libre, indartsu, ill eziñak, edo immortalak: ez gu bezala gorputzen, ta gaitzen azpian. Jaunaren Majestadeari zegozkion serbitzariak egin zituen, doai naturalez, ta are geiago, naturalezaz gañeko, edo graziaz txit apainduak, bere zeruko Korte, edo Palazio eder aberats artan bera klaro ikusi, ta Espiritu doatsu beti izateko gaiak, edo kapazak.

Baña, sekulako gloria bizi artan sartu baño len Jaunak nai izan zuen, ta erakutsi zien, nola Gizona pekatutik libratu, ta salbatzeko, Jainkoaren Seme bakarra aragiz janzi, aur txiki, ta gero Gizon egin, ta gurutze batean illko zan: ta amoriozko obra mirragarri onegatik, Aingeru guziak ezagutu, ta adoratu bear zuten. Nere borondatea da, esan zien, ta Nik agintzen det: «Aingeru guziak bera adora ezazute».

Orduan Luzifer bere Egilleari obeditu nai ezik jaiki zan, ta bere Espiritu ederrarenzat mengoa andia Jainkoa Gizon egin, ta adoratzea, zeritzala, soberbiaz bete, ta atzeratu zan. Pekatuaeren infernuko izurri au bere Lagunen artean banatu zuen, ta Aingeru guzieren irugarren partea berekin pekatua artastatu zuen. Bereala setazko batalla aserre andi bat zeruan Aingeruen artean asi zan.

San Migel guzieren aurrenekoa, humilkiro Jaungoikoa ezagutu, ta adoratzan zuela irten zan, ta esan zien: *Quis fias Deus?* «Nor Jaungoikoa bezalakorik?» Orduan Jaunak bere juiziora gaiztoak deitu zituen: ta aien pekatu aiñ itsusia ikusi, ta bereala arraio batzuek bezala, deabruak infernuetan ondatu zituen: ta an daude, ta erremedio gabe betiko egon bear dute.

Emen zure probetxurako ondo beatu, ta begiratu bear dezu: Nork, non, nola, edo zer pekatu egin, ta gaitz andi orregatik galdu zan. 1. Nor?



Fedeak esaten ditu, Aingeru aditu dituzunak galdu zirala. O nere Jaungoiko guziz justua! Bada pekatuaren eriozko puzonia orrela Aingeru ain Santu, garbi, ta jakintsu zeruko doaiez bereakin atrebitu bazan, ta galdu bazituen: Nola zu, Kristau lurrezko ontzi argal, autsikor ezerez bat zerala, seguru egon al zaitezke?

2. Begira, non pekatu egin zuten. Zeruan. Jesus milla bider! Beraz zeruan, tentazio, ta tentatzallerik etzan lekuan, Aingeruak berenez, beste gabe, pekatuaren gaitzak onela amorratu bazituen. Ai! Gaitz onetatik nola zu libratuko zera? Etzaude, ez zeruan; ezpada gaitz guziak berez dakartzien lur gaizto onetan: zerez aiñ argala zera: alde guzietatik deabru tentatzaldez bete: oriek beren tentazioakin beri zure ondoren dabilta: pekatuaren peligru gabe, ez begiak jaso, ez pauso bat eman dezakezula. O zer ikara!

3. Aingeruak zer pekatu egin zuten. Bat, eta bakarra, begiak itxi idiki baño ariñago, pensamentuz bakarrik. Bada bat orrekin betiko galdu baziran. Ai, nere desdixta! Ta zure burua, edo anima ainbeste pekatu pensamentuz, itzez, obraz egin, ta beterik dakutsula, nola arritzen, ta bildurtzen etzera?

4. Begira, nola Jaunaren aserre andiak pekatu orrez damutzeko, ta erremediatzeko lekurik eman etzien. Eta zer? Aingeruai lekurik eman ez? Ta zu orren ardura gabe, ez ordu, ta ez instante segururik etzezula? Pekatuan zaude? Ai! Ta orain, beste asko bezala, illtzen bazera?

5. Aingeruen pekatu au Jesu Kristoren odolaren kontra bezala izan etzan: bada oraindik ixuri etzuen. Baña zure pekatu guziak, eta bakoitza alde onetatik itsusi, infameago dira zuga, zeñagatik Kristok bere Biotzeko amorio guztiaz, bere odola atzeneko tantoraño Gurutzean eman zuen. O esker gaiztoa!

6. Begira ondo, pekatu ori ezkeru Aingeruak nola geratu ziran. Ai! Len Aingeru eder ziranak, gero deabru itsusi; len zeruko izar argi, gero infernuko illiti: len edertasunez janziak, gero itsustasunez izugarriak. Ai! nola ote dago zure anima? Pekatuan? Ta begi bietaraño pekatuz bete? Ai! ta zeñ illun, beltz, itsusi, ta nazkagarria! Orain Jainkoak, aren begietan dagoen bezala, zure anima erakutsiko balizu, or bertan, naigabez, penaz, ta damuz, illotza geldituko ziñake.

7. Nola San Pedrok dionez: gu baño askoz indarsuago, ta portitzago Aingeruak izanik, ala ere indar, edo kemenik eztute, kulpa orren karga, edo tormentua eramateko, ta orren pisuaz ondaturik, ta eztanda gaizto egiten bezala daude. Bada, ai zure galdu bearra! Ai! au ikusi, ta pekatuan bazaude! Nola zure pekatu guzien pena, ta tormentuak, aiñ argal, ta eze-

rez, zerala, betiko zure gañean eramango dituzu? Bada erremediorik ezta, edo penitentzia, edo kondenazioa.

II. KONSIDERAZIOA

Gure alderagokoa degu au: Adan, ta Eba gure Gurasoen pekatuaren gañean. Gogora ekarri, ta pensa ezazu, nola Jainkoak Adan, ta Eba, bere eskuetako obra bezala egin zituen. lurrezko gorputzetan Anima, edo Espiritu guziz ederrak, bere irudi, edo antzera eman zitzen: doai naturalez bete; ta bere graziaz, adiskide maite, justu, ta Santu egin zituen. Gaitz gura, edo inklinazioak arrazoiaren, ta aragia Espirituaren mendean, beste dolore, eritasun, gaitz, ta eriotzatik libre izateko pribilejio andian utzi zituen. Atsegin guzien Paraisuan sartu, ta ango jardiñ ederren Jaun, ta Jabe. Adan egiñ zuen, ta an ziran Arbola Lorez, ta fruta gozoz beteak eman ziozkan.

Berenzat, ta ondorengo guzienzat ditxa, ta doai oiek zituzten, baldin Jaunaren borondatea egiten bazuten. Orretako Jainkoak esan zien: Orra arbola, ta fruta guziak zuen eskuetan: bat bakarrik (Jakintasunaren Arbola zan): bat ori debekatzen dizutet: begira orren frutarik ez jan, zeren illko zeraten.

Orduan deabruak, gure ditxa ikusirik, ta Jainkoak ainbeste nai zigula, enbidiaz, ta gorrotoz beterik, sugarrasta, edo suge batean figura artu zuen, Eba gure Ama tentatzeko, ta esan zion: Etzedilla bildurtu, ardura gabe fruta artatik jan zezala, zeren Jainkoa bezala izango ziran. Ebak, engañatu, ta frutari begiratu zion: txit zan ederra: artu ta jan zuen. Ta ori asko ezpaliz bezala, Andrea bera Senarraren tentatzalle egin zan: Eba, Adan gure Aitari fruta debekatua jan erazo, ta pekatu egin erazo zion.

Jainkoak bereala ots egin zion: ADAN NON ZERA? Deitu, ta beren pekatua bi ai begien aurrean ifiñi zien: Paraisutik bota, ta an sartzea aiei, ta ondorengoai debekatu zien: eriotzaren sententzia guzienzat eman zuen, ta munduan diran gaitz, neke, ta desdixta guziak pekatu onetatik datoz. Emen, gure lurrean, ta sallean bezala, atxurtu, ta ondo beatu bear degu, ta gauza askoren gañean.

1. Gogora ekarri, pekatu au nork egin zuen. Eskritura Sagraduan fedeak dio, Adan gure Aitak egin zuela. Au zer da? Ote zera zu, edo bes-tetik, lur gañean, Adan baño geiago, obeago, edo prestuago? Ez. Bada Adan bera baño geiago ezpazera, zure buruaz ez fiatu. Adan erori zan, ta Andrearen gusto, edo esana egiteagatik, beste gabe, sagarra jan, Jainkoa ofenditu, ta bere anima illtzen. Begira, bada, Kristau argala: begira, gizon, edo andre orren tratu geiegiak, ta orren ondo esanak zoratu, ta



pekatuan sartu etzaitzan. Iges, iges, Orren aldetik ta pekatuen bide guzietatik. Bestela galdua zera.

2na. Begira, bere animaren, ta gureen kalteko lan gaizto ori Adan-ek non egin zuen. Paraisuan. O nere Jainkoa! Bada, Jaunaren pakezko leku eder artan, zure Aita jakinsu, justua seguru egon ezpazan: nola egon zaitzke zu, ez Paraisuan, ezpada infernu bizi, edo mundu galdu onetan? Or deabruen tentazio, ta zure etsairik andienak alde guztitik artzen zaituzte: munduko gauza guziak beste ainbeste deabru, ta tentatzaile dira, ta zu zerori zuretzat gaiztoena. Ai! nola bizi zera?

3na. Begira, gaitz andi, edo pekatu ori zertan zegoen. Beste fruta gozo guztiak jateko, gure Aitak bere aukeran zeuzkan: Jainkoak guzieren Jabe emalleak bezala gauza bakar bat agindu zion, ta aiiñ erraza, nola zan, fruta debekatu bakar artatik ez jatea: ta orretan andrearen esana egiteagarik, Jainkoaren agindea autsi zuen: gusto txar bat sagar ori jatean artzeagatik, aiiñ erraz pekatua tragatu zuen. O! Ta zenbat gizon andi jakinsu, Jainkoarekiko prestu, ta santu ziranak, anre bategatik, edo itzketa aurre-regi artuagatik, deabruak aiiñ aisa bide orretatik galdu dituen! Argatik Espiritu Santuak esaten dizu, ardoan, ta anreen tratuan sartu etzaitzela: «ardoak, eta anreak jaquinsuai ere Jainkoa ukaerazotzen die». Ta berriro esaten dizu: «Ersuge baten enkontrutik bezala, iges egizu pekatuetatik». Eriozko sugetzar bat topatuko bazendu, zeeiñ arin iges joango ziiñake? Bada orrela pekatuen bidetik, beatz topa infernukotik iges iges. Ta zure erremedio bakarra au da.

4na. Nolako ondorengo, zer kalteak mokadu gozo, edo obeto esateko, samiiñ orrek munduari ekarri dituen, ta egunoro, edo puntuoro dakartzien. Zere buruari galde: zure gaitzak nondik datoz? Pekatu onetatik. Galde zure auzoai, etxeai, kaleai, erriai, Probinzia, ta Erreinoai galde: munduaren lau parteai galde: bazter guzietan galde: Gaitzak nondik zatozte? Goseak, izurriak, alkar eziñ ikusiak, leiak, peleak, auziak, ase-reak, karzelak, ospitalak, ta eriak: sualdi, ta ugalde andiak, ta orietan, ta besteetan diran kalteak, gorputzeko gaitz mota ta zurekiko munduaren akaballa, edo eriotza, bere neke, ta lagunakin: oiek, eta beste ikusten ez diran, ta kontatzen erraz ez diranak nondik datoz? Gure galgarriak, nork zakarzite? Fedeak eranzuten dizu: diranak kulpa orrek berekin dakarziela.

O gaitz guzieren ekarlea! ta guzieren buru azkarria! O ersuge izugarri pare gabea! Erensuge, edo basiliskoagatik esan oi da, orrek zu ikustea, asko dala, zu illtzeko. Baña munduan ezta sartu, ta ez jaio ersugerik, ikusi ere gabe, artan pensatuaz beraz bakarrik, beste gabe, iñor illtzen duenik. Bada, arrigarritzko ersuge illgarri ori da berez, ta bakarrik pekatua: onetan

Jaunaren Legearen kontra gauza pisuan berariaz, ta gustoz pensatuaz, beste gabe, orrek bere tiroa egiten du, ta betiko eriotza zure animari emanen dio.

O gaiz esan al guzia baño andiagoa! Zazpi milla urtera dijoo, zure Amak sagar orri begiratu ta jan, ta zure Aitari jan erazo ziola. Ta orduan kulpa orrez bere buruari eman zion estokada oraintxe odola dariola dago. Ta non nai, munduan orain jaiotzen dan umetxo, edo aurak berekin puñalada eriozko ori bere animan dakar, ta orren ondoren, Jainkoaren aserrea, ta bere kalte, ta gaitz guziak. O pekatu gaitz guzieren iturria, zazpi milla urteren buruan beti gaitza dariona!

5na. Ondo begira, pekatu egin ezkerore zure Gurasoak nola gelditu ziran, eta atsegin ariñ ori Adan zure Aitari zer kosta zitzaion. Len Jainkoaren doaiez, osasun, indar, ta birtutez janzi, ta apaindurik zegoena, pekatuaren puntu artatik, guziaz erantzia, ta larru gorrian bezala geratu zan: animan itsua, ta txitezko itsusia: ta animan, ta gorputzean argal, ta lur puska baten gisa, lurrean arrastaka, neke, izerdi, dolore, edo miñ, ta lazerien azpian, ta eriotzaren sentenziarekin.

Azkenik Adan gure Aitari gusto piska ori kosta zitzaion. Ta zer? O pekatuaren ikaragarritzko karga pisua! Kosta zitzaion, ez gutxiago, ezpada bederatzia eun urte, ta geiago penitentzia, damu, neke dolozekoak, ta eriotza. Ta ai! Gurasoak nolakoak, umeak alakoak: Aita, ta Ama nolakoak, seme, ta alabak alakoak. Bakoitzak bere buruan dakus: zuk zurean, nik nerein, pekatu ori ezkerore nola geldituko giñan.

3. KONSIDERAZIOA

Judas-en pekatua gogora ekartzu, ta aren buruan pekatuaren kaltea ikasi, edo ikusi ezazu. Judas Jesus-en Konpañian Apostolu izan zan: Kristok berak autetsia, berak deitua, berak ekarria. Milagroak egin zituen, Kristoren, ta Ama Birjiñaren aldean, Jainkoak bialduen, edo Apostoloen artean orietatik bat izan zan. Jesu Kristok bere Elizako Lenen Lagunetatik bat egin zuen; ta Zeruko, edo Elizako ondasunen tesorero, ta guzieren Jabe bezala.

Baña zorigaiztoko gizon galdu nai, edo galdu bear onek, al zatekean falsiarik beltzena azkenean egin zuen. Saltzalle billau, ta infernuko merkatariairen gisa, ain erraz ondo merke, ogei ta amar dirugatik, doarik esan diteke, ta traizioz, bere Maisu, ta Jaberik onena, Jesu Kristo Jainko, ta Gizon egiazko maitea saldu zuen, ta erosi sekulako infernua. O! an dago ura, zuk aren buruan eskarmentua, aren kalteaz, artzeko! Pekatu, ta kondenzio onen gañean ondo pensatu bear dezu.



1a. Nor kondenatu zan. Judas, Apostolo bat, Ai nere desdixadua! Kristo-ren Diszipulo bat baldin badago infernuan: nola bildurtzen etzera, ikusirik nola bizi zeran? Begira galdu etzaitzan.

2na. Pensatu, Judas non galdu zan. O Jaunaren juizio eskutatu ondo gabeak! Jesus, ta bere Amaren aldean, Apostoloen artean. Bada non zu seguratu, ta gordeko zera, baldin munduan zan, ta al zatekean lekurik onen: etxerik santuen ta Zeruko eskola artan Judas bat galdu bazan? Zu, Judas bezala, etzera bizi Jesus, ta Maria, ta alako Lagunen artean; ezpada deabruen artean, ta oiek baño ere gaiztoago diran, betiko tentatzalle adiskide, ta lagun gaiztoen erdian: alde guzitik deabruak darraizkitzula: ta pekatuan bazaude, oriek gau, ta egun zure lagun dituzula: ta buruan ille baño, bear bada, demonio geiago zurekin dauzkatzula. Nola lo egiten, nola jaten, nola egiten dezu farra, beti orien artean zaudela? O fedearen argala!

3na. Ondo pensatu, nondik Judas asi zan, ta nola galdu zan: eta arkituko dezu, onen kalte guzia asi zala, zeren Jesus, ta onen Ama maiteagandik igeska, ta alde egiten asi zan: bai, eta aren zeruko jolas, ta itzketa Santuaz murmuratzen ere, Jesus onaren, sermoi, ta dotrinak gauza gogortzat zeukatziela. Orrez gañera, bolsero zan, ta Jesus bere Maisuari zetorkion limosnetatik lapur txarra bezala sisatzen, ta ostutzen asi zan: gauza txikietatik, oi dana, andietara pasatu zan, ta ainstesteraño, non da bere Maisua saldu, ta infernua erosi arteraño geratu etzan. A ikusgarri tristea, ta ez ikusteko obea!

Baña, orra nola animak galtzen diran. Kristau bat supitoan, edo batean ezta deabru, edo aren lagun egiten. Geldi geldika Judas asi zan, ta orobat aren lagunak: ta zu zerori orrela zaramazki pekatuak. Geldiro asiaz, onetik gaitzera pasatzen da. Ta baldin Ama Birjiñaren, ta bere Semearen egiazko debozioan, aien birtuteai jarraitzean, epeltzen, ta oztuaz bazoaz: ta Ama Semeak billatu bearrean, biak utziaz, igeska bazabiltza, zertara emango dezu? A! Dabid Santuak diona: «Orra, Zugandik urrutitzen diranak galduko dira».

Orrako, Jainkoaren itza, nork nai esan dezala, nork nai erakatsi, edo irakurri dezala: ori enzuteko zure nazka, edo otzetasun ori: Jesus-en, Ama Birjiñaren, ta Santuen mandatu gozo, edo zeruko inspirazioak lekzioan ondo aditu, ta meditazioan ondo pentsatzeko nagitasun ori zer da? Askok Libruakin Santu andi egin ziran: orrelakoak, batez ere bizio, ta inklinazio gaiztoai lepoa ebaki, ta bizia kentzen laguntzen duten Libru onetan irakurtzeko atzerapen on: ta letura egiten bada ere, beti lasterka, presaka, ito-

tzen bezala, ta soseguz artzeko, zure biotzean sartu nai ez ori, zer señaile da?

Ai! Ta zein bildur naizan, Judas-en lagun egin artean, ta bera bezala galdu artean geratuko etzereela. Orrako lurreko gauzetan zure biotzaren eransi nai itsu ori, ta geiegi jan, edan, janzi, ta apaingura, andi nai sobera ori, beste onelako munduaren itsaskun, ta aragiaren gusto zale, ta inklinazio, ta intenzio billan oriek zer dira? Zertan azkenik emango dute, ezpada Judas-en gisa, zure Jainkoa saldu, anima galdu, ta merke, edo doarik deabruari ematean?

4na. Begira ondo, nola gure Jesus onaren egunik deseatuena, ta atsegiñena, Judas-ek egin zuen egunik, edo gaurik illunen, ta tristeena. Jesu Kristok gogo txit andiaz, ta bere Biotzeko deseo guziaz, pare gabeko ejenploak, ta ondasun guztiak, bere buru, edo personan, bera dan guztia guri emateko, egun ori nai zuen, ta Judas merkarari, ta saltzalle gaiztoak bere zeruko Maisua etsai infernukoan atzaparretan entregatzeko egun ori artu zuen.

Jesus bere Apostoloen, ta Judas-en oñetan, sekulan ikusi al direkean humiltasun, ta amoriorik andienaz, ta bere begi ederretako negarrakin uraz Judasi oñak garbitzen, ta Judas falsiaz betea, aiñ lotsagabe Jesus-en aurrean, edo gañean. Zer esango zion Jesus onak bere Biotzeko suspirio, ta sentimentuakin. Ai! nork esan, edo pensa al dezake Jainkoak berak bai-zik?

Jesus maitea bere atzeneko afari artan, ondasun guzien zeruko erregalorik gozoena, ta bere Biotzeko amoriozko Sakramentu Santu, edo Komunioan bere Gorputza ematen: ta Judas, esan oi dana, ausardi aiñ andiaz, infernuko otso egin, ta zeruko arkumea iristen, edo tragatzen, ta bokadiaz batean Satanas bere animan sartzen. Ai nere Jesus maitea! Ta zenbat lagun bera bezalakoak Judas-ek beren ondoren ote ditu? Ta zenbat bera baño gaiztoago, orain egun askotan Zeruko Mai orretan gaizki komulgatzen diranak? Ta zenbat Judas-en gisa, pekatu bakoitzaz, aiñ erraz, edo aisa Jesu Kristo saldu, ta infernuko leiza zuloeran Judas-en oiñ pean betiko daudenak?

Azkenik Ekiera, edo Ejerzizio onetan Aita San Ignaziok berago zu jatxitzea, ta ondatzea nai zuen. Jatxi zaitz bada konsiderazioaz infernuraño bizirik ara gero jatxi etzaitzen illik. Begira ondo, dio Santuak, pekatu bakar bategatik infernua zenbat dauden. O Jaunaren juizio estu, ta eskutatuak! Zu baño kulpa gutxiagorekin zenbat ote daude betiko? O! Ta zenbat Jaungoiko maite, ta Aita miseriakiaz bete oni zor diozun! Lenego pekatua egin zenduenean, aren justiziak bereala bizia kendu bali-



zu, zenbat denbora, edo urte da, infernuko zorigaitzoko auzo izango zifiala? An daudenai penitentzia egiteko lekurik eman etzien; zuri bai. O miserikordia! O ditxa!

Ta zer? Iltzeko, ta bertan kondenatzeko zorian zaudela, oraiñdaño-koa bear dezu izan? Ez, ez, nere anima, ez orrelakorik. Penitentzia, penitentzia: biziera aldatu, bizimodu berria artu, oitura berriak, biziera santua. Kondenuai eman ez tien leku, ta denbora, niri Jainkoak bere graziaz eman dit: onez baliatu nai det, ta bereala, ez geroko utzi. Gerorik izango dedan eztaikit. Orain, Jauna, bear det, eta nai det, biziera berria, nere sal-bazioko bidea, zu beti emateko. Amen.

BIKARREN PUNTUA. PEKATUA ZER DAN, IRU ALDETARA ERAKUSTEN DA

Gaitzik andien au zer dan, zuri nolabait adierazotzeko, orren itsus-tasun guziaren iru antz, edo semejanza zure begien aurrean ipiñiko ditu-gu, ta dira iru Konsiderazio oiek.

1oa. Nola pekatua, munduan al datekean traiziorik billau, ta itsusie-na dan.

2na. Nola pekatua, munduan al datekean adulteriorik lotsagarrien, ta itsusiena dan.

3na. Nola munduan al datekean esker gaizto beltzen, ta itsusiena pekatua dan.

LENENGO KONSIDERAZIOA

Pensa ezazu, nola Kristau batek bere Jainkoaren kontra jaiki, edo biurtu, ta egin al dezakean traiziorik dolloren, ta itsusiena, pekatua dan. Au zuk ondo aditzeko, kontu egizu, zuk, eta beste askok serbitzen dezu-tela Errege bat munduko prestuen, aberatsen, ta ugariena, ta zuen Jabe maite oni, Gaztelu bat berak txit asko estimatzen duena irabazten, neke andiaz, ta leialtasun andiagoaz guziok laguntzen diozutela.

Gaztelu ori irabazi ta Jaun andi orrek, bere eman naitasuna erakus-teko, antxe guztien artean zu artzen zaitu, ta bere eskuz zu armatu, ta Zal-dun, ta Gaztelu orren Gobernari izentatzen, ta egiten zaituela: orrerako bear diran guziak, edo ondo gordetzeko bear dan guztia zuri eman, ta esa-ten dizula: Ea mundu guziaren aurrean onela onratzen zaitut: nere izerdi

asko kostarikako joia, edo Gaztelu estimatu au ondo gorde. Zu onela utzi, ta beste Gazteluak irabaztera Jaun ori joaten da.

Baldin onelako honra, ta faboreak zure Errege orregandik artu, ta burua jiratu orduko oriez aztu, ta zure arma, ta alegin guziakin, zure Jaun, ta Jabe prestu orren kontra jaiki, ta biurtuko baziña; ta berari jarraitu, ta persegitu, atxitu, ta bere Koroa, burua, ta bizia zure eskuz kenduko baziño, zer esango litzake zuegatik, edo onelako traizioa egiten lukeana-gatik? Ori ez tala gizona, ezpada infernuko deabruren bat, edo deabru guziak baño gaiztoago.

Orren kontra guziak, ta zu zerori orrelako aren kontra arrazoiez ase-rattu, ta biurtuko zifiake. Ondo. Bada orain, pekataria zure kontra fedez, ta arrazoi andiagoaz biur zaita. Gaztelu ori nor, edo zer da? Zure anima. Errege ori nor da? Jesu Kristo sekula guzietako Jaun, ta Jabe bakarra. Onek, ez bakarrik bere izerdien, baita ere bere odol guziaren kostuan zure animaren Gaztelua irabazi, ta zerura joan zan. Andik zer fabore, zer honra, zer grazia, ta doaiak ez dizkitzu eman? Zure animaren Gobernari egin, ta ori etsaietatik obeto gordetzeko, zer mirariak, zer Sakramentuak; bere Ama guziz Santa zure Amatzat, bere Eleiza zure Etxetzat, bere Ain-geruak zure zai, Konfesore, ta Maisuak Laguntzat, ta beste onelako asko egin dizkitzu.

Ta onen paguan zuk zer egin dezu? O zeruak! O lurra! Burua jiratu orduko, arraizoi gabe, ezerezegatik, ezpada zure nai utsa, zenbat bider zure Erregerik justuen aren kontra jaiki, ta biurtu zera? Ai! Pekatu egin dezun bakoitzean. Zure biotzean demonio, mundu, edo aragiari pekaru-rako leen eman diozun guzian zure Jaungoiko guziz Aldun, edo Omni-potente aren kontra biurtu zera: zure eskua jaso, ta Jesus ona, Jainkoaren Semea oiñpean, edo ostikoka erabilli, Gurutzean berriro josi, ta zure alde-tik ill dezu. Iob. 15. Hebr. 6. Hebr. 10. O traizio esan al guzian baño infa-me, ta andiagoa!

Ta ori, pekatu egitean, Jauna, ta oni nik, ta zure kontra egin det? Ai nere desdixadua! Ai! Ta non zan nere fedea? Nola damuz, ta penaz ill-tzen ez naiz? Ez, ez, nere Jesus maitea, geiago pekatu rik. Zure ontasun andiagatik damu det zu ofendituaz: ill, zu ofenditu baño lenago, zurekin beti bizitzeko. Amen.

BIGARREN KONSIDERAZIOA

Da pensatzea, nola Kristau batek egin al dezakean adulteriorik lotsa-garrien, ta itsusiena dan pekatua. Au ondo ezagutzeko, kontu egizu, Erre-ge gai, edo Prinzipe gazte santu, jakinsu, prestu, eder, ta munduko abera-



tsena, zure auzoko donzella pobretxo batez pagatzen dala, ta ez bestegatik, ezpada zeren etorki, edo kasta garbiko, odol onekoa dan, eta ezkontzaz bere Esposa, edo Emaztetzat artzen duela. Erregiña bati dagozkion jauregi, apaingarri, ondasun, ta Korte bateko aralde, edo komitiba, ta bear diran gauza guziakin utzi, ta Errege ori Indietara joaten da, ta denbora gutxiren buruan India guzien Jabe arkitzen dala.

An bere emazte Erregiñaz oroitu, ta bereala Onzidi andi, edo flota, galeoiak prestatu, ondasun, zillar, urre, ta joiaz, munduko galarik ederrenaz beterik bialtzen dizkala: Karta guziz gozo, kariñoz, ta biotzeko naieraz beteak, bere berri on guzien kontu emanen diola, ta laster bera ere, edo en persona, Erregiña berekin eramatera, etorriko zaiola.

Baldin Errege, edo Senar maite onelakoaren finezak, ta amorioa ikusi, ta Esposa, edo andre ori, zeren bere menpeko esklabo billau, itsusi, doakabe, elbarritu batekin gazte-limuritu, edo amanebatu, ta zoraturik dagoen ta orrekin adulterio, ta infamian egoteko, bere Esoso fiñaz aztu, ta oni falsia geiago egiteko, onek bialdurikako soñeko gala, ta joiak artu, edertu, ta apainduko baliz; zer esango luke munduak, ta zuk zerorrek? Ori? Eztala andrea, ezpada deabruren bat, andre guztien gaitzkarra, edo eskandalo lotsagarria, ta deabruai bere burua emana. Guziak aren kontra, ta arrazoi andiarekin, izango lirake.

Oraih bada arrazoi andiagoaz zure kontra biur zaite. Esoso ori, nor da? Jesus mundu guziko Errege, ta Jabea, anima garbien Esoso maitea. Ta donzella pobre ori nor da? Zure anima: au zu jaio ziñanean, guztiz pobre apaingarri gabe zegoen; baña etorki, edo kasta onekoa, Jainkoak berak, eta bere antzera egiña. Zeruko Errege Jesus zure animaz enamoratu, ta bateatu ziñan orduan bere biotzeko Esposa egin zinduen, ta Erregiña bezala bere Eleizako Jauregian sartu, bere Ama zure Amatzat, Aingeruak Lagunzat, ta orrelako beste ondasun asko, dakizun bezala eman dizkitzu.

Bere zeruko Indietara Esoso ori joan, edo igo zan: An gloriako ondasun, ta grazia guzien Jabe da. Zer doaiezko flota galeoiak andik bialdu ez dizkitzu? Zer Sakramentu, zer graziak zure anima edertu, ta apaintzeko? Zer zeruko karta, mandatu gozo, ta kariñozko goraintziak? Nola zu an jkusteko miñez bezala dagoen, ta zu an berekin nai zaituen: laster bera zure eriotzako orduan zure billa, zure deiez, bere gloriara; zeruko Erregiña bezala zu eramatera pozik etorriko dan. O ditxa pare gabea!

Ta orien guzien paguan zuk zer egin dezu? Ai! Pekatu egin dezun bakoitzean, edozein gauza gatik, ezerezegatik, arrazoi gabe, zeren gogoa ala eman dizun, zenbat bider Esosorik ederren, santuen, maiteenaz

aztu, utzi, ta orren doiaz bera ofenditzeko baliatu zera? Baña zer, edo norgatik? O fedearen falta guztizkoa! Zure «Esoso gizasemeen artean ederrena, zeñean ispillu batean bezala Aingeruak begiratu nai duten» ori utzi: Norgatik? Ai! Demonio, edo Belzebugatik, zeñak Eulien Jainkoa esan nai duen! Deabruai zure anima menpeko, edo esklaba betiko emateagatik! Bada pekatu bakoitza egitean demonio, edo belzeburekin ezkontzen zera. O ezkontza! o adulterio! o trukada zorigaiztokoak!

IRUGARREN KONSIDERAZIOA

Au izango da, ondo pensatzea, Kristau batek egin al dezakean esker beltz, ingratitudek ikaragarrien, ta itsusiena, dala pekatura. Ori nola dan ezagutzeko, kontu egin bear dezu, zure errian, ta plazaren erdian gizon bat dakutsula txit lastimagarria: oni begiak, ta arpegia, esku, ta besoak, oiñak, eta zankoak, bere bizian ikusi eztan bezalako min bizi batek erre, ta desegin dizkala. Zer ikusten zaude? Gizonaren antzik ezten dolorezko erretrato bat.

Alabearrez, edo Jainkoak nai, ta an bertan Mediku bat agertzen da, guziz jakinsu, zintzoa, txit ongille, edo ongiroa. Eri ori ikusi, ta errukitzen da, ta ori sendatzeko bere zañetako odol puska bat bereala atera, ta kontra pozoi edo triaka bat egiten du, aiñ indarsu miragarria; non alderatu, ta eriarri arrimatu orduko, ematen dizkan begi, ta arpegi munduan ikusi diran ederrrenak, guztirako gai diran esku, ta besoak, oiñ, ta zankorik sendoen, ta pijoenak: gizon len eri triste zan ori, orain mirariz sendaturik arkitzen da.

Bere burua orrela ikusi, ta bere ongille Medikuak eman dion belauan gozoarekin jaikiko baliz: berak emanikako begiaz begiratzen balio: ta zeruko Aingeru bati bezala, belauniko, ta biotz guztitik ari eskerrik asko eman bearrean; Medikuak puntuan eman dizkan esku oriekin puñal bat artu, ta gorrotorik amorratuarekin, jarraitu, itseki, ta puñaladaz josi, biotza erdiratu, ta illko balu Mediku ori, zer esango luke edozeiñek, zuk, eta guztiak? Diranak arritu, ta zurtuko lirake: itz, edo korde gabe geratuko ziñake, ta esango zenduke:

Ori eztala gizona, ezpada deabruren bat, edo deabru guztiak baño gaiztoago, infernuko guztiak berekin dituena. Aren etsai, aren kontra guztiok, ta arrazoi andiaz, zeren alako pagua, sekulan ikusi eztan esker beltza bere Ongilleari biurtzen dion. Bada oraiñ aserre guziaz, ta arrazoi kabu gabe andiagoaz zure kontra biur zaite.

Eri miñ biziaz usteldu, ta galdurikako ori nor da? Zure anima tristea. Jaio ziñanean, jatorrizko pekatu, edo orijinalaz guzia usteldua, edo illa zegoen: Jainkoa ezagutzeko fedearen begi gabe, itsua: esku gabe, edo obra



onak egiteko mainkoa: oñik gabe zeruko bidean pauso bat emateko, Jainkoari jarraitzeko, ezertako gai etzala.

Ta Mediku ori nor da? Jesus, zeruko Mediku, ta erremedio bakarra, zerutik gu sendatzera jatxi zana. Onek bere biotza gure gaitzaz bigundurik Sakramentuetan, bere odol guziaz, ta orren merezimentuz, zeruko triaka, ta kontra pozoia egin zuen.

Bateatu zinanean, bere graziaz argia eman zizun, fedearen begiak Jainkoa ezagutzeko: eskuak, espiritu, edo kemena obra onak egiteko: oñak, pauso onakin berari jarraitzeko: zure Anima Aingeruen urrengo, almen, edo potenziak, espiritu, ta gorputzezo sentiduakin apaindu zinduen. Oiek, eta beste onelako on asko, batzuek jakiñak, besteak zuk jakin, ta ezagutu gabeko doai andi asko, eman dizkitzu,

Ta orien paguan zuk zer egin dezu? O esker gaizto, ingratituderik beltzen, ta itsusiena! Oriez baliatu, ta zure Jainkoa serbitu bearrean, zenbat bider zure Ongille bakar Santuaren kontra biurtu zera! Pekatu egin dezun guzian. Demonio, mundo, edo aragiari gaitzerako zure biotzean leku emate guzian, Jesus maiteari bere biotza puñaladaz jositzeko oriez baliatu zera. Zenbat bider begi oriez, eskuaz, oñaz, mingañaz, biotzaz, gorputz, ta anima, Jainkoak bera serbitzeko eman zizun guziaz, zeruaren aurrean, ta beraren begietan, lotsa gabe, bera ofenditzeko, baliatu zera?

Argatik pekatua, gizon bat iltzea, senide, Aita, edo Ama berea iltzea baño, geiago, edo gaiztoago da; zeren Jesu Kristo Jaungoiko, ta gizon egiazkoa, Jainkoaren Seme bakarra Gurtuzean josi, ta berriro iltzea dan. O zeruak! O lurra! Sekulako arri zaitetzte.

O nere Jesus maite biotzekoa! O nere Aita, ta Aitarik onen, Jaungoiko guztia ona! Ta nik ori egin det? Ai nere itsua! Ai nere zoro galdua! Zu nere Salbadore, ta nere Jauna, Gurutzean josi, ta illik ikusi arteraño, etzan erraz, pekatua zer dan ezagutzea. Baña, azkenik Gurutze orretan nork Zuri bizia kendu zizun!, Ai! Ai! Nork, ezpada pekatuak? Nere pekatuak. O Sugulna, edo dragoi infernukoa! O erensuge, edo fiera odolgiro nere Jesus maiteari bizia kendu ziona!

IRUGARREN PUNTUA.

IRU ARRAZOI PEKATUAREN

GORROTORAKO DIRANAK

Jainkoak bere eskutik bezala, nola gauza guztiak bere jakintasunaz, beren neurri, pisu, ta numero, edo kontuaz maneatu dituen: Sap. II. ala

Kristau pekatariak, pekatu egitean, bere aldetik manera on guzia urratzen, ta desegiten du, iru konsiderazio oietan ikusiko dezun bezala: ortik zure biotz guztiko, ta betiko pekatuaren kontrako gorrotoa ateratzeko.

1a. Jainkoaren aurrean, zure pekatuak konta al ditekean guzia baño geiago dira.

2na. Neurri al ditekean guzia baño luzeago dira.

3na. Pisa al ditekean guzia baño pisuago dira.

LENENGO KONSIDERAZIOA

Zure pekatuen kontu, edo numeroa. Au ikusi, ta arritzeko, ezta beterik bear, ezpada zure bakarrean, ta Jaunaren aurrean, zure konzienziako Librua artzea, ta ondo begiratzea. Soseguz, bada, edo geldi geldi zoaz Amar Aginte, edo Mandamentu santuen ispilluan zere buruari begiratu, ta galdetuaz.

Nere anima, begira, zenbat kulpa obraz, itzez, pensamentu, edo gogoz egin dituzun: Jaunaren borondate, ta Legearen kontra, Eleizak agintzen dituen, ta zure biziera, edo estadiak eskatzen dituen obligazioen kontra, ta zazpi eriozko pekatu, edo bizioen gañean. Zenbat kulpa egindeko, edo komisioko esaten diranak? Zenbat utsundeko, edo omisio-ko esan oi diranak? Zenbat egin, ta utsegin, zenbat ardura gabe, oarkabe, nagitasunez bear zana utziaz, bear etzana egiñaz?

2na. Zenbat pekatu gaztetasunekoak, orduko zorakerietan berariak egiñak. Ps. 24. Orien artean, zenbat ezagutuak, ta zenbat ezagunkizunak, beñere ezagutu gabe, jakin bearrak, ta jakinezak? Zenbat zure, edo zorerren pekatuak, ta zenbat besterenak: guztiak zure gañeko, edo zure kontrakoak, edo itz, ta ejemplo gaiztoakin besteri zuk eragiñak ajola kabe zure umeai aita, nola nai bizitzen utziaz, Jainkoak zure kontura eman, da daukazun familia, edo etxeokoi, dotrinaren gañean, oitura onetan, Jaunaren bildurrean azitzeko, bear dan konturik artu gabez: zenbat zure biziera lasai, alper orretan? Zenbat onelako, ta zenbat bestelako? kontu, edo numerorik bada? O zer tranzea! O zer kontua, ta zeñ xe! O zer juizio estua!

Ai Kristau pekatuetan nasturik, ta aiñ aisa orien kontu izugarriaz azturik bizi zerana! Ai orain pekatuak orren erraz, ur gozoa bezala edaten zaudena, edo tragatzen dituzuna Job Santuak ziona! (Job, 15.) Ai, alde guztitik oriek biribillatzen orain alegere zabiltzana! Ai, nola Dabid penitenteak diona, zure pekatuakin gertatuko zaizun! (Psal. 17.) Ibai, edo ujola andi baten gisa arazotuko zaituztela. Kontu, edo numerorik ez tute, ta arriurik orduan, zere burua ezin ikusi dezula, pekatuen erdian ondaturik



arkituko zera! Zure buruko illeak baño geiago dirala ikusi, ta korde gabe geldituko zera. (Psal. 39.)

A! Zure betiko kulpak zenbat ote dira? Jainkoaren begieran, itxaso-ko ondar aleak baño geiago. Ta zer? Au ezta zure anima sekulako galtzea? Begira ondo: ez arren pekatua pekatuaren gañean egin: kontu ori ez aurrera eraman, ez geiagotu, dio Espiritu Santuak. (Eccli. 5.) Nola zure biziaren urte, egun, ta orduak Jaunak kontaturik dauzkan, ala zure pekatuak: oiek bata besteari darraizka: pekatu batak bestea dakar. Geiago egiten badezu, urrengoa atzenekoa izango ote dan, eztakizu. Izan diteke. Pekatu mortal batekin, dituzunaz gañera, kondenatuko ote zera?

Ta, bildur, ta kezka orien artean orrela bizitzeari, ondo deritzu? Ez; ez Kristau baten bizimodua au ezta. Penitentzia, ta biziera berria nai det. Nere Jesus maitearen deia aditu naiago det: «Ez pekatu geiago egin». (Ioan. 8.) Ez geiago, Jauna, ez geiago. Sobra, ta geiegi oraindano ofenditu zaitut. Guzien damuaz, penitentzia egiazkoa: erremedio bakarra, zeña dan penitentzia, propositua, konfesioa, bizimodu berria zure grazian, Amen.

BIGARREN KONSIDERAZIOA

Zure pekatuen neurria. Pensezazu, nola pekatu bakoitza dana dala, gaitz bat aini luzea, ta ain zabala dan, non kaburik, eta neurririk eztuen. Gaitz bat berez erremediorik eztuena, ta gaitz bat, infernuko pozoia bezala, leku guzietan banatu, ta zabaldu dana: ta pekatariak askotan beren borondatez, beste gabe, ezpada zeren nai duten, geiago luzatzen dutena. Zure fedea bizierazo, ta konsidetazioaz infernuko izurri onen arrastoai jarrai zaiezu, ta noraño igo, sartu, ta erensuge onen pozoia zabaldu dan, ondo ikutsu.

1a. Zerura igo zaitte, ta fedez ikusi ezazu, nola Aingeruen irugarren parte, edo ezin kontatu ala Aingeru, Espiritu, goien eder aiek pekatuaren pozoie nek zoratu, bere lekuetatik atera, arrastatu, ta infernuan sekulako ondatu zituen. Au goieneko tiro, ta lenengo kaltea da. Begira ondo, zenbat urrezko jarleku, edo diamantez apaindurikako Silla zeruan utsik puntu artan geratu ziran. Ta galdetzen badezu: orietan jarri, ta egon bear zutenak, non dira? Fedeak eranzuten dizu: Pekatuaren izurriak galdu, ta kondenatu zituela.

2na. Zerutik jatxi zaitte Jainkoaren Paradisu, edo atsegiñen leku eder artara: Jabe gabe, utsik, ta bakarra arkituko dezu. Ta galdetzen badezu: Zer da au, edo Paradisu au norenzat zan? Fedeak dio. Zure Gurasoenzat, ta zuretzat zala. Bada utsik nola dago? Zeren pekatuaren pozoia sartu, ta

fruta debekatuaz izurrituak bezala. Adan da Eba, ta guztiok andik betiko bota ginduzten. Ai zer kalte luze, ta zabal neurri gabeak bokadu onek guzientzat ekarri zituen! Izurri onen arrastoak dira, egungo eguneraño lurrean ikusten diran gaitz, ta kalte neurri, ta kabu gabeko guztiak. Emendik, munduan lenena jaio zan gizon Kain zorigaiztoko aren bizitza arrastatu galdua, ta aren kondenzazioa.

Ori ezker, begira, pozoie au nola mundu zabalean bereala banatu zan: ta zortzi anima bakarrak ezpazan, lurrean ziran beste guziak, ujola guztizko, edo dilubio ikaragarri artan, ondatu zituen. Aurrerago zoaz, ta begira: nola Sodoma, ta Gomorra-ko bost erri guziz andiak, ezin kontatu alako anima, edo jendez beteak, esan ezin ditekean pekatu itsusiak, begiak itxi idiki batean, ziranak erre, ta infernuko ikatz biurtu zituen. O Jaunaren juizioak! Ta denbora, ta leku guzietan, erriz erri, etxez etxez, beti onela dabil, leoi baten gisa, nondik inor traga dezakean, ta pozoie onekin, pekatuaz al duen kalte guzia egiten.

Berago lurretik infernu zabalera jatxi zaitte, ta begira, gaitz au, bere su, ta gar aserre guziakin nola an banatzen dan, Begira, zenbat espiritu, edo Aingeru pekatu bategatik an dauzkan: zenbat anim karzela illun, edo ziega artara eraman, ta emen goi zale ziranak, nola azpiratu, ta betiko ondatu dituen: zein luze, ta zein zabal, betiko iraupenaz leku andi artan gaitz ori egiten dan; ta infernuko leoi onen eztarri zabalak nola anima galduak tragatzen dituen.

Orien zorigaiztoko lagun naizu zuk izan. Oriek len bezala zu orain pozoie au edan, da edaten aisa, aisa bizi zera. Begira: trago batekin gaitz orrek asko ito zituen. Tragotxo asko, ta geiegi zuk edan dituzu. Begira, urrengo trago, edo pekatua azkena izan eztedin. Zer da au, anima nerea? Ez, ez, nere Jaun, eta Jaungoiko maitea! Libra nazazu, ta zure graziaz libratu nai det gaitz izugarri onetatik. Egiaz zugana biurtu nai det, Jauna. Ea bada, penitentzia, nere anima, penitentzia: pekatutik sekulako libratu: ta zure Jaungoikoa biotz guziaz amatu, ta beti serbitu. Amen.

IRUGARREN KONSIDERAZIOA

Mundua dan gauzarik sendoena Egia da: ta munduan dan gauzarik pisuena pekatua da. Biur zaitte bada, nere anima, zure biotzaren barren barrenera, or zure bakarrean, fedearen argian, ta Jaunaren balanzan egia sendo au ondo pilatzeko, ta orren karga pisutik zure burua libratu, ta arintzeko.



Pekatua da kargarik pisuena, ta pisatu al guziak baño gaitz andiago, ta pisuago: Jaungoikoaren aldetik, pekaruaren aldetik, pekatariaren, ta deabruaren aldetik.

1a. Jainkoaren aldetik begiratu, ta pisurik arkitzen ezta, pisatzeko, ta jakiteko, pekatua zer dan. Ez alafede: lurrean bizi geran artean ezin dateke, pekatua, berez dan bezala, zer dan, iñori ere ezagutzea: pisu guziak orren kargak urratzen, ta desegiten ditu: zeren Jaungoiko guziz on, justu, santuaren kontrako ofensa, bide gabe, edo al datekean injuriarik nabarbenen, ta pisuena dan. Ai nere Jaun andia!

Nork, zuri begiratu, ta pensa, edo pisa al dezake, zure Santutasun, ta ontasun guziaren kontrako pekatu, edo gaitz ikaragarri au? A! Ezin, Jauna, ezin gizon argalitsuak, bear bezala, pisa dezake, zure ontasuna, ta pekatuaren gaiztotasuna, biak ondo ezagutu gabe. Ta, Jauna, Zu nor, edo zer zera: ta pekatua zer da? Ai! Eztakit zer esan.

2na. Pekatariaren aldetik begiratu, ta nork pisa dezake pekatua? Kristau pekataria, zu zer zera? Lur puska bat gorputz orretan, auts loi utsa, desditxa, ta gaitz guzien ontzi bat: arrastakako, oiñpeko ar zital bat: Jainkoaren aldean eltxo baten zankoa adiña etzerana. Animan berriz ezerez bat, utsa baño gutxiago, ta pekatuagatik askok gaitzua.

Ta zu munduko aizez bete, ta zu griña galduaz anditu, ta zu soberbiaz aizatu, ta zu, Jaungoikoa bera adiña, edo bera baño geiago, ta andiago baziña bezala; lotsa, bildur, ta errespeto on guziak aztu, ta zure Kriadore, Jabe, ta Aita guztizko onaren kontra zure eskua jasotzera atrebitzen zera? Pekatu egitean, suge, edo zirau infernuko baten gisa, zeruetako Jaun andiaren kontra, alegin guziaz biurtzen, ta armatzen zera. A infamia!

3na. Pekatuaren aldetik, edo gaitz oni berari begiratu: ta zer gauza pisuagorik, pekatua baño? Pekatuaren karga aiñ izugarria da, non bakoitzak Lege on guziak azpiratzen dituen, zintzoide, edo sinderesis guziaren kontra jarri, ta gizonak berez duen arrazoi, ta argi guzia illundu, ta desegiten du. Zer desditxa andiagorik?

Jainkoak bere antzera, ta imajina egin, ta ainbeste doai, grazia, ta birtute, gorputz, ta animan eman bazizun ere, edozein kulpa, edo Jaunaren ofensari zure biotz, edo animan ostatu, edo leku ematean: Ai! Zure osasun, ondasun, edertasun, indar, ta beste doaiak, zure kargarik pisuena egiten dezu: ta Jainkoaren Lege, ta borondotea autsi, ta desegiteko, ta bera ofenditzeko, zure indar guzia artzen dezu. Ai nere Jaungoiko ona, ta maitea! Zorakeria itsu au zer da? Ai! Onelako lanik egin baño lenago milla bider ill baninz!

4n. Deabruaren aldetik pekatuari begira zaiezu, ta orien karga, ta kabu gabeko indar, pisua ikusiko dezu. Pekatu batak bestea oi dakar, ta batetik bestera errazago da bidea. Emendik, sentitu, edo ustegabe oitura egiten da, ta pekatuak luzatzea, berriz, ta berriro erotzea, eta onela pekatuen azpirago beti sartzea, ta ondatzea. Ortik deabruak, aisa, ta nai bezala, bere amarra, katea, edo grillu guziz pisuak egin, ta beretzat animak lotu, ta betiko seguratzten ditu.

Kontu egizu, pekataria, zure pekatu bakoitzean, infernuko grillu, edo katea baten azpian sartzen zaituela, infernuraño makurtu, ta zure anima an ondatzeko: ta etsaiak onela pekataria engañatzen, ta bere betiko esklabo egiten du. Ai anima trista! Zer bizimodu galgarri dakartzu? Zer trukada egin dezu? Jainkoaren biotzeko ume maite izan bearrean, pekatu bategatik deabruen esklabo billau egiten zera!

Azkenik pekatuen ispillu illun orretatik, zure fede guztiaz zure erremedio bakarrera biur zaitez. Zoaz, igo zaite salbazioko Mendi santura. Kalbarioko mendira zoaz: begiak jaso, ta zeruko Liburu alde guztitik idiki bat an ikusiko dezu: au da zure Jesus maitea, Gurutzean josia, ta zeruko Maisua bezala, andik zuri erakusten dagokizuna. Liburu onetan zure pekatuen kontra, edo zenbatezkoa ikasi, ta jakingo dezu ondo, zeñ neurri gabe, zeñ pisu andiko kargak diran bada Jainkoaren Semea bera ala azpiratu, ta gisa artan utzi zuten Gurutzean illik.

Begira zaiozu ondo, ondo bizi, ta salbatu nai badezu. Liburu idiki, barrendik, eta kanpotik amoriozko, ta dolorezko letrakin eskribitu onetan zure bizi guztiko Ejerzizio, ta Meditazio bearren, ta gozoen guzien gaia, ta egiazko bizitzaren ejemplo dotrina, ta lekzioak emen dituzu. Begira Jesus maitearen bizimoduari, zurea zuzentzeko: begira onen pena, ta tormentuak, pekatuetarik zu libratzeko. Begira beri Jesus onaren eriotzari, orren Biotzean zuk eriotz on bat seguratzeko.

KOLOKIO, EDO ATZENEKO ITZKETA

O Nere salbadore maitea! Orantxe, Jauna, zuri begiratu ta, orantxe dakutz ondo, pekatuen gaitza zer, nolakoa, ta zeñ andia dan. Orantxe, sekulan ez bezala zure bizitza, ta zure eriotzaren Liburu onetan ikusten det, nere kulpak zeñ neurri, edo kontu gabe, ta zeñ pisuak diran. Ai nere jaun maite bakarra! Nork au esan zezakean: zu, nere egiazko bizia, orrela illik ikusi bearra? Nork au pensatu, edo sinistu zezakean?



Etzan erraz, Jauna, ez: munduan jaio danek ezin ezagu zezakean ondo, Jainkoaren kontrako ofensa bat zer dan, Zu Gurutze orretan joserik ikusi artean. Baña geroenean, nork Jainkoaren Semeari, nork, nere Erredentore maitea, Zuri bizia kendu zizun? Nork Gurutze orretan josi, ta nere Bizitza iltzuen? Ai nere desdixal Nork, ezpada nere pekatuak?

Ai nere anima arritu, ta pekatuaz sortua! Amak baño ere gogorragen egin, ta nola zaude orrela? Nola zure biotza, aragizkoa bada, erdiratzen, edo biguntzen ezta; bada zugatik Jesus ill zanean, arriak berak puskatu ziran? A! zure fedea non da? Zure esker ona, zure Jesusen amorioa? Jaun au zugatik illik ikusi, ta orren amorez, ta zure pekatuen damuz, ta dolorez ez zu iltzeko?

Ai nere animaren bizitza, Jesus guztiz ona! Nere Salbadore, nere pekatuakgatik ainbeste penarekin illa! Emen nator gero ere zugana. Beranduegi bada ere, nere pekatuen damuz, ta lotsaz beterik zure ofietara biurten naiz. Zu ikusi, ta ikasten, ta ezagutzen det nola zure biziko pausoak, nekeak, izerdiak, alegiñak: zure Pasioko dolore, pena, ta tormentuak zure amorioak nere kulpakgatik artu zituen. Zure kontrako borrero gogorak nere pekatuak izan ziran: oiek beren soka, ta kateaz lotu, ta eraman zinduzten: oiek azotatu, aranzaz koroatu, oiek Gurutzean josi, ta bizia kendu zizuten.

Nere pekatuak, Jauna, Jetsemaniko zure Orazioan zure Biotz gozoa prensa ain estuan sartu zutenak: Oiek alako antsia, ta neke aiñ ikaragarria, non zure amorezko indar guzia odolezko izerdi ugari batean desegin zan. Nere pekatuen karga ain pisuak lurrera bota erazo, ta Gurutzearen azpian erori ziñan.

Ai anima galdua, zure Biotz amorosoak esango zidan orduan! «O nere anima estimatu maitea! O zeñ garesti nere animari kostatzen zaion zurea infernutik atera, ta salbatzea! O zure pekatuen karga zeñ pisua dan, bada onela azpiratzen, ta nere Biotza ill arteraño estutzen du. Baña pekatuak zu libratzeagatik, guzia onzat, guzia pozik daramat zu salbatzeagatik, nere odola, nere bizia emango det».

Ta onelako amorio, ta geiegizko finezak nerekiko zугan, nere Jauna, ikusi, ta zurekiko nere kulpaa, ta ofensa geiegiak, ta mugitu gabe, ta zugana biurtu gabe geldituko naiz? Ez orrelakorik, Jauna: ez, ez orrelakorik, anima nerea. Bertatik, nere Jaungoiko maitea: bereala egiazko penitentzia egin nai det: bizieta aldatu, ta obetu nai det: deabruen, ta pekatuen kateak urratu, zure ofensaz sekulako ernegatu.

Penitentzia, bada, Tauna, damua, propositua, ta guzien konfesio andi bat. Penitentzia, bizimodu berria, zu beti amatu, ta serbitzeko. Nere etsai

agintari, nere bizio, edo griña gaizto andienarekin zure graziaz peleatu nai det. Ez geiagoren geiago pekatuari, ta orren bideai nere biotzean leku, edo ostaturik, ezpada, zuri bakarrik, nere Jesus ona. Zuretzat betiko nere biotza, nere anima ta gorputza, zure Jarleku, edo Tenplo bizia bezala, ta zure borondatea beti egiteko. Ill bedi, ill bedi sekulako pekatua; bizi bedi beti nigan Jesus maitea. Amen.

Anima Christi asitzen dan Orazioa A. S. Ignaziok asko usatzen zuena, emen Santuak agintzen du: ta Euskaldunai obeto dagokien eran guk modu onetan esan dezakegu.

Jesusen Anima santifika nazazu.

Jesusen Biorza irazaki nazazu.

Jesusen Gorputza salba nazazu.

Jesusen Odola graziaz bete nazazu.

Jesusen Biotzeko ura garbi nazazu.

Jesusen Pasioa senda nazazu.

O Jesus ona! Enzun nazazu.

Zure Llagan artean gorde nazazu.

Zugandik apartatzen utzi ez nazazu.

Etsai gaiztotik libra nazazu.

Nere eriotzako orduan deitu zadazu.

Zugana etortzea agindu zadazu.

Santu guztiakin zu alabatzeko.

Sekula guzietan beti betiko. Amen.

Pekatuaren gañean luzaro dago A. San Ignazio bere Ejerzizio, ta Kontsiderazio eran: beñ, ta berriz, ta berriro nai du Ejerzizio au egitea, emendik ateratzen dan probetxuagatik: Lau Ejerzizio errenka onetan agintzen ditu, eta iru Kolokio, edo itzketa amoroso. Bata Ama Birjiñarekin, bestea Jesu Kristorekin, ta irugarrena Aita Eternoarekin: ta guziak iru gauza, edo grazia eskatzeko.

Jainkoaren Ama maiteari erregutu bear diogu, bitarteko izan dedin, ta guretzat bere Semeari eskariozan: ta, gure pekatuak ondo ezagutzeko, ta ozen kontrako bear dan biotzeko gorrotoa artzeko grazia.

2na, Oraindañoko gure biziera, ta obra gaiztoak ezagutu, ta era gabeko pekatuen bideetatik iges egiteko, ta aurrera Jaunaren borondatea gure bizimodu, ta gauza guzietan egiteko grazia.

3na. Mundu onetako gaitzak ondo begiratu, ta orren bide gaizto, ta banidade uts lurrekoetatik apartatzeko grazia.



Ori bera, edo iru grazia oiek bigarren Kolokioan Jainkoaren Seme Jesu Kristo gure Jaunari, ta bitarteko bere Aitarekin orretako izan dedin.

Irugarren Kolokioan era orretan bertan iru gauzak Aita Jainkoari eskatu bear zaizka: ta azkenean AITA GUREA esaten da.

ERIOZAREN GAÑEKO EJERZIZIOA

Memor esto, quoniam mors non tardat. Eccli. 14. Akorda zaitte, kontuan zaude, eriotza laster datorrela. *Pretiosa in conspectu Domini mors Sanctorum eius.* Ps. 115. *Mors peccatorum pessima.* Ps. 33. Nola Santuen eriotza, Jaunaren prezentsian preziosoa dan: ala pekatarien eriotza guziz gaistoa da.

EJERZIZIO ONEN FIN, ETA FRUTUA

Egun onetako konsideraziotik gauza bi atera bear dira. Bata lurrean zuzaz kanpora dituzun gauza guzien biotzeko menosprezio andi bat. Ta bada diranak añ laster utzi bear dituzu, ta nai, ta nai ez, diranak zu utziko zaituzte, obe dezu aurrea artu, ta berak zu utzi baño len, Jainkoagatik diran guztiak zuk utzi.

Bestea da: orañ ainbeste erregalaten dezun gorputz ori, ta zure sentiduak kastigatuaz illerazotzea, zure anima betiko ill ez dezaten, San Pablok dion, ta egiten zuen bezala: emendik aurrera gorputz ori mortifikatzea, kontuz ibiltzea, ta jan edanean, itz egitean, begiratzean, janzian, ta beste gauzetan moderatzea. Oroi zaitetz, autsa zerala, ta auts biurtuko zerala. Gen. 3.

KONPOSIZIO, EDO LEKU EGITEA

Demagun etzerala zu illtzen, egunoro asko bezala, beñgoan, edo abere baten gisa, Eleizako, ta munduko gauzak egiteko leku gabe, supitoko eriotza batekin: ez, ezpada jakiñik, ta zere burua oi batean eriozko gairekin ikusirik, mediku, ta erremedioaz etsirik, ta Eleizakoak mugonez arturik. An zure biotzean aditzen dezu Jaunaren sententzia: «Ea, manea zaitte, zure etxeko gauzak presta itzatzu, zeren ill bear dezun. Santo Kristo bat, ta eriozako kandela eskuetan dituzula, eriozaren begira zaude: atzeneko antsa, ta erio sugarrak ematen dizute: bularra jaiki, begiak illundu, asnasea estutu, ta zure gaitza baizik ez dakutsula: ezertako egon ez, ta munduan dan lan, edo egitekorik andiengan sarturik: esaten dizutena esan, baña zer egiten, edo esaten dezun ez dakizula. Ta azkeneko asna-seetan (Jesus, Jesus, esaten dizutela) eriozarekin burrukan asitzen zerala. O pauso estu, ikaragarria! Era triste onetan zere burua laster ikusi bear dezu.

ESKARIA



Biotz guzitik Jaunari eska zaiozu grazia, zere burua pauso onetan ondo ikusi, ta ezagutzeko: ordu artan munduaz sentitu, ta juzgatuko dezun bezala, oraiñ zure zorakeria, edo banidade utsaz sentitu, ta juzgatzeko, argi andi bat dizula, bizimodu berri bat denboraz artzeko, ta orduan naiko dezun guzia, oraiñ alegiñaz egiteko. Dabid santuarekin esaiozu: «Jauna, nere azkeneko fin, edo kabu au erakusi zadazu ondo: Zure eriotza santagatik, eriotza on bat indazu.

LENENGO PUNTUA.
IRU GAUZA DITU ERIOTZAK BEREKIN:
IRU ZIRKUNSTANZIA,
EDO ALDEKO LAGUNAK BEZALA
BETI DARRAIZKANAK

1. da eriotza ziertoa, ta jakiña.
2. eriotzaren ordu ziertoez, ta jakiñeza.
3. eriotza beñgoa, ta bakarra.

I. KONSIDERAZIOA

Eriotza ziertoa, ta jakiña. Munduan ezta egia ziertoago, ta jakiñagorik, ill bearra, edo ill bear dezula baño. Egia au fedea erakusten dizu, ta zure begiaz dakutsu. Egia au da Jainkoaren lege bat, jairo diran guzientzat. Inor ere libratu ezta, ta inork ere eskaperik ezta, ez iges egiteko biderik eriotzagandik. Erremediorik eztago: guziak ill bear dute. Non dira zure asabak, ta lenagokoak? Izan ziran, ta ez dira, edo ill ziran. Non dira fama andiko, edo paper andia armetan, letretan, diruetan egin zuten gizonak? Non dira Alexandro, ta beste Errege andiak, Aristoteles, ta beste Maisu jakinsuak? Izan, ta ill ziran. Ta orrelakoak alabatuak dira emen lurrean, ez tiran lekuan; ta dira erre, ta tormentatuak, dauden lekuan, betiko infernua.

Eriotzaren Lege au añ itxia da, ta guztiakikoa, non da Jainkoak ez bere Semeari, ez onen Amari barkatu zien, biakin beste gauza askotan mirari andiak egin bazituen ere. Ill zan Jesus, ta onen Ama Santa ill zan.

Orrela zuk ere ill bear dezu? Bai: ta beti illtzen, edo illaz zoaz, ta eriotzaroz beti pauso ematen dezu. Au irakurtzen, edo enzuten dezun instantea, gutxiago dezu munduan: zure biziaren asnase bakoitzean illtzen

zera. GUZIOK ILLZEN GERA, dio Eskritura Sagraduak, «ta urak nola itxasora, gu ala goaz eriotzara».

Beraz au etorriko da? Ai! ta zeñ ziertoa dan, egun, edo gau bat zu akabatzeke etorriko dala! Beraz etorriko da? Ai! ta noiz, non, ta nola ordu ori erorriko ote da! Beraz etorriko da? Ai! ta gutxien uste dezunean, munduak, aragiak, deabruak beren gezur utsakin aizatu, ta txoraturik zauzkatenean! noiz, ta eriotzaz aztu, ta engañatuena zauden! Beraz erorriko da? Ai! ta zure ill bear, ta galdu bearra! Etorriko da, atzeneko egun, ordu, ta puntua, zeñetan, munduko personarik andien, bearren, ta billatuena len izan baziñan ere, paperik batere egingo ez dezun. Etorriko da instante bat, zeñean ezerez bat izango zeran: munduan ezer balioko ez dezu: ezertan ere ez munduak zuri, ta ez zuk munduari, serbituko ez diozute.

A lurreko andi, edo altu nai aizezko utsak! non zerate? A munduko aberats pobreak! Non dira ondasunak? A atsegin bien ondoren, lau oñeko gisan, arrastaka zabilltzenak! Non dira zuen atsegin nekezkoak? Ai zer ordua au! Au da mundua serbitzea? Ainbeste dolore, ta nekerekin lurreko gauzen ondoren ibilli, ta orien pagua au da? O eriotza, eriotza! Zeñ gauza samiña, latza, ta garratza dan zu begien aurrean ikustea, ta are geiago munduko gauzetan bere uste guzia zeukanarentzat.

Orrez gañera. Eriotzaren Lege au guzientzat izanik, da penazko Legea, edo pekatuaren kastiguan. Ala illtzen dagoen bat ikustean, deritzat, Erregeren kontra traizio itsusi andi bat egin duen infame zorigaistoko bat ikusten dedala. Baña, onelako kulpadun traidore bati, nola bizia kendu baño len, bere onra, dignidade, ta beste anditasun, ta gauzak kentzen diozkaten: ala eriotzak, Jaunaren justiziaren borrero gogorrek bezala, lurreko gauza guziak, biotzaren erdian josirik badauzkatzu ere, diranak kenduko dizkitzu.

Ai! diot berriz! Ai munduko aberats pobreak! Zer ordua ikuskizun zauten! Ai pekatari tristea! Len zure biotzeko naiera, edo kariño guzia andinai, edezale, atsegiñetan, urre, ta lurreko irabazietan eransirik, josi, ta bezala zeneukan? Bada jakiñik zaude erioaren borreroak diranak arrankatu, ta aterako dizkitzula: guzietik eranzi, ta soilduko zaituela. Ai desegiñ bear gogorra! Ai naigabe samiña! Biotzean josirik dagoena, ezta erraz, miñ gabe ateratzea. Larridikitzea baño ero geiago sentituko dezu, zure biotz ori munduko gauzakin oraiñ añ bat egiña, orduan beñgoan desegitea.

Ta zer? Au fedea jakiñik, zure begiaz besteen buruan ikusirik; orregatik ere, ordu artaraño zure biotzak orrela egon bear du? Lurreko gauzai orren eransia oraiñ, ta nai, ta nai ez orduan diranak utzi bear? Ez, ez, nere anima, ez arren orrelako erakeriarik. Ea gora, fedea eransirik argiaz balia



zaite, guzien banidade, ta utsa ikusteko. Ea gora, lo pisu ori kendu, begi oriek argitu, ta loturik daukazun borondate ori beñ, edo beñ askatu, pekatuen katea gogor oriez urratu, ta zure anima libra ezazu.

Ai! ta ill bearra dakidala, nere Jainkoaz, ta nere animaz onela azturik bizi naiz? Lurreko gauzenzat jaio baninz bezala, ta infernuko bidean? Ai ta zer perilla! Zer erremedio, bada? Erremedio bakarra, ta guziz bearra da egiazko penitentzia: ez itzezko, ez gogo utsezko, ezpada obrazko, ta egiazko penitentiaren frutuak egitea. Ez osasunean, ondasunetan, ta lurreko beste, eriotzan ezer baliatuko ez dizuten gauzetan fiatzea: ez mundu zoroaren esanetan, baizikan bakarrik Jaunaren itzean. Utzi, bada, oraiñ: utzi betiko, banidade, ta gezurrak utzi gogotik, ta borondatez, gero onen kontra utzi bear dedan guzia. Ea, nere anima, adiskide bakar salba zaitzakeana ar ezazu. Au da Jesus ona, besteak utzi ta ere, beñere utziko etzaituena: Jesus, zugatik lurreko gauzak utzi, ta zure amorioz Gurutzean josia. Eriotzako orduan ori naiko dezu: bertatik ar ezazu Jesus orduko, ta betiko.

II. KONSIDERAZIOA

Eriotzaren ordu ziertoez, ta jakiñeza. Au da bigarren egia. Ill bearra badakizu, noiz, ta nola ez dakizu. Lurrean ikusten diran gauzen artean, Kristau baten eriotza txit izugarria da: baña iltzea berez dan baño izugarriago egiten dute aldeko darraizkan lagunak, edo zirkunstanziak. Egia da, zuk ere besteak bezala, ill bear dezula: ala sinisten, ta aitorzen dezu. Eriotza bera instante bateko lana da: ta munduko gaitz, neke, ta dolore guziak batek beregan ikusi arren, oriek lenago dira; baña eriotza bera puntu batean igarotzen dan gauza da. Noiz, non, ta nola illko zeran ez jakitea, ori baño samiñago da.

Ai! Noiz illko zeran eztakizu: urte onetan, edo bestean, ill onetan, edo bestean: aste, edo egun onetan, edo bestean: ordu onetan, ala bestean: puntu onetan, ala bestean. Ai! Guzietan asko iltzen dira: zu ere il zaitzake. A! ta orañ bertan iltzen bazera?

Non ilko zeran eztakizu: etxe onetan, erri onetan, ala bestean: Oiean, ala kanpoan: itxasoan, edo leorrian: urtan, surtan, edo non. Leku guzietan jendeak iltzen dira, ta guzietan eriotzak arkitzen du bidea. Ai au kezka, ta arantza! Non ilko ote naiz!

Nola ilko zeran eztakizu, edo bat batean, Jesus esateko leku gabe, edo ezagutu, ta soseguz, ikusi ta denboraz prestaturik: Elizakoak egin ta, ala oriek gabe, abere baten gisan: ilko zeran zure barrango anditu ustel batekin, edo kanpotik tiro utsegin batez, edo puñaladaz josirik, edo ustez

uste gabe, tellaturik erorten dan tella batekin: edo ezur batek itotik, edo negarrez, edo farraz, atsegin andi, edo atsakabez: pekatu loi itsusi bat egiten, gizon, ta andre asko ill diran bezala, edo bestela. Bada, eriotzak zu, nola nai, arrapatzeko, milla modu ditu, ta geiago. O bizia, bizia, zeñ aizezkoa, ta utsa zeran! O bizitza! Bizitza esan baditeke, ainbeste eriotza modu, ta añ goibelak, ta tristeak puntuoro dakartziena!

Orregatik, Jesu Kristo gure Jaunak gure berri ondo zekienak bezala, zeñ azkorrak guziok geran, bearren degun, ta begiz dakuskun eriotzaren egia onen gañean esaten digu berak: *Vigilate*, & Alerta, alerta: zaute bellati. Ta berriz, ta berriz au berau askotan esaten digu: Alerta zergatik eriotza darraizkizuten: begira ondo, kontuz bizi, zeren eriotza zelatan, zuen zai dabillan. Beti zaute ernai, beti prest, zeren ez egun bat, eze ordu bat ere eriotzarenzat segururik ez dezuten: *Nescitis diem, neque horam*. Kristoren itz, edo sententzia da au: ta aren beñgo esana asko ezpaliz bezala, berriz dio: *Estote parati*: zaute prest, maneaturik, zai dagoena bezala, zeren gutxien uste dezuten, ta zuek ez dakizuten orduan ill bear dezuten. Matth. 24. Matth. 25.

O sermoi, o sententzia arrigarria! Kristok ez dio: oar zaite ondo: ez dio, presta zaiteala: ez ezpada eriotzaren zai prest zaudela. A zure itsua, ta galdua! Orrela txit ondo emendik aurrera, santu baten gisan biziagatik, len beti prest egon ezpazera, munduko bearrena utsegin, ta galdu dezu. Ai zer kaltea au! Ai biotzeko damu, ta odolezko negarren zer gaia au! Noiz eta gutxiena uste nuen, eriotza etorri zitekean. Ta etorri baliz, zuzaz zer izango zan? O Jaunaren miseriakordia, niri askori ez bezala, egin didana! A! Kontu artzera orañ erorri diteke! Zeren begira nago bada, prestatu gabe? Eriotzako orduan zer naiko det? Bada orañ ori egiñ. Orañ, nai badezu, egin dezakezu. Naiagatik orduan, bearbada eziñ egingo dezu, Zer bada? Penitentzia, penitentzia, bertatik bizimodu berria.

IIIen. KONSIDERAZIOA

Eriotza bakarra, ta beñgoa. San Pablok ala dio, ta zuk ala ikusten dezu. Sinistezazu, ta pensatu ondo, beñ ill bear dezula. Au da irugarren egia latza. Ill bearra, ta beñ ill bearra. Beñ orretan utsegiten badezu, sekulako galdua zera zu. Ill bearra gauza garratza da; baña are garratzago beñ baizen ez ill bearra. Edolarik eriotza bi zer irago bazindu, gaitz erdi. Bata gaizki irtenagatik, beste, edo bigarren eriotza onaz gaitz ori erremedia liteke. Baña eriotza bat baizen zuretzat eztago. Gure Jaunak begi, belarri, ta esku bi eman dizkigu: esku bata galtzen bada, besteaz baliatzeko, ta



belarri, edo begietan orobat. Baña eriotza bakarrean orrelako kontu, ta erremediorik ezta. O kontu portitza!

Beñ ill bear dezu, edo ongi, edo gaizki: ta gaizki iltzen bazera, sekulako erremedio gabe galdua. O sentenziaren estua! Zuretzat munduan al datekean gauzarik andiena, nola dan iltzea, beñ baizen izan bear ezta! Emen dezu egitekorik andien, ta bearrenak, pruebarik, edo saiatzerik lenago bear eztuela! Ta puntu batean betiko eriotza bakar au egin bear dala!

Goazen, bada, kontuetara. Fedez ori guzia dakizula, zenbat egun, edo denbora zure biziaren urteetan igaro dituzu; ordu, ta puntu larri, eriotza bakar onetarako prestatzen? Zenbat urte eriotza onaren Eskolan ikasten? Zenbat estudio santuen jakintasuna, ondo, oiek bezala iltzeko, lekzioak artzen? Zenbat alegin atzeneko pauso ori, salto andi ori ondo emateko saiatzen? O itxumen aitzakia gebekoa! Añ argi, añ txorrotx, añ meak lurreko gauzetan, ezerekerietan: ta añ lotu, añ nagi, añ sator itsu egiteko andi bakar, ta bearren onetan, zeñean guztia, ta betiko dagoen!

A losagarrizko mundukoen gauza eragabea! Gazteak pareja barzuek zaldin ibilli, danza bat plazan atera, saldu, erosi, artu, eman, ta beste joan etorrietan ainbeste saiakera, ta kontu ondo irteteko, seguru jokatzeko; eta animaren salbazioko tratu bearren onetan añ arduragabe, ezer ezpalioa bezala! O fedearen ill otza, ta animaren kalte paregabea! Ai zer larriak ordu artan artuko zaituzten! Ta orañ Jainkoak ematen dizkitzun denbora, ta argi oiez zer kontu emango diozu? Ta mandatu amoriozko oiez orañondo baliatzen ezipazera, orduan zuzaz zer izango da? Ea bada, pekataria, bertatik fede ori bizitu, ta bereala asi zaite penitentzia, konfesio, ta bizimodu berri santu batekin, eriotzako orduan naiko dezun bezala.

BIGARREN PUNTUA.
ERIOTZAKO ORDUAN BERTAN
DITUZU BESTE IRU GAUZA,
EDO EGIA IKARAGARRIAK,
KANDELA ILLUN ARK
ARGITUKO DIZKITZUNAK:
IRU OROIPEN, EDO MEMORIA
BATA BESTEA BAÑO TRISTEAGOAK

1a. igaroko gauzen oroipen, edo memoria.

2na. ordu artako bertako gauzena.

3na. geroko etorkizun diran gauzena.

1. KONSIDERAZIOA

Pensatu bear dezu ondo, zure igaroko bizitzako gauzaz oroitzean, ta guziak banan banan añ argiro gogoratu, ta ordu artan ikustean, zer estutasun, zer larria, nolako lantu zure animak artuko duen. Gaizki bizi izan bazera, argi goibel artan zure pekatu guziak, diran bezala, agertu, ta ikusiko dituzu. Orañ kulpa arinzat dauzkatzunak, ta añ aisa ajolakabe pauso oro tragatzen dituzunak: A! ta zeñ andi, ta pisuak orduan agertuko diran!

Arrituko zera, zure pekatu obraz, itzez, gogo, edo pensamentuz zuk egiñak, edo besteri zuk eragiñak alde guzietatik erdian artzen zaituzte-nean. Zeren aserre, ta zakur amorratuen gisa. Dabid santuak dionez, erasoko dizute: zure pekatuak, dio, ujola andi baten gisa, turbatu, ta azoratu-ko zaituztela. Zenbat kulpa konfesakizunak: Zenbat damu, ta propositu gabe konfesatuak: zenbat txiki, edo ezerekeriak bezala artu, ta alakotzat etzeneuzkanak, ta erraz igaroak, zure aminaren gañera orduan etorriko dira, ta ezin geiago ala estuko dute? Ai zer pena, zer larria, baña orduan erremedio gabea!

Zer izango da bada, ikustean zure bizian Jainkoak bere ontasun, ta miserikordiaz, zuk merezi gabe, egin izan dizkitzun mesede, ta fabore, ta eman dizkitzun grazia, ta ondasunak? Zer golpe ikaragarria zure biotzari emango dio oiek guztiok, bat batean zure begien aurrean ikusteak? Bertan, ta txit klaro ikusiko dezu, zure Jainko maiteak, zure bearrik etzuela, zu salbatzeagatik, zenbat egin zuen, ta nolako bideak artu zituen. Zenbat jentil triste fedegabe daudenak, zuk bezalako argi, ta doaiak, zuk adiña miserikordia artu balituzte, Jaunaren graziaz baliatu, salbatu, ta santu egingo ziran?

Ta au beste pensamentu gogoangarri bat izango da. Fedeko egia oiek zuk jakin, ta ainbeste bider lenago aditu; ta bearbada ezagutu, ta pensatu: ta orregatik ere zure ontasun, ta nagitasun utsagatik, ainbeste denbora prezioso, nola Jainkoak eman zizun, guzia gaizki igaro, ta gastatzea! O kalte pisu negar eragitekoa! Igaroko urteai begiratu, ta zer ikusten da orañ?

Egia aitortu bear bada, munduko geienai biziaren parte andi bat, Jainkoa ofenditzen dijoakie, pekatua pekatuaren gañean egiten igarotzen zaie: beste parte andiagoa ezerezean, edo utsa egiten: azkenik bizi guzia,



bear dutena ez egiten, edo bear ez dutena beti egiten: bearren dutenaz artu, Jainkoa serbitzea geroko utzi: ta bera bakarrik serbitzeko ezpalira bezala, Jauna ofenditzen bizi guzia igaro: O abereen gisako, edo lotsagariago dan Kristau askoren bizimodua! Zer erremedio, bada? Jardun bertatik, ta ori da Ejerzizio onen frutua: jardun, ta ekin: DENBORA DEGUN ARTEAN, dio San Pablok, OBRA ONAK EGIN: bizitza berria.

II. KONSIDERAZIOA

Eriotzaren orduan bertako gauzen oroipen, edo memoria. Begireza-zu ondo, nola arkituko zeran, ta zer golpea emango dizun ordu estu, ta tranze larri ark artzen zaituenean. Iltzen dagoenean bat, agirian dago, ikusten da, nola dagoen. Orrela, bada kanporonz, ta barrenonz zu arkituko zera. Besteetan ikusten dezuna, zukan ikusiko dezu. Batetik gaitzak azpian artu, ta puntuoro argalako, ezertako ez bat eginik, kemen gabe ikusiko zera: sukar biziak erre, ta irazakitzen zaituela. Bestetik, dolorezko erremedio garratzak, bizitzeko lagundu bearrean, bearbada bizia laburtzen dizute: etsirik zaude.

Bitartean, eriotza zure ondoren postaka dator: bularra estutu, ta atzeneko asnase luzeetan izerdi otz desegin batek ematen dizu. Bestetik, nai, ta nai ez, sekulako, ta bereala utzi bear zure etxea, ta etxeoak, zure erria, aide, adiskide, ta ezagunak, ondasun, gusto, ta lurreko beste gaularik laztanen, ta maiteenak. A, pekatari galdua! Au munduaren pagua!

Guzia utzi bear! Zure irabazi, anima ori galtzeko, nekez bilduak, odol, ta aragi, zure biotzarekin bat egiñak: dan erantsiena, ta josiena bada-
go ere zure biotza, askatu, urratu, ta sekulako desegin bear! Ai zer animako larria! Ai zer despedida illuna! Ai zer adio, zer atzeneko agur tritea! Ago sekulako mundua: au da azkeneko ire pagua. Ta oiek dira orduan kanporonz agiri diran penak.

Baña, ilzer dagoen baten, animan barrenonz zer pasatzen dan, nork esango digu? Ez iñork. Illak, egjaren mundura, au ikusi, ta joan ziran. Guk ikusi edo igaro eztegu. Alere, zer ansiakin anima egongo dan, igerri, edo barrunta diteke. Ai nere desditxa, esango du! Ai nere zorigaistoa! Non dira nere andinai ainbeste tormenturekin billatuak? Non dira nere ondasun añ nekiez biribillatuak? Non dira nere gusto loi ainbeste aranzarekin gozatuak? Ai joan ziran, igaro ziran: oriek kendu, ta nereak egin du. Ai au larria: ta larrua ere utzi bear! Eten, ta desegin bear gorputz laztan, adiskide maite, ta anziñako lagun onegandik ere! Ai zer golpe latza, ta garratza!

Banoa mundu onetatik: Ago or, azken Juizioraño, auts egiñik: nere gorputz zorigaistoa ezagutu, ta geiegi erregalatu!

Onelako pena, ta beste esan al baño andiangoakin zure anima goibeldurik arkituko da: guzia nasturik, zer esan, zer egin, nora biurtu, ta nondik iges egin ezta kiela: ez Jainkoaz, ez bere salbazioaz oroitzeko, ezertako ez, edo ezerez utsa egiñik dagoela. Orañ osasunaz, ta sendo zaudela, ikusten dezu, baldin buruko, edo agiñetako miñ puska batek ematen badizu, AVE MARIA bat errezatzeko etzaudela.

Nola, bada, ainbeste gaitzen artean orduan egongo zera? A! Orduan erremediatzeko denbora ezta: orañ bai. Orañ lurreko erakeria guziak sustrietatik atera, biotza penitenziaz garbitu, ta zerua billatu, ta arkitzeko. Orañ Jainkoak nai du: orañ deitzen, ta eskua ematen dizu, zure gauzak konfesio oso egiatzko batez, ta bizi berriaz bertarik zuzentzeko. O! ta zer poza orduan, ori egiten badezu orañ! Ea bada, asi bereala: *Hoc fac, & vives*: ori egin, ta betiko bizi.

III. KONSIDERAZIOA

Geroko, etorkizun diran gauzen oroipen, edo memoria. Iltzeko zaudela, gerora, edo aurrera begiratu, ta zer golpe, zer bildurrak artuko zaitu? Erioa bertan begien aurrean egon, zure gañera erorteko zotian, ta eziñ iges egin. Ai! Atzeneko tranze gorri artan sartzean, gogorako zatzu. Ai! Ai! Emendik beste mundura salto arrigarri bat eman bear det: eta beñere saiatuez! Ai! ta an zer ostatu begira dagokidan jakiñ ez!

Jaungoiko Juez justuaren aurrean agertu bear, ta ondo prestatu ez! Bizi guztik kontu txe txea eman bear, ta beñere konturik ondo artu, edo atera ez! Ai! ta betiko sententzia bereala, ta erremedio gabe artu bear: ta zeren gañean, ezpada nere bizitza galduaren gañean! Ainbeste urtean nere Jauna, ta orañ nere Juez izango dana añ gutxi serbitu, ta serbitu bearrean beti ofenditu, ta onen aurrean orañ agertu bear! Ai! ta ori guztia ezer ezta: non da gaitz paregabe, ta kalte guzien azkarria, Jainkoaren arpegi eder gozoa, ta onen gloria bizia galtzea!

A! bildur arrazoiezko justua! Orren diñako kulpa egin dezula jakin, ta orren diñako penitentzia egin dezula ez jakin! Ta zer izango da, pekatuak baizen egin eztezula, ikusten badezu? An gogorako zaizkitzu, deabruaren, munduaren, ta aragiaren ondoren puntu artaraño egiñikako zure arrastakak, artu dituzun nekeak, eman dituzun izerdiak, egin dituzun alegiñak. Ta zergatik? Zerbait, edo ezerez bat lurrean izateagatik. Ta orañ zure anima galtzen badezu, zer baliatuko dizute?



Etzan besterik, zure griña, ta borondate gaistoaz beti Jainkoaren kontra irten, bera serbitzeko pauso bat eman nai ez, ta bere begien aurrean alako ausardiaz ofenditzea? Etzan besterik Kristauaren izenaz jentillak baño gaizkiago bizitzea, ta alako garbo, ta bizarriaz zure etsairik andien deabrua, berak nai bezala serbitzea? Ta Jaunaren aurrean orañ agertzeko, zer baliatuko dizu orrek? O pensamentu portiza! O dolorezko nekea! O tormentu gogorra!

«Ta lengo gauza, edo lan orietatik, zeñetan orañ lotsa baizen eztezun, zer frutu atera dezu», dio San Pablok? Bazenekien, edo aditu zenden, ez ondasun, ta beste munduko esan, estimazio, ta erakerietan etzala zer fiatu. Bazenekien, gizonagan, edo lurreko gautzetan fiatzen duena, madarikatua dala, Jainkoak dionez, ta argala, edo utsa dala emengo ustea. Bazenekien emengo gozoen pagua, edo saria miña, ta garratza zala. Ta orien gañean zer kontu eman al dezakezu orañ?

Ai, nere anima bakarra! Ta bizimodu, ta, estadu txar onetan iltzea, ondo deritzatzu? Zure Juez justu aserreaken eriotzeko etsai egiñik, zauden bezala, arkitu, ta arrapatzea? Ondo, orañ gaizki bizitzea, ta orañ ezin ondo illko zeran bezala egotea? A! Ta orañ eriotzak azpian artzen bazaitu? Zer erremedio, bada, neretzat? San Pablok berak esaten dizuna: *Ergo dum tempus habemus, operemur bonum*. Jainkoak denbora ematen dizun artean ondo baliatu: «denbora dan artean obrak onak egin».

Ona bada, dio Apostoloak: «ona ar ditekean denbora, orañ bertan». *Ecce nunc tempus acceptabile*: «ona bertan osasunaren, ta salbazioaren egunak»: *Ecce nunc dies salutis*. Nai bezalako denbora, nai bezalako egunak: Ejerzizio Santuak, askori, ta ainbeste kondenaturi Jainkoak eman ez dizkanak. Ona, nai bezalako zeruko feria, zure animaren salbazioa, ta ondo merke, zure pekatuen konfesio on batez, ta bizitza berriaz zeruko gloria erosteko.

IRUGARREN PUNTUA.

**AZKENEKO ILTZEN ZAUDENEKO ORDUAN
ZURE LANIK IKARAGARRIENA IZANGO DA: TA
AUREA ARTU, TA EMENDIK ARAKO ONDO
BEGIRATU, TA BERTATIK PRESTATU BEAR
DEZU: LAN AU DEABRU GUZIEN ATZENEKO
ERASOA IZANGO DA: TA BATERIA ARRIGARRI
EZIN ESAN ALAKOA: TA AU IRU ALDETARIK**

1. Deabruen beren aldetik.
- 2na. Jainkoaren aldetik.
- 3na. Zure, zerorren aldetik.

1. Begira ondo, ta pensezazu emen, zure atzeneko ordu artan infernuko etsai guziak emango dizuten eraso, ta deskarga etsia. Luzifer guzien agintariak gure esaeran, infernu guztiko batzarre, edo junta jeneral bat egingo du. Ea, deabru guztiai esango die: ea laster, lagunak, laster egizute. Begira: urlia iltzeko zorian dago, ta arenak egin du. Ea, eraso guziok gogotik: zuena da. Ezertako eztago: kemenik eztauka. Tente zazute laster, ta alde guzietatik. Orañ zuen atzapparretatik eskapatzen bada, sekulako, libre, ta zorionekoa da. Baña: orañ arrapatzen badezute, betiko zuen presa da.

Ea zoazte: jarrai, jarrai deabru guziak: «persegi, ta arrapezazute, zerren zuen, atzapparretatik nork libratu eztauen». Orduan konjuro onekin deabru guziak, eta bakoitza, denbora geiago tentatzeko izango ezuala jakiñik, beren, al duten aserre, ta gorrotorik andienaz armaturik zugana datoz, Eskritura Santak dion bezala, zu tentatzera. Zu iltzen zauden lekura biribillatuko dira diranak, ta infernuko etsai guziak artuko zaituzte erdian. *Omnis inimici eius apprehenderunt eam inter angustias*.

O zer angustiak, zer ansiak, zer estura, zer sitio, zer pelea, zer tranzea au! A konzienzia aizatu, zabal, ta lasaiak! Ordu onetan, lanze larri onetan ikusi bearrak zerate! Ai! Ai! Zer deabruzko iskanbilla zure gañean izango da, ta zure kontra guziak aterako dute? Bada batetik, bestea bestetik, ta guziak alkarrekin, infernuko iltzen laguntzalleak bezala asiko dira deadarrez. Ai! Ta nola arkituko zera zu?

2na. Jaungoikoaren aldetik armatuko dira zure kontra demonioiak. Len zure osasunean, zu obeto engañatzeko, Jaunaren miserikordia añ andi, ta zabala egiten zuten demonio aiek berak, txit estua, ta laburra orañ egingo dizute: ta Jaunaren sententziaz baliatuko dira.

Batak deadar egingo dizu: «Baldin justua otza otza salbatzen bada; pekatari galduaz zer izango da? Doi doia gauza onik egin dezu zuk, edo pekatuak baiten egin eztezu. Bada salbaziorik eztezu. Galdua zere, galdua. Nola bizi, ala ill. Gaizki zu bizi izan zera, gaizki illko zera. Jaun justua, betor zure justizia, zure sententzia. Au gurea zan bizitzan, gureak bear du eriotzan. Ill bedi, galdu bedi, demonio guztiakin betor infernura.

Beste demonioak oju egingo du. Baldin Jaunaren justiziak Jesus bere Seme bakarrari, besteren kulpagatik ezpazion barkatu, ta iltzeko eman bazuen: nola zu orrez baliatu bearrean, bera ainbeste bider ofenditu, ta



zure pekatuaz zuri barkatuko dizkitzu, edo galduko etzaitu? Aitzakia, ta erremediorik eztezu: galdua, ta kondenatua zera. Goazen, goazen, betor gurekin anima au infernura.

Beste deabruak deadar egingo du: *Si in viridi haec faciunt, in arido quid fiet?* Baldin Kristoren gorputz Santu, frutuz beterikako Arbola ederrean alako aserrea Jainkoak erakutsi, ta alako kastigua egin bazuen, zure pekatuakgatik: zu egur igar infernuko su, ta garretan erretzeko prestatua, ta illiti bat beti izanik, zer kastigu zugan egingo eztu? A zorigaistokoa! Betor anima au, gure lagun au: betor infernuko egur sorta au.

Besteak esango du: *Iustus es Domine, &c.* Justua zera, jauna, zu; ta zure Juizioa zuzena da. Anima au pekarari oker galdu bat izan da: beti onelako, ta alako pekatuetan sartu, zugandik iges, zu ofenditzen. Ea bada, Jauna, betor gugana: paga dezala. Gure esanak beti egin ditu, betor: guk bere saria emango diogu infernuan.

3na. Armatuko dira beste deabru asko zure aldetik. Batak ojuka esango du: *Clausa est janua: in inferno nulla est redemptio.* Zer etzan besterik, Jaungoikoari burla, ta pekatua pekatuaren gañean egin: bada orra oriek zeruko atea, oriek miserikordia itxi, ta infernuko atea zabaldu dizute: ta infernuan erremediorik eztago. Kontentu zera orañ? Betor, Jauna, betor zure sententzia aserrea, betor kondenazioa: Zu ofenditu, ta galdu nai zuen: kondena dedilla, ta betiko infernuan paga dezala.

Beste deabrua asiko da: *Ecce sio ad ostium, &c.* Ola, ola: zenbat bider zure bizian zure biotzeko ateetan deitu zizun Jainkoak? Zenbat denbora, ta urteetan etxeden zizun? Zenbat aldiz, bere amorio, ta graziaz, otsez, ta ate joka, bere kariñoaz, ta ongi naiez, zure animan sartzeko zai egon zan? Ta zuk, lotsa, ta fede gabe, atondoan iduki, nai ez idiki, atekin bere arpegian eman? Ta zergatik ori? Lurreko ezerezkeria, txorakeria, ta gusto loi itsusi bategatik, bestearen azaleko eder anz utsagatik? Bada, orra orañ guzia galdu ta kondenatu. Zureaz erten zera: betor orañ demonioakin.

Besteak bere aldetik: Bazenekien, esango dizu: Bazenekien Jainkoaren esana: *Vocavi, & renuistis:* nik deitu, ta zuk ez jaramon. *Ego quoque in internu vuestro. & subsanabo vobis.* Bada, nik ere orañ, dio Jainkoak, zure ordurik gaistoen onetan farra, burla, ta iseka egingo dizut. Ta orra Jaunak nola deabruen atzapparretan uzten zaituen: galdua zera, infernuan zaude.

Zenbat dauzkagu, beste demonioak esango du: zenbat, zu ez bezalakoak, infernuko sala, edo zulo illun aietan? Zenbat kulpa bakar batekin? A zoro itsoa! Gorputz, ta anima zuk orañ baño len aien oñpean egon bear zunduen. Betor, Jauna, ara betor: ondo merezi du.

Besteak, zure barrenaren, ta biotzeko bizioen berri ondo jakiñik, txit zure erara tentatuko zaitu, ta bere baza aterako du: obeto zu engaiatzeko zure beratik bete betean emango dizu. Zure gustora, ataka, edo parte argalenetik bretxa idikiko du. Orrako zure bizio nagusi, edo agintari zure bizian geiena arrastatu zaituen orretatik: geiena zale izan zeran bokadu, edo plater erregalatua, begien aurrean ipiniko dizu, jatera emango dizu, ta erraz itoerazoko zaitu. Ai! Ai! Anima gaizki oitua! Ai zer tentazio portitza!

Beste, ta beste deabru askok, eta guziak naste, ta batean, milla modutan tentatu, arrabierazo, ta salbazioaz etsierazoko dizute. Guzien erdian, edo azpian alde guzietatik etsaiez beterik arkituko zera. *Omnes inimici eius apprehenderunt eam inter angustias.* Ai konzienzia pekatutako orañ lasai, prest, ta ariñ zautenak! Ai zer angustiak oiek! Zer pelea latza! Zer tranze estua!

Egia esatera: baldin orañ edadearen lorean, osasunaz, indarsu, ta zeregan zaudela, edozeñ deabru tentazio batekin zu galtzeko asko bada: ta askotan ezta deaburik bear, zeren tentatzaile, ta tentazio gabe, zerori pekatuetan begi bietaraño sartzan zeran. Ai! Zer egingo dezu, bada? Ta ainbeste debruren tentazioetan, ta alako demonioen iskanbillan, zuzaz zer egingo da? Ta iltzeko puntuan ezertako etzaudela, gerra bizi ari nola arpegi emango diozu? Ai triste! Ai zure zoroa, ta itsua! Ai zure galdua, ordu artarako uzten badezu!

Ta gauza oiek egia bera izan, ta ala sinisten badituzu, zure fede au zure bizimodu txar orrekin nola konpontzen da? Nola orren lasai, alako federik, ta ordurik ezbaliz bezala, orren ajolakabe bizi zera? Nondik, edo nola oztasun, ta epeltasun orren kalte andikoa? *Unde tan pernicioso sepiditas?* dio San Bernardok. Nondik, edo nola seguridade madarikatu ori: *Unde haec securitas maledicta?* Ai! Gaistoen bidea illuna da, ta ez dakite non erorten diran, dio Espiritu Santuak: *Via impiarum tenebrosa: nesciunt, ubi corrunt.* Sermo (in Job.) Prov. 4.

Zer erremedio bada, demonioen atzapparretatik segurura iges egiteko? Eriotzako tentazio, bildur, pelea, ta gaitz guzietarik libratzeko? Erremedio bakarra, ta seguruena da Jainkoaren bildurra, Jainkoaren bildurra, penitentzia, konfesio on bat, ta aurea bizi berria. Erremedioa da, Santuak egiten zutena egitea: begien aurrean aiek bezala, eriotzako ordua, ta kontua beti idukitzea. Eskola onetan ikasi zuten ondo iltzen, ta ondo bizitzen. O! atzeneko ordua! o puntu! o instante! o momentu esan al baño ikaragarriagoa! Santurik andienak onek jkaratzen zituen. Nola zu, pekataria ikaratzen etzaitu?



O fedearen illa! Zure biotzean, Jainkoaren aurrean galde zaiozu San Simeon, Colomako penitente, mundu guztia arritu zuenari. Pillare baten gañean, gau, ta egun, uda, ta negu, ainbeste urtean Orazio, ta penitencia egiten egon zan. Santu miragarri oni eriotzako momentu orrez zer deritzan galde zaiozu: *Ingens timor, grande negotium peragitur*: eranzuten dizu Santuak: bildur andiko misterio, ta egitekoa dala, ordu artakoa. O momentu eternidadea guztirakoa!

Galde San Jeronimo bati, zeñak gerra bizia, ta añ portitza bizi guzian bere buruari egin zion: zartu ta ere, bere sentidu, ta pasioai ezertan ere barkatu gabe, beti penitencia gogorren artean: galde, bada, Santu andi oni eriotzako momentu orrez zer deritzan? Ta eranzuten dizu: pekatez loiturik; gau, ta egun bildurrez beti, azkeneko marabidirañoiko kontu emateko zai nago. O momentu eternidadea bere ondoren dakarrena!

Galde San Agustin bati, zeñen biotza añ bera, ta gozoa zala berez; orregatik ere atzeneko ordu, ta kontu onez, ta orren ondoreaz akordatu, ta bildurrez guzia samiñdu, ta esaten dizu: *Ignem aeternum timeo: ignem aeternum timeo*. Betiko suaren bildur naiz: betiko suaren bildur naiz. O momentu ikaragarri eternidadeko sua bere ondoren duena! Erremedioa da Santu oiei bildur santu onetan jarraitzea, bizimodu zeruko bat aien ondoren zuzentzeko, ta eriotza pakezko bat berak bezala logratzeko.

KOLOKIO, EDO ATZENEKO ITZKETA

O eriotza, eriotza, munduaren, ta pekatuen pagua! O eriotza! Ta zeñ samiña, ta garratza dan zure oroipen, edo memoria! Baña norenzat? Munduko andinai, atsegin loi, lurreko azienda, edo ondasunetan beren biotza josi, ta beren gozo, edo pakea orietan daukatenezat. Ai! Ta orietatik ni izandu ote naiz? Ai nere itsua, ta galdu bearra! Ta orañ eriotzako ordu illun onetan orietatik zer atera det, zer arkitzen det, zer daukat nere eskue-tan? Utsa, banidadea, ezerez, animako tormentua baizik.

Baña, Jainkoa, fede onez, ta biotz guziaz billatu, ta serbitu badet, zeruko glorian bera ikusi, gozatu, ta beti alabatzeko deseokin, nere eriotza ezta samiña izango, ezpada txit gozoa. Ala da begiaz, ta egiaz justuen eriotza: gorputzeko karzela illunetik libratu, ta zeruko atea erdiz erdi idukitzea da. O zer pozaldia! O zer atsegin paregabea!

Orrela, eriotza begien aurrean beti idukitzea, da eriotza gozo bate-rako prestatzea? Bai. Ta ez ori bakarrik: baita ere pakezko bizitza santa

baterako: gezurrezko mundu, ta nekezko karzela onetan batek iduki, ta goza al dezakean bizimodurik atsegiñena, ta sosegu egjazkoz bete, ta kontentuen da, Santuen gisan, beti presente eriotza idukitzea.

O nere Jesus maitea! O nere bizitza, ta eriotza onaren ispillu bizia, ta bietako zeruko Maisua! Nere bizitza gaistoko pekatuen ikaraz azpian artu, ta Zugana nere etsai guzien iges nator. Kalbarioko mendira, ta zure guru-tzearen oñera nere anima salbatzeko biurtzen naiz. O nere Salbadore bakarra, ta nere egiazko Maisua! Zugana nator: arren artu nazazu. Zure atzeneko asnaseetan, Zu nigatik ill baño leen, pekatuarenzat ni sekulako illtzeko lekzio bat indazu: ondo bizi, ta ondo ill nadin.

Akorda zaitte, Jauna, zure agoniako iru ordu tormentuz, penaz, ta dolorez bete aiez. Orra, Jesus nerea, zure amorioak, ta nere pekatuak zertaraño erakarri zinduzten. Baña pozik guzia artuzen duen, pekatuak niri barkatu, ta zure graziaren bizitza emateagatik. Ta au da zure Biotzeko amorioaren Lekzioa, eriotza onaren Eskola onetan nik ikasi bear dedana, ondo bizi, ta zuk nai dezunean, ondo illtzeko.

Zu nere pekatuagatik, zure amorioz ill ziñan: ni ere bada zure amorioz ill nadin pekatuarenzat, ta bizi nadin bakarrik zuretzat. Askok nai dute, Jauna, justoen eriotzaz ill; baña gutxik justuen gisa egiaz bizi. Nik ondo bizi nai det zuretzat, ondo illtzeko zurekin. Zure Pasio, tormentu, pena, ta negarrakagatik, zure Biotzeko amorioagatik, zure eriotza santagatik arren orañ indazu argi andi bat, lurreko banidade, ta zorakeriak oñpean utzirik, nere biotz guztiaz zu billatzeko ta arkitzeko grazia. Indazu munduko katea guziak urratu, ta Zuri, zurekin gurutzean josi, ta jarraitzeko, bear dedan indar, ta birtutea, nere pasio guzien kontra pelezteko, nere borondatea, Zuk naizun bezala, ukatu, ta zurea beti egin ta eriotza on bat zure Biotzean egiteko. Amen.

Aita gurea, Ave Maria, ta Anima Christri.



JUSTU BATEN, TA PEKATARI BATEN ERIOZAREN BEGIRADA BATA BESTEAREKIN PISATZEN, EDO KONPARATZEN DA

Ikusten dan gauza da, ta argatik asko mobitzen duena. Kontu egizu, bada, gela bitan eri bi atzeneko gaitzarekin burruka, ta illtzeko zorian ikusten zaudela: biak etsirik, biak Eleizakoak egñik, edo egiteko puntuan desengañarurik.

Begira justuari: bere gairaren azpian badago ere, zein beregan, ta bere jabe: nola Jainkoagana, ta zein erraz biurtzen dan: nola pazientzia eskatzen dion, Jesus maitearekin batean, bere pena, ta nekeak ondo eramateko: nola Jesus onaren ejenploaz, beraren eskuetan, ta borondatean guzia largatzera animatzen dan. Sakramentuak beste munduko jornada, ta biderako artu biar baditu: ta artu ditzala, agintzean, zer poza oriek artzeko ditxa zeren duen; ta zer indarra, zer animako alibioa, oriek artu ezkeru.

Beste aldetik begira pekatariari: bere gaitzean zer arazoa, zer neke, zer izerdi itotzekoak. Ezin sosegurik ezertan arkitu, ta guzian larri estua. Jainkoagana ezta biurtzen, zeren oitua eztagoen, ta aren etsai dagoen. Erioak begiak larri: ill bear, konfesatu bear, ta zer egin, zer esan, edo nondik asi jakin ez. Ai! bizia nola, eriotza ala: presaka, lasterka, itotzen konfesatu, zer esaten, zer egiten duen eztakiela. Artu bear Jesu Kristo Sakramentuan: baña nola, zer arpegirekin, Kristoren iges, ta kontra oraindaraño ibilli bada, ta puntuko aren juizioan agertu bear badu? Ai zer tormentu izugarria!

Biak illtzen dijoaz: Santo Kristo bat eskuetan. O, ta zeñi ederki ematen duen justu baten eskuan, zeruko atea idikitzeke, giltza seguruak bezala!

Baña pekatari baten eskuan zein gaitzki dirudien Gurutzeak, zeren beti bera Gurutze Santuaten etsai bere obretan izan dan, ta Jesus onak bere kulpakin arpegian Gurutzetik ematen dion.

Eleizako Ministroa bakoitzari illtzen laguntzen asizen da, ta Jainkoari enkomendatzen: *Kyrie eleison*. Miserikordia, Jauna, illkor dagoen onezaz. O zer animo, ta konsueloa justuak erregu oiekin artuko duen, ta nola biotza zerura jasoko duen!

Ta zer lotsa, zer bildurra pekatariak izango du; bada miserikordiaz baliatu ez, ta justiziaren aserreak orain azpian artzen du?

Santa Maria, ora pro eo, diote Ministroak, ta an daudenak: Santa Maria, Jainkoaren Ama, ta penitente egiazkoen Ama eri, edo illtzen dijoan onegatik erregu ezazu. O nola biotz guzia urtuko zaion justuari debotzio gozoz beterik! Zer konfianza alako Ama maiteagan, zer gogoa, aren arpegi ederra zeruan ikusteko, zeren begiak, ta biotza garbiak orrerako gorde zituen! Ai zeñi gozotero bizian iduki zion amorioaz oroitu, ta bere anima betiko emango dion.

Bitarrean, Santa Maria enzun, ta zer pena, zer larria pekatariak izango du, Ama Semeak ala ofenditurik ikusita? Arritu, ta sartu, ta bereala egongo da, ta bere barrenen Ama Birjiñaren desdiña sentituko du: Ken, ken nere begietatik: ez niri otsegin: ezta ori nereza izan: dijoala ordu gaiztoan nigandik, oraindaraño bezala bere adiskideetara. Zer etzan besterik ni utzi, nizaz aztu, ta nai zuena egitea? Ta norgatik? Itsusi puska, autsezko eder anz, ezerez bategatik? Nere Semea, ta ni ofenditu, ta orrela utzi? Bada orra orain, ezte nai aditu, ta ez ikusi: ez niri deitu orrenzat. Ai zer despedida triste! Nora, norgana pekatari galdua tranze onetan biurtuko da.

Eleizako Ministroak otsegingo die Aingeru Santuak, erregu dezatela. Ta justuaren anima Aingeruen adiskide izan dana, nola poztuko da, zeren bidera datozkion laguntzera, ta aiekin batean zerura igotzeko! Biribillatuko dira Aingeruak pozik, ori bere oiean ill artean gordetzera, ta an prest, orren anima artzeko egongo dira. O zer ditxa paregabea!

Pekataria gatik ori aditzean, iges Aingeruak joango dira. Ez, ez, esango dute, ez guri orregatik deitu. Eztu gurekin zer ikusirik: ezta gurea izan; ezpada deabru guztiena: orien gustoak, ta esanak, ez gureak egin ditu. Larga, larga: goazen emendik, madarikatu ori deabruen presa utzita. Ai zer adio sekulakoa! Aingeruak joan, ta demonioak sartu, ta aren jabe egingo dira.

Sante Abel, ora pro eo: aurrera esango du Jainkoren Ministroak. Abel Santua, ta lurreko justu guzien aurrenekoa, illzeko zorian dagoen onegatik errege zazu. Ta era onetan, Apostolo, Martiri, Konfessore, ta Birjiñai, Zeruko Santuak otsegingo die eriotzako oduan. *Intercedite pro eo*.

O! nola justuak Santuen faborea bereala sentituko duen beregan! Zer konsueloa, alako Bitarteko seguru, ta ain prestuak Jainkoaren aurrean idukitzea! An daude prest justu beren adiskidearen deia aditzeko, Jaunari pozik erregutzeko, ta anima ori zeruko gloriara berekin artzeko.

Pekatarari, bertiz, erregu oiek enzun, ta zer infernuko illuntasunak bere biotzean emango dio! Ikusten du eriotzaren argi illun artan, santuak



imitatu, ta aien Ejenploak artu bearrean, kontrara bizi guzian ibilli dala; etziela amorio, ta deboziorik, ta ez Santuai deitzen, ezpazan itz oro deabruai, ta oiei jarraitzen ziela. Argatik Santuak eranzungo dute: Ez, ez: eztu gurekin parterik izan: etzuen, guk bezala, Jainkoren Lege, ta borondatea bere zorigaiztoko bizimoduan, billatu: bada guk ere orain nai eztegu orreatik erregutu. Ai desanparo ikarragarria!

Azkeneko ansia, edo agonian sartzean: *Prosciscere, Anima christiana de hoc mundo*: esango du Sazerdoteak: zoaz, Anima kristaua; zoaz mundu onetatik, Aita Jainkoaren izenean, zeñek ezerezetik egin zinduen, ta orrela esanaz joango da.

Berri onak, berri onak anima justua: zoazela, zoazela, ordu onean. Ta nondik, eta nora? O zer ditxa! Gorputz ortetako kartzela doakabetik zuri dagokizun gloria bizira. Eten, ta urratu dira munduko katea gogorak: Jainkoak askatu ditu, ta guzietatik libraru zaitu. Zoaz emendik. Au da esatea Errege, edo Erregiña gai, kateaz kargaturik ziega batean dagoenari esatea: zoaz libre, zoaz zure erreinora, zure koroa artzera zoaz. O zer poza! zer biotzeko atsegiña! O zer biaje gozoa!

Baña ZOAZ ori bera pekatariak aditzean: Ai! zer biotzeko golpe illuna! Zer infernuko sustoa artuko duen! Zoaz: Ai lege garratza! Zoaz: baña, nondik, eta nora? Zure lurreko anditasun, ondasun, ta atsegin guzietatik. Ai! Orrela guzia utzi bear da: guztiak kentzen dizkirate, ta betiko? Zer da au? Amengo atsegiñak kendu, ta zerukoak galdu? Ai zer damu samiña! Orrela nereak egin du: joan bear, erremediorik onek eztu. Ta nora? Ai! Ai! Emen, itsaso illun onetan ondatuko da. A! ta zer kontuak aterako dituen sekulan ez bezalakoak, baña sekulan baño argi geiagorekin!

Hodie, esango du Sazerdoteak, *fit in pace locus tuus, & habitatio tua en sancta Sion*. Zoaz, igaro zaite, anima zure pakezko lekura alda zaite Sion santako bizitzara. O mandaturik gozoena! Zer deskansua justuarena izango da, Sion, edo Zeruko Palazio, Etxe eder artara, Jainkoaren arpegia ikusi, ta gozatzer, dijoala agintzen diotenean.

Bitartean ori enzun pekatariak, ta bere burua ispillutik argien artan ikusi, ta zer pensa dezake, baldin beti Jainkoaren iges, ta infernuko bidean, ta deabruak, aragia, ta mundua serbitzen arrastaka ibilli bada? Zer usteko du? Non pakea arkituko du, gerra bizian beti bere Jaunaren kontra ibilli bada? Ai zer kezka, zer bildurra!

Deus misericors, Deus demens... miserere gemituum, miserere lacrimarum eius: Sazerdotea dijoa esanaz. Jainko miserikordiazkoa, Jainko biotz beraa, zure miserikordiaz begizaiezu onen negar, ta onen adiai. Justuaren negarrak onela Eleiza Ama Santaren erreguakin dijoaz atzeneko zori artan Jaun-

goikoaren begietara. O zer poza daukan atzeneko negar malko onetan, zeren fedeak, ta esperanzak esaten dion, laster begiak leortu, ta garbituko dizkala Jainkoak, bera ikusteko, ta zeruan gozatu, ta alabatzeke.

Pekatiariak ere negar egingo du; baña zer da antsi: ta zer balioko dio? Baldin negar oriek, ez Jainkoaren ofensen damuz, ezpada mundua utzi bearrean penaz, badira? Negar oriek eztira, zeren Jainkoa ofenditu duen, ezpada zeren pekatuen denbora akabatzen zaion: ta damu du, zeren pekatu guziago ezin egingo duen. Ta ala Kristok dion bezala, bere pekatuan illzen da.

Agnosce, Domine, creaturam tuam, non a dijs alijs creatam, sed a te solo Deo viva, & vera Ministroak dio azkenik: Ezagezazu, Jauna, zure kriatura au, ez beste Jainkok, zeren besterik eztan, ezpada zuk Jainko egiazko bakarrak ezerezetik egin zenduena. Orduan justuari, bere biotzeko amodio guziaz Jainkoak begiratuko dio, bere antzeko, ta bere eskuetako obra preziatuari bezala. Bai, esango du Jaun miserikordiazkoak, bai: nereia izan da, ta nereia, izango da. Baiezko gozo ori Anima justuak; bere penen artean sentitzean, zer eskerrak Jainko guziz onari emango diozka? Ta onetan bere espiñtua entregatuko dio Jaunari eriotza on batekin. O zer ditxa! Jauna, zure eskuetan ematen dizut nere espiñtua.

Ta pekatariak bere burua egiazko ispillu artan ikusi, ta zer esango du? Arritu, ta sortuko da geiago. Ta errege orri Jainkoak zer eranzungo dio: Non da nere antza, pekatari orretan? Nik, nere antzera egin nuen: nere Semearen odolarekin garbitu, ta edertu nuen, nere, ta beraren imajina izan zedin. Non da imajina ori? O zein itsusia, zein beltza, zein nazkagarria daukan! Deabrua baño itsusiago dago. Ken, ken nere begietatik betiko. Naiago zuen deabruen izan, nere baño. Zenbat bider, ta ezerezegatik, ni utzi, ta demonioen ondoren arrastaka ibilli da? Aiena da, ta aiena bidi aiekin. Ez erregutu: ezte nai enzun: ez diot begiratu ere nai. O arri-garrizko despedida! Ta Jainkoak begiratu nai ezpadio, nora joango da? Onetan illko da bere pekatuan: ta deabruak aren animaren jabe egingo dira. Ai sekulako galdua!

Au da justuaren, ta pekatariaren eriotza, edo illzeko modua: ta orra zeñ bestelakoa dan, ta zeñ antz gutxikoa pekatariarena justuaren aldean.

DESENGAÑO ONETATIK ATERA BEAR DANA

Begiz ikusten dan egia andi onen frutua da, eriotza on baterako prestatzeko animo andi eragille bat. Ezta kasik gauzarik, Jesu Kristok geiago, ta berariazago agintzen, ta beñ, biarretan, ta askotan enkargatzen duenik, eriotzara ondo prestatzea baño. Nai du beti prest egotea: beti gure



gañean, ta gure kontra sententzia degunak bezala: egun onetan, ordu, edo puntu onetan ill bearrak bezala.

Guziok ezagutzen degu ill bear au, ta illzeko prestatu bearra. Ta guziok ori bear bezala egiten degu? Zenbat kondenatuen artean arkitzen dira ori bera, guk bezein ondo ikusi, ezagutu, ta pensatu zutenak? Ta pensamentu orrek zer baliatzen die orain? Ta zer baliatuko digu guri, aiek egin zutena pensatu, ta egiten badegu?

Orregatik Kristoren mandatu aian enkargu andikoak artu, ta Jainkoaren bildurrezko Kristau on asko, urtean bein erretiro onetan, ta beren biotzetan sartzen dira, Ejerzizio oiei gogotik ekin, ta bizitzaren kabuko kontuak balira bezala, illzeko baleude bezala, guziak ajustatzeko. Egiten dute konfesio andi bat; ta Jainkoari kontu ona emateko, bizi guziaren, edo gauzarik bearrenen errebista bat, bere obligazioen gañean, orrela zuzen, ta garbiri eriotz on baterako, ordu artan naiko dan bezala, prestatzeko.

Beste asko ez dira orrekin kontentatzen: ta seguruago jokatzeke, ta bearren dan egiteko bakar oneratako prestaturik beti, Kristok agintzen duen bezala, egoteko, illoro, falta gabe, egun bat illaren lenbiziko libreena artzen dute, erretiro santu batean igarotzeko: bere etxeko, estadu, edo bizimoduko kontuak obeto ikusi, begiratu, ta Jaunarekin atzenekoak bezala, garbitzeko: egiten dute ill artako kulpa guzien konfesio bat, illzeko baliz bezala. Ta au da Ejerzizio guzien frutua: au da ondo illzeko prest beti egotea: au da egiaz ondo bizitzeko, ta lurrean al datekean zeruko bizimodurik gozoen, alegereen, ta atseginena izateko bidea.

Ill artako, edo erretiroko komunioa artzen dute Kristau zorioneko oiek, illzeko, ta atzeneko Komunioa baliz bezala, ta janari zeruko onekin bidezkoen gisan, betiko jornada luze, edo eternidaderako, animatzen, ta indarra artzen dute, Jesu Kristo guziaz janzi, ta prestaturik. A zer poza, eriotzako orduan, onela lenazdanik saiatu, ta maneatuaz! Kristau onela bere osasunean, beregain dala prestatzen danari, eriotzako orduak, datorenean, eziñ susto andirik emango dio. O zer konsueloa onela bizitzea, ta onela illzea!

Baldin beste gauza denboralen gañean, artu emanik izan badu, edo oraiñ zer egin badauka, bere atzeneko kontuak atera bear ditu, ta garbitu. Argatik zeruko abiso, askok txit bear duena, zuri Aita San Agustin andiak ematen dizu: *Fac testamentum tuum, dum sanus es, dum sapiens, dum tuus es: in infirmitate blanditijs, & minis duceris, tu non vis.* De Cura Animae serm. 45. Zure testamentua, dio Santuak, egizu osanunean, burua dezunean, zeregain zeranean: azkeneko gaitzean, begira, besteen erreguz, edo bortxaz, gauza onik eztezu egingo: ez zuk nai dezuna, ezpada besteak nai dutena:

ezta zure borondate, ta testamentua izango, ezpada besteak berak nai dutena.

A! Ta zenbat bizi dira ajolagabe kargu, ta obligazio estua testamentua egiteko dutenak, ta beren zor artzeko, artu emanak, kondenatu nai ezpadute, denboraz agertu, ta zuzendu bear dituztenak, ta Jainkoak abisoak emanagatik, gor egin, ta lasai lasai, alakorik ezpaliz bezala, bizi diranak? Zenbat, geroko beti utzi, ta luzatu, ta ustez ustegabe eriotzak garbitzen dituenak? Zenbat, korde, ta buru gabe daudela, bestek testamentua egin, edo eragin, ta pasa, ta illzen diranak? Zenbat testamentu oker onelako ote dira?

Ta zerori testigu etzera? Eztezu ikusi, edo aditu, ta jakin, zer askotan igaro dan? Ta ori guztia jakin, ta askotan ikusi, ta edolarik besteren kaltean, mundu gezurti au zer dan, eztezu ikasiko? Testamentua askok, beren uste guziaz ondo egin, ta ala ere ainbeste auzi, ta desditxa orien ondasunen gañean, egunoro ikusten badira: ta auziai ematean deabruari ainbeste erabazi ematen bazai, nola kalte oriek ikusi, ta ikasten eztezu? Ai askoren diru, ta ondasunak, ta Jainkoak daki nola biribillatuak nola, ta zein erraz banatzen, ondatzen, ta ezerez egiten ikusten ditugun!

Ta orregatik zuk kezka, larri, ta desditxa oiei, ta andiangoak tragatu nai dituzu, ta aideen, etxeko, edo kanpokoan naigabezko burrukak ordu estu, bakar, ta bearren artarako utzi nai dituzu? Ha! begira ondo: eriotzako ordu prezioz gabe artan, zure animari bear bezala begiratzea dezu lanik asko, ta bearrena! Bitartean, kontuz zaudeke, besteai zure ondasunak uztean, ez zure animaz aztu: esan nai det, Jesu Kristoren pobrez, zeñak bere ordean utzi zizkigun, oiei egiten zaiena, Kristori egiña bezala, berak artzeko, ta juizioko egunean munduaren aurrean ateratzeko.

Azkenean eriotzaren pensamentu onetatik atera bear dezuna da, ori ondo egitea, ta ori beti Jaungoiko, Ama Birjina, ta Santuak eskatzea, ta Jaunaren bildur santuak beti bizitzea.

Nai badezu, mundu onetan al datekean bizitarik pakezko gozoena, ta eriotzarik prezioso, ta santuena egin, erregla orek biotzean, ta bizimoduan gorde itzatzu ondo:

1. Erregla: Konfessore on batek agintzen dizun egunetan, konfesatu, ta komulga zaite.

2. Erregla: goizean egunoro zure obrak, pensamentu, ta izak, neke ta trabajuak, zure biotza, zeran guztia, Jaunari eskeñi, edo ofrezai zaiozu.

3. Erregla: al badezu egunoro irakurri, edo enzun Libru espiritual, Konfessorea seinalatu bat: ta irakurri aldian au egin soseguz, ta falta gabe.



4. Erregla: al dezun guzian Meza enzun, ta Ama Birgiñaren Errosarioa, edo Eleizan, edo etxeoakin erreztatu.

5. Esamen egun artakoa gauero, falta gabe, A. S. Ignaziok dion bezala egizu, bere bost puntuakin. 1. Jainkoari egun artan egin dizkitzun benefizioen graziak ematea. 2. Egundartan egin dituzun pekatuak ezagutzeko graziak eskatzea. 3. Jaiki ziñanetik ordu artaraño zere buruari kontu artzea: ordutik ordura, pensamentu, itz, ta obretan. 4. Egin dituzun kulpen bar-kazioa Jaungoikoari eskatzea. 5. Beraren graziarekin emiendaren propositu-egitea. Ta Jaunaren ofensen damu, ta aurrerako proposituak egiten, esamen onetako denborarik geiena gastatu bear da.

Onetarako goizean beti, ta arratsean, ta al dezun guzian, Kontriziozko aktuak biotzetik egitera oitu zaite, ta zure animak indar andia artu-ko du.

Baldin Konfesore bear bezalako on bat artu, ta aren esan, edo konsejuak, erregla oiekin, fede ta borondate onaz gordetzen badituzu, Jainkoaren Legea ondo gordeko dezu, ta seguru salbatuko zera: *Hoc fac, & vives.*

HERIOTZAREN BIGARREN EJERZIZIOA, EDO GORPUTZ ILLAREN GAÑEAN

Pulvis es, et in pulverem reverteris. Genes. 3.

Lurra, ta autsa zera, ta auts biurtuko zera.

Eriotzaren konsideraziotik atera bear degun frutu andietatik bat da, Eriotzaren antz andiko birtuterik nobleenaren Ejerzizioa, ta usoa. Birtute oni Mortifikazioa deritza, ta egiaz ezta besterik, ezpada gure pasio, ta inklinazio era gabekoen eriotza baten gisa, ta oriei bizia kentzea, era onean guregan moderatu, ill, ta obiratu, Gorputz illa, ta autsa bezala. Eta au da Ejerzizio onen fiñ, eta frutua.

KONPOSIZIO, EDO LEKU EGITEA

Zure Gorputz illari begiratu, nola ill janziatz, bere ill oean, edo kata-buetan sarturik, sala batean, Santo Kristo bat eskuetan, ta argi bi aldame-netan dituela, egongo dan, ta orren iges guziak joango diran, ta bakarrik an utziko duten.

ESKARI, EDO PETIZIOA

Gure Jaungoikoari argi, bizi bat eskatu, zure bizi labur miserablea, ta orren banidade, engaño, ta ezerez utsa ondo oraiñ ezagutzeko, ta gorputz ori bere lurreko gauzakin, merezi duen bezala aztu, ta Jaungoikoa bere zeruko gauza betikoakin bakar bakarrik estimatu, ta emendik aurrera, billatzeko. Ai Jauna! Banidade oietatik nere begiak aparta itzatzu: lurreko gauzak utzi, ta aztu, ta zu ta zerukoak amaten, ta arkitzen erakutsi zadazu.

LENDABIZIKO PUNTUA

Onetan iru miseria eriotzak gorputz illari dakarzienak konsideratu bear dira. Lenengo da nola sentiduen uso gabe, ta alerik kemen gabe gorputz illa geratzen dan: ez ikusi al dezake, ez enzun, ez itzegin, ez dagoen lekutik mobitu, ez munduko gauzaz usatu, ta ez gozatu: ya ajolarik eztio, ta ezta len bezala gauza ederrak ikusi, ta zaletzen, ez len bezala musika suabeak enzunaz, ez usai gozoaz, ez gauza biguñaz, ez janari erregalatuaz,



munduan ezpalira baño geiago, zeren sentiduen usoa eriotzak kendu dion.

Ta munduko orrelako gauza guziak gozatu, ta bere erara izan balitu ere, orain zer baliatuko lioke? Non da orain, zer serbitzen du arako buru, ta biotz soberbiaz, ta aizez andituak, aserrez, koleraz, benganaz, ta dollorkeriaz beteak? Ezer ez. Non dira, zer serbitzen dute, pensamentu gaitzoz beti idirikik zeuden leio, edo begiak, ikusten zuten guzia Jainkoaren Legearen kontra desatzeko? Ezer ez. Non dira, zer serbitzen dute esku infame, ta mingañ ariñ beti gaitzerako, eskuaz alde askotara, ta mingañaz iñori barkatu gabe, beti zebiltzanak? Ezer ez.

Non da jale, ta edalea? Zer serbitzen diote janari erregalatu, ta ardo gozoak, zeñaz ezin aspertu zan, ta ainbeste eragabeko geiegi, ta orien ondoren zetozen jujuriako pekatu loiak, ta Jainkoaren aserrea añ erraz tratatzen zan, ta bere sabela beste Jainkorik etzuela? Ezer ez. Non dira, zer serbitzen dute oiñ ariñ pausoak nola nai, itsuan ta lasterka pekatuen bidean, ta pauso oro pekatuak egiñ, ta eragiñaz oi zebiltzanak? Ezer ez. Non da, zer serbitzen du gorputz, ta biotz ain lazki, ta bizarria andiaz deabrua beti serbitu zuenak? Ezer ez. Ezer ez.

Ta emendik zer atera bear dezu? Zer? Zure erremedio, ta frutu segurua. Ta bada laster, nai ta nai ez, alerik merezimentu gabe, sentidu guzien usoa eriotzak kendu bear dizu: fedeko desengaño onez baliatu. Ta bada fedea berak dio, «Jainkoaren amorioa eriotza bezala portitza dala, ta obia bezala gogorra». Obe dezu Jaunaren amorez, zure borondate libre, ta merezimentuaz zure sentiduen usoa, Jaungoikoak nai duela dakizun gauzetan, zere buruari ukatu, ta ill baziña bezala utzi.

A! Badakizu, zenbat bider, zer pekatuen peligro, bide, edo okasioetan, zenbat Jainkoaren ofensatan zure begiaz, mingañaz, belarriaz, eskuaz gaizki, ta zure kondenaziorako baliatu zeran: balia zaite, bada, orain biotz orrez damu, ta proposituaz penitentzia egiteko, begiaz negar egiteko, ta orrela besteaz ill ezkerok lekuri ezta: orain Jaunak bere piedadez ematen dizunaz balia zaite: arma zaite pazientziar, illa baziña bezala, neke, dolore, tratu gaitz, afrenta, ta beste gaitz guziak, kejaru gabe ixilik, Jainkoaren izenean, ta zure kulpen paguan, eramateko. Gorputz illa orieran kejaru ezta. Ai zu egiaz orrela illa, edo mortifikatu, ta illerazoa bazeunde!

Bigarren eriotzak Gorputz ill batean egiten duen gauza da, deskoloretu, itxura kendu, ta otza, itsusia, ta nazkagarria utzi: ta bereala, len begiratu, ta zorutzen zuen edertasuna, lasterka ubeldu, usandu, kiratsez bete, ta usteltzen dijoa, ta begiratu ta ikaratzen du. O lurrezko edertasunen saria! Desengaño askotan ikusi dezun onetatik frutu andi ta iraupen luzea-

go duena aterezazu. Ta zer da? Lurreko agiri diran edertasun atsegin, ta anditasunetan ez zure biotza jositzea: oriez pagatzen bazera, laster beren ondorengo pagua ezerezekin emango dizute.

Utzi bada, diranak, ostikopean betiko iduki: orretako ez begiratu orain dirudienari, ezpada laster oriez izango danari. Ta gauza eder, ta munduko gloria guzia zer da? *Kanpoko lore, edo belar puska bat*. Isai. 40. dio Jainkoak: Eskuz ukitu orduko, edo aize piska batekin igartzen dana. Ta onelako edertasun, lore argal, ta lur puska eder antzaz estali bati begiratzek, ta biotza orretan ipintzek, zer kalteak munduari, ta, Gizonik andienai ekarri diezte? O! nork daki, Jainkoak baizen.

Sentitzean, bada zure biotza orrelako eder nai, ta atsegin, edo gusto falsoetaronz dijoala, ta zaletu nai duela, bizi ezazu zure fedea, ta tira, ebaki, moderatu, ta orrelako naiera, ta inklinazioak sustraietik atera zure biotzetik, begiaz, ta egiaz ezaguturik, zeñ azalekoak diran emengo edertasunak, zeñ laburrak, ta itsusiak lurreko apaindura, ta orien gustoak: ta zeñ laster akabatzen, ustel, ar, ta auts biurtzen diran. Oriekgatik orañadano Jainkoa ofenditu dezun guziar, damu andiaz penitentzia egizu, ta propositu firmeaz zure biotza Jainkoagan ipintzu, «zeñen itzak beti iraungo du». Isai, 40.

Irugarren miseria, lengo bien ondoren Gorputzari eriotzak ekartzen diona da, ill, ta bereala bakarrik utzitzea: munduko estimatuena, ta adortuena izan bada ere, orduan aren iges dijoaz diranak, guraso, edo ume, senide, aide, ta adiskideak: Nork daki noren eskuetan utziko zaituzte; eta oiek, nolana, ta norana, zure keja gabe erabiliko, ta ill janzia lasterka, ta zure ikaraz janziko dizute: ta zure etxeak berak alik ere lasterrena, ta presaka zure etxetik bota nai zaituzte. O munduko ero itsoen pagu ondo merezitua!

Emendik atera bear dezu, zeñ gutxi balio, ta serbitzen duten munduko esanak, eta estimazio aizezkoak: eztute merezi zuk kasorik egitea: ezta inporta gizonak zu desanparatzea, ta zure adizkide, ta obligatuenak ere zuzaz aztuztea, Jainkoaren anparo, ta grazian zaudela. Gorputz illa ezta kejaru gizonen desainparoz, ta ditxa andizat dauka, Dabid Santuak ziona: «Begiratu zidatenak, iges nigandik joan ziran, biotzetik nizaz aztu ziran, illa banengo bezala». Psal. 30. Ontzi ausi baten gisa izan nintzan, zeren nere aldean zebiltzan askoren desprezioak aditu nituen. O! ni nere biotzean onela illa banengo, batere ez sentitzeko, besteak ni illa bezala tratatzen! O! munduko gauzenzat añ illa, ta kruzifikatua banengo, non da munduak ere illzat, ta kruzifikatutzat iduki nintzakean! Jainkoari grazia au eska zaiozu, ta zorionekoa izango zera.



Bidez emen akorda zaite, Jainkoa bakarrik serbitu, lurreko gauzak pilatu, ta gorputza mortifikazio, ta penitenziaz itsusitu, ubeldu, ta akabatu dutenen pribilejioaz: ta nola Jaunaren sierbo, ta adiskideak, ill, ta ezuten beren Gorpurzakiñ ikararik ematen: orien Gorputzetatik iñork eztu iges egiten, ezpada konsueloz, errespeto, ta debozioz guziak betetzen dituzte.

BIGARREN PUNTUA. IRU GAUZA GORPUTZ ILLARENZAT PRESTATZEN DIRANAK, ETA DIRA SOÑEKO, OIA, TA GELA

Lenengoa da Soñekoa: eta gauza jakina geienean etxeko zatarrena, edo edozein oi da: ill janzi pobre, edo balio gutxikoa. Ezer gauza eder, edo andirik gañean paratzen badiote, ori obirako, edo enterratzeko kentzen diote. Ta zer zaio zure gorputzari? Pensa ezazu ondo munduko enrokera, bada Soñeko prezio andiko, ta ederrak ainbeste estimatu, ta bear bada pekatu askorekin biri billatzen ditu. Apain gura, andi nai, eder zale oietatik izan ote zera? Bada laster ill janzi batez aspertuko zera.

Orain gorputz ill orri galde: non dira modako soñeko eder, ta non dira gala berri kostu andiko, ainbeste ansiarekin billatu, ta zure zoragarri ziranak? Ai! Berrero gorputz orretara anima biurtuko baliz, zer bizimodu berria artuko lukean! Zer negarrak, zer penitenzia, lengo zorakerien gañean? Lengo sobra eroak, lengo geiegiak nola jan, edan, janzian moderatuko lituke, ta biotzetik, ta begietatik guziak kenduko? Bada ark ezin egingo duena, egizu zuk, ta damuko eztezu.

Bigarren gauza, gorputzan ill ezkerro zaiona, da Oia, ta zulo batean lur gogorra. Isaias Santuak diona: «Zure koltxoiak sitsak, ta zure koltxa, edo estalkia arrak izango dira». Isai. 14. Zure kortinak, oeko zerua, ta burukoa, len ill ziranen buruezur, aragi ustel, ta besteen ezurak alde guztetik izango dira. Ea munduko delikaduak: non dira zuen oi biguñ erregalatu, ta ederki janziak? A zer damua; baña orduan erremedio gabea! Orain da denbora guzia ondo erremediatzeko. Jesu Kristo Gurutzeko oe gogorrean zure pekatuakgatik ikusi, ta zere burua oiean; ta beste gautzetan moderatzeko, ta oraindanoiko geiegiak zerzenatu, ta sobrakin pobrei, Kristoren izenean limosna egiteko.

Irugarren gorputz illari dagokion gauza, da Gela, eta au zazpi oñeko zulo, edo obi, ordu erdi batean eragiten dan bat da. Beste munduko andinaien obi kostu andikoak zer serbituko, zer baliatuko die? Ezer ez, utsa. Ta orain non dira zuk ainbeste neke, ta kosturekin jaso zinduen Etxe, ta Palazio berriak, ta orien edertasun, ta bizitzeko konbenienziak, beti emen bizi bear bazenduen bezala egiñak? Ai ero andia! Etxenekien Ebanjelioko Kristoren jentenzia: «itsu zoroa: gau onetan ilko aiz, edo anima aterako ditek: ta ire ondasun oriek norenzat izango dira?».

Ta zenbat onelako erokeria itsu egunoro ikusten da? Zenbat burutik jausiak bezala dabilta onelako gauzak egiten, ondasunak biribillatzen, mundu onetan beti bizi bear balute bezala? Ta bitartean animaz azturik, ta zenbat, eta munduko gauzetan sartuago, anbat animaren peligro geiago: ikusten dan onek guziak engañatu, ta zoratu, ta Zeruaz, ango gloriaz, Jainkoaz, ta bere betiko Palazioaz azturik. Fede ill ori, lurreko gauzen kearekin illundu, ta nasturik daukazuna, bizierazo, ta argi ezazu, ta lurreko gauzak utzi, ta zerukoak billa itzatzu.

IRUGARREN PUNTUA. ESAN DIRAN GAUZAK GORPUTZARENTZAT PRESTATU, TA DATOZ ORIEN ONDOREN BESTE IRU ZER KONSIDERATU

1. Eleizara gorputzarekin egiten dan jornada.
2. Nola lurra eman, ta obian sartzen duten.
3. Nola an utzi, ta guziak aztutzen duten.

Lenengoa pensa ezazu, nola bestek zure etxetik aterako zaituen, ta kaja batean, edo kataouetan lauren artean kaleak barrena eramango zaituzten Eleizaraño, ill kanpaiakin, batzuek kantatzen, besteak negarrez, ta bakoitzari dagokion bezala, beste asko beren piedadez onrari jarraitzen. Ta lenagoko egunetan kale orietan ariñ zebillena batera bestera begira, ta Eleizan debozio gabe sartzen zana, orain besteen gañean, itsu, gor, ta mutua joan, edo sartuko da, guziak dakustela, ta askoren lantu gai dala.

Desengaño onetatik ikasi, ta atera bear dezu lekzio andi bat, eta da, zure brioak gauza askotan moldatzea, ta guzietan moderazioa gordetzea: jaiki, ta janzitzean modestia, itz egitean, jatean, edatean, eskalak bera jantzitzean, etxetik irten, ta kalean ibiltzean, ta ere geiogo fede andiaz Eleizan



sartzean, bizitasun geiegiak autsi, ta mortifikazean: eta akorda zaite laster bestek erabili, ta besteak etxetik atera, kaleetan eraman, ta Eleizan sartuko zaituztela, beñere ortik ez irteteko. A! Jornada au begien aurrean animan bazeneuka, beste moduz zure bizitza zuzenduko zenduke!

Ta gorputzarekin, edo ondoren dijoan jende edo proguko laguntza, ta akonpañamentuaz zer zaio? Ezer ez: ta ere gutxiago aren anima infernuan badago: onra, ta *gloria ori ezta ara jatxiko*.

Gauza izugarria da Santa Teresa de Jesus miragarriak pauso onetan bein ikusi zuena. Zeramatan, esan degun bezala Elizara gizon baten gorputza, ta Jainkoak erakutsi zion santari, nola demonio asko zijoazen eskutik eskura kako andiakin gorputz ori batak besteari emanaz: arako obian sartu bear zanean, dio Santak, ainbeste demoniozko tropa, ta iskanbilla, gorputza artzeko zebillela, non arriturik, korde gabe gelditu zan. Konsideratzen nuen, dio Santak, aren anima tristeaz zer egingo zuten, ala gorputzaren jabe egin ziranak.

Estadu gaiztoan daudenak onelako gauza ikaragarri bat, Jainkoak nai ta, ikusiko balute, Santak ziona, asko balioko luke, bizitza ohea artzeko. Ta mundu zabal orretan egunoroko entierroetan, zenbat onelako ikusi litezke? Nork daki? O Jaunaren juizio justu, ta estuak, zein urruti onetatik gure juizio gezurti engañuzkoak dabilizan! Ta orrelakoai emengo onrak zer serbituko die, ezpada infernuan tormentu geiagorako?

Bigarren konsideratu bear dezun gauza da, nola Eleizaren erdian zure gorputza ipiniko duten, guzien begietan, ta bere biziko agiriena: gero ofizioa, Meza, ta Erresponsoa kantatu, ur bedeikatu, ta inzensuaz eman, ta obira eraman, ta an ezurren, arren, ta lur ustelen artean sartu, ta zure lurrezko dagokizun etxean utziko zaituzte, ta zuzaz erraz diranak betiko aztuko dira: losa batekin ondo tapatu, ta iñork geiago ikusiko etzaitu. Ta orra zertara datorren zure edertasun guzia, zure anditasun: argitasun, puesto, onra, erregalo, ta lurreko lore, ta gloria guzia. *Sic tansit gloria mundi*.

Zure animari desengaño au ispillua bezala aurrean ipiñi, ta esaiozu: Orra zure zorakeria zertara dan: begira zeren gañean aizezko torreak zure banidadeak, geroko, ta betiko famarenzat jaso dituen: orra zure gorputz maitea aiñ begiratu, ta erregalatu: begira orain zeñ ederra geratzen dan. A! obe dezu negar egin, penitentzia, humildade, pazientzia, modestia, kari-dadea, obra onak, Sakramentuak, ta Jesus humillaren, pobreak, despreziatuaren birtuteai jarraitu, ta zeruan Palazio eder betiko bat egin, ta zure eskuaz, ta bizitza santuaz, zure eternidadeko etxe berria jaso: *Ibit homo in domum aeternitatis sua*.

Irugarren pensatu bear dezun gauza da, nola zure entierroa bukatu, ta atzeneko erresponso, ta kanpanen otsarekin batean Elizatik guziak dijoazen, ta alakorik ezpaliz bezala, jatara, jokora, ta beren egitekoetara, ta bereala zuzaz beste munduko andiaz bezala aztuko dira: perijt memoria eorum cum sonitu: *oblivioni datos sum, canquam mortuus à corde* Munduan dan guapoena izandu bazera ere, ta agintari gogorra, ya iñork zure bildurrik eztu: dan personarik bearrena izan baziña, ere, ya zure bearrik iñork eztu. Zuzaz iñor oroitzen bada, murmuratzeko zure faltak, zure tatzak, zure pekatuak esateko, izango da: munduko mingañ gaiztoen platillotik erregalatuena au oi da: zakur amorratuen gisa, illen ezurrak erabiltzea, ta gustoz txupatzea.

Azkenik, infernuan dauden animai zer baliatuko die munduko onrak, ta alabanzak? Baña zuk orain humildade biotzekoaz penitentzia ta bizitza berria egin, ta zeruan badago zure anima, zertako ditu munduko onrak berekin duela Jainkoaren onra, ta gloria bizia?

Orain kontu egizu, zure gorputza sei, edo zortzi egunean lurpean egon ezker, ateratzen dutela, ta an bertan zure anima begira dagoela. Zer ikusgarri tristea, ta ez ikusteko ohea! Begira zer itxura: zeñ itsusia, zeñ ustela, arrez, ta kiratsez bete! Ikusteak arri lezake: utsaiak ill lezake, ta gogoratuak berak nazka lezake. O zer desengaño! O zer ispillua! O zer buruko, edo almoada, oira zoazenean pensatu, ta onen gañean obeto zuk lo egiteko! ta orra zure lengo edertasun aiñ estimatu, billatu, ta zoragarria zer dan.

KOLOKIOA

O nere Jesus edertasun anziñako egiazko bakarra! O lurrean agiri diran, ta zeruan gorderik dauden edertasun guzien egillea! O Aita Eternoaren betiko ispillu guztiz eder garbia, zeñean Aingeruak enamoraturik begiratu nai, ta naiago duten! Zu aiñ ederra izanik nere pekatuak, golpez, azotez, arantzaz, ta tormentuz, aiñ itsusi biurtu zinduzten, ta Gurutzean illik zure Ama gozo, ta orduan penaz betearen besoetara ikusgarri itxura gabe, aiñ lastimosoa jatxi zinduzten.

O nere Jaungoiko guztia amoriozkoa! Zure Eriotza, ta obiagatik, zure pasio guziagatik, ta zure Ama maiteak orduan artu zuen biotzeko naigabe esan al baño andiago argatik, indazu, arren, Jauna, argi, ta indar andi bat nere biotza egiaz zugana biurtzeko, penitentzia egiazkoa, ta zuk naizun bezala, bizimodu berri santu bat artzeko, zure amorioan bizi, ta ill nadin. Amen.



JUIZIO PARTIKULAR, EDO BAKOITZAREKIN EGINGO DAN JUIZIOAREN GAÑEKO EJERZIZIOA

Statutum est hominibus semel mori, & post hoc iudicium. Hebr. 6.

Jaunaren aginte, edo legea da, guziok bein iltzea, ta eriotzaren urrena Juizioa.

Zu ill ezkeru, zure gorputza, nork daki, noren eskuetan utzi, ta bitartean zure Anima, edo Espiritu bakarrari, Jaunaren juizio onetara jarrai diozagun.

Ejercicio onen fiña, ta emendik atera bear dan frutua, da Jainkoaren bildur santu bat, propositu indarsu eragille batekin zure biotza seguratzeko, ta pekatu guzietatik betiko libratzeko. San Juan Ebanjelistak dion bezala, «Jainkoaren bildurra ar ezazu zergatik eldu dan, edo aren Juizioko ordua aldean dezun». Apoc. 14.

ORAZIORAKO KONPOSIZIO, EDO LEKUA

Illtzen zeran puntu, ta leku artan, edo gelan, egizu kontu, Jesu Kristo G.I.ren tribunalean bereala arkitzen zerala, ta Jaun ori bere Majestade guziaz janzirik agertzen dala Juizioko Tribunalean jarririk, Aingeruen erdian: suz, ta garrezko ibai andi bat aren oñetatik, pekatarien kontra, Daniel Profetak dionez, irteten dala: edo San Juanek ikusi zuenez, aren Jarlekua guzia zuria, ta argitasunez betea, Juezaren jakintasun, ta beraatasuna justuenz atadieratzeko: bean zure kontra demonio asko, ta zure anima ainbeste grillu, ta kateaz, nola diran zure kulpa, ta pekatuak, loturik dagoela.

PETIZIOA, EDO ZER ESKATU BEAR DAN

Egoera bakar triste onetan, Jaunari argi bizi andi bat eskatu bear diozu, ondo ezagutzeko, ta zure buru, ta beste lurreko gauza oien gañean, orduan juzgatuko dezun bezala, orain bertan juzgatzeko, eta grazia eragille bat, orduan naiko dezun guzia, orain gogotik, ta biziro egiteko. Jauna, zuri kontu ona emateko, Dabid santuarekin esaiozu: *Confite timore tuo carnes meas: à judizijis enim tuis timui.* Jauna, nere gorputza, ta biotza zure bildurtasun santuaz josi ezazu, zeren zure juizioen ikara andi batek artu nauen. Psal. 118.

JUIZIO ONETAN IRU GAUZA IKARAGARRIAK DITUZU

1. Zure anima Jainkoaren Tribunalean agertzea.
2. Zure animaren bizi guztiko kontuak artzea.
3. Zure animaren betiko sententzia ematea.

LENENGO PUNTUA

Fedeak erakusten dizun egia, emen gogora ekarzu, ta nola zure bizitzaren atzeneko instante, ergai, edo momentuan, zure animak salto espantoso bat eman bear duen, bizitza onetatik bestera, mundu onetatik bestera, denboratik eternidadera. Puntu artan aldatuko da, ta arkituko alderri, edo errejio guziz berri, ta bakar batean, sekulan, edo inoiz ere ikusi gabeko lekuan, kabu gabeko soledade, edo eremu triste, zabal, neurri gabeko artan.

Zure espirituak bere burua, dan bezala an ikusiko du, baña bakarrik, adiskide, ta lagun gabe, ezagun, bitarteko, anparo ta arrimo gabe: urre, ta ondasun gabe, onra, ta anditasun gabe: atsegin, ta jolas gabe: bakar bakarrik: ez diote utziko, ezta bere gorputza ere berekin eramaten. Ori, arrak jateko, usteldu, ta loi, ta auts biurtzeko emen geldituko da. Zure obrak bakartxorik jarraituko dizute: *Opera enim illorum sequuntur illos;* ta oriei dagokiena, emango zaio an bakoitzari: *Unicuique secundum opera eius.* O! Utzitzen dezun munduaz, zer juizio egingo dezun orduan! Ondo pensa ezazu orain bertan.

Jarri zaitte puska bat zure artean konsideratzen, zer iritziko diozun ordu artan oraingo Ejercicio oietako erretiro, ain bear onez, ta zure salbazioaren gañean Jainkoarekin jardute, ta tratatze onez? Zer esango dezun orduan, oraingo zure nagitasunaren kateak urratu, munduko arazo, edo enbarazo guzien damuan, Jaungoikoari, ta zure anima bakarrari eguntxo oiek ematera ausartu, ta animatu ziñan orduaz?

Zer bada, zer iritziko diezu zeruko argi, ta desengaño emen zure biotzean sortu, ta artu zinduenaz? Zer emendik atera zinduen gogo sendo, ta propositu eragilleaz penitentiaren egiazko frutuak egiteko, ta bizimodu berri bat aurrera artzeko? Ta zer baldin Santu penitente, ta beñi betiko Jainkoagana konbertitu ziranai egiaz jarraitu badiezu? A! Onela, San Pedro, San Pablo, Madalena, San Agustin, ta besteak, len pekatari, gero Santu penitente, Jaungoikoagana bein biurtu, ta geiagoren geiago



pekatu bihurtu etziran: ta, beren pekatuen penitenziarekin zeruko bidea egin zuten. Au bai propositua.

Zer Santu oriek bezala, pekatu guzien konfesio andi oso bat egin, ta Ejerzizioen ondoren, Konfesore seinalatu bat, Aita espiritual jakinsu, ta Jainkoaren adiskide on bat artu badezu, zeruko bidea erakusteko, ta lagun onak bezala zu gidatzeko, ta fede osoarekin ari, Jesu Kristori berari bezala obeditzeko, ta Jaunaren borondatea gauza guzietan aren esanaz egiteko? Baldin bide onetan, ta Jainkoak ipiñi zaituen Estaduan, bera zuzendari dezula, erregla seguruak artu badituzu noiz, edo zenbat bider konfesatu, ta komulgatu bear dezun: nola gauoro zure konzienzia esaminatu, nola, ta zein librutan zure egun oroko irakurri aldia, faltarik gabe, ta soseguz egin bear dezun.

Baldin Ejerzizio oietan, Jaunaren graziaz janzi, ta Kristoren espiritu, ta birtuteaz armatu bazera zure etsairik andien, edo bizio agintariena eza-gutzeko, juramentu, edo birauetan, geiegi jatean, edo edatean, ta ortik datozen gaitzetan, jokoan, janzian, lo egitean, begiratzean, itzketan, ta beste onelako oi diran era gabeko gauzetan, orien kontra berariaz pelea-tzeko, ta sustraietik ateratzeko.

Baldin Gurasoa bazera, nola etxeari, ta etxeakoi begiratu, zer ejen-plo, zer abiso, zer erreglak ondo bizitzeko, obrakin itzakín baño geiago eman bear ditzezun: nola Meza enzun, Doktrina errepatatu, Ama Birjiñaren errosario santua errezzatu bear duten: nola guziakin pake, ta amoria, ez iñori gaitzik egin: nola lurreko gauzak ondo usatu, ta zeruko eskala egin bear dan, alkar ondo eraman, edo sufrituaz: nola munduko esamesak, ta errespeto banoak oinpean iduki, ta pisatu bear diran: nola emengo goraberak, beste neke, ta kontrako gauzak ondo eraman, ta emengo trabaju guzietan Jaungoikoaren juizioak, ta borondatea adoratu, ta txit gogotik egitera animatu bear dan: nola, ta zertaraño Jainkoak ondanunik eman badizu, Jesu Kristori bere pobretxoetan limosna egin.

Onelako gauzetan, diot, Aita espirirualaren erreglak artu, bizimodu santu bat zuzendu, orri ekin, ta jarraitu, ta orretan eriotzak artzen bazaitu: zer igaro dan bizitzaz esango dezu? Orrelako bizimodu, ta obra onai zer iritziko diezu? Ai! Zer poza! Oriek dira flota, ta galeoiak beste munduan errejistro gabe igarotzen diranak: oriek ango moneda jakiña, ta txit estimatua. O zer ditxa! Gutxiak damua. A! Orain egizu.

Baña kontrara: ez orrela, ezpada gaizki bizi izan bazera, asko, edo geienak munduan bezala bizio, ta pekatuen pauso txarretan, edo nagitasun peligro sobatean, obra on gabeko, fede ill, ta biotzeko oztasun lastimoso batean, ta erreljioko, edo Ebanjelioko gauzen gañean ajolakabe, ta

nolanai, animako gauzak artuaz: Ai zer pena, zer damua, zer naigabe, zer infernuko bildur, ta larriak, eriotzako orduan ikusi dezun bezala, artuko zaituen! Laster, bada, laster, bizi, oraiñ bereala bizimodu berri santuori asi, ta oraiñ juizioan naiko dezuna, egin.

BIGARREN PUNTUA

Zure bizi guztiko kontua artzea. Gorputzetik anima irten, ta bereala bertan, Judizioan Juezaren presenzian aurkez aurke arkituko da. Teatro, edo Biltoki agiri, ta ikaragarri onetan zure animaren kausa, edo auzia justizian ifiñiko da. Ezin iges egingo dezu iñora, zeren Jaunaren poderio, anditasun, edo Majestade guziak beregan alde guztik, bere erdian, edo azpian bezala, gure esaeran artu: ta sartuko zaituen. Eztezu Jaungoikoa ikusiko; baño espantu, esan al guziak baño andiago batean, bere birtute, indar, ta anditasuna sentierazoko dizu puntu artan. Munduko soledaderik andien, ta triste illunen onetan zure espiritu bakarrak asustaturik, ta ikaraz arriturik dagoela, iru testigu aldi, ta akusatzalle zure kontra salatzen asiko dira: oiek dira demonioa, Aingerua, ta zure konzienzia.

DEABRUEN AKUSAZIO, TA KARGUAK

Oiek, zure etsairik andienak bezala salatzen asiko dira: oiek lenbiziko akusazalleak izango dira, ta suz, ta garrez, gorrotoz, ta aserrez irazakiak, ta guztiz itsusi, ta izugarriak agertuko dira. Arrabiaz beterik bereala deadarka asiko dira. Jauna, esango dute: au da Urliaren anima, zuk ainbeste estimatuzen duena, bada Zerurako egin zenduen, ta pekatuaz galdu, ta gure mendean zegoela, infernutik, ta gure atzapparretatik libratzeagatik, Gizon, onen amarez, egin ziñan: ain garesti kostarik, zure odol, ta eriotzarekin erosi zenduen: ta arrezkero ainbeste onegite, ta grazia zure amoriozko Sakramentuetan egin dizkatsu, ta beste milla modutan.

Baña, orra zure amorio guziari bere bizimoduan nola eranzun dion: orra zer eskerrak, ta zer pagua eman dizun. Txiki, edo gaztetatik pekatuak egiten asi zan, ta guk nai genduen erara, bide orri beti jarraitu dio. Begira, Jauna, zure pasio, ta odola nola estimatu, edo zertan iduki duen: ta orren, ta zure borondate, ta amorioaren kontra zer egin duen. Zure Lege santua ostikopean erabilli, ta milla bider autsi du, edo Lege bage, ta abere baten gisan bizi izan da.

Begira, onelako sujeto, alako personarekin, zer pekatuak itzez, obraz, gogoz: onelako egun, ordu, ta lekutan, onelako, ta alako bazterretan, zer gauzak, zer ofensak, zer pekatu loi itsusi, ezin esan ditezkeanak, ta ezin kontatu ala, bere gurariz, edo naiez, beste gabe, zure Legea urra-



tu, ta egin dituen. Etzuen gure bearrik: bera, ta berez begi bietaraño peka-tuetan, ta okasioetan sarten zan.

Aingeru santuen esanai, ta zure mandatuai ez jaramon, ta guk nai genduen a egiten zuen. Aingeruen inspirazioak baño, gure suestioak pozi-kago artzen zituen. Guri jarraitzen zigun, gure banderapean beti ibilli da; guri naiago zigun, zuri baño: gure lagun, ta adiskide beti izan da. Gurea izan da bizitzan, gure izan biar du eriotzan. Betor, betor gure atzaparretara: betor oraiñ betiko gurekin bere saria artzera. An daukagu infernuan onen tokia, beronek bere obrakin egin duena. Betor, guk emango diogu merezi duen paga: betor betiko infernuetara.

Justizia, Jauna, pekatari galdu onen kontra: Justizia, juez justua, zure etsairik andien onen kontra. Beronek egin du, beronek paga dezala: beronek nai izan du, beronek ar dezala. Betor bada, onen gañera zure betiko aserrea: betor zure ira, madarikazio, ta kondenzazioa. Betor, Jauna, demonio guziakin infernura.

Ai Kristau aditzen zaudena! Ai! zure anima tristeak zer egin, zer esan, zer pensatuko du orduan? Nora begiratu, norganonz biurtuko da tranze ikaragarri artan? Ai zer infernuko izerlikak, gure esaeran, zer penak, zer larriak emango dioten! A! zer juizio egingo dezu orduan, oraiñ aiñ aisa, ta alegere galtzen dituzun egun onaz, ainbeste era, ta ordu ditxozoz, nola orain, Jainkoak ematen dizkitzun.

Deabruak, bearbada, eztiran gauza asko esan, edo aunditu naiko dituzte: balizake ori. Baña ai! Orrelako gabe, zenbat egia (bera gezurren Aita bada ere) zenbat egiazko kulpa zure kontra esan ditzake? Orrez gañera, juizio onetan eztira etsaiak bakarrik salatzaile izango: oiek ilsilik baleude ere, beste testigu obeak izango dira, nork itz egin, ta nork zu akusatu. Eta nor? Ai! Aingeru santuak.

AIINGERUEN AKUSAZIO, TA KARGUAK

Bigarren lekuan oiek zure adiskiderik andienak irtengo dira. Guzien artean zure Aingeru Guardakoa, jaio zinanetik juizioko puntu artaraño, betiko zure lagun, aldeko zure zai, beñere utzi gabe, zure pausu guzietan begizko, ta ikusizko testigu fiela: ta baldin zure bizitza gaiztoa izan bada, zer esan dezake lagun onek?

A, Jauna! esango du Aingeru Santuak, au da urliaren Anima, zure borondate, ta amorio aitarenak gordetzeko niri eman zidana. Nik, dakizun bezala, kontu artu, ta egin diot: nik gau, ta egun begiratu, nik onenbeste urtean gorde det: bere animako, ta gorputzeko gaitz, ta peril guzie-

tatik libratu det. Nik, zeruko bidean ibilli zedin, zure mandatu gozo, ta abiso santurik, asko eman diozkat.

Baña, Jauna, txikitarik arrazoiaren argia zuenetik, bereala okertzen asi zan: zure Legetik deskamiatu, ta bere burua onelako, ta alako bizioai eman zien. Nik deituagatik, geroago, ta gaiztoago, ta zure deienzat gortu, ta sortu zan, ta itsutu, ta begi bietaraño kulpa, ta bizioetan sartu zan: Zaldi gogor brida, edo freno gabe baten gisan, etsiak bezala, eman zion zure Lege santua autsi ta urratzeari, or aginte bat, emen bestea, gaur bat, biar bestea, ta egunoro, ta geiago. Deabruen esklabo billau naiago zuen bizi, gure adiskide baño. Azkenik, Jauna, orra nola dagoen.

Puntu artan: Ai zer penarekin (gure esaeran) zure Aingeru Santu orrek agertuko ditu beraien begi argi, ta garbien aurrean oraiñ zuk aiñ erraz, aiñ errespeto, ta lotsa gutxirekin egin dituzun Jaunaren ofensak, pekatari loien, itsusien, ta lotsagarrienak! Begira ondo: zer larriak, zer antsiak emango dizuten. Munduan zenduen Lagunik santuen, ta adiskiderik laztanena zure kontra onela biurturik ikusita, zer egin, zer esan, zer pensatuko dezu? Nora biurtuko zera? Aingeru egia baten kargu oiei, ta onelako beste asko, ta andiangoi zer deskargu emango diezu? Ai zer damu samiña, zer pena garratza berari ez jarraituaz idukiko dezun! Etzan besterik deabru etsai gezurtiari sinistu, ta aren esana egin; ta Aingeru egiazko adiskideari ez sinistu, ta eranzun nai ez?

Zer erremedio, bada, zuretzat? Orduan ezta denbora, ta erremedio-rik: oraiñ bai, Jainkoari milla esker, zeren askori eman ez dion denbora au, eman dizun: leku, ta argi au zure erremediorako, ta Aingeru zeruko Lagun, adiskide maite ori, or, ta leku guzian zu gordetzeko, zu salbatu artean: au zure eskuan, zure nai, edo borondatean dago: ori, Jainkoak nai du, ori Aingeru santuak. Erremedio erraza, ta segurua da, goizean jaikitzean zure anima, ta gorputza, zure alegin, ta pensamentu, itz, ta obrakin, zeran guztia, Aingeru santu onen eskuetatik, Jainkoari presentatu, ta eskeñtzea, aren borondate gaiza guzietan egiteko. Erremedioa da, beti, ta leku guzian begiratu, Jainkoa dagokizula begira.

Begira ondo, zeruko Aingeru eder ori dagokizula begira: Begira ondo emendik aurrera etzaudela bakarrik, ta Aingerua aldean dagokizula begira. Begira ondo non sarten zeran, nerekin zauden, ta norekin zabil-tzan. Begira zer esaten, zer egiten dezun Aingeru orren aurrean. Edozein leku, ta sokotan, gau ta egun zurekin dago Aingerua: oraiñdaño baño errespeto, amorio, ta debozio geiago iduki zaiozu. Begira, begira, nere, edo edozeinen aurrean lotsatuko ziñakeana egitea, ez arren orren aurrean egin.



Adiskide leial baten gisa, lege ona, ta amorio andi bat iduki zaiozu, zeruko Aingeruaren lagunak bezala. Ai! Onela egin, ta begiratu baziño, beste bizimodu artuko zenduen! Ai! zenbat pekatutatik libratuko ziñan! Erremedioa da, egunoro jaiki, ta bereala Aktu kontriziozko andi bat propositu firmeaz egin, ta zure Aingeruari esan.

Zeruko nere adiskide maite, nere biotzeko Aingeru santua: orra nere biotza, nere anima, ta gorputza, naizan guzia gaurko, ta betiko, zure eskuetan. Ta, bada, zuk naizu nik Jaungoikoaren borondatea egitea, aren Lege santuari, ta nere obligazioai ondo erantzutea. Ea, bada, izan, ta egin bidi guzia. Zu nere Maisu, nere Lagun, nere Gida zera zeruko bidean: goberna nazazu, gorde ta zuzendu nere pauso, obra, itz, ta pensamentu guzietan: erakusi, ta lagun zadazu, ondo erabili, ta tentazio, ta pekatuen bide guzietatik libra nazazu, zuri zuzen jarraitu, bizitza berri bat egin, ta eriotza onbatekin zurekin sartzeko Zeruko glorian. Amen.

Orazio au, edo onelako bat goizoro egiten badezu, nere kontu, Aingeruak gorde, ta gaitzetatik aterako zaituela.

ZURE KONZIENZIAREN AKUSAZIO, TA KARGUAK

Zure animaren auzi andi onetan Aingeru, ta deabruak ixillik baleude ere, nork itz egin izango da, testigu fiel, ta etxetxo lapurraren gisa, guziaren berri osoro dakiena. Au da zure Konzienzia bera. O, juicio ikaragarria! Ta zere burua zuk salatu bearra! Orain kolkoan eskutuan estalirik daukatzun kulpak nola agertuko ditu? Zure biziko pauso oker txiki, ta andiak, nola diranak, esango ditu orduan? Zer deadar ikaragarriak emango ditu Konzienzia orrek gorderik, ta bear bada, lotsaz, bildurrez, maliziaz ondo konfesatu gabe or barrenen dauzkan kulpak Tribunal artan, plazara bezala, guzien aurrera ateratzeko?

Ni naiz, esango du, ni naiz urlia zorigaiztokoaren anima, billau falsiaz betea, Jainkoaren, ta Aingeruen begietan nazkagarria, ta betiko galdu bearra. Lotsa, ta desbentura au, ta andiagoak ondo merezi ditut: bada ordu onetan zer igaroko zitzadan, nekiela, orregatik ere egin nituen onelako, ta alako pekatu, ta gaiztakeria, loi itsusi, ezin esan ditezkeanak: onela, ta ala Jaunaren Legea autsi, ta nere Jainko, ta Aita amoroso onena ainbeste bider ofenditu nuen.

Ai zorigaiztoko egun, ordu, ta lekua, zeñean urlia ikusi, ta kondentzeko ezagutu nuen! Ai pensamentu madarikatuak, zeñakin deabruari, ta pekatuari nere biotzean ostatu emanien! Ai ill baninz milla bider lenago, nere Jaungoikoa ofenditu baño! Tranze onetan orain ikusiko ez ninzan. Orduan erremediorik ezta, orain bai: Borratu, bada, ta odollezko negarra-

kin, al bazendu, zure konzienziaren Libruan gaizki egin, ta eskribitu dezun grazia borratu, ta penitentzia, ta bizitza berriaren obrak egin, ta eskribitu zure Libru orretan.

ZURE JUEZAREN KARGUAK

Juizioak duen pausorik izugarriena au da. Zer karguak daukatzu zure begira ordurik tristen onetan? Zer, ta nolakoak Jesu Kristok bere aotik egingo dizkitzu bere aserre guziaren ordu onetan? Esango dizu: Anima galdu, deabruen serbitzari billau zorigaiztoko, Kristau fede gabe, ta lege gabekoa. Egin dezun, nai dezuna: sufritu zaitut, ta oraindano ixillik egon naiz. Baña orain da, ta artu det denbora, zure kontra itz egiteko. Izan zindezkean, ta nik nere amorioz, nere alaba, ta biotzeko esosa maite nai zindudan egin, betiko nere glorian zeruko erregiña izateko.

Nere borondate ta esana egin, nere Legea beste anima justuak bezala gorde, ta ain erraz zure eskuan ori zeneukala, etzan besterik, nizaz zure Jaun, ta Jainko, Aita ongilleaz orrela aztu, ni utzi, ta deabru zure etsairik andien bandoko egin, ta nere kontra biurtu, ta zure indar, ta alegin guziakin oriei jarraitzea? Nik ezerezetik egin zindudan, ez deabruak: nik ainbeste urtean bizia, ta animan, ta gorputzean bear zenduena eman dizut, ez ark: nik gurutzean ill, ta erosi zindudan, ez ark: nik ainbeste bider infernutik, nola Sakramentuan pekatutik, libratu zaitut, ez ark. Nik ainbeste mirari zugatik egin ditut, ez ark.

Zer geiago zu salbatzeagatik egin nezakean? Ta zer pagu orien ondoren, ta oriekatik eman didazu zuk? *Quid est, quod debui ultra facere venia mea, & non feci?* Isai. 5.

4. Nere masti zure animaren orregatik zer geiago egin nezakean? Zer aserrea, bada Juez justu onena izango da, ta zer atelekak, egingo dizkitzu berriro esatean: *Filios enutivi, & exaltavi; ipsi autem spreberunt me* Isai. 1.2. Nere ume, seme, edo alaba maitea bezala ainbeste kosturekin azi zindudan, nere dotrina, ejemplo, milagro, ta Sakramentuakin, nere gorputz, ta odol erregalatuaz, nere biotzeko amorio guziaz: zu, lurreko ar ezerez bat ziñala, altxatu, ta zeruko gauzetara igo zindudan.

Orrenbeste ongite, grazia, ta amorioagatik, zer pagu eman didazu? Ta eskerren lekuan, ondo zeneritzan: ta etzan besterik, ni sorki zatar bat bezala utzi, ta oiñpean erabiltzea? Ta zergatik gero ori guztia, ta ainbeste bider? O zeruak, o lurra! Etzan zergatik, ezpada zeren ala nai zenduen, ala gogoak eman zitzun: zure, ta nere etsairik andienaz bat egin, ta aiek serbitu, aien ondoren, ta nere kontra ibilli nai zenduen. A zorigaiztoko deabruen serbitzari lotsagabea, ta lotsagarria!



Bada orain nik ere argituko dizut zure arpegian: zure bizitza argitara atera, ta zure kulpen nazkagarri betiko guziak emango dizut begietan. *Arguant te, & flatum contra faciem tuam.* Psal. 49. *Ponam contra te omnes abominaciones tuas.* Ezec. 7. Ai! Zer gauzak plazara ertengo diran ordu onetan, zeñean Jaunak berak dio, bere jakintasun argiaz, pekatuak eskutatu, ta gordeenak billatu, ta agertuko dituela. *Scrutabor Hierusalem in lucernis:* Sophon. 1. ta justiziak berak ere juzgatuko dituela: *Ego justitias judicabo.* Psal. 74.

Orrenbeste estatusunekin Anima justua, Jerusalem enezean aditzen dana, artuko badu, ta justiziak, edo obra onak berak orrela esaminatu bear baditu, zer egingo eztu zutan, pekatari Babilonia nastu bat zeranean, ta zure obretan, zeñak aini okerrak, ta Jainkoaren Lege, ta borondatearen kontra, ikusten dezun bezala, izan diran? Ai zer lotsa paregabea, Kristoren orduko aserrea ikustea! Argatik Santuak diote, infernua bere su, ta garrakin, ta ango tormentuak baño, infernu, ta tormentu andiagoa dala, nolere bait, juizio onetan Jesusen arpegi eder gozoa, bere ira justu guziarekin aini aserre ta gogor ikustea.

Baldin munduan egin al ditezkean pikardia, ta infamia guziak errian, ta errikoen kontra zuk egin, ta eriotzaren sententzia emateko Jueza zure ondoren, ta billa dabillela, beraren etxean, ta begietan gaiztakeria, lapurreria, ta eriotzarik ikaragarrienak egingo bazindu: ta azkenik bere Tribunalen, mundu guziaren aurrean zere burua kateaz bererik, akusaturik, ta urkamendiko sententzia artzeko ikusiko bazendu: zer lotsa, zer larria, zer naigabea, tranze artan artuko zenduke? Sinistu, ta pensezazu, bada, juizioko orduan Kristo zure kontra ikusi, ta infernuko pena, naigabe, ta tormentu andiago izango dezula, zeren bera, ta bere begien aurrean zuk ala ofenditu dezun.

Ta au da Dabid penitentearen biotz prestu, edo noblea sentimentuz jositzen, ta erdiz erdi partitzen zion espata gogorra. *Tibi soli peccabi, & malum coram te feci.* A, nere Jaungoiko maitea! Nik pekatu egin det zure kontra, ta zure begien aurrean. Pena au berau izango da, zure anima tormenturik andienaz josi, ta erdiratuko duena, orain erremediatzen ezpazera. Baña Jaunari esker milla, zure eskuan daukazu erremedioa: penitentzia, negar, damu, propositu egiazko, ta bizimodu berri santu bat bereala artzea.

IRUGARREN PUNTUA.

ZURE ANIMARI BETIKO SENTENTZIA EMATEA

Esan diran gauza, edo karguak igaro, ta pensa ezazu, nola zure anima triste bakarra bere sentenziaren begira egongo dan. Au, gure esae-ran, mundu onetako auzi batean oi dan bezala, izango da. Inportantzia

andiko auzi batean, azienda, ta ondasun askoren, onra, edo infamia, biziaren, edo eriotzaren gañean sententzia eman bear danean: zer kezka, zer antsia, zer bildurra dauka auzilariak? Zer ai biotzekoa? Ez jan al, ez lo egin al du.

Alaxe, bada, puntu artan zure anima egongo da. Ai, esango du, ai! Zer sententzia izango ote det, auzi onetan, zeñean dijoakit, ez gutxiago, ezpada zeruko ondasunak edo infernuko betiko pobrez! Ai! zer sententzia izango det auzi onetan, zeñean dijoakit, edo Jainkoaren semearen onra zeruan, edo Luzifer, ta Satanas-en esklabo billau betiko izan infernuan! Ai! ta zer sententzia emango ote zat auzi onetan, zeñean dijoakit, edo betiko bizia zeruko glorian, edo betiko eriotza infernu gorian! Igerriko du bereala, baño, egizu kontu, onela dagoela dudana. Naizu seguratu: naizu jakin? Bada zure eskuan dago, ez orduan, bai orain, bizitza berri santu batekin.

Gauza oiek laster igaroko dira an: ta zure salbazio, edo kondenazio-ko sententzia Juez guziz justuak bereala emango du. Baldin kondenazio-koa bada: Ai zer desditxa, ta kalte betikoa! Eztu balioko an, ez Jesusen odol zugatik isuriak, ez Ama Birjinaren, ez San Josef, ez Santuen erreguak. Kondenazioko sententzia bada, punta artan Jainkoak largako zaitu zure etsai deabru guzien presa: ta oiek iskanbilla, garraxi, ta iseka andiaz erasoko dizute: atzapar gori aiekin zure animari itsatziko diote, burlaz, arrabiaz, deadarrez, ta algaraz esaten diotela:

Ator ona infernuko alaja, ta esklabo: demonio guzien lagun aiz: ator ona, zorigaiztokoa. Zer? Etzan besterik ire gurari guztiaz aspertu, gure naia, ta esanak beti egin, ta begi bietaraño bizio, ta pekatuetan sartu, ta ondatzea? Orain ire saria artu, ta alde batera guzia pagatuko det. Jainkoaren doai guziak eranziko dizkate, ta Krisma santu, edo Kristauaren seña-lea, lotsa, ta tormentu geiagorako utziko diote, ta puntu artan infernuko leize zulo kabu gabe aietan betiko berakin ondatuko dute. Ai anima sekulako galdua!

Baña salbazioko sententzia badezu: zer Aingeruen pozaldia! Zer Ale-luiak kantatuko dituzte! Zer ongi etorri, zer laztanak emango dizkitzute! Jesu Kristok bere arpegi txit gozoaz begiratu, ta esango dizu: Atoz, atoz, nere serbitzari leiala, nere borondatea beti egin nai zenduen: atoz, anima justu nere Biotzeko Esposa maitea zeruko Koroa artzera: atoz nigana: sekulako laztan gozo bat indazu: sar zaitetz betiko nere gloria bizian, nere Biotzean.

O anima doatsua! O espiritu ditxosoa! Urratu, ta eten dira deabruen lazoak, aragiaren griñak, ta munduaren kate guziak. Bitor, bitor, gure



lagun zera, Aingeruak esango dizute: Zeruko erregiña izan bear dezu. Atoz zerura, goazen gloriara.

O zer eskerrak Jainkoari emango dizkatzun, zer bendizio, ta alabantzak Jesu zure Jabe maiteari, Ama Birjiña zure Ama gozoari, San Josef, Aingeru, ta Santuai! O zer poza lengo neke, tentazio, penitenziaz, pazientzia, humiltasun, karidade, ta beste birtute, ta obra onaz orduan oroitzean! Ta onetan, sartuko zera Jainkoaren glorian. O! Zer ikusiko dezu an? Nork guri esan? Ea bada: esperanza onekin bizimodu berri orduan naiko dezuna, artzera animatu: sekulako pekatuen bide, ta infernuko pausoak utzi, ta zeruko bidea artu.

Begira orain ondo bataren ditxa, ta zoriona; ta bestearen desditxa, ta zorigaiztoa. Begira ondo, ta erremedio gabe, suerte bata, edo bestea izango dezula. Begira, kontu, zein izango dan zurea. O perill, o kezka, o bildurra! Bat, edo bestea bear, ta ez jakin zein izango dan zurea. Begira ondo emen bizi zeran artean, nola goien zerua, ta bean daukazun infernua. Zure atzeneko pausoak auzi au, duda au ebaki, ta betiko erabakiko du. Eztakizu, pauso ori noiz, non, ta nola emango dezun. Eztakizu zein izango dan zure atzeneko pausoa. O salto izugarri, o pauso ikaragarria! O puntu! o instante! o momentu, guzien peligrasuen, zeñari nere eternidadea ditxekan! Ta ez jakin nizaz zer izango dan.

Naizu bada, nere anima maitea, naizu jakin? Orra bada: zure bizitzak esango du. Begira, zure obrakin noron zozoz? Zeruronz, ala infernuronz? Noronz begira zauden, aronz joango zera. Arbola bat ebakitzean, edo eskuietara, edo ezkerretara ta erori bear du: begira noronz zeartzen, edo makurtzen dan ta ara eroriko da. Ala zure anima. Ezkerretara zeartua badago, seguru zoaz betiko infernura: *in quocumque loco ceciderit, ibi erit*. Eccl. It. Bestetik dio Jainkoak: «bakoitza joango dala bere eternidadeko etxera»: *Ibit homo in domum aeternitatis sua*: Eccl. 12. Zure pensamentu, itz, eta obrakin etxe au egiten beti ari zera. Zer egiten dezu? Norako ari zera? Zerurako, ala infernurako? Zeren begira zaude?

KOLOKIO, EDO ATZENEKO ITZKETA

O Nere Jesus maitea, orduan Juez guziz aserrea, ta orain amoriozko Aita paketsua; nere aukeran, nere eskuan, nere borondatean utzi didatzu zuk nere salbazio, edo kondenazioa: *Apposuit tibi aquam, & ignem: ad quod volueris, porrige manum tuam*. Eccl. 15. 17. O ontasun, ta beraatasun parega-

bea! Zuk, Jauna, nai dezu guziok salbatzea; baña bakoitzari bere borondate librea nai diotzu gorde: salbazeko, salbatu nai badu, ta bere borondatez kondenatzeko; Kondenatu nai badu. Zer geiago zure jakintasun, ta amorio neurri, ta kabu gabeak gure onerako egin al dezakean, gu salbatzeko.

Zure partetik seguru gaude: zuk beti nai dezu, beti zaude prest: beti zure eskua, zure argia, zure grazia ematen dezu, gu salbatzeko, guk nai badegu. Orrela gure aldetik dago peligro, ta bildur guzia, ta gauza oiek onela, ta fedeko egiak izanik, izango da, zu, edo besterik, bere eskuan salbazioa, ta zeruko gloria daukala, kondenatu nai duenik? Bada orrela Jainkoaren borondatea jakin, ta guk salbatzeko zenbat egin duen, ta Kristaurik bada pekatu egin, ta bere anima, ta Jainkoa galdu nai duenik, ondo irabazi, ta ondo merezia du orrelakoak infernu bat, ta infernu asko. Kondentatzeko gogo guzizko andia bear du, ori ikusi ta kondenatu nai duenak.

Ez, ez, nere Salbadorea, ez nik sekulan orrelako lanik. Naiago det bizia, lurreko ezerekeria guziak galdu: ta milla bizitza, ta geiago banitu, guziak eman lenago, zu pekatuaz ofenditu ta galdu baño. Ez, ez, Jauna pekatuak geiago: sobra, ta geiegi dira oraindik: orien damua daukat, ta idukiko det beti. Penitentzia egiazkoa egin nai det, ez gogo erdi, edo nai erdi otzakin oraindik bezala; ezpada biotz, oso guztitik.

O nere Jesus maitea! Juiziozko puntuan aserre egongo zera, ta arazoiez, pekatuaren kontra: orain amorioz ta piedadez beterik: orain, bada San Josef gozoak, orain zure Ama maiteak nigatik erregutzen dizute: Bitarteko oiekatik, arren indazu zure grazia bizitza berri bat egiteko. Orretako nere culpa, ta zure kontra egin ditudan ofensa andi itsusi guziakin nere arpegian, diran bezala, indazu, lotsatu, ta humilla nadin, ta guzien penitentzia egiazkoa egin, ta juizioan ondo irten nadin, zu beti alabatzeko. Amen.



INFERNUKO PENA, TA TORMENTUEN GAÑEKO EJERZIZIOA

Ducunt in bonis dies suos, & in punto ad inferna descendunt.

Beren egunak ondasunetan igaro, eta puntu batean infernura jatzitzen dira. Job. 21.

Ibunt hi in supplicium aeternum.

Gaiztoak gaitzondo, edo betiko infernura joango dira. Matth. 25.

Fedeko egia andi onetatik, ta infernuko penen pensamentu ikaragarritik atera bear dezun frutua, da zure pekatu, edo Jaungoikoaren kontra egin dituzun ofensa guzien gorrotorik al dezun andiena Jainkoaren aserre justuaren bildurra, ta aurrerako propositu sendo bat: eta egiaz eriotzaren, ta infernuaren baño ere, pekatuaren kontrako biotzeko bildur andiago bat.

KONPOSIZIO, EDO LEKU EGITEA

Lurraren zentro, edo erdian bean pensa ezazu leku andi bat, al deza-kean illunen, tristen, izugarriena, suz, ta garrez, keez, ta usairik loien, ta nazkagarrienaz betea, ta an betiko egon bear duten kondenatu zorigaiz- tokoak ikusten dituzula, alde guztik Jaunaren aserre, ta justiziaren su biziak erretzen dituztela: Labe, edo karobi aietan begira sartu, ta betiko josirik.

ESKARI, EDO PETIZIOA

Fede bizi bat Jainkoari eska zaiozu, ta biotzeko argi, ta sentimentu andi bat, desdixadu aiek infernuan daramazkiten tormentu ikaragarriak ezagutzeko: ta baldin Jainkoaren ume ona bezala, aren amorioa zure Aita maitea serbitu, ta amatzera mugitzen, ta enpeñatzen ezpazaitu; edolarik tormentu gogor oriek atzera erazo, ta ez Jainkoa geiago ofenditzeko bil- dur santuan sartu, ta betiko lotu zaitzaten. Bada, ezpadezu egiten pekatu- rik, eztezu izango infernurik: ken ezazu zuk pekatua, ta nik kenduko det infernua.

IRU GAUZA INFERNUAN DIRANAK

1. Infernuko lekua, ta betiko lagunak.
2. Infernuko goroutzaren betiko tormentuak.

3. Infernuko animaren betiko tormentuak.

LENENGO PUNTUA

Sar zaite puska bat zuregan, ta pensezazu infernuan. A! Zer pensa- mentu probetxosoa! Ta infernua zer da? Zoro andi asko dira, infernuaren izenik ere aditu, edo enzun nai ez dutenak. Esan bear etzaie, ez predika- tu, ez irakurri, ta ez aitatu ere infernurik, zeren izentatzeak berak bildur- tzen, ta geegi, diote, ikaratzen dituen.

Ta ori diotenak, nor dira? Nor? Bizimodu galdu, ta bizioetan begie- taraño sarturik, ta orregatik bizirik beren aldetik infernuan daudenak. Ai zorigaiztoko itsu, deabruak engañatu, ta zoraturik zautenak! Zer zaio dea- bruari, zeña zu bezein boboa eztan, zuk infernuan pensatzea, edo ez; bal- din pensatu, edo pensatu gabe, postaka aren ondoren infernura bazoaz? Zer zaio baldin ustez ustegabe, zure obrak ara bazaramazkite?

Ez, nere Kristaba: zu, ta ni, oriek bezala, orren itsu izan ez gaitean. Bizirik orain konsiderazioaz jatxi gaitezen infernura, gero illik, edo iltzean jatxi ez zaitezen ara. Ar dezagun biok San Pernardoren konseju au: ta jarrai diozagun San Franzisko Borja andiaren ejenploari. Santuak, Eleizak dion bezala ordu asko egunoro, sei, zortzi, ta geiago orazioan igarotzen zituen; baña orietatik, dio beraren bizitzak, egunoro faltarik gabe, ordu- bete infernuko penen konsiderazio, ta gogartuari beti ematen ziola. A! Argatik ala bizi izan zan, ta Santu ain aundi egin zan. Ai! Ta pensamentu orren bearrago nor da? Zu ala Santua?

Jatxi zaite bada, orain ura bezala infernura, gero bera bezala igotze- ko Zerura. Zer da bada infernua? 1a. Lurpean leku bat da guziz illun, ta ikarragarria, zeñean alde guzietatik besterik eztago, ezpada sua, garra, ta kea: su ori Jaun guztiz aserratu justuaren aizerik portitzenak era batera beti irazakitzen du, ta su orren berezkiroko gai guziak biribillatzen ditu. Zufre, pike, erresina, ta brea, sukor mota guziak alkarrekin an dira. Baña su bat bere batean beti berdin izekia, beti gartua, beti illuna, edo beñere ez argitua, beti tormentatzen dagoena; ta beñere illtzen ezteuena: beti desegiten, ta beñere akabatzen ezteuena.

Su bat, gu emen berotzen, ta gozatzen gaituena bezalakoa izanaga- tik, ta gure onerako; an guztiz da aserrea, ta Jaunaren justizia, ta podore guztiak goratzen du suaren gorputz ori, ta anima, edo espiritu an diran guziak, betiko aiei eransi, itxeki, ta bat egiñaz erretzen ditu. Su bat añ zin- tso, ta jakinsua, non, baleki bezala, Jaunari obeditzen dion, ta kondenatu bakoitza bear dan neurrian, ta bere kulpai dagokien bezala erretzen



dituen. Au da infernuko sua, zeñaren aldean mundu guziko sugarrak, pin-tuak bezala, edo ezerez bat dira.

2a. Infernua karzela guziz illun izugarri bat da, loiez, atsez, ta kira-tsez bete: an kondenatuak sartzen dira, an pekarari galdu, jende infame, kanalla, billau, ta emengo pikaro guztiak batzen dira: baska artan demonio guziakin naste daude, ta betiko egon bear dute. Baña alkarrekin guziak egotea, baten ere konsueloa ezta; zeren alkar ezin ikusirik, beti arrabia bizian, desesperaturik, ta alkarren kontra, etsairik andienak bezala, amorraturik dauden. Ala bataren infernua bestearen tormentua da. Aitak semea ikustean, ta semeak Aita tormentu berria dauka, ta orrela beste guziakin.

3a. Infernua ziega zikintasan guziaz bete bat da. Beñ an sartu ezkerro, sekula guzietan irteterik, iges egiterik eztago. An gauza onik, ez onaren kutsu, edo arrastorik eztago. An, gaitz guzien lekuan bezala, gaitzik batere falta ezta. An sartu orduko kondenatu tristea artzen dute batean, ta betiko, gaitz mota guziak: miñak, samiñak, penak, arrabiak, ansiak, nai-gabeak, goseak, egarriak, otzak, beroak, pobrezak, infamiak, guziaren bearrak, kargak, nekeak, izerdiak, eridak, tristezak, ta beste gaitz guziak betiko eriotza bizi artan.

4a. Pensezazu ondo, kondenatu bakoitzak zer Lagunak dituen infernuan. An daude oraiñ gorpuz, ta anima infernuan bizirik ondatu ziran asko: ta azken juizio ezkerro, guztiak ala egongo dira an. Beste lagunik ez tute bada izango, ta ez sekula guzietan, ikusiko an, ezpada demonio, deabru, ta kondenatuak alde guzietatik. Batek gora begiratzen badu, agertuko zaizka demoniak: bera begiratzen badu, demonio, ta kondenatuak: demonioak alde batetik, deabruak, ta kondenatuak bestetik.

Lagun madarikatu oriez asko ezpalira bezala, begira ondo beste, berari dagozkan Lagun alde guzitik artu, ta betiko tormentatuko dutenak: Zukarrak, otsoak, arzak, leoiak, basakatuak, muskerrak, sugeak, zapoak, armiarmak, basilisko, kaiman, edo muskertzarrak, eta beste pistia mota guziak.

Oiek, eta onelako esan al baño geiago, izugarriago diran bidutzi, edo mostroo itsusi suz ta garrezko aserre amorratuak izango dira kondenatuen betiko Lagunak: ta nai, ta nai ez, aien artean beti egon bear: eziñ iges egin: ezin begiak itxi: nai ta nai ez betiko ikusi bear. O zer Lagunak! O zer tormentua! O, zer infernua!

Pisa ezazu ondo, Kristaba, fedearen pisuan, edo Jainkoaren balanza berdiñean ipintzu, zer suerte pekatariak beretzat autatzen, edo artzen duen. Aingeru, ta Santuen Lagun zeruan izan bear zuena: Jesus maitearen

ispillu eder, garbi, ta gozoaren arpegian bere burua ikus bear zuena, Ama Birjina Santa, ta ederrena, Zerutar guziakin ikusi, ta betiko glorian Lagun bear zituena: bere naiez, ta borondarez, beste gabe, Luzifer, ta demonio guzien menpeko serbitzari billau egiten da, burniz, suz, ta garrez estekatu, edo lotu, ta infernuko ziega onetan betiko egoteko. Ta au da kondenatuen leku, edo tokia: au da infernua.

Ta zorigaitzokoen lurpeko toki ori noiz egin zan? Munduaren asieran, zerua, ta lurra bere itzaz Jaungoikoak egin zituenean. Ta lurpe toki kastigu, pena, ta gaitz guztiakiko ori Jaunak zertako egin zuen? Mundua ondo gobernatzeko, ta mundukoak zuzen erabiltzeko: ta onez zeruagatik nai ezipazuten, edolarik infernuaren bildurrez okerrik iñork egin etzezan; edo egiten bazuten, gaitzki bizi, ta gaizki iltzen ziranak, infernuan betiko paga zezaten.

Egia fedeko au, ta onaren, ta gaitzaren berri sustraietik jakiteko, ta dan bezala barrentzeko, aditu, ta jakin bear dezu, nola Jaungoikoak bere jakintasan guziaz Gizona ezerezetik bere antzera egin zuen. Eccli. 15. 14. Mundu onetan bidezko zuzena paratu zuen: beregañ, edo bere buruaren jabe utzi zuen: bere Legea, ta aginteak eman ziozkan.

Jaunak esan zion, ta orain zuri esaten dizu: Orra, libre egin zaitut: ona, ta gaitza zure borondatean dago guzia. Ondo egin nai badezu, ta nere Lege, ta Mandamentuak gorde, doatsua betiko egingo zaituzte. Orra ura, ta orra sua: artu naizuna, zure eskuan dago. Orra zerua, orra infernua: naizuna artu. Orra bizia, orra eriotza, ona, ta gaitza: zure borondatez nai dezuna, emango zatzu.

Jaungoikoaren borondate santua au da. Ta erraz emendik ezagutuko dezu, kondenatzen dana, bere naiez, edo borondatez galtzen dala. Jainkoa guziz justua da, gure jabe bakar, ta Aita maitea da: zuri, ta beste guziori libertade au emango digu, ta eskua, nai badezu, salbatzeko. Zure aukera, ta libertade ori, borondate libre orren pribilejio, erregalia, ta fueroak osoro gorde nai dizkitzu. Orra zerua, salbatu nai badezu: orra infernua, kondenatu nai badezu. Jaunak berak, zu, ta guziok salbatzea nai du. Beraz galtzen bazera, zure kulpaz, zure naiez, zure borondate libreaz kondenatuko zera. O Kristau pekatari itsua! Zer aitzakia jaunaren Tribunalean artuko dezu?

Pensezazu, nola Jainkoaren borondatea birtute, ta ontasun guzien asiera, neurri, ta erregla ziertu zuzena dan, ala zure, ta beste guzien borondate libre au gaitz, bizio, ta pekatuen iturri bat beti gaitza dariona, ta kulpa guzien sustraia dala. Argatik Jainkoak berez, ta lendabizitik Gizona zuzena egin bazuen ere, bereala, edo laster okertzen, ta makurtzen asi zan, ta



bere burua kabu gabeko gaitzetan nastu zuen; ta ez bestegatik, ezpada zeren berak ala nai zuen, bere borondateaz gaizki baliatu, ta ongi usa zezakeala, bere naiez gaizki usatu. Eccl. 7.

Jainkoak ala Kain doakabe, bere anaia Abel justuaren Eralle infamari esan zion. Bere anaia ezin ikusirik gorroroz, iltzuenean, ta pekatu beltz itsusi orrez kontu artu zionean: Kain, zer egin dezu, esan zion? Eztakizu, obra ona, edo ongi egiten badezu, orren saria artuko dezula? Baña gaitza, edo gaizki egiten badezu, zure pekatua bertan ateetan dezula? Ala ere gaitz eragille, edo zure apetitua zure borondatepean egongo da, ta gaitzerako griñari zuk aginduko diozu.

Au berau zuri, ta guztia Jainkoak esaten die. Kain aurrenekoa infernura joan zan, ta ainbeste milla urte da an dagoela: ta ori zeren berak nai zuen: ta orregatik beragatik daude an aren ondoren joan diran, ta egunoro ara dijoazenak, zeren berak beren griña, edo inklinazio gaitzoz, gaizki egin, ta infernura nai duten. O pekatuaren itsutasuna!

Ai nere Jaungoiko maite, gauza ori guzien egille, ta emalle bakarra! Zer zorakeria, zer itsuseria infameagorik zurekiko pekatari batena baño? Zure ontasunez bakoitzari zuk eman borondate librea, zu billatzeko, zuri jarraitzeko, zu amatzeko, ta gozatzeko: ta Zu bere On guzia utzi, ta mundu, aragi, ta deabruaren ondoren ibilli, ta ori bere naiez! Egia utzi, ta gezurra sinistu: argia utzi, ta illuna billatu: zerua utzi, ta infernuan sartu! Ai jauna! Ta zeñ gaizki pekatariak darabilen zure antzeko anima, Zuk eman ziñion joiarik preziatuen, doairik señalatuen, prendarik baliosoenaz, zeña dan borondate libre, zuk emana, gaizki usatuaz!

Ta Orra, Kristaba, argiro fedeko egia andi au, askok ondo aditzen ezpadu ere; edo aditu, ta bear dan bezala, ondo sinistu nai ezpadu ere. Zuk zure onerako, beñ, edo beñ ondo sinistezazu: ta orretako ondo ikasi, ta fede biziiaz ondo begiratu, barrendu, edo penetratu ondo, ezagutu, ta Jainkoaren aurrean aitortu, zu, ta ni gerenez pekatua, ta gaitza baizik ez gerala: gure botondatea, bizio utsa, beti berez gaitzeronz dijoala, gaitz eragille, ta griñaldea baizik ezkerala.

Gure ezerez, edo gaitz guzien ondora jatxi gaitean (ta erremedio bakarra ori da): ta be orretatik Dabid penitente arekin esan diozagun: *Ego vero egenus, & pauper sum: Deus adjuva me*. A, Jauna: ni alde guzietatik zure bear, atondoko, eskeko pobre bat naiz: lagun ezadazu, nere Jainkoa.

Fedeko egia da, Jaun onen grazia, ta eskua beti prest dagoela gu salbatzeko: ta guk ez mereziagatik, Jesus onak merezi, ta irabazi, digula: gure etsaiak baño adiskideak geiago dirala: gure pekatu, bizio, ta deabruen tentazio, ta alegiñak baño andiago, ta indarsuago dala Jaunaren grazia, zuk

orrez baliatu nai badezu: ta salbatzen eztana, bere naiez dijoala infernuko kartzela orretara. Ta orra munduaren asieratik Jainkoak zertako ori egin zuen.

Baña, nola emengo karzeletan zenbat, eta nolakoak diran gizonen gaitzakeriak, anbat andiago, ta alakoak diran oriei dagozkien penak: ori bera Jainkoaren justiziak egiten du infernuko kartzela artan. Batzuek daude eun milla pekatugatik, besteak millagatik, besteak berrogei, edo amarregatik, ta asko kulpa bakar bategatik: ta zenbat andiago, edo itsusiago diran, anbat tormentuak andiago dira an. Iñor ote da, kartzela onetan betiko sartu nai duenik, ta gorputzeko, ta animako ango tormentuak bere gañean artu nai dituenik? Bada, nola pekatuan bizi zera?

BIGARREN PUNTUA

Gorputz kondenatuaren betiko tormentuak. Emen gogora ekarri bear dituzu, gorputzak dituen bost sentiduak, ta bakoitzari dagozkion penak.

Lenengoa, begiaz ikustea: kondenatuaren bista tormentatuko dute demonioak, ta beste kondenatu guziak. An diranak, eta bakoitza etsairik eriotzkoenak dira: ta kondenatu bakoitzak, nai, ta nai ez guziak ikusi bear ditu, ta gorroto ezin esan al batekin. Zer itxurak artuko dituzte demonioak, ta aiiñ izugarri, aserre, illun, ta tristeak, abere, ta gauza ikaragarri guzien antzera. A! Ta ori guztia begien libertade, ta pekatuen kastiguan! Orañ begiak gaitzki darabiltzanak, auts puska baten edertasuna ikusteko, eztu sekulan ikusiko an demonio, ta kondenatu itsusiak besterik.

Bigarrena da enzutea. Zer tormentuak izango ditu onetan? Beti enzuten egon bear du deabru, ta kondenatu guzien donaberak, adiak, negarrak, deadar, garraxi, zanka, orroa, inziria, nazkak, buroak, ta mada-rikazio amorratuak. A zer musika, ta soñuak! Ta ori guzia, ta geiago emen enzuten zituen Jaunaren ofensako itz loi, kontu, ta kanta itsusi, ta beste itzketa, edo jolas gaitzo, ta zorakeriakgatik.

Irugarrena usai egitea. Munduan indarrik ezta, ango kondenatuen gorputzak bota, ta banatuko duten usai nazkagarri, kirats zikin loaia eramateko: ta orien, ta beste infernuko pistia likits, ilgarrien usai ustel guzien artean kondenatuak egon bear du beti, zeren emen, lurreko usai gozoakin Jainkoa ofenditu zuen. Ai munduko erregalatuak, ta zer tormentuak itxederen dizuten infernuan betiko.

Laugarrena da gustua. Zer gose, zer egarri arrabiatuak izango ditu kondenatuak? Nola deabruak arrerazo, ta traga erazoko diozkate infernuko suz, ta garrezko janari, ta edari, ozpin, beazun, asensio, belar, ta beste



gauza samin, garratz guzien zukuak: sugeen, zapoen, arratoi, armiarmen, ta beste pistien odol ustel, birika kiratstu izurriak, ta puzoniaz beteak? A munduko jale, ta edale itsu eragabe, sabela beste Jainkorik ez dezutenak! Ai, ta zer janari, zer trago samiañak, berun, ta metal urtu gorizkoak artu bearrak zeraten deabruen atzaparretatik! Orrela ase, ta beteko zerate gañez egin arteraño, eztanda, ta ler gaito zuen birikak, eta eztarri zabalak egin arteraño.

Bostgarrena da eskuaz ukitzea. Baña nola sentidu au gorputz guztian banatua dagoen, ala guztian izango ditu kondenuatuak bere pena, ta tormentuak. Ta emen sartzen da Jaunaren justizia aserrea, ta bakoitzaren gorputzari dagozkion penen neurria. Zenbat, eta andiago, ta guziago izan diran len gorputzaren pekatuzko gusto, ta atsegiñak: ta nondik, eta nola bakoitzak Jainkoa geiago ofenditu zuen, anbat andiago izango dira deabruak alde artatik emango diozkan gorputzaren pena, ta tormentuak. Eskritura santak ala dio: *Quia per qua peccat quis, per haec & torquerur.* Sap. 11.

Ta zenbat eta bat Jainkoaren kontra geiago ausartu, ta gloriatu zan bere gorputzean abereen gisa, fede, lege, ta lotsa gabe; anbat tormentu, ta lantu geiago Jaunaren aserreak agintzen du pekatu zale nabarben, dollor infame orrenzat: *Quantum glorificavit se, & in delivijs fuit: tantum date illi tormentum, & luctum.* Apoc. 18. Ai munduko jale, edale ta beste atsegin loien zaleak, nola an aspertuko zeraten, ta betiko damu erremedio gabearekin!

Sar zaite, arren, Kristaba, pauso onetan, txit zure barrenen, ta zere buruari galde zaiozu. Baldin emengo gaitzetan, ta edozein gauza zure nai, edo gustoaren kontrakoetan aiñ sentikor bazera: ta baldin ustegabeko edozein neke, pena, edo lurreko atsakabe, edo bestek ematen dizun naigabe txiki ezerez bat asko bada, zeregandik atera, ta loa gal erazotzeko: eta dan balienteena, ta berez arrotuena euli txar, edo pistia zital batek batzuetan ala erretzen, ta inkietatzen badu, ura kendu artean gozo onik eztuela: zer izango da, gaitzondo, pena, ta tormentu guztien betiko leku artan?

Emen agiñetako oñaze bizi bat da asko, loa, ta pakea kendu, ta burua gal erazotzeko. atera bada kontua, zer izango litzake ogei, edo berrogei urtean, gau, ta egun, agiñetako miñik andiena eraman bearra? Esateak berak, beste gabe ikaratzen du Kristaba. Zer izango da, bada, gorputz guztiko miñak, ta oñaze amorratuak alkarrekin batean, ta betiko kondenuatu bakoitza alde guzietatik artzea? An izango dira buruko miñ arrigarrak, begietako, ta belarrietako, eztarriko, aoko, esku, oñ, saiets, biotz, sabelako miñ amorratu, ta beste gaitz mota guziak.

Munduko gizasemerik galduen, ta desdixaduen bere pekatuakgatik ondo merezi duela ere urkatzen, edo erretzen ikusteak berak askoren biotzak erdiratzen ditu aren errukiz. Zer pena, ta naigabea izango litzake, batek nai, ta nai ez, ikusi bearra bere adiskiderik laztanen, seme, edo alaba maiten, bere senar, edo emazterik onena bere begien aurrean eregosten, laurgiten tenaza, edo kurrika goriaz puskatzen?

Zer miña, eriotza guziak baño gogor, ta portitzago izango litzake, lurpeko zulo batean, suge, zapo, ta pistia puzoniazkoen artean, bizirik Santa Tekla bezala bat sartzea? Falarisen metalezko zezen goriaren barrenen, edo Majenzio-ren trofetan, zeñetan gizon bizi bat gorputz ill batekin lotutzen zuten, usai ustel, ta pena ikaragarri orretan ill zedin?

Ai nere anima! Alere au guzia utsa da. Pena oriek, ta beste emen asma al ditezkean guziak ezer eztira infernukoan aldean. An kondenuatu bakoitzak bere burua, ta besteak ikusiko ditu orrelako pena mota guztietan betiro. An deabruak burutik, eta begietatik sartuko diozkate burni gorizko lanzak, ta ersuge izugarrien antzera, ta zugar amorratuena gisa ozka egingo diote belarrietatik, aotik, eta gorputz guztitik, zeren burua zoratu, ta pensamentuz, begiaz, aoz, ta orrela Jainkoa ofenditu zuen.

An galda betikoakin irakingo diote buruko miñak pensamentu gaitoaz Jesu Kristori arantzazko koroa ipiñi ziolako. An erre, ta egosiko diozkate beti birikak, erraiak, biotza, ta gorputz guzia, zeren aragiaren gustoaz Jesu Kristori bost milla azote kulpa bakoitzean, aiñ aisa fedez ori zekiela, bere naiez eman ziozkan. Ai pekatari itsu galdua, ta zure bizimodu orrekin nora zoaz? Infernuko tormentuetara. Zer erremedio bada? Damua, propositua, konfesio, ta penitentzia: biziera berria, bizitza santua.

Anima kondenuatuaren betiko tormentuak A. S. Ignaziok banaka ipintzen ditu bost gorputzaren sentiduen penak, orietatik animarenak ateratzeko: ta zenbat dijoan gorputzetik animara, onen prestutasunez, anbat dijoa aren penetatik onen tormentuetara. Animarenak beti meago, andiago, ta miñago dira. Gorputzaren gisa animak ere beste bost almen, edo potentzia barrangoak ditu, ta bakoitzean bere tormentuak: ta nola ziran emengo pekatuak, ala izango dira ango betiko kastiguak.

An imajinazio, edo irudigille eroa tormentatuko dute beti aurrean irudituko zaizkan ikusgarririk tristeenak, ta sekula guztietan ikusiko eztu gusto, ta atsegiñezko gauzarik, ta ori, zeren emengo zorakerietan eroturik nolana, Jainkoaren ofensan egon oi zan. An gogogille, edo apetitua desegingo da etsirik betiko, gustoan lekuan, penak, naigabeak, antsiak, ta infernuko eriotza baizik izango eztuela: ta ori zeren Jaunaren bildur gabe,



Lege santua urratzeko, freno gabe askaturik pekatuetan bere erara ibilli zan.

Memoriai izango du an bere pena guziz andia, beti gogoratuaz, beñere aztu gabe, Jainkoaren fabore, grazia, ta mesede guziak, zeren oriez azturik lege bage bizi izan zan: pekatu bizi guztikoak begietan beti idukiko ditu, zeren orien penitentzia egin etzuen. Adimentua berriz, zeren Jainkoa ezagutzeko ondo usatu etzuen, an beti itsua egongo da, beti argi gabe, bere kulpaz uts egiten beñere atsedetik eztuela.

Azkenik borondatea amorraturik, arrabiaz, gorroroz, penaz beterik, era guztietara: ta zeren lurrean Jainkoaren borondate mutua egin bearean, gaitzerako berea egin zuen, bera izango da bere borroero bere buruaren kontra, Jainkoaren, Ama Birjiñaren, ta Santuen kontrako aserre, ta gorroto amorratu bizi batean. Nola gure Lege santuak amar Aginte dituen: ala animak, gorputzean dagoen artean, Legearen kontra bere naiez pekatu egiteko, modu asko ditu, era gero guzietan kulpar pagatzen ditu infernuan.

Baña ai! Orañdaño esan diran pena oriek ezer eztira esankizunaren aldean. Pena guzien pena, tormentu guzien tormentua, infernu guzien infernua, ta guzien andiena Jainkoaren gloria, ta arpegi ederra ez ikustea. Oni dañuko pena, edo animaren betiko kaltea deritza. Bada nik ez dakuts (esango dezu) Jainkoaren arpegirik, ta ez det orrelako penarik. A nere Kristaba! Egia da. Baña zergatik? Zeren gorputzeko kartzela orretan zau-den artean, itsua, ta sator bat bezala begi gabe zeran.

Kartzela orretatik zure anima, edo espiritua libratzean, eriotzako puntuan, bereala txuxen txuxen igo bear luke bere toki, edo zentrorra, gloria bizi artara, zeña dan Jaungoikoa bera beti ikusi, ta gozatzea. Kontu atera bada, ta ondo pisa ezazu, al badezu, zer pena, zer kalte, zer tormentua izango dan zure Jaungoiko guziz eder gozoagandik betiko kendu, ta destegitu, edo dislokatzea zure anima, Jabe maite orrek beretzat, eta bere gai egin zuena? Anima ori ezerk ere munduan gauzak ezin osoro beteko du, ta ez ontasun guziakin beñere sekulan bere erara aseko da, ezpada bere Jainkoarekin: onen falta ezin beteko da.

Argarik pena au guzien andiena da: onek neurririk, ta kaburik eztu, zeren Jaungoiko betiko an galtzen danak eztuen. Itzik ezta, pena au, dan bezala, zuri esateko: bururik ezta, au, dan bezala, iñork emen barrentzeko, edo konpreenditzeko. Ara nolabait: zure besoko ezur bat autsi, edo dislokatzen bazatzu, zer oñaze, zer arrabiak dira zureak orduan? Munduko ondasun, edertasun, ta atsegin guziak zuri emanagatik, pake, ta gozo onik etzenduke izango. Ta zergatik? Zeren ezur bakar bat bere lekutik

destegitu, edo aterarik daukazun. Ondo. Bada zure anima Jainkoaren Espiritu eder, gozo, santua, ta atsegin guzien tokia ikusteko, ta gozatzeko egiña, bere zentro, ta leku orretatik dislokatzea betiko, zer tormentu, zer infernua izango da?

Zeruko gloria, ta atsegiñak alde onetatik nola diran, ala dira infernuko pena, ta atsakabeak neurri orretan bertan. Ta nola neurri, ta kaburik Santuen kontentuak ez duten, ala kondenatuen tormentuak ere ez dute. Nola Jainkoa Ontasuna bera dan, ta Espiritu, edo Izate bat, ori guzien onena, ta ori bakuna, guziz garbia, nas gabe, ta kabu gabe edo infinitoia, ala on ori galtzea da guzia batean galtzea, ta gaitz, ta kalte neurri gabea, kabu, edo fin gabea, ta argatik infinitoia, ta betikoa.

Kalte onetan sartzen dira beste kalte guziak, ta sekulan ez ikusi bearra, Jesus, ta Ama Birjiña guziz doatsua, ta oien arpegi eder gloriiaz beteak, ta ez Santuen Lagun, ezpada deabruena beti izan bearra. Nork bada, esan al, edo pensa al dezake pena au, dan bezala: ta nola pekatuagatik aña aita batek bere anima kondenatzen duen sekulako ez ikustera bere Errege Santu guzien gloriemallea, ta gloria bera, ta bere Aita, ta Jabe guziz maitagarrria, ta ez ikustera aren, ta gure, berak Gurutze santutik eman zigun Ama, guziz ona, ta onetan sartzen diran bendizio, doai, ta fabore gloriiaz beteak?

Baldin Koroa baten, Erreino baten, ta mundu guzian diran ondasunen Jabe bat izateko, orien diña dala, ta guzien deretxoa duela, oriek guziok kendu, deserritu, ta eriotzarik tristen, ta lotsagarriena, emango baliote, zer kastigu, zer pena izango litzake? Ta zeren eriotzak edozeñi lurreko gauzak kentzen diozkan, gauza aña gogor izugarria bada; zer izango da infernuko eriotza bizi ura, zeñak Zeruko arreinoia, ta ango gloriako Koroa ondasun guziakin kondenatuari betiko kendu, deserritu, ta eriotzaz ematen dion?

Arako azken juizioko egunean, nolerebait; kondenatuak dakustenean Jesu Kristoren, Ama Birjiñaren, ta Santuen gloria, Koroak, doaiak, edertasun, ta atsegiñak, ortik aterako dute zer dan galdu zuten gloria, ta orrek emango die miñik garratzena, ta damurik amorratuena: aña erraz salba zitezkeala, ta beste doatsuak bezala, penitentziaz, ta biziera santuaz zerua irabazi, ta goza zitezkeala, ori guzia aña aisa ezerezagatik beriko galduaz.

Pensezazu ondo, esan diran penaz gañera kondenatuak dutela beste pena, ta tormentu bat, Jesu Kristo Ebanjelioan ponderatzen dizuna: *Vermis eorum non moritur: & ignis non extinguitur*; Marci 9. aien arra iltzen ezta-la, ta aien sua itzaltzen ezta-la. Ar onek, beñere utzi gabe, desegingo ditu



beti, ta gure esaeran, puskatu tormenturik portitzenaz. A! aiñ erraz salba nindekean, ta añ aisa kondenatu naiz! Ai pekatutik, beste asko bezala, libra nindekean: ta nere naiez pekatuko bide, ta etxean sartu ninzan: an sartzea, infernuan sartzea zala jakifiñik! Ai besteak bezala, guzia konfesio on batekin erremedia nezakean, ta ori egin nezakeala, egin ez nuen!

Ai onelako urte! Ta ai onelako denbora, ta egunak, edo lekua, zeñean arako Ejerzizioetan nere biotzean Jainkoak ainbeste abitu, ta mandatu gozo eman zizkidan, beragana egiaz biurtzeko, ta nik ez jaramon, kasorik egin ez nion! Ai orduan zenbat pekatutik irten, ta zeruko bidean sartu ziran! Ai, ta zenbat gaiztakeriak nerekin egin zituztenak! Ai, ta zenbat, nik baño ere pekatu geiago, andiago, ta itsusiago zituztenak! Ai, ta nik ori bera ezagutu, ta nekiela, eta aiek baño obeto, orregatik ere egin ez nuen, ta betiko galdu naiz! Au, ta onela izango da ar bat beñere iltzen eztana, ta kondenatuaren barrena beti ortxikatzen, ta txikitzen duen tormentua.

Azkenik begira, ta pisa ezazu ondo, nola pena, ta tormentu oiek, ta esan al guziak baño andiagoak, diran, ta izango diran beti, ta betiko, kabu, edo, fingabe, alibio, ta erremedio gabe, Jainkoa, Jainkoa dan arte, ta ala beti eternidade guziko. Demagun, kondenatu bati Jainkoak esaten diola: Azken juizioa irago, ta utziko zuela emen Txoritxo bat, ta onek milla urterik milla urtera ur tanto bat itxasotik aterako zuela: ta itxaso guzia txoriak orrela aortzean, kondenatua pena aietatik libratuko zala. Bertan, edo puntu artan aren tormenturik andiena uste orrekin akabatuko litzake.

Baña ai! Eztu, ta izango ezin du orrelako uste, edo esperanzarik. Ta ala igaroko dira milla urte, ta beste milla, ta milla bider milla; ta orregatik egun bat igaro ezpaliz bezala, ta lendabiziko puntuan bezala aren betiko tormentuak izango dira. O penak! O tormentuak! O infernua! O gaitz betikoa! O! Ta nola da Kristaurik, pekatuaz Jainkoa añ erraz galdu, ta betiko kondenatu nai duenik?

KOLOKIO, EDO ITZKETA

Anima nerea! Zer da au, edo non zabilta? O zure fedearen otza, edo guziz illa! Laster zugana biur zaitez. O zeñ gauza latza, ta garratza dan, Jaungoiko aserratu baten eskuetan erortzea! Baña nere Jabe ori, ta Salbadore maitea! Zure aserre bizi guzia, badakit, Jauna, pekatariaren kontra pekatuagatik dala. Ori bada, nere Jesus ona, ori bera nigandik betiko kendu nai det; ta sustraietik betiko atera, zeren pekatuak bakarrik zu ofen-

ditzen zaituen. Orren kontra nik ere aserratu nai det, ta nere biotzean, al dedan gorrotorik andiena sekulako artu.

Ez, ez, nere anima, zure Jaungoikoa añ erraz, ta ezerezegatik, oraiñ-daño bezala, geiago aserratu, ta galdu. Zure Jaun, ta Jabe bakar gozoa ofenditu, ta galdu, ta non dago zuretzat erremedio, ta gozo onik? Inon ere ez. Ta zer? Pekatu batekin Jainkoa gal dezakezu betiko? Ai! Ai! Zer bil-durra! Ai zer kezka! Ta zer? Zure animaren kaltean deabruari ainbeste atsegin nai diozu eman? Peligru onetan zaude, ta zure kulpaz betiko kon-dena zaitezke, ta Jainkoa galdu dezakezu, ta orren lasai, orren aisa bizi zera?

Ai nere triste! Ta izan diteke ori? Ta zu infernuko su garretan erre-tzen ikusi, ta Jaunaren justizia aserrea orrez beti atsegin artzen dagokea-lal! Jesus milla bider! Zer egia izugarria! Ez, ez, Jauna. Ez, arren ni peka-tuan, ta orregatik infernuan erortzea utzi. Ill, Jauna, lenago: milla bizi banitu, lenago guziak galdu, zu ofenditu, ta galdu baño. Ill bedi pekatua, ta bizi bedi nigan, nere Jesus, nere Jainko maitea.

Zure pena, ta tormentu guziakgatik, Jauna, zure azote, arantza, ta zure negarrakgatik: zure odolezko bost iturri nere salbaziorako idiki, ta eman zinduenakgatik eskatzen dizut barkazio, ta pakea. Zure negar malko bat, odol tanto bat asko det, Jauna, nere kulpaz guzien mantxak kendu, ta, nere anima garbitzeko. Zure odolaz baliatu nai det, penitentzia, ta biziera berria egiteko. Lagun zadazu, arren, pekatutik irteten, nere bizia zuzen-tzen, zu bakarrik, nere Jauna, billatzeko, serbitzeko, ta zeruan beti alaba-tzeko. Amen.



AZKEN JUIZIOAREN GAÑEAN EJERZIZIOA

*Congregabo omnes gentes, & deducam eas
in vallem Josaphat: & disceptabo cum eis ibi. Joel. 3.*
Biribillatuko ditut (dio Jaunak) jende guztiak, eta Josafateko ibarrera
eramango ditut, eta an guzien gañean juizioa egingo det.

Fede bizi batekin azken juizioa gogorra ekarri, eta munduaren kabu onetatik atera bear dezun frutua da Jaunaren bildur andi bat, San Juan Ebanjelistak dionez bakoitzaren, edo juizio partikularean esan zan bezala, eta bildur santu orrekin beti ondo bizitzea, Juizio andi onetan Jaunari kontu ona emateko.

LEKUA, EDO KONPOSIZIOA EGITEA

Kontu egizu orañ bertan Josafateko zelaiean, Kalbarioko, ta Olibeteko mendien artean arkitzen zerala, ta au munduko gende guziak, ill ezkerok pizturik beren gorputzetan ikusten zaudela. An airean odoi zuri baten gañean bere Jarleku, edo Tribunalean dakutsula Jesu Kristo, Ebanjelioan berak dion bezala: aren eskuetik Ama Birjiña guziz doatsua gloriatzeko bere Jarlekuan: eta Apostolo, ta beste aiei jarraitu zien Santuak beren lekuetan, jarririk. Juizioaren lekua onela egin ta

ESKARIA, EDO PETIZIOA

Au izango da, Dabid Santuarekin eskatzea: Josi itzatzu, Jauna, zure bildur santuaz nere anima, ta gorputza, bada zure juizioak ikaratzen naute: Fedea, ta juizioa orañ indazu, orduan bezala orañ juzgatzeko mundua, ta munduko gauzak, ta nere mundu txiki au: ta orduan bezala orañ lurreko anditasun, ondasun, ta atsegiñak oñ pean egiaz idukitzeko. Ai Jauna! Mundua juzgatzera zatoztenean, ez arren ni kondenatu.

JUIZIO IZUGARRI ONETAN IRU GAUZA ANDI DITUZU

- 1a. Zergatik Jaunak Juizioko egun au egin nai duen.
- 2a. Orduko munduaren kabuan izango diran señaileak.
- 3a. Mundu guziaren juizioa, ta sententzia betikoa.

LENDABIZIKO PUNTUA

Begira, ta pensezazu ondo, zergatik Jainkoak egin nai duen Juizioko egun aundi au: egun ikaragarri, besterik ez bezalako, paregabe, munduan beñere ikusi eztan, era bateko mundu guziaren batsarri, edo junta aundi au? Fedeak dio: gauza askogatik, eta kausa asko dituela Jaunak, juizio ori egiteko berak dakizkienak. Baña guretzar jakiñenak dira iru.

1a da, zeren bere Seme maitearen gloriagatik Aita Eternoak mundu guziaren aurrean biurtu nai duen. 2a: zeren bere justu, ta serbitzari leialen onragarik biurtu nai duen. 3a: zeren bere juizio justu, ta justizia zuzenagatik munduaren aurrean biurtu nai duen.

1a Ebanjelioak erakusten dizu. «Jainkoak bere Semea bialdu zuen mundura, mundua, edo animak salbatzeko». *Missit Deus Filium suum in mundum, ut salvetur mundus per ipsum.* Baña mundua añ zoroa, añ juizio gabea zegoen, non ezagutu izan nai etzuen bere On guzia, bere Salbado-rea. Etorri zan, dio San Juanek, bereen artera, jai, ta agertu zan bere aideen erdian, ta berak etzuten artu: *in propria venit, & sui eum non receperunt.* Ioan. 1.

Ta badakizu zergatik? Zeren humiltasunaren Maisua bezala, janziera, edo traje humillean Jesus etorri zan: eta mundu eroitsuak humildarean balioa, ta edertasuna ezagutzen ez dituen. Orregatik, nai zuten erara, erabilli zuten Pilatosegandik Herodesegana, tribunaletik tribunale- ra, Anas, Kaifas, ta besteen aurrera: ta Jesus-en Personaz, guzien artean, nai zutena egin, ta azkenik kondenatu, ta Gurutzean ill zuten.

Zer bada, dio Aita Eternoak! Bialdu nik, ta ez gutxiago, ta ez besterik, ezpada nere Seme bakar maitea, guzien Maisu izan zedin, zeruko bidea erakusteko, ejenploa emateko, eta animak salbatzeko: ta mundua añ zoroa, añ juizio gabe, ta ari pagu ori eman? Bada nik juizioko egun arri- garri bat egingo det: orduan guzia agertuko da, ta mundu itsuak ikusiko du nerekin zuen, ta borrero gogor, ta besteak norgan beren eskuak ipiñi zituzten, nor oñpean erabilli, nor azotatu, aranzaz koroatu, ta nor ill zuten.

Lenengo Jainkoaren Semea gure aragiz janzirik lurrean agertu zanean, gugatik traje humill orretan etorri zan, munduaren juizioak igaro, ta munduan juzgatu izatera: argatik munduko itsuak etzuten ezagutu: baña bigarren aldian gloriatzeko, ta anditasun guziaz beterik etorriko da mundura, munduko guziak juzgatzera: munduari juizioa eman, ta egingo dio, ta orduan, beren damu gaiztoz ikusi, ta ezagutuko dute, len ala tratatu zutenak.



Ai zer juizio tritea! Ai zer munduaren trukada, ta suertea! Ai zer esango dute orduan Anas, ta Kaifas batek, Pilatos, ta Herodes batek? Zer Judas billau falsariak saldu zuenak? Zer lotsa bada arena, ta aren ondoren, edo Judasen azpian egongo diran Kristau, pekatu bakoitzaz, zekitela, Kristo Gure Jauna añ merke, ta doarik saltzen zutenenak? Zer bada, arako gaitzki komulgatu, ta Judasen gisa falsiazko laztanaz, Jesus, ark baño ere merkeago saltzen zutenak? Zer esango du Pilatos, eriotzako sententzia añ oker, ta gaizki eman zionak, eta zer Juduak Barrabas baño ere gutxiagoan Jesus guzien Errege santua iduki zutenak? A! zer Kristau galdua?

Bitartean, zuk, nere anima, amoriozko milla esker biotz guztitik eman bear diozkatzu Aita Jainkoari, zeren bere Seme guziz humill, ta maiteagatik onela mundu guziaren aurrean, ta Juizio andi onetan biurtu nai duen. Ta ikusirik zure Salbadore, ta Errege Jesus laztana, bere gloria, ta majestade guztian, biziak, ta illak, zeruko, ta infernukoak belaniko adonatu bear dutela, batez ere bere etsaierik andienak, ta nai, ta nai ez, damuz, ta arrabiaz bada ere, len ezagutu nai etzutenak berak adoratzan dutela: beragatik zuk milla obetari, edo parabiñ eman bear diozkatzu:

Atsegin det, nere Jaun, ta Jabe biotzeko bakarra: ordu onean, ta zorionean biz, Zu mundu guziaren begietan ezagutu, ta adoraturik orrela ikustea. Atsegin det, nere Jesus maitea, zure gloria guztiaz: guztia zor zatzu, Jauna, ta ordu onean betiko izan ezazu. Ai Jauna! Ojala milla espiritu, ta milla biotz, ta milloiak, ta izan al guziak banitu: guziak zure oñetan betiko ezartzeko, zuri eskeñtzeko, zu ezagutu, ta Jaun, ta Jainko, sekula guzietako nere Errege bezala beti zu adonatu, ta amatzeko!

Ta orra zergatik, ta zer arrazoi andiarekin Juizioeko egun andi au Jaunak egin nai duen: bere Semearen onra, ta gloriagatik biurtzeko.

Bigarren Juizio ori egiteko kausa, ta ondo pensatu bear dan gauza, ta egia da, nola Jainkoak bere justuen onragatik mundu guziaren aurrean biurtu nai duen. Mundu eroa bere juizioetan, nai duen bezala, ta txit oker dabil: argatik onari gaiztoa deitzen dio, argiari illuna, ta birtuteari bizioa. Beren era, edo modara mundukoak oraiñ gauzai deitzen die. Onen gañean dira ainbeste ai triste, ta madarikazio Profeta santuen eon, ta Jesu Kristok bere Ebanjelioan orobat dio juizio oker, ta gaiztoen gañean.

Munduan asko dira, Jainkoa egiaz billatu, ta biotz guztitik serbitzen dutenak: ta oiek ikusten dira nekez, ta penaz beterik. Beste asko dira, Jainkoaren etsai egiñik, pekatuetan begietaraño sarturik bizi diranak, eta oiek nai duten guziarekin irteten dira. Mendi arte, ta bazter orietan pobretxo asko dira. Jaunaren Legea fede andi batekin artzen dutenak. Gordetzen dute lenengo Agintea, bigarrena ta amar diranak: eta geiago balira, guziak

gordetzeko prest dira: eta oiek beti nekearen, ta zorren azpian. Beren gau, ta egunetako izerdiakin, beren Eleiza, ta Jabeen zorraz pagatzeko, ozta dute: beren alegin guziakin, doi doia dute, edo askok ez dute zatartxo barrenenik ere, berak, ta beren umeak zerekin estali, edo janzi, Meza bat bear bezala ikusteko, edo Eleizan agertzeko.

Ta bitartean zenbat munduko aberats aberen gisa lege gabe bizi dira? Autzitzen dute lenengo Mandamentua, bigarrena, ta besteak: eta geiago balira, guziak ausitzeko prest dira: ta orregatik oiek triumfatzen dute, jan, edan, janzi, ta nai dutena egin, nekazari pobreen izerdi, ta odolaren kostura: beren aunditasun, ta soberbiaz, nekazale garbi, berai jateko ematen dienak, lurpean ondatu, ta ostikopean darabilztela, beñere pobreenzat justiziak balio ezuela, ta andinaikin ur garbirik ezin atera dutela. A! Ta zenbat onelako mundu zoro orretan igarotzen ote da?

Ai Jauna! Zer da au? Nola dijoaz gauza oiek? «Justua zera zu, ni zurekin argumentuan sartzeko». Jerem. 12. «Baña ala ere egiaz zurekin jardun bear det: Nola, Jauna zure etsai gaiztoenak, zu ofenditzen, nai duten bezala, ta beren erara bizi dira? Ta justuak zure adiskide maiteak nekez, ta doloz? Ori, ta orrelako asko dakutsula, nola zaude orren ixillik? Etxe, edo Palazioak, soñekoak, ondasunak, ta erregaloak, norenzat egin zinduen? Zer da au, Jauna?». Habac. 1.

Oriek guziok, dio Jainkoak, nik egin nituen nere serbitzari, ta adiskide nere Lege, ta amorian bizi ziranenat. Nola bada zure etsai, ta munduko andiak guziaz jaso dira? Ea: zaude pakean, dio Jaunak: mundua zoroa, ta itsua dago: bakoitzari berea emateko, juizio zuzenik ezta oraiñ. Juizioeko egun bat nik egingo det, ta bakoitzari dagokiona emango diot. O nere Jaungoiko guziz justua! O juizio estua!

Zer izango da, orduan ikustea, emen gaizki tratatu, ta humillaturikako pobretxo asko, an Jaunaren eskuietatik, Patriarka, Apostolo, ta Aingeruen artean? Ta emen len aien Jabe, ta Agintari andi, justizia, ta arrazoiaren kontra pobreen izerdi, ta odolak añ aisa txuputzen zituztenak, Luzifer-en, Astarot-en, ta deabru guzien azpian, suz, ta garrezko koroza lotsagarriakin betiko kondenaturik ikustea? Zer oien arrabia amorratua, beste justu oñpean ainbeste bider emen erabilli zituztenak, alako glorian ikusi, ta beren buruak alako lotsa, ta infernu bizian ikustea?

Ta justuak orduan zer esango dute goi artarik? A zeñ pozez kantatuko duten: *Utique est fructus justo: utique est Deus judicans eos in terra.* Ps. 57. Ai Jauna! Zeñ egia andia zan, denbora batean an bean Predikadore, ta Konfesforeak esaten zigutena: Jainkoaren eskutik bezala, lurreko gaitz, bear, ta nekeak artzeko: laster igaroko zirala: ogei, edo berrogei urteko,



edo gutxiago pena, ta doloreak izango dirala: Zuk, Jauna, andiagoak gugatik artu zinduela: Zuri begiratu, ta pazienza iduki genezala.

Ango gaizak igaro, ta emen zeruan deskansu osoa, ta betiko gloria bizia genduela. Ai, Jauna, zer egia, ta zer saria orañ! Ara bean munduko gure Agintari gogorak, zer lotsan, ta tormentuan dauden orañ! Justua zera, Jauna, ta zuzena zure juizioa mundu eroaren gañean. *Justus es Domine, & rectum iudicium tuum.* Ps. 118. Onela justuak esango dute, ta onela orien onra, ta gloriagarik Jainkoa bihurtuko da.

Irugarren Juizio andi au egiteko kausa da, zeren Jainkoak bere Justiazigatik bihurtu nai duen. Emen fede biaz gogora ekarzu, lurrean beñere ezin ondo barrendu, ta aditu oi dan egia andi au, ta Jainkoa zer zuzen bere juizio, ta gauzetan dabillen. Gure fede illarrekin, sator itsuak bezala gera ta argatik illunpean beatz topaka, uts egiten, ta zenzu gabe gabiltza: dakutsunaz pagatzen gera, irudiaz, ta ez egiaz. Baña Jainkoak ez orrela: bakoitzaren biotza dakus, ta barrendik, dan bezala, juzgatzen du: *Nec juxta intuitum hominum Ego iudico: homo enim videt ea, qua parent; Dominus autem intuetur cor. Scrutans corda, & renes Deus.* 1. Reg. 16. Argatik juizio andi onetan argiro, ta garbiro nor, ta zer zan bakoitza ikusiko da nor, ta nolakoa lurrean bizi zanean, izan zan.

Ai! Ta zer gauzak argizko, ta egiazko juizio onetan agertuko diran! Zer falfak, nolako traizioak, zer intenzio, ta asmo dollorak: zer txorakeriak, zer aizezko lankai eroenak, zer benganza billau, zer pekatu itsusi loiak: zer gauza lotsagarriak, pensamentu, ta gusto, abereen gisako atsegin atsak; zer lagunaren emazte, edo senarrak eskutuan egindako adulterioak, ta beste orrelako ezin esan ditezkean gaiztakeriak!

Zer bada? Etzan besterik: fede, ta Jainkoaren bildur gabe, aisa, aisa zere burua pekatuai eman, gurari infernukoai leku eman, ta zaletzen ziñana, edo gogoak emana, iñork jakingo etzuelako, eskutuan egin. Bada zuk eskutuan egin zinduen lotsagarri oriek, Jaun justuak agirian aterako ditu guzian aurrean, ta begietan bere juizioan.

Pensezazu, gizon prestu, edo andre onaren papera egin dutenak zenbat diran munduan: Kristau onzat askoren begietan dan denak; baña ez Jaunaren aurrean. Zenbat Kristauen izena dutenak; baña jentil, edo atheista, Jainkoa ukatzen dutenak bezala, bizi diranak: kanpotik erreljio, edo piedadearen kapa, baña barrendik biotzean Jainkoak dakien bezala. Bada zer? Oriek orrela irago bear dute? Ez ori, dio Jaunak: nik plazara aterako ditut: mundu guziak jakin bear du nor, ta nolakoa zan bakoitza.

A! munduaren juizioak zeñ itsu bidegabeak diran! Askotan beste gizon, edo andrea, zeren urrea darion, ondasunak dituen, urrez, ta sedaz

modako soñeko ederraz apaindua: orri Agur andiak, ta Jainko bati bezala gurre, edo adorazioak: ta bearbada gizon edo andre ori pekatuan dago: ta bere desditzaz, ala badago, orren anima da deabruen ziega bat, Luziferen infernuko presa bat bere kateakin loturik daukana. Anima ori demonio guziak baño beltzago, ta itsusiago dago. Aingeruak orren iges dijoaz, infernuko izurritu bategandik bezala, ta deabruak orren begira, noiz baño noiz Jainkoak orren biziaren ari mea eten, edo ebakiko duen infernura eramateko. A! Ta zu orren itsua; ta kanporonzko edertasun orrez pagatua! Bost onelako irago, ta tragatzen da munduan.

Pensezazu, nola bitartean eskeko pobretxo bat, edo beste, zure ondolik igarotzen dan, eta zeren arlote datorren, edo ez añ ondo janzia, orri ez jaramon, arpegirik ere eztiizu eman nai. Ta orren anima Jainkoaren grazian dagoke: ala badago, da Jaunaren jarlekurik ederren, ta gozoe-na, zeru bizi bat, ta zeruak baño ederrago: Jainkoaren ispillu garbia, Jesu Kristoren Esposa, zeruko Erregiña gaia, Aingeruak beti lagun dituela. O munduko juizioak! Ta anima justu orren balioa ezagutu gabez, orren estimazio gutxi! O Jaun santu, dana dan bezala bakoitzean ikusi, ta bere neurri, ta pisanu estimatu, ta guzia juzgatzen dezuna!

Ta emendik, nere Jaungoiko guziz justua, zer atera bear det nik, ezpada bildur santu bat, baña ez mundu zoroaren esamesena, baizik zure egiazko juizioena. Zer atera bear det, ezpada zure ofensa guzian damua, ta zure begietan diran bezala? Zer, ezpada biziera berria, biotz argi, ta garbia zure aurrean dagoena bezala, beti bizitzeko: nere borondate orañ-daño itsutu nauena, betiko ukatu, ta nere alegiñaz zurea billatu: nereaz desegin, ta zurea beti egin. Ai Jauna! Bada nere obra onak ere juzgatu bear dituzu: *Cum accepero tempus, Ego justitias iudicabo:* zuk añ justuak bezala, bakoitzari berea emateko: kontu estu, ta juizio berri onetan sartu nai det, Jauna: penitentzia egin, ta ondo bizi nai det, zure juizio andi artan ondo irteteko. Amen.

BIGARREN PUNTUA. **JUIZIO BAÑO LENAGOKO SEÑALEAK** **ETA MUNDUAREN AKABALLA**

Emen gogora ekatzu Jesu Kristok bere aoz predikatu zuen egia au, ta nola juiziorako mundua desegin baño len, alde guzietatik señaile ikaragarriak izango diran: *Erunt signa in Sole, in Luna, & in Stellis, . &c.* Luc. 21. Siñaleak zeruan, bada Eguzkia illundu, Illargia odoldu, ta Izarrak puskatu, ta zerutik eroriko dira. Siñaleak, bada zeru guzia nastu, ta odei illunetz bete, ta denboral, edo ekatxik izugarrienak ikusiko dira: tximista, turmoi,



ta oñaztarriak erriak, ta errietakoak oñdatzen dituztela. Señaleak, zeren oriekin naste aize bunbada arrigarriak izango diran, torre, ta palazio munduko andinai eroak, beren ustez betiko ospe, edo famarenzat jaso zituztenak, batean lurpean arrasatzeko.

Pensezazu Jesu Kristok diona, zer señaleak lurrean izango diran: *In terris pressura gentium*: nola ez zerua bakarrik, ezpada lur guzia, itxaso, ta kriatura guziak pekatarien kontra aserratu, jaiki, ta beren modura armatuko diran. Eskritura dionez, Jaunaren etsai burujauzien benganzara, ta oiei gerra bizia ematera: *armabit creaturam ad ultionem inimicorum, & pugnabit pro illo orbis terrarum contra insensatos*. Sap. 5.

Orduan, Lurra bere gañean pekatariak ezin ikusi, edo sufriturik Zalantza, ta ikara guziz portitzak emanik, idiki, ta tragatuko ditu. Orduan itsaso zabal ori, orroa txit andiak ateratzen dituela, beregandik irten, ta sartuko da leorrean erriak, ta jendeak ondatuaz. Orduan gizon, ta andreak arritu, ta zurtu, ta Jesu Kristok dionez, korde gabe igartuko dira, soñu izugarriaz, ta eriotzako antsia, ta larriaz: *pre confusione sonitus maris... arestantibus hominibus prae timore*. Orduan jendeak ibilliko dira araze andian, zorruak bezala, gora bera, zer egin ez dakitela, ta eriotzaren atzeneko gaitza-rekin etsirik burruka bezala.

Orduan abereak ere arazotuko dira, ta basotiak, ta lar abere suminduak, ta pistia mota guziak aldarte, ta azkeneko gaitza sentitu, ta beren zuloetarik irtengo dira, ta erriotzko orroa, ta inziriki, izugarritzko moduan errietara, auzoetara, jende tartera etorriko dira. O egunik illunena! O gaurik tristeena! O kulpen ondorengo denbora! O Munduaren galdu bearra!

Azkenik begira, ondo gogartu, edo gogoan sartu ezazu munduaren akaballa, ta suz, ta garrezko eriotza portitza. Jaunaren aserre justuak agindu, ta munduaren lau aldeetatik beñgoan, bat baten suzko lau ibai andi bialduko ditu: oiek era batera sutu, erre, kiskaldu, desegin, ta auts biurtuko dituzte etxeak, erriak, abereak, ta bizirik arkitzen diran jende guziak: ta orra mundu zoro galdua akabatu. Ai zer kabua!

Atozte orañ, atozte nerekin munduko eroak: juizio, ta kontuan sar gaitan. Andikiak, aberatsak, atsegin, ta eder zaleak, atozte: atozte ikustera, denbora bateko zuen biotzen zoragarri ziran edertasun, ta beste gauzak non diran, edo zer egin diran. Ai pekatarien zoro, edo juizio gabeak! Begira zuk nere Kristaba fededo argiaz munduaren kabu oni.

Non dira orañ etxe, edo Jauregi andi, banidade, edo andinaiak ainbeste pekatuarekin, ta anima askoren kaltean jaso zituenak? Non dira baratz, edo jardin eder, ta paseo erregalorako ainbeste kostarik eginak? Non

dira joiak, urre, zillar, ta beste ondasunak? Non dira galak, edertasun, erregalo, ta beste atsegiñak? Autsa, ta ke utsa ikusten da. O zer ikusgarri illun tritea! O munduko falsia, ta gezurra! O txoroen jostallu itxura gabea! Onela guzia igarotzen da: onela mundu guzia akabatzen da. *Præterit enim figura huius mundi*. 1. Cor. 7.

ILL GUZIEN PIZTIA, EDO ERRESURREKZIOA

Fedeko egia au pensezazu ondo: munduaren fin lastimagarri ori ezkeru, nola illak piztu bear duten: bakoitza bere len izan zuen gorputzean, Jaunaren agintez, bizirik jaikiko da, San Pablok dionez: *Canet enim tuba, & mortui resurgent*. 1. Cor. 15. Lau munduaren parteetan juizioko tronpetaren ots guziz andia adituko da, ta Aingeru batek deadarrez aginduko du: *Surgite mortui. & venite ad iudicium*. Illak piztu zaitezte, juiziora atozte. Esan, ta egin: puntu artan mandatu oni diranak obedituko diote, ta bereala bizirik jaikiko dira.

A! Begira zer ikusi bear dezun orduan! Justuen animak zerutik, ta gaiztoenak infernutik etorri, ta bakoitza bere lengo gorputzean sartuko dira. Guzien gorputzak geratuko dira oso, ta bizi beren animakin; baña guziak ideak bezala, Jesu Kristoren urte, edo ogei ta ama iru urtekoen gisa: *in mensuram ætatis plenitudinis Christi*. Ephes. 4. Pensezazu, nola, ta zeñ laster, ta zeñ eder argi gloriar janzi, ta beteak santu, ta doatsuen gorputzak egongo diran, ta anima an sartzean, eguzkia baño klaruago jaikiko dira, ariñak, alaiak, ta txit ederrak.

Ai! Zer bendizio, ta graziak Jainkoari emango diozkate, zeren gorputz artan bera serbitu, ta aren borondate santua egin, ta Legea gorde zuten! Zer eskerrak animak bere gorputzari, zeren garbiro bizi izan zan, edo argalak bezala, pekatuak egin bazituen, orien penitentzia ere egin zuen! Zer bada gorputzak animari, zeren Jaunaren bildur santuaz zeruko bidean zuzen erabili zuen, edo iñoiz lurreko gauzerara okertu, edo makurtu bazan, ondasun, edo atsegin loietan sartu bazan: oriek ezagutu, ta gero damu, ta egiazko propositu eragilleaz konfesatu, ta Jainkoagana biurtu, ta biziera berri santua artu zuen, ta eriotzaraño ondo iraun zuen! Ai zer poza! Zer gloria bizia!

Ta bitartean, nork esan dezake kondenatuen gorputzak nolakoak egongo diran? Orien anima zorigaiztokoak etorriko dira, nai, ta naiez, infernutik, demonioak baño beltzago, ta itsusiago, su bizi egiñik. Arako beren gorputzak ikustean, zer tormentu amorratua artuko dute? Ator ona, esango dio bakoitzak, ator ona deabru guzien laguna, ta nere kartzela madarikatua: ator ona ire saria nerekin batean betiko artzera. A zorigaiz-



toko gorputza! Onenbeste urte da igatik ni infernura nintzala. Zer etzan besterik, Jainkoaren Lege santua urratu, ta ire anima garbia loitzea, abereen gisako atsegin lotsagarrietan, benganza zital, ta beste dollorkeria, ta pekatuetan, ta añ merke ezerezegatik deabruai saltzea, edo doarik anima bakar au ematea? Ator, bada, orain guzia nerekin batean pegatzera.

Oiek, edo onelako gauza asko esanaz an sartuko da anima, ta gorputz ori jaikiko da bereala infernuro su gori bizi, ta illun egiñik. Orduan zer madarikazioak gorputzak animari, ta onek ari? Zer negar malko suz, ta garrezkoak? Zer deadar, ta garraxiak? Zer biotzeko inziria samindu garrarak? Onela asiko da sekulako, ta beñere ezta aspertuko, eternidade guzian.

Ai anima Kristau au irakurtzen, edo enzuten zaudena! Zer izango ote da zuzaz? Orduan mundu guziaren aurrean zere burua naiko dez u ikusi desditxa onetan, lotsa, pena, ta tormentu orietan? Ez, ez, anima nerea, ez Jainkoagatik: ez nere gorputza, zure, ta nere onagatik. Ea bada, animo, ta penitentzia bereala: egiazko biurrera, edo konbersioa, Jainkoagana: damu, ta negar biotzekoak, proposituak, ta biziera berria. Bai, nere Jainko maitea, bai zure graziarekin. Emen penak, emen tormentuak. Beto, Jauna, betoz ordu onean, zure eskutik bezala, betoz nekeak, gaitzak, betoz emen zure amorioan. Zure eskuetan, zure mendean nago: ona nere anima, ona nere gorputza, zure borondate gozoa beti egiteko, ta zu oraiñ, ta beti amatzeko. Amen.

IRUGARREN PUNTUA. MUNDUAREN JUIZIOA,

TA GUZIEN SENTENZIA BETIKOA

Emen dator fededo egia. S. Pablok diona: munduko guziok Jesu Kristoren Tribunalaren aurrean agertu bear degula: *Omnes nos manifestari oportes ante tribunal Christi*: ta an bakoitzak bere merezia artuko duela. Orretako guziok pizturik Josafateko Zelaiera joan bear degu. Begira, nola justuak, Jaunaren borondatea egiteagatik, obedituko duten bereala, ta gozo txit andiarekin, beren Arintasunaren doai, esan, ta egin, puntuko ara joango dira airean, Jesu Kristori etxedetera: *Obviam Christo in aera*: 2. Cor. 5. Thesal. 4.

Kondenatuak berriz jua naiko eztute lotsaz, ta ikaraz: ernegatzen, ta birauka egongo dira: mendiai ots egingo die, azpian artzeko: eriotzari, bertan ondatzeko; baña baliatuko etzaie: ta bitartean deabruak joka, bulzaka, ostikoka, ta arrastaka aramango dituzte lanzakin, eztenakin, ta beren pekatuen katea pisuakin. Ai zer karga, zer nekea, zer tormentu amorratua era-

mango duten! Baña ondo merezia: bada añ erraz penitentzia egin zezaketela, egin etzuten, justuak bezala, ariñ, ta aisa joateko Josafateko ibarrera.

Ara Jesu Kristo jaxkiko da, mundua juzgatza. Aurrena San Migel, edo Aingeru bat etorriko da gure Salbadorearen Gurutze, ta gure erremedioaren Estandarte guztizko ederrarekin: onek justuak atsegin, ta gloriar, ta gaiztoak ikaraz, ta infernuko penaz beteko ditu. Orren ondoren Aingeruen ejerzituak gloriar janzirik jaxkiko dira, guzien Erregeari gorte egiten.

Orduan Jesu Kristo Gure Jauna agertuko da, jarleku, edo odoi zuri ederrezko Karroza batean, bere mende, ta majestade guziarekin: *Cum potestate magna, & maiestate*, eta antxe guzien gañean geratuko da. Ama Birjina guzien Erregiña bere Semearen ondoan trono guziz eder batean eseriko da: eta beren leketan Apostolu santuak, ta aien lagunak mundu guzia juzgatzeko.

Emen begira ondo Gure Jesus onaren gloria andia: zeren bere Aitarenen onra, ta gure onagatik ainbesteraño humillatu zan, orregatik juizioan onratua, ta adoratua izan da: ori bera Ama Birjiña, santu, ta justu guzietan ikusiko da. O zer humiltasunaren sari ugaria! Zer gozaldia Ama maitearen biotzekoa, bere Seme bakar, len Kalbarioan Gurutzean dolerez illtzen ikusi zuena, alako glorian orañ ikustea! Zer Santuen poza, zeren Ama Birjiñari bere doloretan, ta Jesus onari, bakoitzak bere gurutze, ta emengo neketan, moderaro, ta pazienziar jarraitu zioten!

Zer gloria paregabea, ikustean, nola munduan izan ziran Errege, Agintari, Bidegabe, edo Tirano gogor guziak, belauniko, nai, ta nai ez, Jesus Errege ta Jaun guzien Errege, ta Jaun bakarra konfesatzen, ta adoratzen mundu guziaren aurrean! Ea, animo, nere anima maitea! Jesus zure Jaunari orañ zure bizimoduko gurutze, ta nekeen artean jarrai zaiozu: Ea, laster igaroko dira: ark, eta santuak bezala pazientzia puska bat iduki zazu, eta altxa gora zure biotza: jaso gora zure begiak, pensamentu, ta gogoak, biziera berriar, an Jesusen ondoan, ta glorian arkitzeko.

JUSTUEN, TA GAIZTOEN SEPARAZIO, EDO BEREZDEA

Bigarren gogora egarri bear dezun gauza da, nola Jaunak Aingeruari, Juezak bezala, aginduko dien, justuen artetik atera, berezi, edo aparta ditzatela kondenatu guziak, antxumeak arkumeetatik, zalkea garitik, ta lastoa aletik bezala: *Exibunt Angeli, & separabunt malos de medio justorum*. O zer tranze estua! Onak, edo Santu guziak txit eder argiak Jesusen eskuian geratuko dira airean: ta gaizto guziak, Aingeruak botako dituzte ezkerrean, infernuko egur sorta illun irazakiak bezala. Nork esan dezake oien



tormentu amorratua deabruen ostikopean? Aberatsak, andinaiak, agintari era gabeak infernuko lotsa, ta arrabia andiagoa izango dute, zeren lurrean pobretxoak oñpean erabilli zituzten, ta an gloria andian Aingeru tartearen oriek berak ikusiko dituzten. Ai! Begira orañ ondo.

Zenbat munduaren paper, edo ots andia egin zutenak, an bean ezkerretatik egongo diran, besteen suerte onaz arriturik! A! Gure zoroitsuak, esango dute, uste genduen, zerbait giñala munduan, zeren aberats, andi, estimatuak, nai genduen egiten bizi giñan: ta ango pobretxo bearrak, ta beren izerdiakin jateko ematen zigutenak, ezertan iduki ez ginduen! Ai gure zorigaiztokoak! Ara, ara, goien aiek Aingeru, ta Santuakin non dauden, munduan paperik egin ezpazuten ere: iñork ezagutu gabe, azturik bizi izan ziran, ta orra zer gloria aiena orañ? Gu giñan desdixaduroak, aiek ero, ta desdixadutzat iduki baginduen ere. Aiek zuten Jaunaren bildurra, ta juizioa: guk itsu galduok ez: aiek bezala, Jaunaren bidea jakin ez, ta utsegin, ta galdu degu guzia: *Ergo erravimus à via veritatis*.

Begira, zenbat guraso on orduan gloriaz beterik eskuetatik egongo diran, zeren bildur santuaz Jainkoa serbitu, ta beren ume, ta ondorengoai zeruko bidea obraz, ta itzez erakusi zien: ta bearbada orien umeak ezkerretatik deabruen artean, zeren gaztetatik gaizki, ta begietaraño pekatuetan sarturik bizi izan ziran. Beste ume, edo senide batzuek egongo dira goien santuen artean, ta orien senide, edo gurasoak bean deabruen artean. O, ta zer gauzak ikusi bearrak gauden!

Ta zer suerte izango ote da zurea? Jakin naizu? Bada begira ondo nola bizi zeran: Noronz orain zauden, aronz beti egongo zera. Zeruko bidean, penitentzia, ta zure estaduko birtuteen bidean zabilza eskuieronz? Bada eskuiean arkituko zera. Pekatu, bizioen artean ezkererenz zaude? Bada ezkererenz erori, ta beti egongo zera. Au zure eskua dago orañ, ez orduan. Zuk orañ nai dezuna, ta eriotzarako artzen dezuna, seguru izango dezu orduan. Ea bada zeren begira nago? Zeruko bidea ar dezadan, Jainkoaren Legea biziera santu bat, eskuieko aldetik zeruko gloriara igotzeko. Amen.

KONZIENZIAKO LIBRUEN IDIKIERA

Juizioko egunak agertuko dizun beste egia au da: *Libri aperti sunt*. Konzienzia guzien Libruak idikiko dira. Eleitza Ama Santak dio, Libru onetan eskribiturik dagoela guzia, andik juzgatzeko mundu guztia. Esan nai du: Jainkoaren argi golpe andi batekin, diran guziak, eta bakoitzak txit argiro, ta batean ikusiko dituztela mundu guzian egin izan dira pentsamentu, itz, ta obra onak, eta gaiztoak.

O zer tranze lotsagarrizkoa pekatarienzat, ta zer gloria justuentzat! An kulpa loi itsusi eskutuan egiñak agertuko dira: an basterretan bakarrik egindako ezin aotan artu ditezkean gisako pekatu nazkagarriak: an traizio, falsia, dollorkeria, intenzio billau, ta biotzeko benganza zitalak, ta aizezko beste banidade, ta buru ariñ askoren txorakeriak: an konfesioan lotsaz utzi ziran, edo estali, edo txikitu ziran pekatuak ertengo dira. Ai! Ai! Zer lotsa!

Berriz an justuen obra onak agertuko dira: arako eskutuan, iñork etzekuzela egiñak: oien intenzio garbi, ta gogo santuak, oien limosna, orazio, ta ixillik egindako penitentzia, mortifikazio, ta beste onelakoak: baita justuen pekatuak ere, ta gero Jaunaren graziaz egin zuten penitentzia. Au Jainkoaren gloriarako: ta onek onra, ta edertasun andia justuai, ta lotsa, ta tormentua gaiztoai emango die.

Baldin emen gutxiren artean, falsia beltz, infamia eragabe, edo pekatu desonesto itsusi batean arrapatzea bat, gauza añ lotsagarria bada, ta alako dakitenenen artetik iges bati eragiteko tranzea: mundu guziaren aurrean, eziñ iges egingo duela, orrelakoetan bat artzea zer izango da? O lanze guztien estuena! Argatik nere anima, Jainkoaren aurrean bezala bizi gaitean. Begira, Jaunak ikusten zaituela. Begira, Jainkoa dagokizula begira: Ondo bizi, biotz, ta biziera ona.

SENTENZIA BETIKOA

Au da Juizioaren azkeneko pausoa: Juezaren sententzia, baña sententzia erabakiduna, edo definitiba: Sententzia, baña guziz zorrotza, ta zuzena: Sententzia; baña argia, ta betikoa: Sententzia onai, ta gaiztoai dagokiena, ta an emango zaiena.

Lenengo, Jesus zeruko Erregea bere arpegi txit eder gozoarekin bere justuetara biurtu, ta esango die: *Venite, benedicti Patris mei, &c* Matth. 25. Atozte, nere Aitaren bedeikatuak: atozte, munduaren asieratik zuentzat dagoen zeruko Erreinoa artzera: zeren gose ninzan, ta jatekoa eman ziñidaten: egarri ninzan, ta edatekoa ere bai: ta orrela beste miserikordiaren obrak. Atozte. O zer deia! O zer poza, ta gloria! Doatsuak esango diote: Noiz, Jauna, ikusi zindugun gose, edo egarri, bidezko, ta soñeko gabe, kartzelan, edo gaxorik, zuri obra on oiek egiteko? *Quando te vidimus, &c* Ta Kristok eranzungo die: A! Arako pobretxoari borondate onez orrela obrak egitean, niri egiten ziñizkidan: ta pobreak egiña nik neretzat artzen nuen.

O nere Jesus guziz miserikordioso! O nola zure miserikordiaz, ta ontasunez mundua salbatu nai dezun! O zeñ urrikalsu, ta amoriozkoa zeran: bada nere kulpen zorrak añ aundiak dirala, zure izenean nere lagun urkoari egiten diodan miserikordiaz, guziak nik añ erraz pagatzea nai



dezu, ta nik zure miserikordia, ta gloria guztia orrela irabaztea! Ikasi ezazu, Kristaba, obra onak besteai egiten, ta zuretzat nai dezun guztia zure lagun urkoari: bada erregla onetatik Jaunak azken juizioan sententzia emango dizu.

Geroean justuak beren saria artu, ta seguru daudela, Juez ikaragarria aserre guzieren arpegiar ezkerrekoetara biurtu, ta sententzia emango die esanaz: *Ite: disceditè à me maledicti, &c.* Zoazte, madarikatuak, zoazte sekulako nere begietatik: zoazte infernuko su, ta gar, edo tormentuetara: zoazte betiko deabru guziakin, bada nere miserikordiaz etzerate baliatu. Gose, ta egarri ninzan, ta ezer eman etziñidaten. Pobre ninzan, ta karzelan, ta ez janzi ninduzuten, ta ez ikustatu. Ta orrela beste obra onetan.

Orduan gaiztoak esango diote: Noiz, Jauna, orrela ikusi zindugun, obra on oriek egiteko? Esango die Kristok: Nere pobretxoai egin etziñioten, ta argatik ezta niri ere. *Nescio vos:* Zoazte madarikatuak infernura. Etzan besterik, nere Lege, ta borondatearen kontra nai zendutena egin? Bada orañ, ta, beti borondate orrek egin zuena paga dezala. Ta despedida triste onekin juez justuak bialdu, ta botako ditu kondenatuak. Orduan demonio, ta deabruen lagun gaizto guziak naste, ta batean, puntu artan ondatuko dira infernuko leiza zuloetan. Ta orra munduaren kabua. Justuak Aingeru, ta Santuakin Jesus, ta bere Ama gozoarekin batean zeruko gloriara: ta gaiztoak Luzifer, Satanas, ta bere deabruakin betiko infernura.

KOLOKIO, EDO ATZENNEKO ITZKETA

Ai nere Jaungoiko guztiz ona! Au zer da? Nere fedea, nere juizioa non da? Ta fedear zure juizio andi au, nere zorrak, ta ango kontu estu zorrotzak ikusi ezker, nik zer esan, ta zer egin al dezaket? Zu, nere Jesus maitea añ aserre ikusi, ta nola, edo norgana biurtuko naiz? Baldin justuenak ikaraz, ta bildur santuz ba daude, ta orduan ozta seguru egongo badira, nizaz zer izango ote da? Job santu bat añ justu, ta garbia, bere animan pekaturik etzekuzena, juizio andi onen argiak in lenagotik ala bildurtzen bazan, nik, pekatari galdu triste onek zer egingo det?

Zure adiskide leial prestu onek juizioko zure aserre aldi añ andia ikusitik esan zizun: *Quis mihi tribuat, &c.* Ai Jauna! Nor legokean infernuan sarturik, zure aserre sumiñ izugarria igaro artean! Zer esan al dezaket nik nere anima kulpaz betetik daukadala? Nere pekatuak, Jauna, karga pisu eramanezin ditekeanak bezala, ondatzen naute infernuan. Baña orregatik

ere, nere gaitz guzieren, ta infernuaren ondaretetik dei, ta ots egingo diet zure miserikordia kabu gabeari: *De profundis clamavi ad te Domine: Domine, exaudi vocem meam.* Ea, Jaun piadosoa: zugean dago nere erremedio guztia: zure miserikordia onetako da, nere pekatu andi guzieren karga ondagarri au nere animaren gaiñetik kentzeko. Orretako nere pekatu, ta zorrak zure kontura, ta zure gañean artu zinduen: zure pasio, ta eriotzarekin Aitarene justizia aserrearri osoro ziranak pagatzeko.

Ai nere Salbadore, ta erremedio bakarra! Juizio artan ez zure neke, izerdi, ta negarrak, ta zure odola, ta eriotza baliatuko zat. Baña orañ bai, pekatuetatik libratu, ta zure, eskuiean ni orduan ipintzeko. Ona bada, Jauna, ona non dezun munduko pekatatirik andiena: ona non zure piedadea erakutsi, ta nori barkatu: ona nere biotzeko miserien gañean zure miserikordiaren jarlekurik onena. Nere kalte, ta desdixak erremediatzean dago, Jauna, zure Biotz amorosoaren deseo guzieren kunpligarri bete. Esan dezaket, zure gloriarako: zure piedade gozoarenzat leku obeago, ta berezko egokiagorik ezala arkituko, nire anima triste galdua baño.

Ea bada, Jauna, barkazioa, erremedio nerezat, ea betor zure pakea, zure eskuieko aldea nerezat. Zure odol tanto bat, zure negar malko bat asko det, zure Biotzeko asnase bat asko da. Ea beñ, edo beñ aka bite nere gaitzak, ta orrekin zure aserreak: betor zure salbazioaren alegria. Orretako zure borondatea bada, betoz orañ, Jauna, betoz lenago emen zure aserre justuaren kastiguak: betoz ordu onean, zure miserikordiazko azote, neke, ta gurutze zuk, bizi naizan artean, bialtzen dituzunak: betoz, Jauna: diranak dirala, zure eskutik datozenak neretzat onenak izango dira, ta nik besoak zabaldu, ta laztanga artuko ditut. Zuk naizuna, ni nai det pozik, gero nere burua zure eskuiean ikusteagatik. Nere pekatuen damuz, ta gorrotoz guzieren konfesio andi bat egin nai det, ta propositu sendo sekulan ez autsitzeko batekin: kosta dediña, kosta dedilla.

Ta bada biziera santu zure antzeko batekin zure miserikordia orduko irabazteko, zuk naizu nik oran nere geide, edo lagun urkoai miserikordia egitea, ta zugatik aiei al ditudan obra onak, zuri bezala egitea: biz, Jauna, ordu onean. Zure amorez egingo diet alegin guztia, ta neretzat naiko nukeana: emango diet ejemplo ona: nere alegiñak lagunduko diet obra onakin, al ditudan limosnakin, konseju on, ta nere errekuakin, orrela erraz zure miserikordia seguratzeko: pazienza aiekin, ta are geiago nere buruarekin neke, ta trabajuetan idukiko det pozik zure borondate santua beti egiteko, ta pakezko bizia, ta eriotza on bat: ta zurekin, nere Jesus ona, zure Ama gozoarekin, Aingeru, ta Santuakin zure eskuiean juiziotik igozteko zu alabatzeraz zeruko gloriara. Amen.



BIZIMODU BERRIA ARTZEKO, EDO ESTADUAREN ELEKZIOA EGITEKO EJERZIZIOA

Anima pekatuetatik libratu, ta errazago Jesu Kristori jarraitzeko, Aita San Ignaziok nai zuen, Kristau bakoitza, modu suabe batekin, txit bere ta Jainkoaren erara birtuteen bide errealean sarrerazo, bere borondate gaiztoa autsi, ta ukatu, ta Jaunaren borondatea gauza guzietan gogotik billatu, ta egiteko. Orretako, bere animaren salbaziorako konbeni zaion bidea artzeko, ta Estaduaren elekzioa, Jainkoaren aurrean, bear bezala egiteko, Erregla seguruak beren considerazioekin Santuak ematen ditu.

Jainkoak deiturik, beren Estadia artu ta daudenai, ta Jaunaren borondatea egunoro obeto egin nai dutenai ere, Santuak bere Erreglakin laguntzen die, beren bizi modua zuzentzeko, ta zeruko argiak biotzak ta pauso guziak Jaunaganon z seguru emateko.

Oriek eztute ya beste Estadutan pensatu bear, zeren tentazioa izan oi dan; ezpada artu duten Estaduari ondo ekin, beren obligazioai obeto begiratu, esaminatu, ta animatu fede on osoaz, ta biotz onaz zuzen Jainkoari, jarraitzera.

Bear dute oiek, Dabid Santuak bezala, Espiritu Santuari bere argia, ta grazia eskatu beren obligazioak ezagutu, ta oriei ondo erantzuteko. *Confirma hoc, Deus, quod operatus es in nobis*: Psal. 67. Confirma me in verbis tuis: Psal. 118. *Et spiritu principali confirma me* Psal. 50. Jauna, zuk guban egin dezuna, sendo ifintzu. Zure itzetan segura nazazu: eta zure espiritu principal, edo geiena bear dedanaz sendo nazazu.

ESTADUA ARTU NAI DUTENAK, JAINKOAREN AURREAN ONDO PENSATU, TA PISATU BEAR DITUZTE ERREGLA OIEK

1. Erregla. Eleiza Ama Santak dituen Estadu guziak onak berez izanagatik, batzuek obeak dira besteak baño. Ezkontza, edo Ezkonduen Estadia, zeñean asko salbatu, ta Santu izan diran, ona da; baño Ezkongaiena, edo kontinenzia obea da, ta Relijiokoa are obeago, zeren onetan arazo gutxiago, ta birtuteak, ta salbazioa alkanatzeko sokorru geiago

diran. Erri baterako bide asko nola oi diran baño batzuek obeago besteak baño, zeren lapurrik, ta peligrorik eztan.

2a. Estadu guziak onak berez izan arren, ta batzuek obeago besteak baño; orregatik artu bear duen edozein personaren zat orrela eztira. Zeren bat Jainkoaren aurrean beragana deitua sentitzen bada, Relijiorako gogo, ta inspiraziokin, ta ori dala Jainkoaren borondatea ezagutu, ta beste munduko estadurik artuko balu, ya anima orrenzat ori ez litzake bide ona izango, ezpada peligrizkoa.

Kontrara: batek bere umore, edo kondizio, edade, ta Jainkoak eman dizkan prenda, ta doaiak ondo ezagutu, ta Jaunaren aurrean ikusiko balu, sekular izan, ta bide orretatik bera serbitzea nai duela, ya persona orrenzat ez litzake obeago, ta ez ondo beste Estadu berez obea dana, zeren ori ez dagokion. Nola janari asko berez onak, ta batzuek besteak baño obeago izan arren, ez datozkie estomago guziaz ondo, ta batzuei ori egiten dienak, besteai gaitz: ori bere estadiak animetan.

3a. Estaduaren aukera, edo elekzioa egin bear da, arazo guzietatik libre, ta pakean anima arkitzen danen: ez aserre, ira, edo ustegabeko beste pasoren batekin gozagaitzurik dagoenean; zeren orrela ezin gauzak bear bezala pisatu, ta arrazoiari beren leku, ta indarra eman dakieken: biotzeko sosegu, ta Jaunaren pake argia, azertatzeko bear da.

4a. Jaungoikoarekin batean bein ondo begiratu, konsejua artu, ta zer estadu, salbatzeko konbeni zatzun erabaki ezker, ezta atzera erraz edozein gauzogatik biurtu bear; batez ere animaren tristeza, desanparo, edo tentazioen denboran; zeren orduan illundu, ta nasturik arkitzen dan, ta gauzak diran bezala, ikusten ez dituen:

5a. Estadia artu bear duenak, lenengo Jainkoari argia eskatu, ta bere buruaz fiatu gabe, konseju segurua artzeko, Aita espiritual Jainkozko, jakintsu, ta zintzo, edo prudente bat billatu, ta arekin itz egin, ta guziaren kontu eman, ta aren konsejuz erabaki bear du. Humildade onek Jainkoa, bere argi, ta grazia ematera obligatu oi du: ta bestetik bakoitza bere gauzetan ez oi da Juez ona, bere borondate, ta amorioaren peligro, ta engañuakgatik.

6a. Orregatik, Estaduaren puntu au, ta Jainkoaren deia, edo bokazio, ta inspirazioak, seglare, ta mundukoakin tratatzea, uts egitea da, ta peligrizko gauza: orobat aideakin. Oriek eztira animarako gauzetan konsejari onak; zeren berenez, ta geienean aragiari, ta odolari darraizka, ta ikusia da orien intenzioa, zeña munduko konbenienzia, interes, edo andinaiean daukaten. Orrelakoak beren juizio, ta afektoa itsua, ta galdua daukate, ta birtute, ta salbazioaren inportanzia eztute bear bezala estimatzen.



7a. Ondo iritziagatik Jainkoa serbitzeko bizimodu bati, ta ori artu naiagatik, ez berealakoan erabaki, ta ez zere burua, Estadu ori artzera, botoz obligatu, txit ondo kontu eman, ta persona birtutezko jakintsu baten konseju gabe.

8a. Jainkoaren eskuetan daude gure suerteak: andik argi, grazia, ta doai guziak etorri bear dute: baña orregatik ere zer bizimodu salbatzeko bakoitzari dagokion, geienean ezin batek jakin dezake begiz ikusita bezala, edo ebidenziatz; zeren Jainkoak, San Pablok dionez, nai du, «ikara, ta bildur santuaz guk gure salbazioa obratzea, edo irabaztea». Ta ala, Jainkoaren deian, edo bokazioan, ta zuzenbide, edo estadu artzeko puntu onetan, señale, ta milagroak billatzea, edo eskatzea, gaizto da, ta utsegitea: ta are geiago, estadu obero, ta salbatzeko obeto dagokionera, bat inklinazioak daramanean.

Emendik atera, ta ikusiko dezu munduko jendeen engañua: bada, baldin munduko konbenientzia andiren bat, eskura badatorkie estadu sekular, ta peligrosoan izan arren, bertatik, itsuan konseju gabe, berenzat artzen dute, ta besteai akonsejatzen die.

Baña Kristau bat estadu santuagora inklinatua sentitzen bada; orduan konsultak konsulten gañean nai oi dituzte, ta begiz ikusi, edo ebidenziak eskatzen dituzte. Oiek dira arako Salbadoreak, aserratu, ta esan zienen gisa. *Generatio mala, & adultera fignum quaerit, & signum non dabitur ei.* Kristori jarraitzeko, milagroak nai dituzte: ta Kristori ez jarraitzeko, ta munduari laztan emateko, beren gusto, edo gurari bat asko dute.

BIZIMODUA ARTZEKO EJERZIZIOA, BERE KONSIDERAZIOAKIN

Doce me facere voluntatem tuam. Psal. 142.

Jauna, zure borondatea egiten erakatsi zadazu.

Domine, quid me vis facere. Act. 9.

Jauna, zer naizu, nik egitea.

KONPOSIZIO, EDO LEKU EGITEA

Konsideratu gure Jaungoiko guzien Aita txit amorosoa, guri bakoitzari bere doaiak ematen, ta beren inklinazioak, ta banaka bere deiaz, edo inspirazioaz, beren salbazio, ta zeruko gloria alkanzatzeko, zer Estadu, ta bizimodu artu bear duen, bakoitzari señalatzen.

PETIZIOA

Jaungoikoari eskatu bere argi golpe andi bat, zer Estadutan bera serbitzea nai duen ezagutzeko, ta beraren borondate, ta graziaz zu salbatzeko obeto dagokizun bidea artu, ta animo andiaz berari jarraitzeko, bear dezun indar guzia.

LENDABIZIKO PUNTU, TA KONSIDERAZIOA

*Iru gizon mota emen ikusi, edo konsidera itzazu,
edo iru Kristau jenero, bakoitza bere bidetik dijoazenak.*

Batzuek Kristori jarraitu, ta salbazioa alkanzatu nai dute; baña fin ori eragozten dioten gauzaz desegiñ nai eztute, ta ez Jainkoak eraman nai dituen bidean sartu, ta bear diran medioaz baliatu. Oiek dira, osasuna nai duten erien gisa; baña gaitz egiten dien janaria utzi nai ez, ta ondo dagozkien, ta bear diran erremedioak artu nai ez dituztenen gisa.

Bigarrenak ere salbazioa nai dute; baña ez Jainkoak deitzen, ta erakusten dien bidetik, ezpada beren erara. Kristok, lurreko gauzak utzi, ta berari jarraitzea agintzen, edo esaten die; ta nai diote jarraitu, baña munduko gauzai itsatsita daudela. Kristok bide onetatik nai dituela; ta berak leian bestetatik nai dutela: ta ori ona dala ustearekin, engañatzen dira: Jainkoak aien borondateari, ta ez berak arenari, obeditu bear balie bezala.



Oiek arako erien gisa dira, zeñak osasuna nai duten, baña ez Mediku jakintsuak emandako erremedioakin, ezpada berak on dirala adituakin, edo gogoak eman dizkanakin.

Iruugarren Kristau, edo animak egiaz, ta biotzetik beren salbazioa nai dute: oiek erresistenzia gabe, ta gogotik beren borondatea Jainkoari bere eskuetan osorik, ta ezer nai gabe, uzten diote: emen dituzten gauzak, edo iduki, edo utzitzeko, ta Jesu Kristori, berak bere onra, ta gloriarako, nai en duen bidetik jarraitzeko, prest daude: eri beren osasuna nai, ta edozein erremedio samiñ, edo garratzena ere artzeko prest, beren burua Medikuan eskuetan largatzen dutenak bezala.

Iru Kristau mota oietatik lenengo biak gaizki daude Jainkoaren deia, edo bokazioa ezuteko, irugarrenak bai orretako prest daudela: oiek konfia dezakete, Jainkoak bere argi, ta graziai lagunduko diela, ta beren animak salbatzeko bidea agertuko diela. Kontrara lenengoak, Jaunaren borondateari egiten dioten erresistenziaz, peligru txitezko andian dabilta, Jainkoaren borondate, ta deiari eranzun, ta emango zizten sokorruak berak, ukatu, ta beren animak galtzeko.

Sar zaitez orain zuregan, ta begira ondo, iru Kristau modu orien artean, zeñetatik zu zeran. Baldin, Jaunaren graziaz batean, aren borondatea ezagutu, ta Berari jarraitzeko prest bazaude, guzia beraren eskuetan largarik. O zer ditxa zurea! Bada orrela zure fabore, Jainkoa obligatu, ta enpeñaturik daukazu! Bera Piloto izango da zure ontzia gobernatzeko, ta munduko itsasoan porturaño seguru eramateko.

Baña zure borondatea zure erara egin nai badezu, ta Jainkoaren argiak seinalatzen dizun bide, edo errunboa utzi, ta zure gogoz gobernatzen bazera: O zer peligru ikaragarria? Zer inporta da zure animaren osasuna deseatzera, baldin zeruko Medikiak ematen dizkitzun erremedioak artu nai ezpadituzu? Ta zuri ondo deritzuna artu naiagatik, zer inporta da, Jaungoiko, zuri zer obeto dagokizun, zierto dakienari sinisten ezpadiozu?

Itsutasuna da, bidea ezin utsegingo duenari ez jarraitzea: zorakeria itsu bat besteaz gidatzea. Itsua zerala ezagutzen badezu, bada, nola zere buruaz gidatzera atrebitzen zera? Jainkoak ezin utsegin badezake, ta nik, nik nere burua baño geiago amaten banau: baldin nere salbazioa amorio guztiz andiaz deseatzera badu: orretako egin baninduen, ta bere odol proziosoa ixuri bazuen: nola onen deiari, ta borondateari jarraitzen ez diot? Nola onen eskuetan osoro nere anima uzten ez det?

O nere Jaun, ta Jabe! Zeren begira nago? Ona, Jauna nere biotza: Zer naizu nizat? Zer naizu nik egitea? Emen nago prest, zure deiari jarrai-

tzeko. Esadazu, zer naizun: ona nere borondatea prest beti betiko zurea egiteko.

BIGARREN PUNTUA, TA KONSIDERAZIOA

Pensatu ondo, aukera, edo elekzio onen inportanzia: onetan azertatzean, edo utsegitzean, dago gure onik, edo gaitzik andiena. Kondenatzen diran geienak puntu onetatik zeruko bidea utzi, ta infernukoa artzen asi ziran, zeren pekatu askoren peligroetako bizimodua artu zuten, ta birtuteenzat txit gaitza, ta ori Janikoaren borondatea begiratu gabe, ezpada beren gusto, ta interes lurrekoak bakarrik.

Begira bada ondo, bizimodu bata, ta bestea, ta duda orretan, zein konbeni zaitzun. Begira ondo, alde guzietatik gauzak pisatu ta, zure salbaziorako zeñ obeto dagokizun. Ta baldin pasio gabeko konsiderazio argi au ezkeru ezagutzen badet Estadu batera deitzen didala, ta ez besteetara, ori artu bear det, ez besterik. Baldin zenbat geiago, Jainkoaren eskuetan berak nai duen erako, jartzen naizan: zenbat, eta geiago Ama Birjiñari, ta nere debozioko Santu bitartekoai biotz guztik eskatzen dietan, orduan argiroago ezagutzen badet. Jainkoak Estadu orretara, ta ez bestera, nere biotza daramala, ta ikusten badet, nere salbaziorako, bide ori nai duela nik artzea, ta konbeni zadala, ori borondate guziaz artu bear det.

Onela Jainkoak deitzen dizu, ta dei amoroso onetan zure biotzeko konfianza andi seguru bat iduki bear dezu. Onela, bere gloria, ta atsegin andirako, ta zure animaren ditxa, ta zorionerako, zer nai en duen Jaunak agertzen, ta erakusten du: Onela Jainkoaren bozak, ta zure barnengo deiak ots egingo dizu, estutuko zaitu, ta golpez, ta deiez esango dizu, len baño len, ta beingoan munduko kateak urra ditzatzula.

Orduan munduak kontrara deadar egingo du, bere interes, gusto, atsegin ta kariñoaz, oriek ez largatzeko. Baña ezta ansi: ta zuk eranzun bear diozu arako Jesu Kristoren sententzia eragille arekin: *Quid prodest, &c.* Zer, zer baliatuko det, irabaztea mundu au, galtzen banaiz ni nerau?

Esaiozu bada zere buruari: onetan, anima nerea, ez dijoa gutxiago, zu betiko galtzea, edo irabaztea, salbatzea, edo kondenatzea baño. Begira mundu au naizun: ondasun, ta atsegiñak eskeñtzen dizkitzu; baña milla beartzunez, naigabez, ta sustoz beteak daude. Begira nai dezun, ez mundu guzia (ori Erregerik andienak ere ezta) ezpada orren parte txit txiki bat,azienda puska bat, ainbeste kezkarakin gordetzen dana: fortuna labor bat,



ainbeste urte, ta neke alkanzatzea kostako zaizuna, ta burlatu, ta eskuen artetik joango zatzuna.

Begira, lurreko ondasun, geroenean utzi bearrak, beste askok lenago utzi zituenak, nai dituzun. Begira, orrelako ezerezkeria bategatik Jainkoaren borondatea utzi, ta zure anima kondenatzeko zorian ipintzea, onela deritzatzun. Ai! ta zer da au? Zeiñ gutxi zure burua estimatzen dezun, zeruko gloria baño ezer ez lurreko bat geiago estimatzen dezunean! Emen urte, edo egun gutxiren barrenean utziko dezu guzia.

IRUGARREN PUNTU, TA KONSIDERAZIOA

Konta egizu; eriotzako orduan zaudela, ta eternidadearen ateetan zere burua ikusi, ta bizimodua artzeko punta onez akordatzen zerala. Galde zere buruari: orduan zer egin izan naiko zenduke? Nere aragiak orain nai duena? Orduan naiko ote nuke, orain nere andinai, interes, edo munduko erokeriak agintzen didatena? Ez orrelakorik, ta ez gutxiagorik. Zer bada? Orain Jainkoaren dei, ta mandatuak nere biotzean esaten didatena: nai ta nai ez Jaunaren bozak nere biotzean ematen dizkidan golpeak sentitzen, ta aditzen ditut orain.

Ta noiz nago egia esateko, ta nere buruaren konsejari izateko era obean? Kandela triste eriotzaren artan, dan bezala, egia ikustean edo munduko ezerez utsak engañaturik naukanean? O nere Jaun egiazko Konsejaria: zure grazia, ta indarra indazu egiteko orain, orduan seguru naiko dedana, ta ezin egingo dedana! Orain zure borondate, ta deiari eranzun, ta jarraituaz orduan atsegiñ artuko det, zeren ori nere zorionerako dagokidan. Orain, bada, egin dezake danean, bide zerurako au ar dezadan, nere illtzeko zorian atsegin andia bai, ta damurik izan ez dezadan.

LAUGARREN PUNTU, TA KONSIDERAZIOA

Orrez gañera, kontu egizu, Jesu Kristoren Tribunalean arkitzen zerala. Bere Ebanjelioan dio: «an bakoitzaren obrak nola diran, ala amango diola». Bizitzako obra ori, edo gaiztoak Estaduaren elezio, edo aukera onetan geienean daude, edo asitzen dira. Ikustean, bada, zere burua akaballako Tribunal guziz estu, ta justu onetan, zure lengo bizia nola zuzendu izan naiko dezu, zure gurarien, ala Jainkoaren borondatearen erara? Ta

orain esnaten dizun, ta biotzean sentitzen dezun bokazio orren gañean, zer karguak egingo dizkitzu?

Ai! Ta nola esango dizun: Etzera akordatzen, Kristau eskergaiztokoa, nola onelako denbora, ta lekutan, onelako, ta alako desengaño, ta bulkadakin, golperik asko zure biotzari emanion, ta otsegin, salba zindezen, niri jarraitzeko: ta zu gortu, ta sortu ziñan, ez nere deia aditzeko, aitzakiak billatuaz, zure barrengo abisoak, ta ezin burutik kendu zinduen nere mandatuak, orrela aztu erazotzeko? O desdixadua! Uste zenduen nik zure bearra nuela? Etzan besterik, nizaz aztu, ta pensatzea, zuk nai zenduen bidetik, ta ez nik nai nuenetik salbatuko zindudala?

O zorigaiztokoa! Begira, besteak nere borondatea egin, ta irabazi duten gloria: begira zuk zurea egin, ta betiko galdu dezuna. Bazenekien nere esana: «Deitu nizuten, ta otsegin, ta zuek ez jaramon: nere konseju guziak aztu, ta utzi. Bada orain zuen betiko kalteaz farra, butla, ta iseka egingo det». *Vocavi, & renuistis. Despexistis omne consilium meum... Ego quoque in interitu vestro ridebo, & subsanabo.*

Ai nere Jesus maitea, ta orduan Juez aserrea! Indazu, arren, Jauna zure ontasunagatik, orain bear dedan balore guzia zure dei amorosoari eranzun, ta jarraitzeko: ea arren ni utzi, zure zeruko alea nere biotzean ito ez dedin, ezpada zure bendizioz betiko frutua nere animan eman dezala, ta orain egin, beti naiko dedana. Amen.

BOSTGARREN PUNTU, TA KONSIDERAZIOA

Pensa ezazu, zure adiskide andi bat, zere burua bezala amaten dezuna, zeñen salbazioak txit asko deseaten dezun; zu zauden dudan arkitzen dala, ta zu bezalako arrazoiakin betetik, eta besterik, zure osasuna, indar, ta gauza guzietan zure antzekoa, ta zu zerori bezalakoa. Kontu egizu, konseju eskatzen dizula, zer egingo duen.

Zer konseju emango ziñioke, zure konzienzian, ta egiazko adiskidetasun, ta karidadearen legearekin ondo kunplitzeko? Ta orain ondo pisa ezazu, iñori besteri eztiozula zor ainbeste adiskidetasun, nola zere buruari, ta orrik atera, zein zoroa, ta nere animaren etsai izango nintzakean, besteri neronek emango niokean konsejua nerezat artzen ezpadet.



SEIGARREN PUNTU, TA KONSIDERAZIOA

Begira ondo, ta kontu egizu, esaten dizutela, nola ondasun, edo errenta andi batzuek zuri datorkez, ta beste interesatu batzuek zure justizia, ta deretxoa, nastu, ta kendu nai dizuten. Zure alegin guziak bereala etzinduke egingo? Edo beñ asi, ta utziko ote zenduke geroko, ainbeste inportatzen dizuna aztuaz, ta Juez orain faborezitu nai zaituztenak, zure nagitasunaz aserratu, ta zure kontra biurtu arteraño?

Bada sinista ezazu, Jainkoaren deiak zure salbazioko kamio seguruetik deitzean, zeruko zure Aita onak ango gloriaren maiorazgo, ta ondasunen eman dizun deretxoa, bizimodu santu onetatik, agertu zazula. Nor bada ain zoro izango da, bertatik deretxo ori aseguratua naiko eztena? Nola aini itsu izango zera, demonio, mundu, ta aragiari sinistu, ta zure betiko ditxa ori galtzeko?

Esango dizute, bai: bizitza onetako ondasunak ez ditzatzula utzi, edo galdu: zure aide, ta adiskideaz akorda zaiteala; baña zu zure fedeaz akorda zaite, beste gazteari Jesu Kristok zer esan zion: onek Kristori jarraitu nai zion; baña lenago bere Aita iltzana enterratu nai zuen: *Sinite mortuos sepelire mortuos suos*. Larga, esan zion, larga, munduan: illen gisa bizi diranak, illen kontu ar dezatela: zuri bakarrik tokatzen zatzu, nere deiari eranzun, ta zure bizi betikoa seguratzea.

Esango dizute, bai: edolarik puska bat etxedeteko, eta ona gero ere izango dala. Baña zuk enzun bear dezu, zure Salbadoreak diona: *Ambulate dum lucem habetis, ne tenebrae vos comprehendant*. Egu argia dan artean, Jainkoak bidea agertzen duen artean, obe da orain jarraitu: geroko utzi, ta biotza illundu diteke, ta bidea utsegin, ta ezin arkitu.

Kristoren boza aditu, ta Apostoloak bereala jarraitu zioten: ta Zebedeoren semeak: *Relictis retibus, & patre, sequuti sunt Dominum*: arrantzako Sareak, ta beren Aita utzi, ta bere bereala jarraitu zioten. Ta jarraitu ezpaliote bereala, nork daki, sare orietan nastu, ta gero jarraituko zioten? Nork daki, itsasoan oriek botatzean, orien ondoren ondatuko ote ziran?

O! Ta zenbar ikusten dira, lasterkako eriotza zorigaitzoko batekin akabatzen, Jaunaren bokazioa geroko utziagatik! O! Ta zenbat galdu dira sekulako, Jaungoiko deitzen zienari gortuaz! Uste zuten beti otsez egongo zitzaie; baña Jainkoaren aurrean munduko guziak auts piska, ezerez bat dira, ta iñoren bearrik ezte: orrelakoai deiez egon, ta kansatu, ta utzi egiten die, abere gogorrai bezala, beren deseoen ondoren dijoazela. Ta

zuk nere anima zer diozu: *Si aliquando, cur non modo?* Gero animatuko zera-la badiozu; zergatik ez bertatik? Nork daki gerorik zuretzat izango dan? Nork daki gero erarik izango dan? Munduko ondasunak utziko zinduke geroko? O zorakeria! Ta zure salbazioa peligro onetan naizu utzi? A! Orain egiten ezpadezu, bearbada sekulan iñoiz egingo eztezu. *Si non modo, fortasse nunquam.*

KOLOKIOA

O nere Jesus maite, egiazko adiskide bakarra! Zu bakarrik zera Bidea, Egia, ta Bizitza, niri zeruko Bidea erakusteko, ta Bizi egiazkoa emateko ill ziñana. Zure amorio guziagatik, zure Pasio, ta eriotzagatik, indazu arren, Jauna, zure Egia, ta borondatea ondo ezagutu, ta animo eragille batekin, ta nere biotzeko gogo guziarekin jarraitzeko zure borondate ni salbatzeko dezunari, zure onra, ta gloriarako, ta nere animaren onerako. Amen.

AMA BIRJIÑARI KOLOKIOA

Nere Ama Birjiña guziz Santa, ta pekatati penitente guzien Ama gozoa. Zu artizar, edo Norteko Izar eder argia zera, munduko itsaso illun onetan galtzeko, ta ondazeko zorian dabilzan animena. Ezta sekulan aditu zugana biotz onez darorrenik galdu dala. Arren bada alkantza zadadu zure Seme, nere Jaunagandik orain bear dedan argia, ta grazia, aren borondate santua bakarrik billatzeko, ta arkitzeko, ta berak nai duen bide-tik zure anparoran, biotz osotik jarraitzeko, beraren, ta zure gloriarako. Amen.



ESAMEN KONZIENZIAREN EJERZIZIOA

Aita S. Ignaziok lendabiziko astean bereala Examen modu bi ematen ditu, Ejerzizio oiek egiten dituenak bere animako loi, edo pekatuen mantxak ondo billatu, begiratu, ta garbitzeko. Batari Esamen partikulara, ta jenerala besteari deitzen dio.

Esamen partikulara da bizio bakoitzaren kontra banaka peleatzeko modua: ta au Jainkoak A. S. Ignaziori, besteri ez bezala, erakutsi zion: ta bakoitzari obeto bere Aita espiritualak erakatsiko dio. Orain beste Esamen pekatu guziena, edo jenerala esango degu.

ESAMEN JENERALA, BERE BOST PUNTUAKIN

Esamen au, A. S. Ignaziok eman zuen bezala, dio Maisu andi Aita Luis Puente beneragarriak, nik ikusi dedan gauzarik probetxosoena da, ta Kristau suerte egitezat, orazio egiteko modurik onena.

Ejerzizioetako Santuaren textoak dio onela: Esamen jenerala egiteko modua: ditu bost puntu,

1. puntua da, Jainkoak egin zizkizun benezioen eskerrak, edo graziak berari ematea.
2. da, egin dituzun kulpa, edo pekatuak ezagutu, ta kentzeko, grazia berari eskatzea.
3. jaiki ziñan ordutik onaraño zure animari kontu artzea: ordutik ordura, edo denbora batetik bestera, lenengo pensamentuen, gero itzen, gero obren gañean.
4. Jainkoari zure falta, edo kulpen barkazioa eskatzea.
5. Beraren graziaz emendatzeko propositua artzea. *Pater noster*.

KONFESIO JENERALA, EDO PARTIKULARA ONDO EGITEKO, INSTRUKZIO, EDO IRAKASDEA

Modu bitan da Konesioa. Baldin azkeneko konfesiotik onara egingidako kulpak konfesatu nai, edo bear badituzu, deritza *Konfesio partikulara*.

Baldin bizi guztiko kulpak, edo urte, ta denbora askotakoak konfesatzen badituzu, deritza *Konfesio jenerala*, edo kulpa guziena. Au egiteko, edo ondo prestatzeko, beste obra onetan bezala, emen jru gauza bear dituzu.

1. JAUNAREN GRAZIA. 2. DENBORA. 3. DILIJENZIA

1. Jaungoikoaren grazia beti prest dago, ta pekatutik beregana gu biurtzea, ta salbatzea nai du. Argia, ta grazia berari eskatzea kostako zatzu, esango dan bezala.

2. Denbora. Konfesatzera baño len, zenbat denbora bakoitzak bear duen, ezin guziaz batean esango zaie. Nola dan bakoitzaren konziencia, bizimodu, ta beste orrelakoak ondo ikusi, ta zer denbora bear dezun, zure Aita Espiritual jakinsuak obeto esango dizu.

3. Dilijenzia, edo zure ekin naia. Ezin dan, edo inposiblerik gure Jaungoikoak agintzen ezta: gure partetik alegiña egitea, bai, ta ez besterik, edo geiago. Nola munduko egiteko, edo kontu andi batean bere alegiña bakoitzak bere aldetik ipintzen duen, ondo egiteko: ori bera, ta ez geiago, Jaunak zuri eskatzen dizu. Badakizu, zeñ inportanzia andiko gauza dan zure animaren salbazioa, ta zer alegiñak eskatzen dituen. Baña an ezta guzientzat berdin, edo era batean; ezipada, nola dan bakoitzaren buru, edo kapazidadea, ta gaia, bere partetik ondo prestatzeko.

Penitenziako Sakramentua ondo arteko, ta kulpa guzien konfesio jeneral on bat egiteko, Ejerzizioetan, edo bestela, leku on bat billatu bear dezu: erretiro, edo bakartasunak asko laguntzen du. Emen, Jainkoaren argiaz baliatzen zerala, zure memoriaz, adimentu, ta borondateaz jardun bear dezu. Memoriaz zure pekatuaz akordatzeko, adimentuaz, oriek ezagutu, ta ondo pisatzeko, ta borondateaz orien damu, ta gorroto al dezun andiena, propositu txit bizi, eragille, sendoenaz zure biotzean artzeko.

Badakizu, pekatu guzien konfesio andi au askorenzat dala gauza txit bearra. Len konfesio gaistoak, dakitela, egin dituzten guziak, salbatuko badira, konfesio jenerala egitera daude obligatuak. Konfesioak gaizki egiten dira 1. zeren kulpa graberen bat, edo asko bildurrez, lotsaz, edo bestela berariaz, jakiñaren gañean konfesatu gabe uzten diran, edo gezurra orietan esaten dan. 2. zeren baten kulpaz, edo nagitasunez, bear dan esamen konziencia oia egiten ez dan. 3. zeren bear dan dolore, ta propositua eramaten ez dan.



Propositu au geienez falta zaie, besterekin pekatuan, edo orren bide, ta okasioan sartu, ta daudela, konfesatzen diranai, edo gorrotoetan gaizki bizi diranai, besteren azienda, edo onra galdu, edo kendua biurtu bear, ta dezaketela, biurtu nai ez dutenai, ta onela besteai. Oiek, bada, salbatuko badira, lenengo gaizki konfesatu ziranetik onara, egin bear dute pekatu guzien konfesio jenerala.

Beste askorenzat ezta añ bearra, ta ez premiazkoa. Baña len konfesio jenerala egin ez tuenarentzat, da konseju txit probetxu andikoa, ta Jainkoaren aurrean irabazi andia dakarrena; zeren lotsa, damu, ta propositu geiagorekin kulpa guziak era barera konfesatzen diran. Da frutu, ta konsuelo andiko gauza, bizitza berri on bat, ta eriotza pakezko bat egiteko. Askok urtean beñ urteko errebista bat agintzen dute. Beste askok illoro erretiroko egun bat artu, ta illoroko konfesio jenerala, frutu andiaz egin oi dute. Aita espiritualaren esana zuk egizu.

ESAMEN AU EGITEKO MODUA

Leku on batean bakarrik sartu, ta are geiago bakoitza bere biotzeko bakartasunean, bear duen denbora artu, ta bereala Jainkoari erregutu, ta bere grazia Esamen au ondo egiteko eskatu bear dio, era onetan.

ORAZIOA

O nere Jaungoiko guztiz ona, ta miserikordiaz bete! Ona, Jauna, ni pekatari galdu bat, gero ere erremedioaren billa zugana biurtzen naizana. Zure ontasunak nai du, ta agintzen dit, nere biotz guztik zugana biurtu nadilla. Biurtu nai det, bada, nere Jabe bakarra. Baña nik nerez, edo zu gabe, ori ere ezin det. Zure biotz amorosoak nakar, ta zure grazia aurea artzen dit.

Betor, bada, Jauna, zure argia: indazu zure eskua, agintzen didazuna ondo egiteko. Ai! Ta zeñ gaizki joan zadan, munduaren ondoren ibilli naizanean! Ai zer baje luze, ta urrutia! Ai! ta Zugandik joan ezker, zer kalte gorriak nere animak ikusi dituen! Alere guziak zure graziaz erremediatu nai ditut.

Aita Eternoa: ez arren begiratu nere pekatuari: begira zure Seme Jesu Kristoren arpegi ederrari: ori ikusi, ta zure justiziaren aserrea gozatu, ta

zurekin nere artean pakeak egin ditzagun. Jesus zure Seme maite zuk bialdua da Artzai ona, nere animaren billa ibilli zana: ona bada, Jauna, ni ardi galdua bere Artzai amorosoaren deia aditu, ta zugana biurtzen dana. Zure piedade guztiaz, arren egiazko penitenziara biur nazazu Jesu Kristo zure Seme, ta gure Jaunagatik. Amen.

Birjiña Ama miragarria, Jesus onaren, ta argana konbertitzen diran pekatarien Ama gozoa. S. Josef, nere bitarteko maitea: zuen Jesus aur gozoa galdu, ta aren billa, Jerusalem arkitu artean ibilli ziñateneko, zuen biotzetako dolore andi argatik, eta ura arkitu, ta zuen animak artu zuten pozagatik: arren lagun zadazute, nere biotz guztiaz Jainkoa billatzen, ta nere animan diran kulpa guziak, ondo konfesatzeko, biribillatzen, ta nere Jaunaren egiazko pake, ta amorioa betiko arkitzen. Amen.

Aita Eternoa: Zure Espiritu Santuaren graziak nere sentiduak, eta biotza, Esamen, ta konfesio onetan argi ditzala, zure Seme Jesu Kristo gure Jaunagatik. Amen.

Onela Jainkoari, ta Santuai deituaz prestatu bear dezu, Esamen konziaren asitzeko. Baña puntu onetan askoren desalari, edo bildur geiegia kenzeko, ta Esamen onetan pekatuak errazago arkitzeko erregla jakin seguru batzuek ar itzatzu.

ESAMEN AU ONDO EGITEKO ERREGLAK

1 Erregla. Bere denbora artuetan, leku onean jarri, ta aldizka Mandamentuen ispillu garbia begien aurrean iduki bear du, ta or bere animari ondo begiratu, Jainkoari eskatuaz, bere pekatuak burura ekarri dizaizkala, diranak diran bezala. Ta onela Mandamentu bakoitzean bere konutuak atera bear ditu, zertan, zenbat bider, ta nola orien kontra utsegin duen, obraz, itzez, ta pensamentu, edo deseoz.

2a: Bizi guztiko konfesioa egin nai duenak, bere kulpak errazago gogora erakartzeko, bere bizitzako pausoai jarraitu bear die: zazpi urte zituenetik asi, ta amabi, edo amalauraño: emendik ogei urtetaño: ogeietatik ogei ta amarreraño, edo ezkondu, edo beste estadirik artu arteraño: eta orrela orain dituen urteetaraño. Ta begirada au egin bear du, len bizitu zan erriaz, ibilli zan bideaz, iduki zituen ofizio, edo bizimoduaz, ta orietan izan zituen lagun, ta adiskideaz, ta iduki dituen bizio, ta griña gaistoaz.

3a: Mandamentu bakoitza onela igaro bear du: ta bere alegiña egin ezker, pekatu geiago arkitzen ezpadu, soseguz geratu bear du, ta ez geie-



gi bildurtu. Jainkoak pakea nai du: badaki gure memoriaren argaltasuna: batek nai eztuela, pekatoren batzuek aztu badira, oriek ere barkatzen dira: ta gero, akordatzen bada, oriek konfesatzeko obligazioa orduan du.

4a. Esamen onetan nastutzen diranak, ala beren pekatudia andiagatik, nola zenbatezko, edo numeroagatik, ezin seguratu diranak, esan bezate zenbat denboran bizimodu, edo kulpen oitura gaistoetan egon, edo ibilli ziran, ta orrela beren kontua arera bezate, GUTXI GORA BERA, egunoro, asteoro, illoro, edo asteka bata bestearekin: edo konfesio bakoitzean bata besteaz: ta Konfesoreak lagundu, ta txit ondo konfesatuko dira.

5a. Kristau fede, ta borondate onezkoenat, konsuelo andiko erregla au jakizu. Memoriaren faltaz konfesio gaistorik ezta egiten, ta ez alde onetarik inor kondenatzen, ez bada bakarrik borondatearen faltaz, edo kulpaz. Penitenziaren Sakramentu, edo Konfesioak inor obligatzen ezta, ez bada bakoitzak konzienzian senti duena, ta senti duen moduan, esatera: ori egin, ta gero utsegiten badu, edo, berak nai eztuela, aztutzen bazaio orregatik Konfesio ona da.

6a. Pekatuak esan bear dira, ziertoak ziertotzat, dudakoak dudan. Baldin duda badu, egin zituen, edo ez, konsentitu, edo leku eman zien, duda orretan ipiñi bear ditu. Gauzaren bat pekatu etzalako egin badezu, ta gero irakurri, edo enzunaz jakin, pekatu dala; orregatik len pekatuak etzenduen egin, non, ta berariaz, zure kulpaz ez jakite ori izan etzan. Kontrara: gauza bat pekatutzat zeneukala, edo dudan, pekatu ote zan, egin bazenduen, zuk pekatu egin zenduen berez pekatu ez bazan ere: ta ala konfesatu bear dezu. Baña berez pekatuak ezta ezertan, borondateak nai artean. Burura etorriaren gauza itsusiak, edo Fedearen, ta Mandamentuen kontra, borondateak nai ezpadu, ezta pekatuak.

7a. Gogoratzen dira pekatuak mundu onetan, bigarren Mandamentuan, ejenplotzat: onelako denbora, ta lekutan zortzi gezurrezko juramentu: alako bizimodutan amabi: bestean amar. Baña konfesioan eztira orrela banaka konfesatu bear; ezpada alkarren antzeko guziak alkarri erantsi, ta batean esan bear dira: gezurraren gañean ogei, ta amar juramentu: ta erregla au berau beste pekatuetan.

8a: Esamen onetan gero datorren Instrukzio, ta Galde, edo preguntetan dauden gauza asko noiz, ta nola pekatu diran, mortal, edo benialak, Konfesore jakinsu, oitu, edo praktikoak bear bezala esango dizu: ta Esamen au ondo egiten erraz berak lagunduko dizu. Karga au asko arintzen da bakoitzari dagozkion galdeekin: ta Konfesoreak bakoitzari esango dio zenbat egun, edo denbora egunoro bear duen, ta nola Esamen au, bear bezala, egin dezakean.

9a. Pekatu benial, edo ariñen preguntak emen egiten eztira, zeren oriek gauza bear, edo konfesorako premiazko materia, edo gaia ez tiran, ezpada batek, nai badu, bere borondatez konfesatzeko.

10.a: beren debozioz konfesio jenerala, obligazio gabe egin nai dutenak, beren eskuan daukate, utzitzea, konfesatu, edo esan gabe, utzi nai dituzten pekatuak, diran itsusien, ta andienak izan arren ere, zeren len ondo konfesatuak dauden.

DAMU, EDO DOLOREAREN GAÑEAN

Damu onek biotzekoa izan bear du: ta dolore au eztago negarrak egitean, ta ez biguntasuna sentitzean: askotan, ta arrazoi andiarekin biotzeko doloreak negarrak kulpagatik eragiten ditu: ta ori gauza ona da. Baña pekatuen dolore au animan barrengo gauza da, ta berez animan dago, eta da beti biotzetik damutzea Jainkoa ofendituaz, zeren bera añ ona dan, ta Ontasun guztia, ta fin gabea, gure amorio guzia merezi duena, ta amoriorik andienaren diña. Ta Jainkoaren amorio santu au da, ta deritza AKTU KONTRIZIOZKOA.

Edo ta dago pekatuak bati damutzean, zeren oriez infernuko penak merezitu dituen, edo oriez zeruko gloria, ta Jainkoaren arpegia ikustea galdu duen: edo fedez pekatuaren itsustasuna ezagutu, ta gauza añ nazkagarria zeren ikusten duen: ta AKTO ATRIZIOZKOA da au, ta propositu firmeaz batean, konfesio on bat egiteko asko da au.

Orregatik ere, arrazoi andia da, ta alde guzietatik seguruago Jainkoaren amoriora biotza esportatzeta, ta amoriozko damua idukitzea. Eriotzaren orduan alegiña egin bear da, amorio santu au idukitzeko, ta gure Jaungoikoa gauza guzien gañean amatzeko, ta guztiak baño geiago, ta diranak lenago galdu, Jainko guziz ona, ta maitea ofenditu baño: zeren gauza guziaz baño Jainkoari geiago nai diogun. Amoriozko damu, edo ejerjizio onetan, Kontriziozko aktu askorekin oitu zaite bizitzan, errazago ori egiteko eriotzan.

PROPOSITU EGIAZKOAREN GAÑEAN

Puntu onetan deabruak bere gezurrakin kalte andiak animai ekarri oi diezte. Ara nola. Penitenziaren Sakramentutik, edo askotan, ta ondo kon-



fesatzetik atzeraerazotzeko osasunan, ta eriotzako orduan, guztia al badu, galerezotzeko, buruan sartzen die, txit gaitz dala, ta ezin izango dan gauza bezala, egiazko propositu au idukitzea, ta bizitza emendatzeko bear dan gogoa.

Egia da, bat, bere buruari, edo argaltasunari bakarrik begiratu, ta Jaunaren graziak lagundu gabe, deabruaren tentazioetan erraz eroriko dala. Baña gure proposituak bere firmetasuna eztu gure izate, edo naturalezan; ezpada Jainkoaren graziako indarrean. Grazia au beti prest dago, guk nai degun guzian guri laguntzeko. Ta orra nola deabruaren gezur, ta engañoa agertzen dan. Zuk egiten dezu zure bizitza emendatzeko propositu firmea? Bada orduan bertan zuk ezagutuagatik, argala bezala, eroriko zerala, edo gaizki oitu, ta deabruaren tentazioai leku emango diezula; orregatik ere zure propositua izan diteke firmea, zeren pekatu nai ez dezun.

Propositu au dago, bada, zure biotza orañ firme, ta sendo, Jainkoa ez geiago ofenditzeko, egotean, ta ez pekatuaren bide, edo okasioan zu sartzeko, ta orrelako bide, peligro, edo tentazioetan arkitzen bazera, zure Jaungoikoari, beraren graziarekin leial izateko: ez zugar, ezpada beragan konfianza daukazula. Ta au da, zuk bear dezun propositua. Onetan zu firme zaude, ta Jainkoaren graziak gordeko zaitu beti.

DOLORE, TA PROPOSITURA BIOTZA MUGITZEKO, BERARIAZKO KONSIDERAZIO LABURRAK

1. Konsideratzea Jaungoikoaren Ontasun geiegia, ta neurri gabea: nola dan gure Aita, gu beretzat egin ginduen: gure Salbadorea, bere tormentu, pasio, ta eriotzarekin gu erredimitu, edo erosi ginduen: bere grazia eman ziguna, ta bere gloria eman nai diguna, ta bere Biotzeko amorio guztiarekin. Ta ontasun onen, ta ondasun oien paguan zer biurtu diozu zuk? O pensamentu triste! Jaun ori bera Gurutzean berriro josi, ta ill dezu beste ainbeste bider, nola pekatua zuk egin dezun. Seme batek bere Aita guziz Santu, ongille amoriozko, beti on egiten zegokiona, ill balu: beregan biurtu, ta zer pena, zer damua artuko luke, bere Aita illaz? Bada ori bera zuk.

2. Kosideratzea, edozeñ pekatu mortal, zuk añ erraz egiñaren pisutasun andia; bada zeruko gloria galdu, ta infernuko penak merezi ditu.

Begira atsegin itsusi baten laburtasuna, edozeñ kulparen torpeza: zeñ frutu gutxi, ta zenbat gaitz ikarragarri da

kartzien. ilegira, zeñ nazkagarria zure anima, len au zierra, urziduen, bizirik infernuau bazeunde baza b: ta an oraa bano, len egongoktñian, enotzak orrela arrubazindu, ateo, zu bafio utre, ta pekatu gutxiagorekin, kant intzrnuau dauden bezala. O! ta zer zoïdiozu Jainkoari ontasun, ta piedade

3. Konsideratzea gure Jestr's maitearen milerikordia, ta zianal baño andiagoa: eta nola onen amorio, ta merituak, fin gabe geiago, ta andia o diran gure pekatu, ta desdixta guziak baño: nola bere eriotzatekiu nzre kulpak pagatuzituen txit ugarro: nola orijin barkazioa nik eskatzea baño ere, berak niri barkakzea naiagodu, nola ni salbatzea bktak naiagodu, ta orreraroko beLak nui aurea artzen didan, argia, ta esuea salbat, ko sokotru guzijiin emanaz: nola, ta zeñ erretnedio erraza P enitenziaeo Sakramentu onetan emandidan, baño sa, gradu batean bezala sartzeko, ta betari Konfessore baten ozeraiak akre kulpak zian, ta orien mantxak garbitzeko, ta zeruko nere Aita gozoarekin sekulako pakeak egiteko. O ditxa paregabe! Zerequim miferikodia, ta amorfo au pagarukodiozu?

Zoaz bada bereala beregana, ta Ebanjelioko Seme galdua bezala, zure Aita onaren aurean etzin zaite, zure lotsa, ta are geiago, zure amoriozko damu, ta propositua erakusteko, ta esaiozu biotzetik:

Nere Jesu Kristo jauna, Jainko, ta Gizon egiazkoa: Nere Kriadore, ta Redentorea: Zu zeranagatik ta zeren amaten zaitudan gauza guzien gañean: damu det, Jauna, damu det biotz guztitik, zu ofenditu izanaz, propositu firmearekin ez geiago pekatu egiteko, zu ofenditzeko bide, ta okasio guztietatik apartatzeko, konfesatzeko, ta ematen zadan penitentzia kunplitzeko. Eskeñtzen dizut nere bizitza, obrak, ta nekeak nere pekatuen satisfazioan. Ta nola eskatzen dizudan, ala konfiatzen det zure ontasun, ta miserikordia infinitoan, zure odol prezioso, pasio, ta eriotzaren meritoagatik barkatu dizkidazula, ta grazia emango didazula emendatzeko, ta zu serbitzen eriotzako orduraño perseberatzeko. Amen.

Orazio oni AKTU KONTRIZIOKOA deritza, ta txikitatik guztiak ikasten dutena. Biotzetik, ta ondo pensaturik egiten bada, Orazio mental al datekean ederrena da, Jainkoaren gloria andikoa, ta animaren probetxu guztizkoa. Kristabak ala bizian, nola eriotzan bearren dituen birtuterik nobleenak beregan enzerraten ditu: nola diran Fede, Esperanza, Karidadea, edo Jainkoaren gauza guzien gañeko amorio: propositu, humildade, konfianza, eskaria, on guzien deseok. Orazio guziz bearra, ondo konfesatzeko, ta Jaunaren grazian bizi, ta illzeko.



Egizu bada al dezun guzian, goizean, ta arratsean, Eleizara zoazenean, ta zure desdixkaz, pekaturen bat egin dezula ezagutzean. Baña kontu egizu beti biotz guztitik, Jaunaren aurrean asko merezi nai badezu. Kontrizioa, edo amoriozko damu au berez dago itz, edo afekto onetan: «Nere Jaungoikoa: zeren Zu añ ona zeran, ta zeren gauza guzien gañean amaitzen zaitudan, damu det, Jauna zu ofendituaz propositu firmearekin ez geiago zu ofenditzeko». Borondate onetan dago, ta au da amoriozko dolore, edo Kontrizio egiazkoa, pekatu guztien barkazioa merezi duena.

Orañ Mandamentuen galde, edo preguntak.

LENENGO MANDAMENTUAN

Eskola dutenak, Libru askotan daukate Esamen au egiteko modua. Irakurten ez dakiten Euskaldunai, dakien batek irakurri, ta ori errazago egiteko bidea nik eman nai det.

Mandamentuetan, zierdo ez dakienak zenbat bider pekatu egin duen, bere modura esan bear du: ONENBESTE BIDER GUTXI GORA BERA: ta g. g. b. letra oiek ori esan nai dute.

Bizi guztiko pekatuak billatu nai dituenak, oso arrazoiezkotik asi bear du pregunta bakoitzean.

Esamen onetan galde zere buruari, Jainkoaren Legea, ta Doktrina, edo jakin bear ziran gauzak, bere denboran ikasi zinduen, edo ez: ta zure ume, edo kontukoai erakatsi ziñiozkan, edo ez.

Fede, Esperanza, ta Karidadearen aktoak egin dituzun.

Fedeko gauzen kontra ezer sinistu dezun, ezaguturik Fedearen kontra zala: oartu ezkerorrelako pensamentu, edo dudari lekurik eman dituzun. Baña tentazioak nai eztezula, burura etortzea, ezta duda, ta ez pekatu kentzeko alegiña zuk egiten badezu.

Ametsetako gauzetan, sorginkeria, edo orrelakotan sinistu dezun, edo orrelakorik egin, edo eragin.

Jainkoaren miserikordiaz desesperatu dezun.

Jaungoikoaren, Ama Birjiñaren, edo Santuen kontra aserratu, edo blasfemiarik esan dezun.

Madarikaturik, edo eskomikaturik egon zeran.

Konfesio, edo Komunio gaistorik egin dezun, pekatuak berariaz, edo lotsaz; edo bestela utziaz, dolore, edo proposituaren faltaz, ta zenbat konfesio gaisto urtean izan diran.

Penitenziak kunplitu gabe utzi dituzun, ta zenbat bider g. g. b.

Urteoroko Konfesioa, edo Pasketako Komunioa utzi dezun. Ta Konfesio gaisto, ta Komunio sakrilegoaz, edo gaizki egiñaz Eleizarekin kunplitzen ezta.

Sakramenturik, nola dan Ezkontza, edo besterik, pekatu mortalean zaudela, artu dezun.

Boto, edo Promesa Jainkoari, edo Santuai egiñik kunplitu gabe zure kulpaz utzi dezun.

Besteen debozioaz, birtutezko obra, ejerzizio, edo obra onaz, edo orietan dabiltzanaz burlarik egin dezun.

BIGARREN MANDAMENTUAN

Juramentu falsorik, edo gezurraren gañean egin dezun: zenbat g. g. b. Ezerezen gañean, edo ezer inporta ezagatik, Juramentua gezurrarekin dan guzian, beti da pekatu mortala.

Dudan, edo ala zan, edo ez gauza jakin gabe, dudaren gañean zier-totzat juramenturik egin dezun.

Erreparo gabe, naiz gezurra, naiz egia dala, juramentuak egiteko oitura, edo kostunbrerik izan dezun.

Gaitz andiren bat iñori egiteko, ta kunplitzeko intenzioaz juramentu egin dezun. Gaitz egiteko intenziorik ez bazan ere, beti da pekatu mortala, zeren gezurrarekin dan. Gaitz andi, edo pisua da bofetada bat ematea, ta beste gaitz andiagoak.

Pekaturen bat ez egiteko, edo obra onen bat egiteko juramentu egin, ta autsi dezun, zenbat bider g. g. b. Gauza txikien gañean juramentua ausitza, pekatu beniala da.

Pekatu mortalen bat egin duela, bere burua alabatzea, edo egingo duela esatea, naiz egia, naiz gezurra dala, beti da pekatu mortal, orren gañean juramentu egitea: ta kunplitzea gero da beste pekatu mortala.

Justiziaren aurrean juramentu falsorik egin dezun, edo besteri eragin dituzun: ta iñoren kaltean zan.

Juramenruak berez nola diran, ta zer itz modu juramentu diran, edo ez diran, Konfesore jakinsuak bakoitzari ondoena esango dio.

Juramentutzat itzen batzuek artu, edo iduki badituzu, ta gezurras esan, edo dudan, orrela konfesatu bear dituzu: ta geroko jakin ondo, juramentu noiz diran.



IRUGARREN MANDAMENTUAN

Bearrik, premia gabe, Igande, edo Jaietan egin, edo eragin dezun. Festetan, nezesidade gabe, bear egitea, beti da pekatu. Noiz dan beniala, edo mortala, Konfesoreak esango dizu.

Jai egunetan zure kulpaz Meza utzi dezun, edo besteri enzutea eraragotzi diozun. Batek uste bazuen Meza izango zala, ta alegiña egin, ezta kulpa, ez arkitzea.

Meza galtzeko peligroan zure kulpaz, egon zeran.

Bidezkoai, aur txikidunai; ta Eriakin daudenai zer egin bear duten, Konfesoreak esango die.

Mezaren parte andian itzketan, batera bestera begira egon zeran, edo orrela besteri eragin diozun.

Garizuman arraulza, edo esne gauzarik, Bulda artu gabe, jan dezun: ta artzeko intenzioa ezta asko.

Ogei ta bat urte kunplitu ezkeru, Elizako barau egunak gorde dituzun. Primizia, ta Amarrenak, bear bezala, pagatu dituzun.

LAUGARREN MANDAMENTUAN

Onetan umeak Gurasoai zor diozkate *Amoriora*, *Errespetoa*, ta *Obedientzia*. Begirezazu bada, ondo, oien kontra gauza pisu, edo anditan faltatu dezun: begira ondo zure denborako obretan, itzetan, ta beste moduetan nola, zertan, ta zenbat bidet g. g. b. utsegin dezun Jainkoaren Lege onen kontra.

Gurasoen izenean emen aditzen dira Gurasoen ordeko guziak, ta Nagusi, Etxekoandreak.

Orrelakoen Testamentu, ta Mandak, zure kontura daudela, kunplitu gabe utzi dituzun.

Emen Gurasoak, orien ordeko, ta Nagusi, Etxekoandreak begiratu bear dute beren obligazio andiai nola eranzun dien: umeak, edo beren kontukoak nola azi dituzten, ala dotrinan, nola oitura, edo kostunbre onetan, ta Jaunaren bildurrean. Edo gaitzerako biderik ejenplo gaizto, edo eskandalorik eman dien. Edo beren denboran estadia eman dien, edo ori ondo, ta pekatu gabe, artzeko bidean lagundu dien.

Jokoan, tabernan, edo bizioetan etxerako bear zana galduten, edo etxean bizi gaistoa eman duten.

Bere buruari, edo besteri eriotza, edo gaitz andirik deseatu dion: edo iñor ill duen, eritu, makilladarik eman, edo beste gaitzik egin, edo deseatu, zenbat b. g. g. b.

Iñor itzez bere arpegian gaizki tratatu duen.

Aserre aldi, edo okasiorik billatu duen, edo orrelakotan arkitu dan; edo pekatu mortalean dagoela eriotzako peligrotan, edo okasioan sartu dan.

Iñoren gaitz andiaz bere biotzean atsegin artu duen, edo iñoren onaz damurik izan duen.

Diosala, salba, edo itza aserrez iñori ukatu dion.

Corrotorik biotzean iñoren kontra iduki dezun.

Madarikazio, edo maldiziorik iñori bota diozun. Jan, edanean geiegi zure osasun, edo buruaren kaltean, ezaguturik sartu zeran: ta guzian, zenbat b. g. g. b.

Aurrik galtzeko, edo abortoren batean kulparik izan dezun.

SEIGARREN, TA BEDERATZIGARREN MANDAMENTUAN

Emen begiratu bear dezu, zer pekatu egin dituzun, pensamentuz, itzez, eskuka, ibilleraz, ta obraz; ta zer personakin, edo zer estadutakoakin, ta zenbat b. g. g. b.

Esan bear diran estadiak dira: 1. Libreak ziran. 2. Ezkonduak, edo katibu zeudenak. 3. Jainkoari konsagratuak. 4. Zure aideak, laugarren gradutaño: edo bestearen, zeñarekin pekatu egin dezun, bigarren gradutaño. Ta ezkondua bazera, zure gizon, edo andrearen aide zan, ta au laugarren gradutaño. Besterekin pekatu egin ezkeru, oiek dira esan bear diran estadiak.

Pekatu guzietan zure estadia esan bear dezu: libre ziñala zenbat, ezkondu ezkeru zenbat: boto, edo juramentu onetan pekatu ez egiteko, ezkeru zenbat.

Leku sagraduan onelako pekatu egin dezun.

Pensamentu loietan atsegin artu dezun, edo ezagutu ezkeru, zure artean atsegin atrazen egon zeran.

Gogoz, edo deseoz orretan konsentitu dezun: «Nik onelako gauza, edo gusto egingo nuke urliarekin». Ta esan bear da estadia, ta zenbat b. g. g. b.

Pekaturako iñor billatu, edo tentatu dezun, ixill mandatu, erregalo, billete, edo beste baliatuta.

Orrelako bide, edo pausoetan iñori lagundu diozun, edo pekatuen estalki, edo infernuko mandatari izan zeran.

Itz desonestorik esan dezun, atsegin artzen, edo besteri arterazotzen diozula: ta anbat da, konturik kontatu, kanta edo danza, edo karta torperik egitea: Koplarik eskribitu, bialdu, artu, edo irakurri dezun, &c.



Pekatu egiñaz iñoren aurrean zere burua alabatu dezun, edo orrela bere pekatuaz alabatzeko iñori biderik eman diozun.

Pekaturik asmatu, edo egin bazindu bezala kontatu dituzun.

Pekatu ez egiñaz, damutu zatzun: guzian zenbat b. g. g. b.

Obrazko pekatu, ta orien okasioaz kanpora, begirada torpe, eskuka, musuka, edo ibillera orrelakorik izan dezun: personen estadia, ta zenbat b. g. g. b.

Zere buruarekin pekatu itsusirik, anima, ta gorputza loituaz egin dezun (bear duenak aditzen du, ta geiago ezta esan bear): ta onelako torpezetan zure gogoan iñor zeneukan, edo zer estadukoak: zenbat bider, edo zenbat denboran oitura ori, edo kostunbrea iduki dezun.

Ametsetan orrelakorik idukitzea deseatu dezun, edo ametsetan orrela idukiaz, gero atsegin artu dezun. Baña bestela amets gaistoetan berez pekatuak ezta.

Beste bitartekoz, iñor pekatu erakartzeko baliatu zeran, edo iñoren adiskidetasuna aurrera eramateko.

Pekatuetan aurrik ez izateko ezer egin duen: edo aurren bat, berea duela jakin, ta ukatu, ta galtzen utzi duen.

Ezkontzeko itz gezurrezkoaz, edo bestela pekatuak iñor engañatu dezun, edo nai, ta nai ez, pekatutik eragin, edo donzellarik orrela galdu dezun.

Ezkonduak Ezkontzaten zor santua, kausa gabe, edo gaitzez alkarri ukatu dioten: edo bestela Matrimonioko Sakramentuaren kontra egin duten.

Bestela, mutillak mutillakin, edo ikusi, edo eragiñaz, edo gizonak alkarrekin; neskatz edo andreak andreakin, Sodomako pekatari galduen gisa, egiten dituzten nazkagarritzko gauza; ta are geiago, aberekin orrela egiñaz, ez dira aztuko: berak lanik, kezkarik, ta arantzarik asko bakoitzari biotzean, ondo konfesatu artean emango diote.

Onelako pekatari gasioak zeruko Aitak bezala, Konfesoreak lastimaz, ta amorioz beterik artu bear ditu, ta soseguz, ta pazienziatz aditu. Ta gero esan, ta adierazo bear die alegiñaz, gaitz, ta desditxa oriek Jesu Kristoren oñetan beñ ondo esan ezkeru, betiko libre daudela.

Emen abiso, ta erregla konsuelo andiko bat. Kristau bildurti, ta lotsatia: jakizu zeruko dotrina au. Seigarrenaren kortrako pekatuak, diranak dirala, diran itsusien, ta ikaragarrienak badira ere: naiz zure aidetik urkoenakin, nola diran Aita, edo Ama, Seme, edo Alaba: naiz abere, edo animala askorekin egin badituzu ere; zure pekatu oriek berez ez tirala herejiako pekatuak. Jakizu, oriek guziak zuri barkatzeko, Erromara joankizu-

nik ez dezula. Konsola zaite triste: ortxe, zure errian, Bulda dezula, edo zeri Konfesore aprobaturik pozik, eta erraz, ondo konfesatu, ta absolbituko zaitu.

Jakizu azkenik, Konfesorea ez tala arrituko orrelako zure pekatuakin: badira oriek baño kezka geiago ematen diguten pekatuak: zure oriek erraz kentzen dira, ta sekulako aztutzen dira. Ta ala Konfesoreak, erreko balute ere, edo txikitu, ta illko balute ere, zuk ari konfesioan esanikako pekatuak, ez Inkisizioari, ez beste munduan dani sekulan ezin esango dio. Ai Konfesore Jaunak! Egia oiek guzien biotzetan ondo josirik betiko baleude! Deabruaren gezurrak sinistu, ta ainbeste anima ala galduko ez lirake!

Baldin pekatuen estadia, edo lokardan sartu, ta luzaro urte askoan amanebatu, ta jarririk bezala, zere buruarekin, edo beste askorekin egon bazera nastu, ta oitura gaistoan ondaturik; orduan zure Esamen, ta kontuak egiten txit erraz da: zenbat denbora iraun zuen pekaruko bide, edo okasioak, ta illean, edo astean zenbat ziran batz beste: egunoro, edo beti ziran, edo nola.

Zuk zure animaren kalteak, bizimodu txarra, ta pekatuen peligrak ondo ezagutu, ta borondate osoaz, ta egiazko gorrotoaz, bide orietatik iges egiteko propositu eragillea badakartzu: pekatu guziak, ta orien arantzak ondo, ta sustraietik aterako dira, zuk Konfesoreari esan, edo onek zuri galdetu, ta lagunduaz: ta onela zure anima, konfesio oso batekin beñ betiko Jaunaren pake gozo, ta amorio santuan geldituko da: ta aurrera lengo pekatu, edo gauzarik ez guziago nastu, ta erabili.

ZAZPIGARREN, TA AMARGARREN MANDAMENTUAN

Iñori ezer ostu, edo kendu diozun: zenbat, edo zer, ta zenbat aldiz: gauza sagradurik, edo leku sagraduan.

Iñori bere aziendan kalte andirik egin diozun.

Ezer ostutzen, edo kalte egiten iñori lagundu diozun: ezer estali, edo orrelakorik agindu dezun: nola, ta zenbat b. g. g. b.

Bide gaistoetatik, edo fin gaistorako iñoren ondasunik deseatu dezun: fin onetarako, ta modu onean ondasunak deseatzeko ezta pekatu mortala.

Tranparik jokoetan, tratu, artu emanetan, neurri, edo pisuetan egin dezun: zer kalte, ta nola egin dezun, edo gaizki eramana, eta zenbat bider g. g. b.

Dakizula, iñori berea kendu, edo zor diozula, biurtu, edo errestituzioa egin gabe, egon leran, edo Konfesoreak agindu, ta esan, nola asi pus-



kaka, eta egin bear dezun, ta nagitasunez kunplitu gabe, al dezula, egon zeran. Orobat beste zorrak, pagatu gabe orrela utzi dituzun.

Artzekodun justuak, langilleak, mirabe, edo serbitzariak berena kobratzeko, pagatu nai ezik, al dezula, gaizki erabili dituzun, ta zer kalte onetan egin diezun.

Seme, ta alaba, edo umeak beren gurasoai, ta lagunaren ume, edo kriaduak beren nagusiai ezer ostu dien, askotan, puskaka, edo nola, ta zenbat b. g. g. b.

Relijioan sartzea iñori eragotzi diozun, edo konseju gaistoakin atzeratu, edo orrela, enbarazatu diozun.

ZORTZIGARREN MANDAMENTUAN

Testimonio falsorik, edo gezurrez iñori altxatu diozun, edo iñoren kalte andian gezurrik esan dezun, ta nola.

Gauza jakin, edo publikoa ezjala, iñoren pekatuak agertu dezun, edo gauza pisuetan murmutatu.

Bakoitzari bere fama, edo kreditua, gaizki kendu, edo galduerazo diozun: ta bear bezala biurtu diozun, ala ez.

Sekretoko gauzarik errebelatu, edo karta bear etzanik, idiki dezun.

Juizio gaistorik, ezeri ez dagokiola, iñorentzat egin dezun.

Azkenik bakoitzak bere estadu, ta bizimoduko obligazioak jakin ondo, ta begiratu, edo esaminatu bear ditu: zertan utsegin duen jakiteko, ta obeto erremediatzeko.

Beste kulpa asko, emen ez daudenak, jakiñak dira, edo gutxitan oi diranak, ta berariaz utzi ditut: alde onetatik peligrorik ezta. Erreglarik seguruena da, duda dezun guzian, pekatutik libratzeko, Konfessore oitu, jakinsu bati beti galdetzea, au, edo ori pekatu dan, ta zer egin bear dan.

Onela Esamen zure konzienziarena, alegiñez, igaro, ta bereala Jainko-agana biur zaitez: egin dizun piedadeaz eskerrak ema izkatzu, ta zure pekatu, ta beraren ofensa guzien barkazioa eskatu esanaz biotzetik urrengo

ESAMENAREN ONDOREN ORAZIOA

O nere Jaungoiko, argi guzien Aita, ta, doai on guzien emallea. Eza-gutzen det, zure grazia dala, nik egin al dezakedan on guzia. Zuk nere anima salbatzeko deseo au eman didazu: Zuk nere pekatuak billatzeko

argia, ta arkitzeko grazia, Zuri, bada, Jauna bakarrik gloria guztia: Zuri nere biotzeko esker fin, ta kabu gabeak. Amen.

Santu, ta Aingeru guziak, ta are milla bider obeto Ama Birjiñak, ta Jesus, aren, ta Zure Semeak alaba zaitzabela orañ ta beti, niri egin didazun miseriordia andi onegatik. Amen.

BARKAZIOA ESKATZEKO ORAZIOA

Ai, nere Jainko guztiz ona, ta justua! Nere pekatuen artean sartu naiz, ta arrituta gelditu naiz. Ez dakit nondik asi, ta ez zer esan. Zure Justizia aserrearri begirutzen badiot, ta kontuetan nerekin sartzen bada; galdua naiz, Jauna; zeren nere kulpak, ta zure kontrako ofensak, konta, ta numerorik ez duten. Buruko illeak baño, ta itsasoko ondar aleak baño geiago dira, ta orien karga pisuak sekulako ondatzen nau.

Zer egin al dezaket, bada, estu onetan? Lotsaren, ta ikararen pasioz, nere ezereza ondaturik, zure Justiziatik zure Miseriordiara biurtzen naiz, ta oni nere fabore deitzen diot. Badakit, Jauna, zure Miseriordiak kaburik ezteuela, ta nere miseria guziak baño andiango dala. Bearra det, Jauna, bearra det: ta au obeto arkitzeko, Santu, ta pekatari penitente guzien damua, ta orien egiazko dolore, ta propositua orañ iduki nai nuke.

O Jaun guziz santua, pekatuari gorroto gabe ezin begiratu diozuna! Nere Jesus, zure Semeak, pekatuen kontra iduki zuen, eta Zuk, eta ark orien kontra beti dezuten, ezin esan alako gorrotoa bera, zure Justiziarri eskeñtzen diot: eta ori da zure Ontasunari dagokion pagu osoa. Ar ezazu, bada, Jauna, ofrenda andi au: ta ez nigatik, ezpada zure Seme Jesu Kristo gure Jaunagatik, Zeñen izenean eskatzen dizut.

Ez, arren, Jauna, nere kulpa andiai begiratu; baizikan aren meritu andiangoai, aren Gurutzeko negar, pena, ta amorio guztiari. An nigatik, ta niri barkatzeko, negarrez, ta deadarrez erregutu zizun: ta Zuk bere erreberenziagatik Jesus ona aditu zenduen. Indazu, bada, ondo konfesaritzeko bear dedan grazia. Amen.

Emen kezka, ta bildur guzietatik libratzeko, Aktu kontrizioko asko, Konfessorearen oñetara baño len, egin bear dituzu, modu onetan, edo urrengo



AKTU KONTRIZIOKOAK

Jauna: Zu zera nere Jaungoiko guziz Ona ta orregatik damu det biotzetik zu ofendituaz, ez geiago ofenditzeko propositu firmearrekin.

Jauna: Zu zera nere Aita guziz maitea: ta orregatik damu det biotzetik zu ofendituaz, propositu, &c.

Jauna: Zu zera nere Jabe guziz santu, ta justua: ta orregatik damu det zu ofendituaz, propositu, &c.

Ta una: Zu zera nere Ongille guziz amoroso, ta doai guzien Emalle guziz ugaria: ta orregatik biotz guztitik det damu, nere pekatuakin zu ofenditu izanaz, ez geiagoren geiago zu ofenditzeko propositu fimeaz.

O Jauna! Zu zera nere Salbadorea, ta eman nai didazu zeruko gloria! Orregatik, bada, ta zeren guztia Ona zeran, damu det, Jauna, nere pekatuaz, propositu, &c.

Ai nere pekatu zorigaistokoak! Ai sekulan egin ez banitu! Ai zer ditxa, milla bider ill baninz, nere Jaungoiko maitea ofenditu baño lenago!

Jauna: ez geiago zure ofensarik: ill bedi pekatua, bizi bedi nere Jaungoikoa. Jauna, naiago det ill, zu ofenditu baño.

Beti ondo, damu, propositu, ta frutuaz konfesatzeko, iru konsiderazio jakiñak. 1. Edozeñ Konfesoregana joatean, kontu egizu, Kalbarioko mendian Kurutzepean, Jesusen oñetan jartzen zerala. Ama Birjiñaren ondoan an arkitu baziña, zer egin, edo esango zenden? 2. Fede bizi batez sinistu: orañ Jesu Kristorekin, ta ez gizonarekin konfesatzen naiz. Bada Kristok guzia daki, ta nere pekatu guztiak: lotsaz ez utzi ezer. 3. Konfesio onetan Jainkoak, edo Aingeruak esango balizu: au zure atzeneko konfesioa da. Nola konfesatuko ziñake? Bada illzeko bezala beti konfesa zaite: esan zure kulpak garbiro, ta ez besterenak. Gero Konfesoreak zer esaten dizun, zer konsejuak, zer penitentsia ondo aditu: damuaz absolutzioa artu, ta jaiki, Jainkoari eskerrak ematera, ta komulgatzeko ondo prestatzera.

Au berau beste bere leku batean, ondo konfesatzeko, ta ondo komulgatzeko orazioakin, arkituko dezu.

KOMUNIO SAGRADUARAKO EJERZIZIOA. KOMULGATU BAÑO LENAGOKOA

Qui manducat meam carnem, & bibit meum sanguinem, habet vitam aeternam. Ioan. 6.

Nere aragia jaten duenak, ta nere odola edaten duenak, dauka betiko bizitza.

Komulgatzen danagatik au Jesu Kristok esaten du.

Ta Jesusen zeruko bizitza berri ori da Komunioaren fin, eta frutua.

ORAZIORAKO LEKU, EDO KONPOSIZIOA

Federik al dezun bizienarekin, Jesu Kristo G. Jaunari begira zaiozu Aldareko Sakramentu, edo Ostia Santan, bere gloria, argitasun, ta edertasun, zeruan Aita Eternoaren aldean duen guziaz: ta nola Ogiaren akzidentepean estalirik, ta lurreko ogia dirudien artan egiazko Ogi zerukoak guretzat gorderik dagoen, ta nola Aingeruak biribillan ikusten, ta adoratzten duten.

PETIZIO, EDO ESKARIA

Au da Jainkoari eskatzea, nere animaren gusto, ta aozapaia bere graziaz garbi dezala, Jainkozko ogi, ta zeruko janari onen gozotasun, ta suabidada artu, ta geiago zaletu dedin, gose santuaz, ta gogotik jan dezan; eta orrekin nere animak, berari jarraitzeko, bear duen indarra ar dezan, beraren borondatea gauza guzietan egiteko, ta bera bakarrik serbitzeko gogo sendo bat.

LENDABIZIKO PUNTUA

Konsideratu ondo, Komunioko Sakramentu, edo Ostia Santan nigan nor datorren. Dator Jesu Krib G. J. Jaungoiko, ta Gizon egiazkoa, Aita Eternoarekin glorian dagoena, ber bera, zeruaren, ta lurraren Jabea, ezezetik beretzat egin, ta pekatutik libratu ninduen, bera serbitzeko bizia ematen didana, ta juzgatuko nauena.

Begira ondo Jaun onen Majestade, Podore, Jakintasun, ta Ontasun kabu gabea. Emendik atera ezazu, ta bizierazo zure animako al dezun erreberentzia, ta amoriorik andiena: bada Jaun onek zuri dizun amorioaren predarik andiena ematen dizu, ta gero eman nai dizun gloriaren



gogoa erakusten dizu. Ai nere anima! Jaun au zure begiz ikusten bazendu! Zer erreberenzia, zer amorioa idukiko zifinoke? Bada begiz baño zier-toago zaude fedez, zure aurrean ori daukazula Sakramentu onetan. Onda zaite, ta akusatu zure fede argala; bada orren epel, edo otza zaude, ta ez, bear bezala, Jaun ori biotzean artzeko prestaturik.

BIGARREN PUNTUA

Konsideratu, Jaun andi ori norgana datorren. Nigana. Ta nor, edo zer naiz ni? Pekatari billau, galdu bat: argal, itsu desdixaz, maliziaz, kul-paz alde guzietatik betea: orañdaño egiñaz gañera, egunoro Jainkoaren grazia, ta miserikordiak gutxiago ezagutu, ta gaizkiago pagatzen diozkada. Milla infernu merezi nituena.

Emendik nere miseriak, ta esker gaistoak pisatu bear ditut, Jaunaren aurrean: ta baldin Zenturion Ebanjeliokoa, Jesus aren etxean sartzeko diña ez bazan: ta S. Pedrok Kristoren aurrean egoteko diña bere buruari ez bazeritzan esan zionean: «Apar zaite, Jauna nigandik, zeren gizon pekarari bat naiz ni: ta S. Jaun Bautistak Kristoren zapatako lokarria askatzeko dinatzat bere burua ez bazeukan: ta zeruko Aingeruak aren begietan garbiak arkitzen ezpadira. Ai! ta zer izango da nizaz? Zenbat gutxiago naiz ni, ta ez diña Jaun ori bera nere biotzean artzeko?

Zer esango zenduke, Errege bat ber bera ikusiko bazendu eskeko pobre bat ikustera, ta orren etxeko, edo bastertxoan orrekin egotera, sartzen dala? Arrituko zifinake, ta mirari anditzat kontatuko zenduke. Bada zenbat andiago da, Zugan zuk ikusten dezuna? Jainkoaren Majestade guttia, Gizon egiñik, ta zeruko bokadu orretan, ez zu zure etxean ikustera bakarrik, sartzeta, ezpada janari egiñik zure biotzean egoteko, ta bere bizitza zuri emateko? A! Zer dira munduko Erregeak Jaun onen aldean? Eze-rez utsa. O mirari guzien andiena!

IRUGARREN PUNTUA

Konsidetatu, Jaun au nere anima, edo biotzera zertara datorren. Errege andi batek jorndarrik egiten eztu gauza andiren bategatik ezpada. Zergatik, bada, Jainkoaren Semeak zerutik lurrera onelako jorndara egiten du? Ez alafede, bere, ezpada nere interesagatik. Nere onak, beste gabe,

dakar nigana: Nere gaitz guziak, Medikuak bezala sendatzera: nere bearrak erremediatzera nere animari graziatzeko bizi ematera: bere adiskide, ta berekin bat egitera: ni beregan besteratu, edo transformatu, ta Jainkoaren gisan jainkotu, edo endiosatzera. O gure anima, añ gutxi guk estimatzen degunaren balioa, ta estimazioa! O Jesus zeruko Errege bakar, gure animaz, gisa onetan, ta jainkozko modu miragarrian onela enamotaru, ta biotz-ukitua!

Begira ondo, bere Ebanjelioan Jesusen Biotzeko amorioak diona: Bokadu onetan, berekin batean bere bizitza, ta bere antz egin egiña eman nai digula. Ezin geiago esango du, ta ezin geiago egingo du Jainkoaren Biotz eztizko, ta amoriozko guziak. Gizonagatik Gizon egitera, zerutik lurrera, ta Birjiña Amaren sabelera, Jainkoaren Semea etortzea arrazoi andiaz deritzagu gauza miragarria: ta ala jorndara, ta erorrera onek arritu zituen zeruak, eta lurra: ta gure animak zenbat estimatzen zituen orduan ikusi zan: bada gugatik Jaungoiko gutzia Donzella baten Sabelean milagro-z, ezerez bat bezala egin, ta aurtxo txiki; ta itxi, edo enzerraturik egon-tzan. O Jainkoaren amorio paregabearen indarra.

Ta emendik zer atera bear dezu? Amorio ori bera zurekiko ezagutu, ta arrazoi andiagoaz txit arritu. Janikoak ainbeste amatzen, ta estimatzen du zure anima, non da pozik Aita Eternoaren aldetik zugana jaxxierazotzen du, ta janari, edo bokadu txiki bat egiñik dator zeruko bizi zuri ematen. O zeruak, o lurra! arri zaitezte nerekin batean! Ta amorio ezin gei-go alako au ikusi, ta lagun zadazute, nik obeto ezagutu, ta estima dezadan, ta nere anima Jaun au, bear bezala, artzeko ondo garbitu, ta humildadez, amorioz, ta beste birtuteaz alegiñaz apaindu dezadan.

KOLOKIO, EDO ATZENEKO IZKERA

Au izango da Jesus maiteari bere begien aurrean ipintzea, berari ondo dagokion bezala, zure biotzean bera artzeko bear dezun modu, ta prestaera onena. Ai, Jesus ona! esaiozu: Lurreko Jaun edo Errege batek bere biajean erri txiki batean sartu, ta gelditu bear duenean, lenago bere jendeak bialtzen ditu, bear dan guziarekin, edo errekamara, Jaun ari dagokion bezala ostatu prestatzeko.

Ta, bada, Zuk Errege guzien Errege zerukoak, jorndara onetan nere animako ostatu, edo baster pobre onetara etorri bear dezu: Betor bada, Jauna, aurrera bial ezazu zure prestatatzallea. Au da zure Espiritu Santua



bere zazpi doaiakin, ostatu, edo anima au, zuri dagokizun bezala ondo prestatu, ta ederki apaindu dezan.

Betor Espiritu ori bere bildurtasun santuaren doaiatz nere anima betetzera, fede bizi batez nere pekatuak ezagutu, damuz, ta humildadez diranak kendu, ta erreberenziaz garbitu, ta bete nazan: esperanza firmeaz sendotu nazan: nere salbazioaren, ta zuk agindu didazun gloriaren prenda, ta señaile segurua zure Sakramentuan artu dezadan: Amorio irazaki bat, beste zuk naiien dituzun birtuteakin, Zu nere biotzean artzeko presta nadin. Amen.

KOMUNIO EZKEROKO EJERZIZIOA

Qui manducat meam carnem, & bibit meum sanguinem; in me manet, & Ego in illa Ioan. 6.

Nere Gorputza jaten duena, ta nere Odola edaten duena, dago nigan, ta Ni argan.

Au komulgatzen danagatik dio Jesu Kristok: ta ondo komulgatzen danaren frutua au da.

LEKU EGITEA, EDO KONPOSIZIOA

Zure biotzari, Jainkozko Sagrario bati bezala, begira zaiozu, Aingeruz biribillan betea, ta oiek beren Jauna adoratzan daudela, zure biotzeko ostatuan dakustela: ta nola erleak beren abaraska, edo Panal eztizkora! ala oiek beren gozo guztira, zeña zure biotzeko kortxuan daukaten, datozela.

PETIZIO, EDO ESKARIA

Au izango da, Jesu Kristo G. Iri grazia eskatzea, beraren Gorpuz txit preziosoa, nere biotzean daukadan denbora onetan (au da Ostia Santa desegin artean, edo Espezie Sakramentalak estomagoan dirauten bitartean) nere animaren begiak beragandik aparta ez ditezen, ta nere biotzeko deseo, ta afekto guziak beraganon izan ditean: eta ongi etorri añ ona nik egin diozadala, non da bere bendizio, ta doai bearren dedana, berak obeto dakien, ta naiien duen bezala, eman dizadan, berekin bat egin, ta beraren borondatea beti dagidan.

LENDABIZIKO PUNTUA

Fede bizi batekin konideratu, nola Jaun andi ura bera zure barrenean daukazun, zeña Ama Birjiñak bere Sabel garbian bederatz illabetean iduki, ta Belengo Portalean jaio, ta abereen Pesebre, edo majaderan ezarri zuen, esaten ziola: «Ongi etorria zerala, nere Jainko, ta Jaun, ta nere Seme maitea, ta mundu galduaren erremedioa! An Aur txiki, ta Jainko andi au bere biotzeko amorio guztiaz adoratu zuen. Zuk ere, bada, ori bera egizu, ta zure biotzean daukazun Jesus maitea adoratu, ta ama ezazu.

2a. Konideratu nola zurekin daukazun, Simeon agure Santuak bere besoetan artu, ta txit gozotoro iduki zuen Jesus munduaren Salbadorea: begira zeñ fede bizi az adoratu zuen, ta esperanza, ta amorioz beterik nola esan zion: Ea, asko da Jauna: Zu ikustea baizen nai ez nuen: Munduaren Argi ederra, ikusi zaitut; orañ ill nai det: pakean ar ezazu nere anima.



Pensezazu ondo, zer afekto miragarriak Ama Birjiñari bere biotzean eragingo ziozkan: ta orobat Simeon Santuari. Ori bera Jesus aurtxo gozok Artzai ditxosoetan, Iru Errege, ta beste bera ikusi, ta adoratu zuenen biotzetan egin zuen. Zer fede, zer errebetenzia, zer amorio irazakia orienal! Zer bendizio, zer doaiak, zer mesedeak egin, ta emango ziesten!

Oriek guziok zuri eman, ta egin nai dizkizu. Baña ai! Nola ondo prestatzen etzeran: Nola aiek bezalako ongietorria zure Jabe bakar, Jesus onari egiten ez diozun: berarekin gutxi tratatu, ta gaizki jardunaz: ta ainbeste bider, ta añ erraz edozeñ gauzogatik zure Jaun ori utzi, ta aztuaz: orregatik zeruko doai, añ ugari Jaun onek eman nai dizkitzunak, artzen ez dituzu. Ea, bada: egin gaurko egunetik propositu firme asko, zure bizitza emendatzeko: emendik aurrera geiagotan, ta obeto komulgatzeko: Jaun andi amoroso au zure biotzean artuaz, trokatu zaitean Kristau berri, justu, ta Santu batean.

BIGARREN PUNTUA, KOLOKIOAREN GISAN

Konsideratu, nere Animak, eri triste baten gisa dagoela, Jainkozko erremedio bat, zeruko bokadu onetan artzen duela: ta Mediki amoroso Jesu Kristo, bere podore, jakintasun, ta ontasun guziaz, Anima gaitz guzietatik libratu, ta egiazko osasuna, ta zeruko bizitza ematera datorkiola.

Ai nere Jesus ona! Zuk dakizu, nik baño ere obeto, nere gaitz, ta miseria guzien berri. Ona, ikusi ezazu nere barren guzia, ta zer kalteak pekatuen pozoiak egin dizkidan: nola galdu, ta eriotzara, ta infernura onelako biziok, ta alako pasio txarrak naraman: Ona nere soberbia, ta orren lagun, ta ondorengoak, nere itsutasuna, otz, edo epeltasuna, ta obra on guzirako argaltasuna.

Zu zera bokadu onetan guzien erremedio, ta birtutea. Indazu, bada Jauna, etorrera onetan zure grazia nere pekatu guzien gorroto, damu, ta proposituarekin. Indazu argia ondo ikusteko, ta zure biotzeko sua, diranak or erre, ta akabatzeko. Zu, grazia, ta bizitzaren ibaia zera: busti, ta irri-gabia ezazu nere animako lur leor, ta gogor au, zeruko frutuak aurrera eman ditzan.

Zu, nere Jaungoikoa, munduaren Jabe bakarra zera: izan zaite ordu onean: ona Gaztelu onen giltzak, orra nere borondate, ta biotzeko afekto guziak. Zu zera Maisua erakatsi zadazu zeruko bidea, ta zure ondoren beti ibiltzen. Zu zera Arkume txit mansoa: arren lotu itzatzu nere soberbia,

ira, aserre, ta bizitasunak. Zu zera Leoi indarsua: indazu, bada, Jauna, zure birtute, ta sendotasuna, demonio, mundu, ta aragiaren kontra pelezteko.

Zu zera Artzai ona: zure dei gozoa aditu, ta zugana erakarri nazazu, zeruko lurtean zure ondoren nabillen. Zu zera anima garbien Esposo maitea: kulpa guzien mantxak nere animatik kendu, ta zure pakezko, ta amoriozko laztana, ta zure Espirituaren gozo santua indazu. Zu zera nere Aita, ta Guraso guztien onena: ona, bada, Aita Amoroso, egiazko Aitarik onera, ona non zugana biurtzen naizan. Ai Jauna! Seme, edo alaba galdu bat orañdaño izan banaiz: emendik aurrera zure ume fiel, humilla, ta garbia nai det izan: zure etxean, zure pake, amorio, ta grazian ar nazazu betiko. Amen.

IRUGARREN PUNTUA. SANTA ISABEL-EN BISITAZIOAREN GAÑEAN

Konsideratu, nola Santa Isabelen etxean sartu zanean Jesu Kristo G. J. bere Ama Birjiña txit Santaren sabelean enzerraturik bazegoen ere, etxea, ta etxeokak zeruko bendizioz bete zituen. S. Juan Amaren entrañetan zegoen aurtxoa, pekatutik libratu, ta Jainkoaren graziaz bete zuen: ta aurra, ta bere Ama espirituko gozo andi batez, ta Profeziazko doaiez janzi zituen: ta Santa Isabel humillak orduan esan zuen: «Nondik onelako ditxa niri, nere Jaunaren Ama nigana etortzea?».

Fede bizi batez begirezazu, nola Jesu Kristo G.J. berbera egiaz, bere Personan zugana orañ etorri, ta Ostia Santan artu dezun. Nola orduan, ta beti bezeñ poderosoa dan orañ zure animan ontzi garbia bezala prest balego, bere doai, ta graziak isurtzeko, ta zu betezeko. A! Ori nai du, ta ez besterik Jaun onek! Eska zaiozu, bada zure kulpen mantxa ori eragozten dutenak berak kendu, ta zure biotzeko ontzia garbi garbi utzi dezala, emendik aurrera zeruko ur graziazkoa bere iturri onetan obeto artzeko, ta Jaun onen borondate santua zure obra, ta asnase guzietan egiteko.

Beste aldetik Santa Isabelak bezala, ta arritu, ta fede humill batez esaiozu: Nondik onelako ditxa niri, nere Jaungoikoa bera nigana etortzea? Nigana, pekatari galdu billau bat ni izanik? Nigana, añ lege, ta esker gais-tokoa ni izanik? Nigana Jaun andi, ta Majestade guztikoa? Nondik onelako faborea niri? Nere merezimentuakgatik ote da? Ez egieki; ezpada bere Ontasun andiagatik. O bedeikatua izan dedilla Jaun onen karidadea; bada ni ikustera, ta bisita onekin erregalatzera etorri nai izan du! Nola pagatu-



ko diot onra, ta mesede esan al baño andiago au? Nola? Ondo, ta askotan komulgatu, ta orantxe bezala soseguz, ta debozioz graziak, edo eskerak emanaz, ta aurrerako berak nai en dituen mesede, ta faboreak biziro eskatuaz.

LAUGARREN PUNTUA.

JAKOB SANTUAREN BENDIZIOAREN, TA BESTE ORRELAKOEN GAÑEAN

Konsideratu, Jakob Patriarka Santuak gau guzian bere orazioan Jaunaren Aingeruarekin, edo askok dionez, Jainkoaren semearekin, lutxa, edo pelea igaro, ta nola esan zion: «Ez Jauna, joaten utziko ez dizut, zure bendizioa lenago ematen ez badidazu». Onela, bada, nik ere, komulgatzen naizan guzian egin bear det: Jesus maitearen oñetan nere burua bota, ta humildade, reberenzia, ta amorio guziaz eldu, ta itseki, ta estu estu artu bear det: ez, Jauna, nere biotzetik joan bear eztu, bere bendizio guzia niri eman gabe. Ea, Jauna: badaki zer bearren dedan: betor egiazko, bere antzeko, ta biotzeko humildadea: betor trabajuetan pazienza, karidadea, &c.

Modu onetan, Esposa santaren konfianza, ta amorioaz baliatu, ta esango diot: Ea, nere Jaun, ta Jabe maitea: ona non dedan, nik bear nuen, ta nai nuen guzia. Zu zera, Jesus ona, nere guztia: emen eldu, ta nere egin, ta zaukatzit, ta ez ditut utziko, nere anima zure birtutez, ta doaiez bete artean. Indazu, bada, zuk nai dezun, ta agintzen didazun guztia, ta agindu zadazu nai dezun guzia.

Edo ta Kristoren Diszipuloakin Emaus-ko bidean esan diozaket: Gera zaitte, Jauna, gurekin, zeren ya berandu da. Jauna, ez nigandik joan: emen zaude, zure graziaz ni beti animatzen: ez ni beñiere utzi, zu gabe galdu ez nadin. Bearrago zaitut, orañ jauna, zeren nere biziaren eguna akabatzen da, ta nere eriotza ya dator. Orañ, ta beti zu bear zaitut, ta zu bakarrik nai zaitut, zeren zu nere Zorion guzia zeran.

BOSTGARREN PUNTUA.

LAPUR ONAREN GURUTZEKO ERREGUAREN GAÑEAN

Gogora ekartzu, Lapur ditxoso Gurutzean Jesus ona ezagutu ta beragana biurtu zanak nola esan zion: «Zure zeruko Erreinoan, akorda zaitte, Jauna, nizaz». Begira ondo, komulgatu, ta orañ zure animan daukazu Jaun ori bera, zeruan dagoen Jainkoaren Semea dala: ta an, orañ or zure barrenan bezala, Aingeru guziak beti adoratzten, ta alabatzen dutela. Begira, zer Bitarteko, zer Abogadu andia zeruan Aita Eternoari erregutzeko daukazun: ta nola bere zeruko Erreino, ta gloria bizi artara eraman nai zaituen. Au Jaun oni nola pagatuko diozu? Ara nola: Jainkoaren lege, ta borondatean firme egonaz, ta onen esanak egiñaz: bidezkoa, ta zerurakoa bezala ondo bizi. Eskatu bada, ondo bizi, ta ondo iltzeko bear dezun guzia.

Komunioa ezkeroko beste Orazioak, ta Jaunari graziak emateko, ta eskatzeko berariatzko modua, beste bere lekuan, Ejerzizioetan arkituko dituzu.



EJERZIZIO OIEN GAÑEKO SENTENZIAK, EDO KOPLAK

Azkenean, emen esan diran Ejerzizio ta egia oien gañeko koplak, edo desengañuak datoz, guzia zure biotzean obeto, ta betiko jositzeko.

GURE AZKENEKO FINAREN GAÑEAN Endetxak, edo Adiak

Pensa ezazu ondo
Zein dan zure fiña,
bizitzari emateko
asiera on bat.

Eztira zure fiña
munduko atsegiñak,
fin bat altuagoa
eman zizun Jaunak.

Serbitzea oraiñ bera,
gero gozatzea,
auxen da gauza hura
bakar, ta bearra.

Memoria, entendimentu,
ta borondatea,
zeiñ izan da Oraiño
zuen jarduera?

A! Zeruaz azturik
bizi izan gera,
munduari jarraizen
guk gere atsegiña!

Eguzkia dijoa
aurrera bidean,
zeña eman izan zion
bere egileak.

Oro bat Illargia
Zeru eder orretan,
beti azi, ta beratut
ilberri, ilberetan.

Goiz, ta arrats inguruan
oi dabiltz zeruak
atseden artu gabe
Kreaziotikan.

Lan au, ta ez besterik
da eman zien lana,
lan au, ta ez besterik
da egiten dutena.

Gizona, egin ezazu
zure zer egiña,
bestela utsak dira
zure alegiñak.

Mundua, ta ondasuna
Zuk irabazteak
zer balioko dizu
galdurik anima?

Zerua bear dezu
billatu Kristaba:
hura galdu ezker
guztia galdu da.



PEKATU MORTALA

Launakoak

Nork kendu zien itxura
Aingeru eder askori,
Zein ta egiñik illiti
jaitsi zan infernura.

Pensamentu batekin
Luziferren soberbiak,
ta lagunen goiteriak
aldanza au zuen egiñ.

Adan, zuk esadazu,
nola paradisuan
sagar bokadu bat jan,
ta egin dezu bekatu?

Zer irabazten dezu
gusto ori artuarekin?
Bokadu samiñ orrekiñ
guzia galdu dezu.

Galdu dituzu Semeak,
eta zere burua,
galdu dezu zerua,
eta irabazi nekeak.

Bekatu onen jatorriak
dira eriotza desterrua,
otz, bero, gerra, ta sua,
munduko gose, egarriak.

Esadazu zergatik
Noeren ontzi artan
guztiz salbatu etziran
zortzi persona baizik?

Kalte oek guziak
ainbeste, ta aiñ andi,
mundu onetan dakazki
Adanen bekatuak.

Nola farra, nola [...] gizonak egiten du,
eta atsegin artzen du
bekatuan badago?

Esna zaitte lo orretatik
arnasa baizik ez gera,
gaur bearbada illko zera,
eta infernura bertatik.

Infernuan daude asko
bekatu bategatik,
eta anbat zuk egiñik,
etzera bildurtuko?

ERIOTZARI

Soñu moldea

Jesus ona,
zeure eriotzagatik
eriotza on bat indazu;
baña eriotza ona izateko
bizitza nai det mudatu.

Gau, ta egun
dakardan beti gogoan
nere azkeneko eguna,
izan eztediñ gero negarra
betiko nere laguna.



Nola Arrosa
udaberriko goizean
bazaude ere ederrik,
bazeradezke bai, gazte zoroa,
arratserako igarturik.

Eriotza
etorriko da ixillik
noiz eztakidan orduan
lotan arkitzen banau galdu naiz
iratzarririk nagoan.

Igitaiak
nola belarrak zelaian,
eriotzaren kodeñak
txiki, ta andi ebaten ditu
aberats, ta pobreak.

Erregerik
izan diran andienak
etziraden gelditu emen,
lurra besterik etziran, eta
autsetan biurtu ziraden.

JUIZIO PARTIKULARARI

Euskera

Azkengo arnase eman, ta
urreneko instantean
juzgatua izango zera
Jaungoikoaren aurrean.

Tribunala ipiñiko da
benturaz oe orretan,
zeñean lotan zeundela
illik gelditu zinan.

Oe orretan, non bearbada
beñ baño geiogotan
erori izandu zerade
pekatu itsusi askotan.

Jesu Kristo etorriko da
zurj kontu artzera;
zer egiñ al dezakezu
gazki bizi batzera?

Jaungoikoa zere kontra,
zere kontra Aingerua,
konzienzia ere kontra,
zere kontra deabrua.

Norgana biurtuko zera
ordu artan, Kristaba?
arren oraiñ ar ezazu
beste bizimodu bat.

GORPUTZ ILLARI

Lenendekoan

Arri batek
sekulako estaltzen du
izenik dan andiena,
mundu eroak emen ainbeste
estimatu oi duena.

Aberatsa,
zeure diruak non dira?
Zer daramazu mundutik?
Estalki zar bat, eta ez geiago.
nere ondasunak utzirik.



Gero egiñ
 izan nai zendukeana
 bereala egiñ ezazu,
 zerren ill ezkeroko negarrak
 ezer balioko eztizu.

Zertako da
 oraiñ egitea gero
 damutu bearko zatzuna,
 eztakizula, artzeko damu
 emango zaitzun denbora.

Lagunen bat
 ondo zenduke, Gizona,
 eternidaderako bidean,
 bada obra onak egiñ itzazu
 bizi ziraden artean.

O betiko
 bizi bearren luzea
 glorian, edo penetan!
 ai: ta suerte biok daudela
 instante baten mendean.

INFERNUA

Amarnakoak

Nai ezpadezu ill ezkeru,
 infernura zuk jaitsi,
 jaitsi zaite bertati,
 bizi zeradela gero
 etxe eztu, illun, ta bero,
 karzela betiko artan,
 sartu ziñan lekuan
 beti egon bearko dezu:
 orduan esango dezu,
 belu damuturikan:

Jaungoikoaren legea
 nola ez nuen nik gorde,
 ta artu nuen aren orde,
 pekaturako bidea?
 O nere doakabea!
 diozu zuk negarrez:
 zer dago emen? onik ez;
 on guztiaz an zeruan,
 arkitzen naiz infernuan
 su bizian dolorez.

O madarika dedilla
 jaio ninzan eguna,
 ta artu nuen laguna
 ibilltzeko gusto billa!
 bizirik nago, ta illa
 sekulan ez iltzeko,
 illik banengo, obeto
 nengoke; baña iñoiz ere
 ezta kunplituko nere
 naia atsekabera.

O sekulako sua!
 O! O eternidadea!
 Jaunak beti lutzazea
 bere beso, ta eskua!
 O zeñ gauza pisua
 instante baten gozatu
 beti, ta beti penatu,
 ta erremedio gabe!
 Nola bizi gerade?
 Emeti aurrera kontu.



AZKEN JUIZIOA

Euskera

Ez ikusteagatik,
Juizioko eguna,
Justuena balegoke
infernuan sartua.

Jeronirno batek beti
belarrian zedukan
juizioko Tronpetaren
ots ikaragarri hura.

Illak illak biztu zaitzite,
eta goazen kontura;
edo zerura betiko,
edo ezpada infernura,

Izan diradenak, geran,
eta izango diranak,
guztiok batuko gera
Josafatko ibarrean.

Zeruko Santu, ta Santa,
Aingeru on, ta gaiztoak,
Adanetik arañoko
Gizon, ta emakumeak.

Biotzaren barreneko
pensamentu estaliak
an salatuko dirade
guztiok danzugula.

Baita Justuen obra on,
penitentzia, barauak,
diziplina, zilizio
ezkutuan egiñak:

O! oiek zer poz andia
O! aiek zer damua!
Aiek zerua betiko,
oiek betiko sua.

Zer sententzia nai dezun
egun artan Kristaba?
gero nai zendukeana,
daukazu oraiñ eskuan.

LAUS DEO

